



NAFARROAKO  
**Aldizkari Ofiziala**

2010. urtea

39. zenbakia

# Astelehena, martxoaren 29a

A U R K I B I D E A

ORRIALDEA

ORRIALDEA

## 1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

### 1.1. XEDAPEN OROKORRAK

#### 1.1.3. Foru Aginduak

- 20/2010 FORU AGINDUA, otsailaren 22koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatu beharreko ondasun higiezinak baloratzeko arau tekniko orokorrak onesten dituena.

4245

### 1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

#### 1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

- 640/2010 EBAZPENA, martxoaren 8koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, zenbait izangai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako funtzionario izendatzen dituena, Laborategiko laguntzaile teknikoan (herri lanak) lanetan aritzeko, eta lanpostuak esleitzen dizkiena.
- 641/2010 EBAZPENA, martxoaren 8koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko lan bidezko terapeuta izateko 7 lanpostu huts lekualdatze lehiaketara bidez betetzeko prozedura bukatzen duena.

4255

4256

#### 1.2.2. Oposizioak eta lehiaketak. Lan publikoaren eskaintza

- DEIALDIA, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak maiatzaren 12an emandako 51/2010 Ebazpenaren bidez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko unibertsitateko erdi

mailako tituludun (Laneko Arriskuen Prebentzioa) izateko hiru lanpostu oposizio bidez betetzeko.

4256

### 1.3. LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA

- ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2010eko martxoaren 15ean hartua, "El Cerro de Valpertunan etxebizitzak eta 18 zuloko golf zelaia egiteko jarduketara eta Los Pinos sektorean etxebizitzak egiteko jarduketara" Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeko espedientearen tramitazioa hasten duena. AR-1 Cerro Valpertuna izeneko konpentsazio batzordeak sustatu du El Cerro sektoreko antolamenduari eta urbanizazio faseei buruz, besteak beste.

4261

### 1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

- 89/2010 FORU AGINDUA, otsailaren 25ekoa, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak emana. Horren bidez onesten da Nafarroako ehiza barrutiatarako ehiza aprobetxamenduaren titularrei diru-laguntzak emateko deialdia, baldin eta ehiza espezieek nekazaritzan egindako kalteen erantzule badira, Nafarroan ehizarako basa faunak egiten dituen kalteei aurre egiteko.
- 102/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 5ekoa, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak emana, 2010eko deialdia onesten duena erlezaintzako produktuen ekoizpena eta merkaturatzea hobetzeko jarduerak sustatzen dituzten laguntzetarako, Erlezaintzari Laguntzeko Neurrien 2008-2010 hirurteko Programa Nazionalaren barnean.
- 110/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 9koa, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean bertako abere arrazen

4263

4266

## ORRIALDEA

## ORRIALDEA

produkzio sistemak araubide estentsiboetan bultzatzeko laguntzetarako deialdia onesten duena, 2010. urterako.	4266	tako "Elizondoko plaza urbanizatzea Jaime Urrutia karrikaren eta Santiago karrikaren artean" izeneko proiektuko lanek ukitutako ondasun eta eskubideen okupazioa presakoa dela adierazten duena, nahitaez desjabetzeko.	4276
- 113/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 10ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak ezarri eta 2010. urteko deialdia onesten duena.	4266	- 1080/2010 EBAZPENA, martxoaren 11koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioek kidego horretan espezialitate berriak eskuratzeko prozeduraren deialdia onesten duena.	4276
- 114/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 12koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nafarroan egiten diren abeltzaintzako saneamendu kanpainetan azienda mugitzeko debekuaren edo osasun arrazoiengatik ustiatagia hustu beharraren ondorioz abeltzaintzako ustiatagiei laguntzak emateko 2010. urteko deialdia onesten duena.	4273	- LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA. Enpresa Zientzietako diplomadunen 11 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia. Gora jotzeko errekurtsioak.	4279
- 117/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 12koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, kalitate bereziaren ikurra duten nekazaritzako elikagai babestuak sustatzeko elkarteak eta kontseilu arauemaileak sortu, indartu eta garatzeko laguntzak emateko 2010eko ekitaldirako deialdia onesten duena.	4274	- LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA. Gora jotzeko errekurtsioak, 10 telefonista lanpostu betetzeko bigarren ariketako behin betiko emaitzen aurka.	4279
<b>1.7. BESTELAKOAK</b>		- EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA. Jarduera Ekonomikoen Erregistroa jendaurrean jartzea.	4279
- ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2010eko martxoaren 15ean hartua, Nafarroako Foru Komunitateko Azpiegituren Lurralde Plana, "Neo-Sky 2002, S.A.k" aurkeztua, jendaurrean jartzeko eta, aldi berean, ukitutako udalari entzunaldia emateko tramiteei hasiera ematen diena.	4274	- OSASUN DEPARTAMENTUA. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua. Gora jotzeko errekurtsioak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Farmazia Hospitalarioko BFEko 4 lanpostu betetzeko behin betiko emaitzen aurka.	4279
- ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2010eko martxoaren 15ean hartua, Nafarroako Gobernuak 2010eko otsailaren 8an hartutako Erabakia ezeztatzen duena, egindako akatsak zuzentzeko. Horrekin batera, Etxalarko usategiak interes kultureleko ondasun deklaritzen dira berriz ere, kultur paisaiaren kategorian. Ondasuna Etxalarren dago (Nafarroa).	4275	<b>2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA</b>	
- ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2010eko martxoaren 15ean hartua, Baztango Udalak sustatu-		<b>2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA</b>	4280
		<b>2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK</b>	4280
		<b>3. ESTATUKO ADMINISTRAZIOA</b>	4320
		<b>4. PROZEDURA JUDIZIALAK</b>	4322
		<b>6. BESTELAKO IRAGARKIAK</b>	4324
		<b>6.1. JAKINARAZPEN EDIKTUAK</b>	4324
		<b>6.2. PARTIKULARREN IRAGARKIAK</b>	4330

# 1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

## 1.1. XEDAPEN OROKORRAK

### 1.1.3. Foru Aginduak

#### **20/2010 FORU AGINDUA, otsailaren 22koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatu beharreko ondasun higiezinak baloratzeko arau tekniko orokorrak onesten dituena.**

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 2. artikulua haxe ezartzen du: "Lurralde Aberastasunaren Erregistroa Nafarroako Zerga Ogasunaren menpeko administrazio erregistro bat da, eta Nafarroako ondasun higiezinaren inbentario iraunkor eta eguneratua, foru lege honetan finkatutako moduan". Horrez gain, foru lege horren 1. eta 2. artikuluetan mugatutako eginkizunak gauzatzen ditu.

12/2006 Foru Legearen 3. artikuluan arabera, Nafarroa kokatutako ondasun higiezinak identifikatu eta beren ezaugarriak emateko beharrezkoak diren datuez osatuko da Lurralde Aberastasunaren Erregistroa, eta datu horietan erregistroko balioak, besteak beste, azalduko dira. Azken horiek lege horren 21.1 artikuluan definitzen dira: Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatutako ondasun higiezinaren balioak edo erregistroko balioak katastroko balioak zehazteko erabiltzen dira, eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta udalek beren eginkizun publikoak betetzeko egin behar dituzten jarduketarako erreferentzia izanen dira. Lege testu horren 22.3 artikuluan arabera, indarra duen balorazio ponentzia aplikatuko da ondasun higiezin bati balio berri bat emateko, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan une horretan ondasunari buruz bilduta dauden ezaugarriak kontuan harturik; horretan salbuespen izanen da ondasun bereziei eta administrazio boko mugatutako balioa duten ondasunei buruz xedatutakoa. Eta manu horretan ageri da, halaber, indarra duen balorazio ponentzia lege beraren 34.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz aplikatuko dela. Manu horrek xedatzen du balorazio ponentziak ondasun bakoitzari aplikatu beharreko balorazio metodoa zehaztuko duela eta balorazioko parametroak ezarriko dituela. Horrek berarekin dakar administrazio jarduketara horiek arauaren 23.1 artikulua aipatzen dituen baloraziorako arau tekniko orokorretan xedatutakoarekin bat etortzea. Manuak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari esleitzen dio ondasun higiezinak baloratzeko arau orokorrak onestea, ondasun higieziari aplikatu behar zaizkien balorazio metodoak Nafarroa osoan berberak izate aldera.

12/2006 Foru Legearen 24. artikulua ondasun higiezinak baloratzeko aplikatzen ahal diren balorazio metodoak aipatzen ditu banan-banan. Alde batetik, eredu estatistikoak erabiliz merkaturako balioarekin konparatzeko metodoaren bitartez baloratzeko eta, beste aldetik, bigarren idatz-zatian aipatutako metodo analitikoak bereizten ditu; azken horiei dagokienez, hirugarren idatz-zatian haxe ezartzen da: metodoetako bat baino gehiago aplikatzen ahal denean, balio handiena ematen duena erabiliko da.

Foru legearen 34.2 artikulua honako hau dio: balorazio ponentziak hirigintzako plan indardunei eta "balorazioak egiteko xedapen orokorrei" jarraikiz prestatuko dira. Xedapen horiek legearen 23. artikuluan aipatzen dira. Artikulu horren lehenengo idatz-zatia Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren ondasun higiezinak baloratzeko arau orokorrei buruzkoa da. Benetako xedapen orokorrak dira, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak onesten dituenak, ondasun higieziari aplikatu behar zaizkien balorazio metodoak Nafarroa osoan berberak izate aldera. Bigarren idatz-zatiak, berriz, haxe ezartzen du: zuzendari kudeatzaileak ebazpen bidez baloraziorako onetsitako parametro orokorrak dira; zentzu zabalean oro har aplikatzeko xedapentzat jotzen ahal diren arren, ez dute erregelamenduzko maila zorrotzik. Parametro horiei dagokienez, baloratzeko elementu osagarri eta zehatzak dira: eredu estatistikoak, koefizienteak, taulak, modulak eta tasak. Laburbilduz, baloratzeko beharrezko baliabideak edo elementuak dira, higiezin bati balio zehatza esleitzeko oro har edo modu zabalean erabili behar direnak, baina balio hori esleitzeko metodologia edo prozedura arautzeko jarraibiderik ez dutenak. Parametro horiek bigarren idatz-zatian aipatutako zerrenda irekian azaltzen dira; hala ere, legearen 34.1 artikulua beste parametro batzuk erabiltzeko aukera ezartzen du.

Irailearen 22ko 100/2008 Foru Dekretuak onetsitako erregelamenduaren 23. artikuluan adierazitako arlo horren erregelamenduzko garapenean zehaztu da zein izan behar den 12/2006 Foru Legearen 23.1 artikuluan aipatutako balorazioko arau tekniko orokorren araudi trinkotasuna. Era berean, horrek adierazten du lege horren I. tituluan III. kapituluaren ezarritako balorazio metodoak eta balorazio kontzeptuak garatu beharko dituztela, eta horiek aztertu beharko dituzten kontu batzuk, besteak beste, deskribatu edo aipatzen ditu. Zehazki, 12/2006 Foru Legearen 23.2 artikuluan biltzen

ez diren parametroak jaso behar ditu, lege testu bereko 34.1 artikulua aipatzen baititu.

Horrez gain, nabarmendu behar da ondasun higiezinak identifikatu eta haren ezaugarriak zehaztu behar direla, hau da, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan horri buruz idatzi beharreko ezaugarriak deskribatu behar dira, araudi tekniko orokorren arabera baloratu ahal izateko. Beraz, ondasun higiezinaren ezaugarriak zabal edo kolektiboki zehazteko arauak (ezaugarriak zehazteko sistemak) onetsi behar dira, balorazioko arauak aplikatu aurretik. Gaur egun ezaugarriak zehazteko araudi hori aipatu erregelamenduaren atariko tituluan agertzen da, eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren foru aginduaren proiektuan garatzen, bertan Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatzen ahal diren eraikuntzen ezaugarriak zehazteko zenbait sistema onesten baitira.

Beraz, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan agertzen diren ondasun higiezinak baloratzeko behar den araudia bi multzotan banatuta dago: ondasun higiezin baten ezaugarriak zehazteko modua xedatzen duen araudia (ezaugarriak zehazteko sistemak) eta foru agindu honen bidez onesten diren balorazioko arau teknikoak. Horrela, argiago dago arautzen den objektua, eta haren ezagutza zehatzagoa eskaintzen zaie ukitutako herritarrei eta, horrenbestez, segurtasun juridiko handiagoa.

Zenbait balorazio eredu edo parametro hartzeko edo Lurralde Aberastasunaren Erregistroko higiezinaren unitatei aplikatzeko –hautaketa horrek berarekin dakarren askatasun tartearrekin batera–, arauak zehaztu beharko dute aurretik; araudi horrek jarduketa horiek sortzeko aukera eman beharko du. Alde horretatik, 12/2006 Foru Legearen 24. artikulua balorazio metodoak aplikatzeko irizpide batzuk ezarri ditu jada. Orain bidezkoa da determinazio horiek osatzea, balorazio irizpide edo jarraibide objektiboak eskaintzen dituzten arau tekniko egokiak emanez. "Higiezinaren burbuila" izeneko fenomenoaren ondoren higiezinaren merkaturak berritoki egokitu behar denez eta etxebizitza, erabiltzeko elementua izan beharrean, inbertitzeko elementua izatea ekarri duten merkaturako prezioak desitxuratu direnez, bereziki garrantzitsua da une hauetan foru lege horren 24.2 artikulua aipatzen dituen balorazio metodo analitikoaren aplikaziorako jarraibideak ematea, ondasun higiezin baten balioa "gainprezio" nabarmena dakarrena izan ez dadin. Horregatik guztiagatik, katastroko balio proportzionatua eta zentzuzkoa eskuratzeko metodori egokiena aplikatzeko erabilgarria arreta handiz zehazten saiatu behar da. Ildo horri jarraikiz, araudi teknikoak onestearen ondorioz ondasun higiezinaren balioa justifikaziorik gabe gehitzea eragotzi nahi da. Hori dela eta, aurreko balorazio arauditik nabarmen urruntzen ez den araudia garatzearen alde egin da, indarreko arau esparruak eskatutako garapenak gehitu behar baditu ere, logikoa denez. Nolanahi ere, adierazi behar da balorazio ponentzia berrikustearen ondorioz kolektiboki hartutako balioen balizko edozein gehiegikeria modulatzeko ahal dela, udalaren zerga bilketarako, 12/2006 Foru Legearen 21.8 artikulua aipatu bezala zerga xedea duten balio edo katastroko balio bihurtu ondoren. Horiek modulatzeko ahalak dira, bai udal bakoitzak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 139.2 artikuluan ezarritako tartearren barrenean zerga tasak ezarri, bai lege horren 138. artikuluan ezarritako zerga-oinarria murrizteko mekanismoaren bidez ere.

12/2006 Foru Legearen 23.1 artikuluan eta hura garatzen duen erregelamenduaren 23. artikuluan ezarritakoa betez, foru agindu honen eranskinean bildutako arau teknikoek Hirilurraren gaineko Kontribuzioa ordainarazteko Erregelamenduari buruzko urriaren 10eko 216/1984 Foru Dekretuaren eranskinean eta Katastroko balioak eguneratzeko eraikuntzen ereduak balioen taulak onesten dituen azaroaren 18ko 268/1988 Foru Dekretuaren (216/1984 Foru Dekretuaren arau teknikoari buruzko eranskinearen 2.2 atala indargabetzen du) adierazten den araudi zatikatua ordeztuko dute, 100/2008 Foru Dekretuaren xedapen indargabetzaileak eta hirugarren xedapen iragankorrak ezarri bezala.

Eranskinean ageri den araudiak lau kapitulu ditu.

Lehen kapituluaren helburua ondasun higiezinaren balioa zehaztea da, aplikazio esparrua eta erregistroko balioak finkatzeko prozedura araututa eta horiek ulertzeko behar diren definizioak ezarrita.

Bigarren kapituluak Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak onetsi behar dituen balorazioko parametro orokorren izaera zehaztu eta adierazten du, 12/2006 Foru Legearen 23.2 artikuluan zerrenda nominalean aipatzen diren aldean.

Hirugarren kapituluak zehazten du zein diren balorazio ponentzia batek bildu behar dituen determinazioak, erabili beharreko kontzeptuak azaltzen ditu eta, zenbait parametrari dagokienez, haiek kalkulatzeko modua.

Amaitzeko, laugarren kapituluaren balioak kalkulatzeko formulak zehazten dira, Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren datuetatik, balorazio

ponentziaren determinazioetatik eta balorazioko parametro orokorretatik abiatuta.

Horrenbestez, eta Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 23.1 artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

AGINDU DUT:

Artikulu bakarra.—Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatu beharreko ondasun higiezinak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 23.1 artikulua aipatzen dituenak, baloratzeko arau tekniko orokorrak onestea. Arau horiek foru agindu honen eranskinean agertzen dira.

Azken xedapen bakarra.—Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2010 otsailaren 22an.—Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria, Álvaro Miranda Simavilla.

## ERANSKINA

*Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatu beharreko ondasun higiezinak baloratzeko arau tekniko orokorrak*

### I. KAPITULUA

#### *Printzipio orokorrak eta definizioak*

1. araua.—Aplikazio eremua.

1. Arau tekniko hauek aplikatuko dira Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatutako ondasun higiezin baliok kalkulatzen.

2. araua.—Erregistroko balioak finkatzeko esku hartzen duten elementuak.

1. Nafarroako Zerga Ogasunak finkatuko du ondasun higiezin edo higiezin-unitate baten erregistroko balioa, indarra duen balorazio ponentzia aplikatuz eta Lurralde Aberastasunaren Erregistroan horri buruz ageri diren ezaugarriak kontuan hartuta.

2. Balorazio ponentziak prestatzeko, kontuan hartuko dira balioan eragina duten xedapen edo planak, ondasun higiezinak erabili eta aprobeztatzeko baldintzak arautzen dituztenak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legean eta foru agindu honek aipatu Balorazioko Arau Orokorratan adierazi diren ondasun higiezin balarazio aurreikuspenen arabera. Horrez gain, foru lege horren 23.2 artikuluan adierazitako balorazioko parametro orokorrak aplikatuko dira, balorazio ponentziaren proiektua prestatzen hasteko erabakia hartzen den egunean indarrean daudenak, hain zuzen.

Halaber, foru lege horren 34.1 artikuluan eta arau hauen III. kapituluaren arabera, balorazio ponentzia balarazioko parametro teknikoak, aurreko paragrafoan aipatu parametro orokorrak ez direnak, ezarri behar dira berariaz; haien erabilera memorian justifikatu behar da eta, nolahi ere, zein den higiezin multzoa eta hori kalkulatzen edo finkatzeko modua adierazi behar da, bai eta balorazio xedapen orokorren arabera erabiltzeko beharrezko zehaztapenak ere.

3. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legean eta foru agindu honetan ezarri bezala, balorazio ponentziak aplikazio esparruan dagoen edozein higiezin zoru, hegalkin eta zorupea baloratzeko erabili beharreko elementuak eta irizpideak jasoko ditu.

4. Nafarroako bi udal mugapetan edo gehiagotan hedatzen diren ondasun higiezi balarazio dagokionez, ondasun berezitatat jotzen ez badira edo udalez gaineko balorazio ponentzia batean osotasun gisa hartzen ez badira, balorazio metodo bera erabiliko da eta gainerako determinazioak udalaren balorazio ponentzietan zehaztuko dira, higiezinaren zati bakoitzari bere balioa esleitzeko, poligono fiskal berean edo udal mugape berean kokatzen diren gainerako ondasunekin batera koordinatuta.

3. araua.—Definizioak.

1. Eraikuntza elementu baten azalera eraiki itxia. Fatxadako itxituren kanpoko aldeek eta eraikitako beste elementu batzuekiko mehelinen edo paramentu komun ardatzak definitutako perimetroaren barreneko azalera da. Higiezin-unitate baten azalera eraiki itxia (HAI) eta unitatea osatzen duten eraikuntza elementuen azalera eraiki itxien batura berdina izanen dira.

Azalera eraikiaren barrenean ez dira kontatuko 1,5 m-tik beherako garaiera duten espazio itxiak.

2. Higiezin-unitate baten azalera eraiki irekia (HAIr). Higiezin-unitatea osatzen duten eta alde bat edo gehiago itxi gabe duten eraikuntza elementuen azalera osoa izanen da.

Eraikinen estalkia osatzen duten azalera irekiak ez dira kontatuko higiezin-unitateen zati gisa, nahiz eta erabilgarriak izan.

3. Elementu komuna. Elementu komuna esaten zaio hainbat higiezin-unitateren zerbitzari atxikitako eraikuntza elementuari. Higiezin-unitateek horretan parte hartzen dute, haien azalera eraikie dagozkien eta 29. arauari jarraituz kalkulatu diren partaidetza koefizienteen bidez. Elementu komun baten azalera higiezin-unitate baten azalera pribatiboa bezala definitzen da, eta kontuan hartzen ahalko da azalera eraiki irekiak eta itxiak egotea.

4. Higiezin-unitate baten finka koefizientea  $f_{10}$ . Lurzorua finkatzen duten eraikuntzako higiezin-unitateek esparru baten lurzoruaren balioan duten partaidetza kontuan hartzeko, finka koefizientea zehaztuko da higiezin-unitate bakoitzerako  $f_{10}$ . Banaketa horizontaleko araubidearen mendeko eraikinetan, higiezin-unitateen finka koefizienteak eraikinetan ondasun higiezi eraketa tituluan esleitzen zaizkien partaidetza kuotetatik aterako dira. Kuota horiek agertzen ez badira, baita gainerako eraikinetan ere, finka koefizienteak 29. arauari jarraituz kalkulatu dira.

5. Oihartzuneko balioa. Eraikuntzak osatutako higiezin-unitate baten balioan lurzoruak duen eraginari dagokion zenbatekoa da.

Kalkulatzen duen lurzoruak duen hirigintza garapenaren maila alde batera utzita, oihartzuneko balioak kalkulatzeko, lurzoru urbanizatuari dagokion balioa hartuko da kontuan, hirigintza aprobeztamendurako eskubidea eskuratuta eta eraikitzen eskubidea eskuratzeko prest egonda, lizentzien kosturik eta erabileraren eraikuntza prozesuaren kosturik gabe.

Oihartzuneko balio ezberdinak ezartzen ahalko dira balorazio ponentzian zehaztutako erabilera ezberdinetarako.

6. Lurzoruaren oihartzunak ukitutako eraikuntza elementuak. Metodo gehigarriaren bidezko balorazioan, lurzoruaren oihartzuna gehituko zaie finkatzen duten eraikuntzek osatuta dauden higiezin-unitateei. Dena den, lurzoruaren oihartzuna gehitzen ahalko zaie sestrapean edo estalkipean dauden higiezin-unitateei, eremu edo poligono fiskal baterako justifikatzen bada eguneratutako exekuzio kostutik gorako balioak dituztela merkatuan; finkatzen duten beste elementu batzuk (adibidez, tarte solairuak) behar bada ez dute lurzoruaren oihartzuna jasoko, eraikitzen aukerak benetan ondasunaren merkatuko balioa nabarmen gehitzea ez badakar. Kasu horiek eremu edo poligono fiskal bakoitzerako zehaztuko dira balorazio ponentzian, arazoak azaldu.

7. Esparru baten eraikigarritasuna. Esparru baten balizko hirigintza aprobeztamenduaren neurria da, eta honela kalkulatu da: hirigintza planeamenduaren arabera haren gainean eraikitzen ahal den azalera zati esparruaren azalera.

Eraikigarritasuna erabileraren arabera banakatzen ahalko da, esparruko erabilera bakoitzerako onartzen den azalera eraikia ezarrita.

Esparru baten eraikigarritasuna zehazteko, eremu bakoitzerako zehaztutako orokorrak zein balizko mugaketak edo, esparruaren ezaugarrien arabera, araudiaren ondoriozko beste berezitasun batzuk hartuko dira kontuan.

Zenbait eremu finkatutako planeamenduak eremuan benetan dauden eraikinetatik beherako eraikigarritasuna ezarri du oro har, eraikin horiek antolamenduz kanpo ez badaude ere; gauzak horrela, aurreikuspen ahal da, eraikin bat eraitsi ondoren, gaur egungo eraikuntza bolumena eraikitzen ahalko litzatekeela. Eremu finkatu horietan eraikigarritasuna esparruaren benetako eraikuntza maila izanen da, eta honela kalkulatu da: finkatzen duen azalera eraiki osoa zati esparruaren azalera.

8. Finkatzen ez duten eraikuntzak. Finkatzen ez duten edo eraikigarritasuna kontsumitzen ez duten eraikuntza edo eraikuntza zatitza joko da, eraikigarritasunari dagokionez benetan eraikitako azalera kontuan hartzen ez duena.

Eraikigarritasunari dagokionez oro kontuan hartzen ez diren azalera honako hauek izanen dira:

a) Antolamenduz kanpokotzat jotzen diren eraikinen azalera eraiki osoa.

b) Azalera eraiki itxia zero duten higiezin-unitateen azalera eraikia.

c) Lurralde Aberastasunaren Erregistroan "eraikin txiki"tzat jotzen diren eraikuntza elementu hutsalen azalera eraikia.

Oro har, sestrapean eraikitako azalerek, eta, bizitegitarako erabilera duten unitateen zati izan gabe edo horiei zerbitzu eman gabe, onartutako gehieneko garaieratik gora estalkipean daudenek ez dute eraikigarritasunik kontsumitzen; tarte solairuek, aldiz, bai. Alabaina, hirigintza planeamenduak eremu batean azalera horiek aprobeztamendua kontsumitzen dutela zehazten duenean, balorazio ponentziak kontuan hartuko ditu.

9. Esparru bat finkatzea. Esparru bat finkatutza joko da, finkatzen duen eta gainean edo azpian kokatuta duen azalera eraiki osoa onartutako azalera eraikia bezalakoa edo handiagoa bada; azken hori honela kalkulatu: esparruaren azalera bider haren eraikigarritasuna. Finkatzen duen azalera eraiki osoa onartutako azalera eraikia baino txikiagoa bada eta zerotik gorakoa bada, esparruaren lurzorua zati batean finkatuta egonen

da. Lurzoruaren azalera finkatu gisa definituko da eragiketa honen emaitza: finkatzen duen azalera eraikia zati eraikigarritasuna; lurzoruaren azalera finkatugabe gisa, ostera, esparruaren gainerako azalera. Esparruan finkatzen duen eraikuntzarik ez badago, esparruaren azalera osoa izanen da lurzoruaren azalera finkatugabea.

10. Esparru baten azalera garbia. Zenbait esparrutan hirigintza planeamenduak azaleraren zati bat laga beharra ezartzen du. Oraindik lagapena egin gabe duten edo lagapenaren ondorioz sortutako egoera berria Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren datu-basean erregistratuta ez duten esparruetan, esparruaren azalera garbitzat joko da eragiketa honen emaitza: esparruaren azalera ken nahitaez laga beharreko azalera. Gainerako kasuetan, azalera garbia esparruaren azalera izanen da.

11. Eraikuntzak okupatutako azalera. Lurzoruaren eta bere gaineko eraikuntzen arteko elkargunearen barreneko azalera da. Ez dira zenbatuko finkatzen ez duten azalera.

12. Esparru baten azalera eraikigabea. Eragiketa honen emaitza izanen da: esparruaren azalera garbia ken bertan dauden eraikuntzek okupatutako azalera.

13. Finkatzen ahal den lurzoru libreko azalera. Metodo gehigarriaren bidez baloratzen diren eraikuntzako higiezin-unitateak dituzten titulartasun eta erabilera pribatuko esparruetan, finkatzen ahal den lurzoru libreko azalera esanen zaio esparruaren azalera garbiari ondoko zatidura kenduta ateratzen den emaitzari: onartutako azalera eraikia zati balorazio ponentziak poligono fiskaleko edo balio eremuko lurzati tiporako ezarritako solairu kopurua.

14. Lurzoru libre finkatuko azalera. Finkatzen duten eraikuntzak dituzten esparruetan, lurzoru libre finaktuko azalera esanen zaio finkatzen ahal den lurzoru libreko azalera edo eragiketa honen emaitzari: esparruaren azalera garbia ken eraikuntzek benetan okupatutako azalera, emaitza hori finkatzen ahal den lurzoru libreko azalera baino txikiagoa bada.

## II. KAPITULUA

### *Balorazioko parametro orokorrak*

4. araua.—Balioak zenbatesteko eredu estatistikoak.

1. Balioa zenbatesteko eredu bat ondasunen lagin bat metodo estatistikoen bidez aztertzearen emaitza izanen da; ondasun horien balioa ezagutu beharko da eta lagina Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatutako ondasun higiezin batzuen adierazgarria izanen da.

Azterlanak ondasun higiezin baliorekin gainean eragin sistematikoa duten faktoreak eta ondorioen zenbaketa aztertuko ditu. Azterlanean aintzat hartu beharreko faktoreak Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren ondasunen ezaugarrien oinarritzko datuak eta haien kokalekua izanen dira.

Balioa zenbatesteko eredu Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatutako datuei aplikatuko zaie, inskribatuta dauden eta laginak ordezkatzeko dituen higiezin balorazioa modu zabalean kalkulatzeko.

2. Izaera homogeneoko ondasun higiezin multzo adierazgarria ordezkatzeko duen merkatuko lagina egiteko, higiezinak salerosteko prezioak ematera joko da. Halaber, onargarritzat hartuko dira antzeko balio hauek:

a) Zergadunek eskritura publikoan aitortu eta Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren oinarritzko datuak aldatzeko edo tokiko edo Foru Komunitateko Administrazioi zergak betetzeko eskatutakoak.

b) Zergen likidazioa egiteko, Nafarroako Zerga Ogasunak egiaztatutakoak.

c) Beste balio batzuk, merkatuko balioa erreferentzia hartuta balio objektiboa izateko aukera ematen duten prozeduren edo jardueren arabera eskuratuak, hala nola, merkatuko inkestak, Administrazio Publikoek higiezin eskaintzari buruz egindako azterlanak eta antzeko ezaugarriak dituzten higiezi buruz eskura dauden tasazioak.

2. Nafarroako Zerga Ogasunak eredu estatistiko ezberdinak ezarriko ditu ondasunen multzoetarako, esparru geografikoaren edo ondasun motaren arabera, merkatuko lagin adierazgarriak lortzen ahal diren neurrian.

Lagin batek adierazgarria izateko, tipologiaren edo kokalekuaren arabera bereizten diren ondasunen azpimultzo guztiak behar adina ordezkatura egonen dira, halako moduan non zehazki bereiziko baitira sistemako faktore eragile guztien ondorioak.

3. Balorazioko eredu estatistikoak garatu eta eguneratu ahal izateko, Nafarroako Zerga Ogasunak merkatuko lagin erabilgarriak edo azterlanaren oinarritzko lagina osatzeko aukera ematen duten datuak bilduko ditu etengabe.

Era berean, udal bakoitzak emandako informazioa erabiliko da: merkatuko laginei gehitu beharreko elementuak, metodorako ekarpenak, hala nola zonifikazio proposamenak.

4. Nafarroako Zerga Ogasunak merkatuko laginak aztertuko ditu aldiari-aldiari, eta indarrean diren ereduak berriro kalkulatu, edo eredu berriak garatu dituzten laginen arabera. Horrela, aplikatu beharreko aurrezate ekuazio berriak sortuko ditu.

Balorazio ponentzia 14. arauan erregulatzen den eredu adierazgarritasuna zehazteko, edozein eredu estatistiko argitaratzean, zer lagin erabili den kalkulurako, hura deskribatzen duen estatistika sartuko da.

5. araua.—Balio-irabaziaren edo balio-galeraren koefizienteak, lurzoruaren balioari aplikatu beharrekoak.

Lurzoru baten inguruabar edo ezaugarri berezi batzuek eragin dezakete lurzoruak datuetatik eta balorazio ponentziako zehaztapenetatik kalkulatu zaion balioa baino handiagoa ala txikiagoa eskuratzea. Lurzoru baten oihartzuneko balorazioan erabiltzen diren datuak (eraikigarritasuna eta erabileren araberrako oihartzuneko balioa) higiezin-produktuaren baldintzatzaile gehienak (barrenekoak zein kanpokoak) barne hartzen dituzten arren, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak honako koefiziente zuzentzaile hauek onetsiko ditu, eraikuntzak ukitu gabeko lurzoruei salbuespenez aplikatzeko:

1. Azalera txiki-txikiari, fatxadako luzera txiki-txikiari, sakonera handiegia edo forma irregularari buruzko koefizienteak, edo esparru baten barreneko ezaugarri buruzko beste edozein koefiziente, horien ondorioz, planeamenduak esleitutako eraikigarritasuna, legez egin badaiteke ere, esparrua alde aurretik aldatu gabe ekonomiaren aldetik errentagarria ez bada. Koefiziente horiek bakarrik aplikatuko dira, aipatutako faktoreak kontuan hartu ezin izan direnean eraikigarritasuna esleitzerakoan.

2. Zoruko sakonerari, lur-erazketari edo ohi kanpoko betelanei buruzko koefizienteak, edo esparru baten barreneko ezaugarri buruzko beste edozein koefiziente, esleitutako eraikigarritasuna gauzatzeko prozesuaren kostuak oso garestiak badira.

3. Bide publikora begira dauden fatxaden kopuruaren edo aldeko beste inguruabar batzuen araberrako koefizienteak.

Esleitutako eraikigarritasuna gaur egungo esparruetan gauzatu behar denean bakarrik aplikatzen ahalko dira arau honen 1., 2. eta 3. puntuei buruzko koefizienteak, eta ez aprobetxamenduak eremuko jabetzaren egituraren birpartzelazioa edo birmoldaketa egitea eskatzen duenean.

4. Urbanizazio gabeziengatik gutxitze koefizientea. Zuzendu beharreko urbanizazio gabeziak dituen hiri lurzoru finkatuari dagokionez, beharreko urbanizazio kostuak lurzoruaren balioa zuzentzen duen koefizientea aplikatuz hartuko dira kontuan.

5. Eraikigarritasunaren murrizketagatik gutxitze koefizientea. Esparru batek planeamenduak esleitu dion eraikigarritasunaren arabera espero den balioa baino txikiagoa eskuratzen duenean eta hori sektoreko araudi zehatz batek edo beste lege kontu batzuek esleitutako eraikigarritasuna gauzatzeko mugatu edo eragozten dutelako gertatzen denean, kalkulatu balioa zuzentzen ahalko da. Eraikitze zintzasunak irauten duen bitartean baino ez da indarrean egonen zuzenketa hori. Ondorio horietarako, hirigintza planeamenduak berak ezarritako denbora mugaketak ez dira hartuko eraikigarritasunaren murrizketatzat.

6. Lurzoruen balioaren gutxitze koefizienteak, nahitaezko hirigintza tramitazioagatik. 22. arauari jarraituz urbanizazio kostuak zehaztean, balorazio ponentziak kontuan hartu ezin izan baditu lurzoru garatzea eskatzen duten proiektuen kostuak (hala nola plan partziala, birpartzelazio proiektua, urbanizazio proiektua, xehetasun azterlana edo barne berrikuntzarako proiektua) poligono fiskal baterako, eta hori berariaz adierazten bada, zirkuntantzia hori zuzenduko da lurzoruaren balioaren gutxitze koefizienteak aplikatuz, 34. arauari jarraituz.

6. araua.—Eraikuntza kostua modu zabalean zenbatesteko parametroak.

1. Higiezin-unitateen ezaugarriak zehazteko sistemak hala behar duenean, balio tipoen taula eta oinarritzko eraikuntza modulua egonen dira. Balio tipoen taulak egiteko, eraikuntza tipoa edo zenbatespen oinarri bat definituko da ezaugarriak zehazteko sistema bakoitzerako; haien eraikuntza kostuari sistemaren oinarritzko eraikuntza modulua esaten zaio. Ezaugarriak zehazteko sistema bakoitzaren definizioan adieraziko da "eraikuntza kostuaren" kontzeptua, eta haren zenbatekoa balorazioko parametro orokor gisa ezarriko da; beharrezkoa bada, hori kalkulatzeko alderdi partikularrak zehaztuko dira.

Eraikuntzen balio tipoen taulek koefiziente bat bilduko dute kategoria bakoitzerako, Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren datu-baseko higiezin-unitateei esleitutako eraikuntza mota bakoitzaren barrenean; koefiziente hori eragiketa honen emaitza izanen da: mota eta kategoria horren eraikuntza kostu adierazgarria zati oinarritzko eraikuntza modulua.

2. Higiezin-unitateen ezaugarriak zehazteko sistema bakoitzerako atxikipen azalera bat ezarriko da, haren eraikuntza tipologiaren eta kategoriaren araberrakoa izan daitekeena.

3. Lurralde Aberastasunaren Erregistroan alta hartzen duen edo, oinarritzko datuak aldatzeko prozedurak betez, ezaugarriak aldatzen diren

unean, eraikuntzako higiezin-unitate bakoitzari eraikuntza mota bat eta kategoria bat esleituko zaizkio.

Unitate bakoitzari esleitutako mota eraikuntza ezaugarriei ongien dagokiena izanen da, benetan hartuko duen erabilera kontuan hartu gabe eta nahiz eta haren eraikuntza osatuta ez egon. Tipifikazioaren ondorioetarako bakarrik hartuko da kontuan, ezaugarriak funtsean aldatu dituzten zaharberrikuntza obrak egin badira gaur egungo erabilerrakako.

Esleitutako kategoria, eraikuntza motari dagozkion artean, hurrengo eragiketaren emaitzatik hurbilen dagoen eraikuntzen balio tipoen taulako koefizientea duena izanen da: unitatearen eraikuntza-kostu eza-guna zati une horretan indarrean dagoen oinarritzko eraikuntza modulua. Eraikuntza-kostu erreala eza-guna ez denean, higiezin-unitateari ongien dagokien kategoria esleituko zaio, haren ezaugarriak eta antzeko unitateen tipifikazioa kontuan hartuta. Horrela, mota eta kategoria horiei dagokien taulako koefizientea unitatearen eraikuntza kostua zenbatesteko erabiliko da.

7. araua.—Eraisteko kostuaren modulua.

1. Eraikuntzen ezaugarrien arabera, eraisteko kostuaren modulua zehaztuko dira, zuzeneko kostuen multzoa barne dela. Nolanahi ere, horrelakotzat joko dira exekuzioko eskulana, materialak, horretan behar diren baliabide osagarriak eta eraisteko behar diren zeharkako kostuak; azken horiek obran bertan dauden bulego eta lokalen gastuak eta obrari bakarrik erantsitako teknikariak eta administrariak izanen dira.

2. Arau honek aipatzen dituen modulua ezartzerakoan kontuan hartu behar diren ezaugarrien artean, eraikinaren garaiera eta inguruko eraikinekiko kokalekua izanen dira; eraikin isolatuak eta mehelinen artean daudenak bereiziko dira.

Era berean, eraispena metodo berezien bidez egitera behartzen duten inguruabarrak ere kontuan hartzen ahalko dira.

8. araua.—Eraikuntzen balio-irabaziaren edo balio-galeraren koefizienteak.

1. Eraikuntzen egungo balioa kalkulatzeko, haien balioa zuzentzeko koefizienteak erabiliko dira, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan eraikuntzako higiezin-unitateei esleitutako datuen arabera zehaztuta daudenak.

Koefiziente horiek zehazteko zenbait alderdi hartuko dira kontuan, hala nola antzintatasuna, eraikuntza-tipologia, egindako zaharberritzeak eta noiz egin ziren, eta eraikuntzaren gaur egungo kontserbazio egoera.

2. Erregistroko balioa metodo gehigarriaren bidez kalkulatzeko, "eraikuntzen egungo balioa gehi lurzoruaren oihartzuneko balioa" eragiketarik ateratako azken balioari honako koefiziente zuzentzaile hauek aplikatuko zaizkio.

a) Balio-galera funtzionalaren koefizientea, zertarako eraiki ziren, hartarako diseinua edo instalazioak desegokiak dituzten unitateei aplikatuko zaiena, zaharkituta gelditu direlako edo eraikuntza osatu ez delako.

b) Barnetasun-koefizientea, bizitegitarako erabilera duten higiezin-unitateei eta beheko solairuko lokalei aplikatuko zaiena, eraikuntza itxien zati izanda, argizulo guztiak barreneko patioetara begira badituzte. Bereizi eginen dira: bao guztiak lurzatioko patioetara begira dituztenak eta etxadiko patioetara begira dauden baoak dituztenak. Bide publikora begira dagoen baoren bat badute, kanpoko unitatetzat joko dira eta ez zaie koefizientea aplikatuko.

c) Balio-irabaziaren edo balio-galeraren koefiziente ekonomikoa, aurreko arauak aplikatuz lortutako emaitzak higiezin-merkatuaren errealitate egokitzeko erabiliko dena, errealitate hori eza-guna bada eta egiaztatzen bada.

Egokitze horretarako, higiezin-produktuaren gainprezioa (merkatuko eskaera handiak, antzeko produkturik ez izateak, edo eraikuntza ezaugarrien kalitate handiak eragindakoa) zein prezio apala (merkatu eskasiaren edo bazter utzia izatearen ondorioz) ebaluatuko dira, tipologiaren edo eraikuntza erabileren arabera zehaztu beharreko eremu jakinetan.

Koefiziente hori aplikatzen ahalko da, higiezin baten barreneko merkatuko egoera ezberdinei erantzuteko (adibidez, balio-igoera, etxebizitza edo lokala osatzen duten atikoetan eta eraikin mailakatuetan erabilera pribatuko terrazak izatea). Bateragarria izanen da higiezinari aplikatzen ahal zaion beste edozein koefizienterekin.

3. Funtzionalki balioa galdu duen higiezin-unitate baten edo barreneko higiezin-unitate baten kalitatea haren berezko ezaugarria da, eta Lurralde Aberastasunaren Erregistroan jasoko da, oinarritzko datu gisa.

Halaber, balio-irabaziaren edo balio-galeraren koefiziente ekonomikoa higiezin-unitateei esleituko zaie oinarritzko datu gisa, haien ezaugarriei ongien dagokien balioa hartuta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak onetsitako balio tartearen barrenean daudenen artean.

9. araua.—Lurren batez besteko balioaren koefizientea, lehen mailako aprobetxamendu motaren eta merkatuko erreferentzia koefizientearen arabera.

1. Lurzoruaren batez besteko balioaren taula, lehen mailako aprobetxamendu motaren arabera, eta merkatuko erreferentzia koefizientea lurzoruak osatutako higiezin-unitateen balioa modu zabalean zenbatesteko tresnak dira, haien nekazaritza eta basozaintzako ekoizpeneko ahalmena kontuan hartuta.

2. Aurreko atalean adierazitako taula aprobetxamendu tipo batzuen definizioan oinarrituta dago.

Udalerrri bakoitzean batez besteko balioaren (BBB) koefiziente bat esleituko da, udalerriko i motako azalera-unitate bakoitzeko VM<sub>i</sub>.

3. Merkatuko erreferentzia koefizientea (CMAF). Nafarroa osorako ezarritako balioa da: balio hori bider udalerrri bateko mota baten batez besteko balioaren koefizientearekin biderkatuta udalerrian lurzoru mota horrek duen batez besteko balio eguneratua ematen du.

10. araua.—Errentaren kapitalizazio tasak.

Kapitalizazio metodoa aplikatzeko, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak errenta erreala kapitalizatzeke eta balizko errentak eguneratzeko tasak onetsiko ditu; zein den ondasuna eta zer erabilera duen, horren arabera aldatzen ahalko dira.

11. araua.—Balio-irabaziaren edo balio-galeraren koefizienteak, eraikuntza eta lurzoruaz besteko ondasun higiezin balioari aplikatzekoak.

Izenburu honen azpian lurzoruaz besteko ondasunen balioak eguneratzeko beharrezkoak izaten ahal diren koefizienteak bilduko dira; ondasun horiek ez datoz bat Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko 12/2006 Foru Legearen 13.2 artikuluan eraikuntzarako ezarritako definizioarekin. Horrelakotzat joko dira labore egonkorak, gorabehera naturalak edo ondasun higiezin zatitzaletan jutzen diren beste batzuk.

Era berean, izen hori hartzen ahalko dute foru lege horren 16. artikulua aipatzen dituen ondasun higiezin bereziak eguneratzeko koefizienteak. Koefiziente horiek lurzoru, eraikuntza edo beste mota bateko higiezin-elementuek osatuta egon daitezkeen arren, balio globala bakarrik ematen duten metodoen bidez baloratu dira, haien elementuetarako balio bereizirik alde aurretik kalkulatu gabe.

12. araua.—Balioa eguneratzeko koefizienteak eta balioa finkatzeko koefizienteak, 12/2006 Foru Legearen 23.2 i) artikuluan aipatuak.

1. Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak ezaugarri homogeneoak dituzten higiezin multzo zehatz batzuen balioa eguneratzeko koefizienteak onesten ahalko ditu, eza-penean espres zehazten den lurraldean kokatzen badira, nahiz Nafarroako eraikin guztietara hedatzen ahal den. Koefiziente horiek balorazioko parametro orokor gisa aipatzen dira Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroren 21eko 12/2006 Foru Legearen 23.2 i) artikuluan.

Horrela onesten diren koefizienteak urtero aplikatuko zaizkie Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatutako katastroko balioei, Nafarroako Zerga Ogasunak objektiboki justifikatzen duenean, informazio erabilgarriaren arabera, une zehatz batean katastroko balioak ez datozela bat inondik inora antzeko ezaugarriak dituzten higiezin merkatuan dituzten batez besteko prezio jakinekin.

2. Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatutako ondasun higiezin guztien balioa finkatzeko koefiziente zehatz batzuk onesten ahalko ditu, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroren 21eko 12/2006 Foru Legearen 23.2 i) artikulua aipatutako balorazioko parametro orokor gisa, une bakoitzean erabilgarri dagoen informazioaren arabera, koefizienteen eta lurralde nazionalako gainerakoan ondasun higiezin esleitutako batez besteko balioen artean harmonizazioa egon dadin.

Horrela onesten diren koefizienteak urtero aplikatuko zaizkie Lurralde Aberastasunaren Erregistroan inskribatutako katastroko balioei.

### III. KAPITULUA

#### Balorazio ponentziaren zehaztapenak

##### I. ATALA

#### Balorazio metodoen zehaztapena

13. araua.—Ondasun bakoitzerako balorazio metodoa zehaztea.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legearen 34.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, balorazio ponentziek ondasun bakoitzari aplikatzen ahal zaizkion balorazio metodoak zehazten dituzte, beren lurralde esparruaren barrenean.

Zoruak eta hegalkinak osatzen dituzten eta, ponentziaren arabera, aplikazioari esker multzorako balio bakarra emaitza duen metodoaren

bidez baloratu behar diren ondasunei dagokienez, lurzoruari balio bat esleitu behar zaionean, balio hori lurzoria baloratzeko ezarritako balorazio metodoen bidez kalkulatu da modu osagarrian.

14. araua.–Balioak zenbatesteko ereduen bidez baloratu beharreko ondasunak identifikatzea.

1. Hurrengo ondasun higiezinak eredu bat kalkulatzeko erabili den laginak ez dituela ordezkatzen ulertzen ahalko da eta, beraz, eredu higiezin horiei aplikatzea ukatzen ahalko da:

a) Ereduan sartutako eragin faktoreetako baten baterako laginetik kanpo dauden banakako ondasunak.

b) Ondasun multzoa, ezaugarriak eta kokalekuari dagokienez homogeneoa dena; aurreko letran deskribatutako egoeran ez badago ere, ereduaren emaitzen kontrakoa den beste lagin batek ordezkatzen badu.

c) Ondasunen kokapen eremuak balioaren gainean duen ondorioa kontuan hartzen duten ereduak dagokienez, laginean inolako elementurik ez duen edo elementu gutxi batzuk dituen eremuko ondasunak.

d) Ondasun multzoa, ezaugarriak dagokienez homogeneoa dena; ereduak poligono fiskaletarako edo balio eremuetarako ezarritako mugaketaren banaketa baino handiagoa proposatuko du ponentziak haren lurralde esparrurako, edo funtsezko aldeak daudenean bi zonifikazioen artean.

II. ATALA

*Balorazioko eredu estatistikorik aplikatu gabe lurzoria baloratzeko zehaztapenak*

15. araua.–Beharrezko informazioa.

1. Balorazio ponentzia egiteko edo berrikusteko eta, eredu estatistikorik aplikatu gabe, lurzoria baloratzeko duten irizpideak lortzeko asmoz, egindako inkestei edo herritarrek egindako aitopenei jarraikiz merkatuko balioei eta higiezin-prozesuen kostuei buruz esku artean dituzten datu guztiak emanen dituzte udalak eta Nafarroako Zerga Ogasunak.

2. Salerosketako prezioen laginak edo antzeko balioak hurrengo ondasun motei buruzkoak izanen dira:

a) Aztertutako udalerrien lurzorua, hirigintza, nekazaritza edo beste arlo bateko ezaugarriak adierazita.

b) Balizko eraikuntza-erabileren ondasunak, eraikuntza-ezaugarriak adierazita.

3. Kostuen laginak honako hauei buruzkoak izanen dira:

a) Aztertutako laginaren elementuen eta beste eraikuntza ezagun batzuen merkatuko prezioari jarraikiz, eraikuntzak gauzatzeko kostuak.

b) Eraikuntzen gaineko higiezin-prozesuaren merkatuko kostuak, 20. arauan zehaztu bezala.

c) Lurzoru urbanizatuaren gaineko higiezin-prozesuaren merkatuko kostuak, 21. arauan zehaztu bezala.

d) Eremuetako edo horien zati batzuetako lurzoria urbanizatzeko prozesuaren merkatuko kostuak, orube bihurtzeko, 22. arauan zehaztu bezala.

16. araua.–Poligono fiskalen zonifikazioa eta zehaztapena.

1. Udal mugapea balio eremuetan edo poligono fiskaletan (etenak izan daitezke) banatuko da, eta haien mugaketa irudikapen grafikoaren edo idatzizko oharren bidez adierazten ahalko da.

2. Zonifikaziorako lehen irizpidea hirigintza aprobetxamenduetan oinarritzen diren balorazio metodoak aplikatzeko esparrua mugatzea izanen da, horrela mugatutako eremua eta aprobetxamendu mota hori, balizkoa edo erreala, ez duen lurraldearen gainerako zatia bereizteko.

Horretarako, eremuan honako hauek sartuko dira:

a) Araudiari jarraikiz hirigintza aprobetxamenduaren potentziala zehaztuta duten esparruak.

b) Araudiari jarraikiz hirigintza aprobetxamenduaren potentziala zehaztuta ez duten arren, eraikuntzek ukituta dauden lurrak; eraikuntzatat joko dira Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastrorei buruzko 12/2006 Foru Legearen 13.2 artikuluan zehaztutakoak. Ondorio horietarako, eraikuntzek ukitutako lurrat joko dira bai horiek fisikoki okupatzen duten lurzoria, bai, haiek egotearen ondorioz, nekazaritza ekoizpen profesionala edo komertziala murriztu edo galdu duen edozein lur.

c) Betiere, landare naturalek edo landuek okupatutako lurrak, apaindurarako edo aisiarako erabiliko direnak.

3. Hirigintza balorazioaren esparruan, antzeko balioa duten poligono fiskalak edo eremuak mugatuko dira homogeneotasun irizpideak kontuan hartuta, lurzoruaren gaur egungo kalifikazioari, lehendik dauden edo egitekoak diren eraikuntzen tipologiari, erabilera nagusiaren gaineko oihartzuneko balioen zenbatespena aintzat hartuta esleitu beharreko balioari eta, hala denean, beste erabilera batzuen gaineko oihartzuneko balioei (horien garrantziak horrela gomendatzen badu) dagokienez.

Halaber, ponentziaren lurralde esparruaren gainerako zatian poligono fiskalak mugatzen ahalko dira, lurzoruaren sailkapenean edo haien balizko

aprobetxamendua eta balioa ukitzen ahal dituen beste edozein ezaugarrian oinarritzen diren homogeneotasun irizpideei jarraikiz.

17. araua.–Lurzoria nekazaritza eta basozaintzako aprobetxamenduaren arabera baloratzeko zehaztapenak.

1. Lurralde Aberastasunaren Erregistroan nekazaritza eta basozaintzako balizko aprobetxamenduaren arabera sailkatutako lurrak baloratzeko, balorazio ponentziak hurrengo zehaztapenak egiten ditu:

a) Balio erlatibo intratipoaren sailkapena eta indizea. Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak balorazio ponentziaren esparrurako onetsi duen lurzoruaren batez besteko balioaren taulan lehen mailako aprobetxamendu motaren arabera zehaztutako mota bakoitzaren barrenean, 9. arauan adierazitako irizpideei jarraikiz, lurzoru klaseak ezarriko dira haien balioaren arabera; balio hori ekoizpen potentzialaren ondorioa ez ezik, balioa ukitzen duten beste faktore batzuen (hala nola forma, malda, irisgarritasuna eta kokapena) ondorioa ere izanen da.

Klase bakoitzari indize bat esleituko zaio, mota beraren barreneko klase ezberdinetako lurzoruaren balio erlatiboa kontuan hartuta.

b) Azalera-unitateko balioaren koefizientea, intratipo klase bakoitzera. Mota baten barreneko klase bakoitzera balio koefizientea kalkulatu da, hurrengo eragiketak eginez: udalerrian motari dagokion batez besteko balioaren koefizientea bider klasearen balio erlatibo intratipoaren indizea; horren emaitza bider udalerriko mota horretako higiezin-unitate guztien azalaren batura; eta horren emaitza zati "balio erlatibo intratipoaren indize bakoitzaren batura bider klase eta mota horietako higiezin-unitateen azalera" eragiketaren emaitza.

$$CV_{ij} = VM_i \cdot I_{ij} \cdot \frac{\sum_j S_{ij}}{\sum_j I_{ij} S_{ij}}$$

Non:

$CV_{ij}$	i motako j klaseko azalera-unitateko balioaren koefizientea da.
$VM_i$	udalerriko i motako azalera-unitateko batez besteko koefizientea da.
$I_{ij}$	balorazio ponentzian i motako j klaseari esleitutako balio erlatibo intratipoaren indizea da.
$S_{ij}$	udalerriko i motako j klasearen higiezin-unitate guztien azalera osoa da.

Ondorio horietarako, mota eta klase bakoitzeko higiezin-unitateen azalera erabiliko dira, ponentzia berrikusteko unean Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren datuetatik eskuratutakoak.

Klaseak bitan banatzen badira edo mota berriak zehazten badira baino ez da beharrezkoa izan balio koefiziente unitarioak kalkulatu baino lehen mota eta klasea esleitzea.

Higiezin-unitateei esleitutako motaren eta klasearen ezaugarrien aldaketak, Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren oinarritzko datuak aldatzeko prozedurek gauzatzekoak, ez du ekarriko koefiziente horiek berriro kalkulatzeko, balorazio ponentzia berriro berrikusi arte.

18. araua.–Esparruak finkatzeko eta eraikigarritasuna esleitzeko irizpideak zehaztea.

1. Lurralde Aberastasunaren Erregistroko esparruei, erregistroko oinarritzko datuak aldatzeko prozeduren bidez, eraikigarritasuna esleitzeko, kontuan hartu beharko dira indarra duen hirigintza planeamenduaren aurreikuspenak.

2. Hirigintza aprobetxamenduan oinarritzen diren balorazio metodoak aplikatzeko esparruaren barrenean egonda, banaketa eremu atxikita ez dauden sistema orokorren barrenean egoteagatik edo beste arrazoi batzuegatik eraikigarritasuna esleitu gabe duten esparruak baloratzeko, planeamenduan zehaztutako eremu homogeneoko edo kokalekuari dagokion balio eremuko batez besteko eraikigarritasun ponderatua erabiliko da.

3. Indarreko hirigintza planeamendurik ez badago edo horren zehaztapenak esparru bakoitzaren eraikigarritasuna zalantzarik gabe kalkulatzeko behar bezain zehatzak ez badira, ponentziak kalkulatzeko jarraitu beharreko irizpideak ezarriko ditu.

Era berean, esparruei eraikuntza-maila erreala adinako eraikigarritasuna esleitzeko eremuak zein diren zehaztuko da.

4. Balorazio ponentziak indarreko hirigintza planeamenduaren aurreikuspenak bilduko ditu poligono fiskal bakoitzera, eraikuntza mota ezberdinek duten eraikigarritasun kontsumoari dagokionez. Aurreikuspenik ez dagoenean edo behar bezain zehatzak ez direnean, finkatzen ez duten

eraikuntzak definitzeko 3.8 arauan azaldu diren irizpideetara joko dela ulertuko da.

19. araua.—Lurzati tipoaren ezaugarriak zehaztea.

1. Hirigintza balorazioko esparruaren barrenean mugatutako poligono fiskal bakoitzerako lurzati tipo bat ezarriko da, haren ezaugarri fisikoak eta ekonomikoak kontuan hartuta. Adierazgarria izanen da eta higiezin balio global edo unitario ezagunak osagaien artean (adibidez, eraikuntza-kostuak, lurzoruaren balioa eta higiezin-prozesuaren kostuak) zatitzeko asmoz zehaztuko da.

2. Lurzati tipo baten ezaugarriak zehazteko, hurrengoak hartu behar dira kontuan: hirigintza planeamendua, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan eremuan egindako eraikuntzei buruz dagoen informazioa, merkatuko lagin bat eta eremuari buruz erabilgarri dauden analisiak edo azterlanak. Hona hemen ezarri beharreko ezaugarriak:

a) Poligono fiskaleko erabilerak: lurzati tipoak poligono fiskaleko erabilera ohikoenak edo hirigintza araudiak onartzen dituenak bilduko ditu, aginduak gauzatu gabe daudenean. Poligonoko erabilera onartuak eta ohikoenak hasieratik jakinda, azkenean zein erabilera hartuko diren kontuan zehaztuko da, oihartzuneko balioak ezartzeko. Azken erabilera horiek eraikuntzaren balio tipoen taulan bildutako eraikuntza-erabileren multzokatzaileak izanen dira, eta higiezin-unitateen garaiera ere kontuan hartzen ahalko da. Sestrapeko erabilerak sartuko dira, hirigintza araudiak onartzen baditu eta, irizpide ekonomikoak direla eta, horiek aintzat hartzea justifikatzen bada.

b) Eraikigarritasuna: Lurzati tipoari hirigintza planeamendua eman-dako eraikigarritasuna esleituko zaio, 18. arauan ezarritako irizpideen arabera.

Planeamendua erabileren arabera hainbat eraikigarritasun ezarri baditu, horietako bakoitza hartuko da ( $E_{ij}$ ).

Planeamendua eraikigarritasun bakarra ezarri bada, alde zehatz zehaztu diren erabileren artean banatzen ahalko da, ponentziaren irizpideak aplikatuta.

c) Eraikuntza: Poligono fiskalaren eraikuntzarik adierazgarriena edo eraikuntza tipoa deskribatuko da, erabilera bakoitzaren eraikuntzaren azalera, kalitatea eta solairu kopurua erabakita. Gauzatzeko kostu erre-alak edo zehatz-mehatz zenbatesten direnak badaude, horiek oinarri gisa erabiliko dira eraikuntza tiporen kategoria ezartzeko.

Laginaren merkatuko balioak, eraikinen balio globalen ordez, higiezin-unitateak osatzen ahal dituzten elementuen (adibidez, banaketa horizontaleko araubidean dauden eraikinak) balio globalak badira, higiezin-unitate tipo horien eta parte hartzen duten elementu komunaren ezaugarriak zehaztuko dira.

Lehendik garatuta dauden eremuak badira, eraikuntza adierazgarriaren antzintasuna eta beharbada horrek hartu dituen zaharberrikuntzen ezaugarriak adierazten ahalko dira, eraikuntzak zaharberritzea joera bada eremuan, deskribapen hobea lortzeko eta erabilgarri dauden merkatuko balioak zuzentzean lagungarria izateko.

Eraikuntza garatu ez duten edo modu ez-adierazgarrian garatu duten eremuei dagokienez, eraikuntza tipoa erabakitzeke hirigintza araudiaren zehaztapenak hartuko dira kontuan. Hala ere, ponentzian behar bezala justifikatuta dauden beste balio batzuk hartzen ahalko dira, zehaztapen horiek behar bezain zehatzak ez badira edo merkatuaren eskariarekin eta eraikuntza-prozesuen errentagarritasunarekin bat ez datozten eraikuntza-mailak badakartzate.

d) Erabileren arabera gauzatzeko kostuak: Unitate edo erabilera bakoitzerako gauzatzeko kostuak eraikuntza tipoaren ezaugarrietatik aurrera zenbatetsiko dira. Ondorio horietarako, ponentzia berrikusten hasteko erabakia hartzen den egunean indarrean dauden balorazioko parametro orokorrak hartuko dira kontuan.

e) Lurzatiaren azalera: Tamaina adierazgarria duen lurzati hartuko da.

Horren barrenean eraikuntzak okupatutako azalera eta azalera librea edo finkatzen duten eraikuntzek okupatzen ez dutena ezarri behar dira.

Azalera librearen barrenean eraikuntzak finkatutako azalera librea eta eraikuntzak finkatu gabeko azalera bereizten ahalko dira. Ondorio horietarako, planeamendua eman-dako eraikigarritasunetik ateratako koefiziente finkatze-koefizientetzat hartuko da.

f) Lurzati tipoaren merkatuko balioa: Lurzati tipoaren merkatuko balioa oro har edo bertako erabileren edo unitateen merkatuko balioen bidez zehazten ahalko da.

Merkatuko balioa zenbatesteko, ponentziak ondorio horietarako hartu diren balorazio eredu estatistikoak edo merkatuko informazio erabilgarria hartuko dira kontuan. Antzeko ondasunen merkatuak ez badago edo behar bezalako informazioa aurkitzen ez bada, balio arrazoiua ezarriko da.

Lurzati tipoari esleitutako merkatuko balioa eraikuntza berrien balioekin bat etorriko da. Horretarako, informazio erabilgarriari buruzko azterlanak beharrezko homogeneizazio zuzenketak bildu behar dira.

g) Ondasun zehatz batzuetarako sektoreko araudiak administrazioaren aldetik mugatuta dauden eta lurzati tiporako hartutako merkatuko balioak baino txikiagoak diren balioak ezartzen dituenen, horiek bilduko dira, ondasunek ukitutako lurzoruaren balioaren zehaztapenari aplikatzen ahal zaizkion oihartzuneko oinarriko balio espezifikoak kalkulatzeko asmoz.

Halaber, ponentziak, lurzati tipoan ordezkatuta ez dauden arren, eremuan dauden edo aurreikusten diren eta merkatuak ez duten ondasunei aplikatzen ahal zaizkien oihartzuneko beste balio batzuk lortzeko irizpideak biltzen ahalko ditu.

20. araua.—Eraikuntzen gaineko higiezin-prozesuaren kostua zehaztea eremu bakoitzeko erabilera bakoitzerako.

1. Eraikuntzen gaineko higiezin-prozesuaren kostua esanen zaio eraikuntza-erabilerak gauzatzeko kostuak eraikuntza merkatuan kokatu arte duen igoerari.

2. Kostu hori zehazteko, hurrengo faktoreak hartuko dira kontuan, bidezkoa bada:

a) Eraikuntzaren gastu orokorrak eta industria mozkina.

b) Proiektuaren eta obra-zuzendaritzaren ordainsariak, eta behar diren beste batzuk.

c) Eraikuntzari dagozkion udal zergak eta tasak.

d) Eraikuntzaren nahitaezko aseguruaren primen eta prima horiek kalkulatzeko behar den ikuskaritza teknikoaren ordainsarien zenbatekoa.

e) Notarioaren eta erregistroaren muga-zergak, obra berriari eta eraikuntzen banaketa horizontalari buruzkoak.

f) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergak.

g) Salmentak kudeatzeko eta hipoteka eratzeko gastuak, aztertutako eraikuntzak gauzatzean egon ohi direnak.

h) Aztertutako eraikuntzak gauzatzean egon ohi diren finantza kostuak.

i) Aztertutako eraikuntzen sustapenaren zerga berreskuraezina eta mozkinak.

j) Gauzatzeari eragiten dioten beste kostu batzuk, ponentzian behar bezala justifikatuta daudenak.

3. Eraikuntzaren gaineko higiezin-prozesuaren kostua eraikuntza gauzatzeko kostua biderkatzen duen koefizientearen bidez adieraziko da ( $kc_{ij}$ ).

4. Behar bezalako dokumentazioa izan ezean, hurrengo koefizienteak hartuko dira:

—Nekazaritza edo industria erabilerako eraikinak:  $kc_{ij} = 1,36 + 2,20 BP$ .

—Gainerako erabilerak:  $kc_{ij} = 1,40 + 2,40 BP$ .

Azalpena: BP sustatzailearen mozkina da, bateko honenbestean adierazia. Eremuko jarduera-mailaren arabera da eta 0 eta 0,15 birtateko balioak hartuko ditu, nahiz eta 0,25 eskuratzen ahal duen merkatuaritza eremuetako beheko solairuko lokaletan.

21. araua.—Lurzoru urbanizatuaren gaineko higiezin-prozesuaren kostua zehaztea eremuko erabilera bakoitzerako.

1. Lurzoru urbanizatuaren gaineko higiezin-prozesuaren kostua esanen zaio eraikuntza-erabilera bakoitzerako urbanizatuaren lurzoruaren oihartzunak ondasuna merkatuan kokatu arte duen igoerari.

2. Kostu hori zehazteko, hurrengo faktoreak hartuko dira kontuan, bidezkoa bada:

a) Notarioaren eta erregistroaren muga-zergak, eskatzen diren eta lurzoruaren ukitzen duten dokumentu publikoari buruzkoak.

b) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergak.

c) Lurzoruari dagozkion udal zergak.

d) Salmentak kudeatzeko eta hipoteka eratzeko gastuak, aztertutako eraikuntzak gauzatzean egon ohi direnak eta lurzoruari egozten ahal zaion zatiari dagozkionak.

e) Aztertutako eraikuntzak gauzatzean egon ohi diren finantza kostuak, lurzoruari egozten ahal zaion zatiari dagozkionak.

f) Higiezinaren sustapenaren zerga berreskuraezina eta mozkinak, lurzoruari egozten ahal zaion zatiari dagozkionak.

g) Lurzoru urbanizatuaren oihartzunari eragiten dioten beste kostu batzuk, ponentzian behar bezala justifikatuta daudenak.

3. Lurzoru urbanizatuaren higiezin-prozesuaren kostua aztertutako erabilerako lurzoru urbanizatuaren oihartzuneko balioa biderkatzen duen koefizientearen bidez adieraziko da ( $ks_{ij}$ ).



4. Behar bezalako dokumentazioa izan ezean, hurrengo koefizienteak hartuko dira:

–Nekazaritza edo industria erabilerako eraikinak:  $ks_j = 1,12 + 1,90$  BP.

–Gainerako erabilerak:  $ks_j = 1,15 + 2,00$  BP.

Azalpena: BP 20. arauan bezala definituko da.

22. araua.–Eremu bakoitzeko urbanizazio kostua zehaztea.

1. Lurzoru urbanizatugabe baten urbanizazio kostua esanen zaio hirigintza garapeneko tresna guztiei dagozkien zenbatekoen eta lurzorua orube bihurtzeko behar diren urbanizazio obrei dagozkien baturari.

Exekuzio unitate baten urbanizazio kostua zehazteko, hurrengo faktoreak hartuko dira kontuan, bidezkoa bada:

a) Lurzorua garatzea eskatzen duten proiektuen ordainsariak, hala nola, plan partziala, birpartzelazio proiektua, urbanizazio proiektua, xehe-tasun azterlana edo barne berrikuntzarako proiektua.

b) Urbanizazio obrak gauzatzeko kostua.

c) Beharrezko urbanizazioaren proiektuei eta obrei dagozkien udal zergak eta tasak.

d) Beharrezko finantza eta kudeaketa kostuak.

e) Urbanizazioaren sustapenaren zerga berreskuraezinak eta mozkinak, bidezkoa denean.

f) Urbanizazio prozesuari eragiten dioten beste kostu batzuk, ponentzian behar bezala justifikatuta daudenak.

2. Urbanizazio kostuak ezagunak ez direnean horiek zenbatesteko, eta beharrezkoa den poligono fiskaletan, ponentziak eremuaren exekuzio unitate adierazgarri baten ezaugarriak zehaztuko ditu, bereziki exekuzio unitatearen hasierako azalera osoa edo azalera gordina ( $SB_{i0}$ ), urbanizazio kostuak beren gain hartu behar dituzten emaitzako lurzati azalera osoa edo exekuzio unitatearen azalera garbia ( $SN_{i0}$ ), azalera gordinari bideek eta berdeguneek okupatutako azalera kenduz kalkulatu dena, baita urbanizazio kostu unitarioa ere ( $CU_{i0}$ ) honela adieraziko dena: euro/m<sup>2</sup> lurzoru gordin.

23. araua.–Eremuko edo poligono fiskaleko erabilera bakoitzaren oihartzuneko oinarritzko balioa zehaztea.

1. Lurzati tipoa zehaztutako erabilera bakoitzerako oihartzuneko balioa kalkulatu da azalera eraikiaren metro karratuko. Hori erabilera horren oihartzuneko oinarritzko balioa izanen da poligono fiskalean.

2. Oihartzuneko oinarritzko balioen zehaztapena lurzati tipoa merkaturako baliotik aterako da. Horretarako, ulertuko da balio hori eta eraikuntzen egungo balioaren, lurzorua oihartzunaren eta, hala denean, lurzoru finkatugabearen balioaren batura berdinak direla. Eraikuntzen egungo balioa 30. arauari jarraituz kalkulatu da, salbuespen hau egonda: eraikuntza tipoi esleitutako antzintasuna zero izanen da. Lurzoruaren oihartzuna hurrengo eragiketen emaitza izanen da: oihartzuneko oinarritzko balioa bider eraikitako azalera bider lurzorua gaineke higiezin-prozesuaren kostuaren koefizientea. Lurzoru finkatugabearen balioa 34. arauari jarraituz kalkulatu egingen da. Erabileren arabera bereizitako oihartzuneko oinarritzko balioak zehaztu nahi badira eta bereizirik kalkulatu ezin badira, erabileren oihartzuneko oinarritzko balioen arteko erlazio gisa hartzen ahalko da eraikuntza kostuen artean dagoen erlazioa edo 19. arauari jarraituz eraikigarritasuna erabileren arabera banatzeko ezarritakoa.

3. Arau honen lehenengo atalak aipatzen duen oihartzuneko oinarritzko balioa kalkulatzeko, honako hau gerta daiteke:

a) Merkaturako balio erabilgarriak globalak izateagatik edo nagusia ez diren erabilerei dagozkien azalaren homogeneotasunak oihartzuneko balio bereizirik lortzea ez justifikatzeagatik erabilerak zehaztu ez dituen lurzati tipoa, oihartzuneko oinarritzko balioa hauxe izanen da: lurzati tipoa merkaturako balioa ken lurzati horretako eraikuntzen egungo balioa; emaitza hori zati lurzorua higiezin-prozesuaren kostuaren koefizientea eta finkatzen duten lurzatiaren higiezin-unitateak kalkulatzeko azalera eraikia. Lurzati tipoa zati batean finkatuta badago, aurreko izendatzaileari eragiketa honen emaitza gehitu beharko zaio: eraikigarritasuna bider lurzoru finkatugabearen azalera.

Notazio matematikoa:

$$VR_{i0} = \frac{VM_{i0} - VAC_{i0}}{(ks_i \times SCC_{i0} + E_{i0} \times SNC_{i0})}$$

Azalpena:

$VR_{i0}$	i poligono fiskaleko oihartzuneko oinarritzko balioa edo lurzati tipoa oihartzuneko balioa.
$VM_{i0}$	i poligono fiskaleko lurzati tipoa merkaturako balioa.

$VAC_{i0}$	i poligono fiskaleko lurzati tipoa eraikuntzen egungo balio osoa, antzintasuna zero denean.
$ks_i$	i poligono fiskaleko lurzorua higiezin-prozesuaren kostuaren koefizientea, 21. arauari jarraituz.
$SCC_{i0}$	i poligono fiskaleko lurzati tipoa finkatzen duten higiezin-unitateen kalkulatu azalera osoa.
$E_{i0}$	i poligono fiskaleko lurzati tipoa eraikigarritasuna.
$SNC_{i0}$	i poligono fiskaleko lurzati tipoa lurzoru finkatugabearen azalera.

b) Lurzati tipoa erabilerak zehaztu ez badira merkaturako balio erabilgarriak globalak izateagatik eta, hala ere, nagusiak ez diren erabilerei dagozkien azalaren antzitasunak oihartzuneko balio ezberdinak lortzea justifikatzen bada, hurrengo urratsak jarraituko dira erabileren arabera oihartzuneko balioak kalkulatzeko:

1) Erabilera nagusirako oihartzuneko oinarritzko balioa kalkulatzeko. Hurrengo eragiketarik lortuko da: (lurzati tipoa merkaturako balio osoa ken eraikinaren eraikuntzen egungo balioa) zati erabilera bakoitzerako (lurzoruaren higiezin-prozesuaren kostuaren koefizientea bider erabilera unitateei dagozkien kalkulatu azalera eraikia bider erabileraren oihartzuneko balioaren eta erabilera nagusiaren oihartzuneko balioaren arteko erlazio-orako hartutako balioa) biderkaduren batura. Lurzati tipoa zati batean finkatuta badago, aurreko izendatzaileari eragiketa honen emaitza gehitu beharko zaio: erabileraren azalera eraikiak eraikigarritasunaren arabera onartukoaren aldean duen defizitak erabilerarako hartu duen erlazioaren erabilera guztietarako batura.

$$VR_{i10} = \frac{VM_{i0} - \sum_j VAC_{ij0}}{\sum_j ks_{ij} \times r_{ij} \times SCC_{ij0} + \sum_j r_{ij} \times (E_{ij0} \times S_{i0} - SCC_{ij0})}$$

Azalpena:

$VR_{i10}$	i poligono fiskaleko erabilera nagusiaren lurzorua oihartzuneko oinarritzko balioa metro karratuko.
$VM_{i0}$	i poligono fiskaleko lurzati tipoa merkaturako balio globala.
$VAC_{ij0}$	i poligono fiskaleko lurzati tipoa j erabileraren azalera eraiki osoaren egungo balioa.
$ks_j$	i poligono fiskaleko j erabilerarako lurzorua higiezin-prozesuaren kostuaren koefizientea, 21. arauari jarraituz.
$r_{ij}$	i poligono fiskaleko j erabileraren eta erabilera nagusiaren oihartzuneko balioen arteko erlazio-orako hartutako balioa.
$E_{ij0}$	i poligono fiskaleko lurzati tipoa j erabilerarako eraikigarritasuna.
$S_{i0}$	i poligono fiskaleko lurzati tipoa azalera.
$SCC_{ij0}$	i poligono fiskaleko j erabileraren higiezin-unitate tipoa kalkulatu azalera eraikia.

2) Oihartzuneko oinarritzko balioa erabileren arabera zehaztea. Erabilera nagusiaren oihartzuneko oinarritzko baliotik aurrera, oihartzuneko oinarritzko balioak kalkulatu dira erabilera bakoitzerako, honela: erabilera nagusiaren oihartzuneko oinarritzko balioa bider erabilera ezberdin oihartzuneko balioen arteko erlazio-orako hartutako balioak.

$$VR_{ij0} = VR_{i10} \times r_{ij}$$

Azalpena:

$VR_{ij0}$	i poligono fiskaleko j erabileraren lurzorua oihartzuneko oinarritzko balioa metro karratuko.
$VR_{i10}$	i poligono fiskaleko erabilera nagusiaren lurzorua oihartzuneko oinarritzko balioa metro karratuko.
$r_{ij}$	i poligono fiskaleko j erabileraren eta erabilera nagusiaren oihartzuneko balioen arteko erlazio-orako hartutako balioa.

c) Unitateen eta ez eraikin osoen merkaturako balio erabilgarriak izateagatik lurzati tipoa zehaztutako higiezin-unitate tipoen definizioa eta ezaugarriak biltzen dituen, ezberdin jokatuko da lurzati tipoa finkatuta dauden ala ez kontuan hartuta.

1) Lurzati tipoa finkatuta badago, erabilera bakoitzaren oihartzuneko oinarritzko balioa honela kalkulatu da: (unitatearen merkaturako balioa ken eraikuntzen egungo balioa) zati lurzorua higiezin-prozesuaren kostuaren koefizientea eta kalkulatu azalera eraikia.

$$VR_{ij0} = \frac{VM_{ij0} - VAC_{ij0}}{ks_{ij} \times SCC_{ij0}}$$

Azalpena:

$VR_{ij0}$	i poligono fiskaleko lurzati tipoaren j erabilerarako oihartzuneko oinarritzko balioa.
$VM_{ij0}$	i poligono fiskaleko j erabileraren higiezin-unitate tipoaren merkatuko balioa.
$VAC_{ij0}$	i poligono fiskaleko j erabileraren higiezin-unitate tipoaren eraikuntzen egungo balioa, antzintasuna zero denean.
$ks_{ij}$	i poligono fiskaleko j erabilerarako lurzoruaren higiezin-prozesuaren kostuaren koefizientea, 21. arauari jarraituz.
$SCC_{ij0}$	i poligono fiskaleko j erabileraren higiezin-unitate tiporako kalkulu azalera eraikia.

2) Lurzati tipoa zati batean finkatuta badago, b) letran bezala jokatuko da.

4. Aurreko kasuetako edozeinetan poligono fiskalean eraiki gabeko lurzoruaren balioak behar bezala agertzen dituen lagin adierazgarri bat badago, erabileren araberako oihartzuneko oinarritzko balioak kalkulatu beharko dira, metodo estatistikoak (adibidez, erregresio anizkoitza) aplikatuz, lurzoruaren balioak (hala denean urbanizazio kostuekin gehituta), erabileren araberako eraikigarritasunak eta lagineko lurzati bakoitzari aplikatzen ahal zaizkion oihartzuneko oinarritzko balioen faktore zuzentzaileak kontuan hartuta.

24. araua.—Eremuko edo poligono fiskaleko oinarritzko balioa zehaztea metro karratuko.

1. Udalerriko eremu edo poligono fiskal bakoitzerako eremuaren berezko balioa edo generikoa ezarriko da, nekazaritza eta basozaintzako erabileraz besteko erabilerari buruzkoa, eta horri "lurzoruaren oinarritzko balioa metro karratuko (VBSi)" esanen zaio.

2. Balorazio ponentziak zehaztutako lurzati tipoa (eraikigarritasunak, erabileren araberako oihartzuneko balioak eta guzti) duten eremuetan edo poligono fiskalean, poligono fiskaleko lurzoruaren oinarritzko balioa metro karratuko honakoa izanen da: erabilera bakoitzaren oihartzuneko balioa (23. arauari jarraituz kalkulaturakoa) bider eraikigarritasuna; eta biderkadura horien batura, poligonoan zehaztutako erabilera guztietarako.

Notazio matematikoa:

$$VBS_i = \sum_j VR_{ij0} \times E_{ij0}$$

Azalpena:

$VBS_i$	i poligono fiskaleko lurzoruaren oinarritzko balioa metro karratuko.
$VR_{ij0}$	i poligono fiskaleko j erabilerarako oihartzuneko oinarritzko balioa edo lurzati tipoaren oihartzuneko balioa.
$E_{ij0}$	i poligono fiskaleko lurzati tipoaren j erabilerarako eraikigarritasuna.

3. Gainerako eremuetan, lurzoruaren oinarritzko balioa metro karratuko merkatuaren arabera ezarritakoa izanen da eta honela adieraziko da: euro/lurzoruaren m<sup>2</sup>.

25. araua.—Erabileren araberako oihartzuneko oinarritzko balioak zuzentzeko irizpideak.

1. Balorazio ponentzian zehaztuko da poligono fiskal bakoitzaren barrenean erabilera bakoitzaren oihartzuneko oinarritzko balioei hurrengo faktoreetako baten batek ekarritako zuzenketa aplikatu behar zaizkien ala ez:

—Eremuaren edo poligono fiskalaren barreneko erakarguneekiko kokalekua, erabileren araberakoa.

—Eremuaren edo poligono fiskalaren barreneko irisgarritasuna.

—Planeamenduaren garapen maila eta hiri zerbitzuen kalitatea.

—Higiezin-merkatuaren dinamika, eragiketa kopuru handiagoa ala txikiagoa dakarrena.

—Eskaintzaren espezifikotasuna edo eskaeraren moda.

—Unitateen ezaugarri orokorrak, hala nola azalera, solairua, barne-kotasuna edo kanpokotasuna, forma koefizienteak, edo eskaintzari eta eskaerari eragiten dien eta lurzoruaren oihartzunari egozten ahal zaion beste edozein aldagai.

2. Higiezin-unitate baten balioaren kalkuluan zuzenketa aplikatzea Lurralde Aberastasunaren Erregistroko oinarritzko datuak aldatzeko prozeduren bidez gauzatuko da: higiezin-unitateari oihartzuneko balioaren erabileren araberako zuzentzaileak esleituko zaizkio eta zuzentzaile horiek

aldatzeko espeditentean justifikatu beharko dira, ponentzian zehaztutako irizpideen arabera.

26. araua.—Lurzoru libre finkatuaren balioa.

Metodo gehigarriaren bidez baloratzen diren eraikuntzako higiezin-unitateak dituzten esparruetan, lurzoru finkatuaren balorazioa azalera eraikiaren edo eraikigarriaren araberakoa izanen da; gauzak horrela, balio eremu beraren barrenean, tamaina ezberdina badute ere, azalera eraikiaren metro karratutan adierazitako eraikigarritasun bera duten esparruei balio bera emanen zaie. Era berean, eraikin berdinek finkatutako esparruek balio bera jasoko dute, lurzoruaren azalera edozein dela ere. Bat ez etortze hori zuzentzeko, titulartasun eta erabilera pribatuko esparruetan lurzoru libre finkatuaren edo finkatuta egoten ahal denaren kontzeptua sartuko da, honakoa biltzen duela: esparruaren balio gehikuntza, hirigintza aprobetxamendu handiagorik eman gabe, beste erabilera batzuetarako aukera ematen duen lurzoruaren azalera egotetik ateratzen dena.

Hirigintza aprobetxamenduan oinarritzen diren balorazio metodoak aplikatzeko esparruaren barrenean, ponentziak zehaztuko du eraikuntzak dituzten esparruen lurzoru libre finkatuari edo eraikuntzarik gabeko esparruetan finkatzen ahal den lurzoru libreari esleitzen ahal zaion metro karratuko balio zehatz bat, poligono fiskal edo balio eremu bakoitzerako, horretarako arrazoiak emanez. Halaber, balio hori esparru horren barrenean dauden, eraikuntzarik ez duten eta zero adinako eraikigarritasuna duten erabilera pribatuko esparruei aplikatzen ahalko zaie.

#### IV. KAPITULUA

##### Ondasunen balioa

27. araua.—Ondasunen balioa zehaztea.

1. Ondasunei erregistroko balioa esleituko zaie, arauetan hurrengo kasuetarako zehaztu bezala:

a) Higiezinak edo higiezin-unitate zehatz batek alta hartzea Lurralde Aberastasunaren Erregistroan.

b) Erregistro horretan ondasun zehatzei buruzko banakako aldaketak inskribatzea, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legean balioa kalkulatzeko esku hartzen duten oinarritzko datuetarako deskribatutako prozeduren bidez.

c) Foru lege horren 16.5 artikulua aipatutako ondasun berezien kalifikazioa galdu duten higiezinak lehen aldiz baloratzea balorazio ponentzian.

d) Erregistroan inskribatutako balioak oro har aldatzea, balorazio ponentzia berrikusiz edo, antzintasunak balioaren gainean duen eragina kontuan hartzen duten metodoei dagokienez, denbora igaro dela kontuan hartuz.

e) Sektoreko araudiak zenbait higiezinak ezarritako balioaren prezioa berrikustea.

f) Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legearen 40. artikuluan ezarritakoaren arabera ondasun bereziei ezarritako balioa aldatzea.

2. Hurrengo arauetan deskribatutako metodoen arabera, erregistroko balioa esleituko da baloratzeko unean indarra duen ponentziaren zehaztapenen arabera, eta Nafarroako Gobernuak ezartzen dituen eta balorazio ponentzia berrikusten hasteko erabakia hartzen den egunean indarrean dauden parametro orokorrak aplikatuz.

28. artikulua.—Eredu estatistikoaren bidez baloratzea.

Balorazio metodo zehatza eredu bakoitza argitaratutakoan zehaztuko da.

29. araua.—Kalkulu azalera eta elementu komunaren esleipena.

1. Higiezin-unitateen edo elementu komunaren eraikuntzen egungo balioa, lurzoruaren horien gaineko oihartzuna, esparruen finkatzea eta elementu komunetako partaidetza koefizienteak kalkulatzeko, unitate edo elementu komun bakoitzaren azalera eraikitza hartuko da hurrengo eragiketaren emaitza: azalera itxia gehi azalera irekia bider (1 ken 0,2 bider azalera irekiaren laugarren erroa).

$$SCC_i = SC_i + SA_i \times (1 - 0,2 \times \sqrt[4]{SA_i})$$

Azalpena:

$SCC_i$	i higiezin-uniteterako edo elementu komunetako kalkulu azalera eraikia.
$SC_i$	i higiezin-unitatearen edo elementu komunaren azalera eraiki itxia.
$SA_i$	i higiezin-unitatearen edo elementu komunaren azalera eraiki irekia.

Arau orokor honen salbuespena azalera eraiki itxia zero duten higiezin-unitateak dira. Horietarako azalera ireki osoa hartuko da kontuan.

2. Higiezin-unitate baten elementu komuneko partaidetza koefizientea,  $f_{ij}$  honela kalkulatu da: higiezin-unitatearen kalkulua azalera eraikia zati  $j$  elementu komunean parte hartzen duten higiezin-unitate guztien kalkulua azalera eraikien batura.

$$f_{ij} = \frac{SCC_i}{\sum_k SCC_k}$$

Azalpena:

$f_{ij}$	$i$ higiezin-unitatearen $j$ elementu komuneko partaidetza koefizientea.
$SCC_i$	$i$ higiezin-unitaterako kalkulua azalera eraikia.
$SCC_k$	$k$ higiezin-unitatearen azalera eraiki itxia, $j$ elementu komunean parte hartzen duena.

3. Banaketa horizontaleko araubidea eratzeko tituluan esleitu den partaidetza kuota Lurralde Aberastasunaren Erregistroan datu gisa agertzen ez bada, finkatzen duten higiezin-unitateei honela esleitu zaizkie finka koefizienteak:

a) Esparrua finkatzen duten higiezin-unitate bakoitzari azalera hau esleitzea: kalkulua azalera eraikia gehi partaidetza koefizientea bider parte hartzen duen elementu komun bakoitzaren kalkulua azalera eraikien batura.

b) Aurreko a) letraren arabera esleitutako azaleren batura, finkatzen duten eraikinetako higiezin-unitate guztiak.

c)  $i$  finkatzen duen higiezin-unitateari esleitutako azalaren eta b) letran lortutako baturaren arteko zatidura.

$$f_{i0} = \frac{SCC_i + \sum_j f_{ij} \times SCC_j}{\sum_l (SCC_l + \sum_m f_{lm} \times SCC_m)}$$

Azalpena:

$f_{i0}$	$i$ higiezin-unitatearen finka koefizientea
$SCC_i$	$i$ higiezin-unitaterako kalkulua azalera eraikia.
$f_{ij}$	$i$ higiezin-unitatearen $j$ elementu komuneko partaidetza koefizientea.
$SCC_j$	$j$ elementu komunerako kalkulua azalera eraikia.
$SCC_l$	$l$ finkatzen duen higiezin-unitatearen kalkulua azalera eraikia.
$f_{lm}$	$l$ higiezin-unitatearen $m$ elementu komuneko partaidetza koefizientea.
$SCC_m$	$m$ finkatzen duen $m$ higiezin-unitatearen kalkulua azalera eraikia.

30. araua.—Eraikuntzen egungo balioa kalkulatzeko.

1. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroiei buruzko 12/2006 Foru Legearen 24.2 artikulua aipatutako hegalkinaren eta zorupearen gaur egungo egoeraren balioari eraikuntzen egungo balioa esanen zaio, eraikuntzei aplikatzen zaizkion.

Eraikuntzen egungo balioa eraikuntzak osatzen dituen, lurzoruen oihartzunak ukitzen ez dituen eta lurzoruen oihartzunak ukitutako elementu komunetan parte hartzen ez duten higiezin-unitateei esleitzen zaie balioa izan da.

Halaber, balio hori eraikuntzen balioa metodo gehigarriaren bidez kalkulatzeko prozesuaren zati izan da.

2. Eraikuntzen ezaugarriak zehazteko sistema orokorraren mendeko higiezin-unitateetarako eraikuntzen egungo balioa kalkulatzeko, hurrengo urratsak emanen dira:

a) Higiezin-unitatea eta parte hartzen duen elementu komunak gauzatzeko kostua lortzea, eragiketa hau eginez: sistema orokorraren eraikuntzako oinarritzko modulua (gauzatzeko oinarritzko modulua) bider kalkulua azalera bider exekuzio materialaren kostua zenbatesten duen koefizientea, Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren datuetatik aterata.

b) Unitatea gauzatzeko kostua gehi unitateak parte hartzen duen elementu komun bakoitza gauzatzeko kostuen biderkadura, bider unitatearen duen partaidetza koefizientea.

c) b) letraren emaitza bider balorazio ponentzian poligono fiskalerako eta erabilerarako zehaztu den eraikuntza gauzatzeko kostuaren gaineko higiezin-prozesuaren kostuaren koefiziente biderkatzailea.

d) c) letraren emaitza bider 8.1 arauak aipatzen dituen eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak zehaztu dituen eraikuntzen balio-irabaziaren edo balio-galeraren koefizienteak.

$$VAC_{ijk} = MBCG \times [q_k \times SCC_k + \sum_l f_{kl} \times q_l \times SCC_l] \times kc_{ij} \times c081_k$$

Azalpena:

$VAC_{ijk}$	$k$ higiezin-unitatearen eraikuntzen egungo balioa, $j$ eraikuntza erabilerakoa, $i$ poligono fiskalean dagoena.
$MBCG$	Ezaugarriak zehazteko sistema orokorrerako eraikuntzako oinarritzko modulua (exekuzio materialaren oinarritzko modulua), 6. arauan zehaztu bezala.
$q_k$	Exekuzio materialaren kostua zenbatesten duen koefizientea, Lurralde Aberastasunaren Erregistroan $k$ higiezin-unitateari esleitua.
$SCC_k$	$k$ higiezin-unitaterako kalkulua azalera eraikia.
$f_{kl}$	$k$ higiezin-unitatearen $l$ komuneko partaidetza koefizientea.
$q_l$	Exekuzio materiala zenbatesten duen koefizientea, $l$ komunari Lurralde Aberastasunaren Erregistroan esleitua.
$SCC_l$	$l$ elementu komunerako kalkulua azalera eraikia.
$kc_{ij}$	Ponentzian $i$ poligono fiskaleko $j$ erabilerarako zehaztu den eraikuntza gauzatzeko kostuaren gaineko higiezin-prozesuaren kostuaren koefiziente biderkatzailea.
$c081_k$	$k$ unitatearen ezaugarrietatik ateratako koefiziente zuzentzaile osoa, 8.1 arauari jarraituz.

3. Eraikuntzen ezaugarriak luzeraren arabera zehazteko sistemaren mendeko higiezin-unitateetarako eraikuntzen egungo balioa hurrengo formularen bidez kalkulatu da:

$$VAC_i = MBCL \times q_i \times L_i \times c081_i$$

Azalpena:

$VAC_i$	$i$ higiezin-unitatearen eraikuntzen egungo balioa.
$MBCL$	Ezaugarriak luzeraren arabera zehazteko sistemarako eraikuntzako oinarritzko modulua, 6. arauan zehaztu bezala.
$q_i$	Lurralde Aberastasunaren Erregistroan $i$ higiezin-unitateari esleitutako eraikuntza kostua zenbatesteko koefizientea.
$L_i$	$i$ higiezin-unitateak Lurralde Aberastasunaren Erregistroan duen luzera.
$c081_i$	$i$ unitatearen ezaugarrietatik ateratako koefiziente zuzentzaile osoa, 8.1 arauari jarraituz.

4. Eraikuntzen ezaugarriak potentziaren arabera zehazteko sistemaren mendeko higiezin-unitateetarako eraikuntzen egungo balioa hurrengo formularen bidez kalkulatu da:

$$VAC_i = MBCP \times q_i \times P_i \times c081_i$$

Azalpena:

$VAC_i$	$i$ higiezin-unitatearen eraikuntzen egungo balioa.
$MBCP$	Ezaugarriak potentziaren arabera zehazteko sistemarako eraikuntzako oinarritzko modulua, 6. arauan zehaztu bezala.
$q_i$	Lurralde Aberastasunaren Erregistroan $i$ higiezin-unitateari esleitutako eraikuntza kostua zenbatesteko koefizientea.
$P_i$	$i$ higiezin-unitateak Lurralde Aberastasunaren Erregistroan duen potentzia.
$c081_i$	$i$ unitatearen ezaugarrietatik ateratako koefiziente zuzentzaile osoa, 8.1 arauari jarraituz.

31. araua.—Esparruko erabilera bakoitzaren oihartzuneko balioen kalkulua metro karratu eraiki bakoitzeko.

1. Lurralde Aberastasunaren Erregistroan hirigintza aprobetxamendua esleitua duten eta indarreko balorazio ponentziaren arabera poligono fiskal baten barrenean dauden esparru guztietan, poligono fiskalerako zehaztutako erabilera bakoitzari dagozkion oihartzuneko balioak kalkulatu dira metro karratu eraiki bakoitzeko.

2. Balio horiek eraikuntzek finkatu gabeko lurzoruen balioa kalkulatzeko edo, bestela, hori finkatzen duten higiezin-unitateen balioa metodo gehigarriaren bidez kalkulatzeko erabiliko dira.

3. Esparruko erabilera bakoitzaren oihartzuneko balioa honela kalkulatu da metro karratu azalera eraiki bakoitzeko: balorazio ponentziak erabilera horretarako zehaztutako oihartzuneko oinarritzko balioa bider Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren datuetatik ateratzen den eta 25. arauak aipatzen duen oihartzuneko oinarritzko balioaren koefiziente zuzentzailea.

Notazio matematikoan:

$$VR_{ijk} = VR_{ij0} \times c24_{jk}$$

Azalpena:

$VR_{ijk}$	i poligono fiskaleko k esparruko j erabileraren oihartzuneko balioa metro karratu eraiki bakoitzeko.
$VR_{ij0}$	i poligono fiskaleko j erabilerarako oihartzuneko oinarritzko balioa edo lurzati tipoaren oihartzuneko balioa.
$c24_{jk}$	j erabilerarako k esparruari esleitutako koefizientea, 25. arauari jarraituz.

32. araua.—Urbanizazio kostuak kalkulatzeko.

1. Hirigintza jarduketan baten mende jarri beharreko esparru bati edo batzuei hirigintza aprobetxamenduetan oinarritzen diren balorazio metodoak aplikatzean, urbanizazio kostuak hartu beharko dira kontuan. Horretarako, urbanizazio prozesu globalaren kostua zehaztuko da, eta baloratu beharreko esparruen artean banatuko da.

2. Urbanizazio kostu osoa balorazio ponentzian poligonoaren ekzekuzio-unitate adierazgarriari buruz agertzen diren eta 22. arauan aipatzen diren zehaztapenetatik aurrera kalkulatu da. Azalera gordinaren metro karratuko urbanizazio kostua urbanizazio kostu unitarioaren bidez zenbatesiko da ( $CU_{ij}$ ). Dena den, eman beharreko azalera garbia ezaguna bada, horren arabera aldatzen ahalko da, hurrengo formularen bidez:

$$CU_{ij} = CU_{i0} \times \frac{SB_{i0}}{(SB_{i0} - SN_{i0})} \times \frac{(SB_{ij} - SN_{ij})}{SB_{ij}}$$

Azalpena:

$CU_{ij}$	Urbanizazio kostua i poligono fiskaleko l-n dagoen j urbanizatu beharreko lurzoruaren m <sup>2</sup> -ko.
$CU_{i0}$	Urbanizazio kostua i poligono fiskaleko ekzekuzio-unitate adierazgarriaren m <sup>2</sup> -ko, 22. arauan zehaztu bezala.
$SB_{i0}$	i poligono fiskaleko ekzekuzio-unitate adierazgarriaren azalera gordin.
$SN_{i0}$	i poligono fiskaleko ekzekuzio-unitate adierazgarriaren azalera garbia.
$SB_{ij}$	Jatorrizko lurzatiaren azalera osoa.
$SN_{ij}$	Emaitzako lurzatiaren azalera osoa.

3. Urbanizazio kostu osoaren banaketa, lurzati bat baino gehiago badago:

- a) Baloratu beharreko lurzatiak prozesutik aterako direnak baldin badira, urbanizazio kostu osoa proportzioan banatuko da, birpartzelazio proiektuan lurzati bakoitzari esleitutako aprobetxamenduen arabera.
- b) Baloratu beharreko lurzatiak jatorrizko lurzatiak badira, urbanizazio kostua haien azalerekiko proportzioan banatuko da.

33. araua.—Eraikuntzek finkatu gabeko lurzoruaren balioa kalkulatzeko.

1. Eraikuntzek finkatu gabe dagoen arren, balizko hirigintza aprobetxamendua duen lurzoru baten balioa kalkulatzeko, hurrengo urratsei jarraituko zaie:

a) Balio unitarioa kalkulatzeko. Honela kalkulatu da: erabilera bakoitzaren oihartzuneko balio unitarioa (32. arauari jarraituz kalkulatu) gehi esparruaren erabilera horretarako zehaztutako eraikigarritasuna.

b) Lurzorua urbanizatu gabe badago, aurreko balio unitarioari 33. arauari jarraituz esparrurako kalkulatu diren urbanizazio kostuak kenduko zaizkio.

c) Balio unitario zuzenduaren kalkulua. Balio unitarioa 5. arauak aipatzen dituen koefiziente zuzentzailez biderkatuz zuzenduko da balio unitarioa.

Zuzenketa mugatu egingen da, balio zuzendua aurrekoaren %50etik beherakoa eta %120etik gorakoa izan ez dadin.

d) Balio unitario zuzendua bider lurzoruaren azalera.

Notazio matematikoan:

Lurzoru urbanizatueterako:

$$VSNC_{ik} = \left( \sum_j VR_{ijk} \times E_{ijk} \right) \times c05_k \times SNC_{ik}$$

Urbanizatu gabeko lurzorueterako:

$$VSNC_{ik} = \left[ \left( \sum_j VR_{ijk} \times E_{ijk} \right) - CU_{ik} \right] \times c05_k \times SNC_{ik}$$

Azalpena:

$VSNC_{ik}$	i poligonoko k esparruaren lurzoru finkatugabearen balioa.
$VR_{ijk}$	i poligono fiskaleko k esparruko j erabilerarako oihartzuneko balioa.
$E_{ijk}$	i poligono fiskaleko k esparruko j erabilerarako eraikigarritasuna.
$CU_{ik}$	i poligono fiskaleko k esparruari aplikatzen ahal zaion urbanizazio kostua m <sup>2</sup> -ko.
$c05_k$	k esparruaren ezaugarrietatik ateratako koefiziente zuzentzaile osoa da, 5. arauari jarraituz.
$SNC_{ik}$	i poligono fiskaleko k esparruaren azalera finkatugabea.

2. Finkatzen duen eraikuntzarik gabeko esparruetan, lurzoru finkatugabearen balioari finkatzen ahal den lurzoru librearen balioa, 26. arauan aipatua, gehituko zaio.

34. araua.—Eraikuntzak osatutako higiezin-unitateen balioa metodo gehigarriaren bidez kalkulatzeko.

1. Eraikuntzen ezaugarriak zehazteko sistema orokorraren mende dauden eta lurzoruaren oihartzunek ukitzen dituen edo horrek ukitutako elementu komun baten parte hartzen duten higiezin-unitateen balioa metodo gehigarriaren bidez kalkulatzeko, hurrengo urratsei jarraituko zaie:

a) Unitatearen kalkulu azalera eraikia gehi unitateak parte hartzen duen eta lurzoruaren oihartzunak ukitzen duen elementu komun bakoitzaren kalkulu azalera eraikiak bider unitateak elementu komunean duen partaidetza koefizientea.

b) Esparruan baloratu beharreko unitatearen helburuko erabileraren oihartzuneko balioa kalkulatzeko, 32. arauaren zehaztasunekin bat.

c) a) letraren emaitza bider b) letraren emaitza bider i poligono fiskaleko j erabilerarako lurzoruaren higiezin-prozesuaren kostuaren koefizientea, 21. arauari jarraituz.

d) Higiezin-unitatearen eraikuntzen egungo balioaren c) letraren emaitza, 30. arauari jarraituz kalkulatuakoa.

e) d) letraren emaitza bider 8.2 araua aplikatetik ateratako koefiziente zuzentzaileak.

$$VU_{ijkl} = [VAC_l + VR_{ijk} \times ks_{ik} \times (SCC_l + \sum_m f_{lm} \times SCC_m)] \times c082_l$$

Azalpena:

$VU_{ijkl}$	l higiezin-unitatearen balioa, k eraikuntza-erabilerakoa, i poligono fiskaleko j esparruan dagoena.
$VAC_l$	l higiezin-unitatearen eraikuntzen egungo balioa.
$VR_{ijk}$	i poligono fiskaleko j esparruko k erabileraren oihartzuneko balioa metro karratu eraiki bakoitzeko.
$ks_{ik}$	i poligono fiskaleko k erabilerarako lurzoruaren higiezin-prozesuaren kostuaren koefizientea, 21. arauan zehaztu bezala.
$SCC_l$	l higiezin-unitaterako kalkulu azalera eraikia.
$f_{lm}$	l unitateak m oihartzunak ukitutako elementu komunean duen partaidetza koefizientea.
$SCC_m$	m oihartzunak ukitutako elementu komuneko kalkulu azalera eraikia.
$c082_k$	l unitatearen ezaugarrietatik ateratako koefiziente zuzentzaile osoa, 8.2 arauari jarraituz.

Unitaterako horrela kalkulatu den balioari hauxe batuko zaio, hala denean: fl0 finka koefizientea bider (esparruaren lurzoru finkatugabearen balioa, 34. arauaren zehaztapenen arabera kalkulatuakoa, gehi 26. arauak aipatzen duen lurzoru libre finkatuaren balioa).

2. Eraikuntzen ezaugarriak potentziaren arabera zehazteko sistemaren mende dauden eta unitateari gehitu beharreko balioa duen esparruan fisikoki dauden higiezin-unitateen balioa metodo gehigarriaren bidez kalkulatzeko, eragiketa hau egin beharko da: eraikuntzen egungo balioa gehi esparruaren lurzoruaren balioa. Azken hori honela kalkulatu da: esparruaren azalera bider, 24. arauari jarraituz, eremu edo poligono fiskalerako zehaztutako oinarritzko balioa metro karratuko bider, 5. arauari jarraituz, j esparruaren ezaugarrietatik ateratako koefiziente zuzentzaile osoa.

$$VU_{ijk} = VAC_k + VBS_i \times S_{ij} \times c05_j$$

Azalpena:

$VU_{ijk}$	i poligono fiskaleko j esparruari lotutako k higiezin-unitatearen balioa.
$VAC_k$	k higiezin-unitatearen eraikuntzen egungo balioa.

VBS <sub>i</sub>	i eremuaren edo poligono fiskalaren oinarritzko balio unitarioa.
S <sub>j</sub>	i poligono fiskaleko j esparruaren azalera.
c05 <sub>j</sub>	j esparruaren ezaugarrietatik ateratako koefiziente zuzentzaile osoa da, 5. arauari jarraituz.

3. Ezaugarriak luzeraren arabera zehazteko sistemaren eta ezaugarriak potentziaren arabera zehazteko sistemaren mende dauden eta, esparru bati zuzenean lotu gabe, ukipen eremua duten higiezin-unitateen erakuntzen egungo balioak lurrak edo ukipen zerrendaren gaineko balizko eskubideak erosteko balioa hartzen du kontuan. Horren ondorioz, ez da egokia lurzoruaren balioa gehitzea.

$$VU_{ijk} = VAC_k$$

35. araua.—Eraikuntzak osatutako higiezin-unitate baten lurzoruari egozten ahal zaion balioa kalkulatzeko.

1. Eraikuntzak osatutako higiezin-unitate bat baloratzeko erabili den metodoa alde batera utzita, lurzoruari egozten ahal zaion balioaren zatia honakoa dela ulertzen ahalko da:

a) Sistema orokorraren arabera bereizitako eta eraispenaren arabera baloratu gabeko unitateetan, 35. araua unitateari aplikatuz ateratako balioa, baina eraikuntzen egungo balioan zero jarrita.

b) Eraispeneren arabera baloratutako unitateetan, unitaterako kalkulaturako balio bera, 37. arauari jarraituz.

c) Gainerako unitateetan, eragiketa honen emaitza: balorazio ponentzian eremurako ezarritako oinarritzko balio unitarioa bider lurzatiaren azalera edo unitateak lurzatiaren duen partaidetza edo ukipen azaleraren portzentajea.

36. araua.—Eraispeneren araberrako balorazioa.

1. Lurralde Aberastasunaren Erregistroaren datu-basean eraitsi beharreko higiezin-unitateetat joko dira lurzoria finkatzen duten eta haien esparruaren erabilera handiagoa eta hobea gauzatzeko eraitsi behar diren unitateak. Erabilera handiagoa eta hobea izanen da fisikoki gauzatzen ahal den, behar bezala justifikatuta dagoen, legez onartuta dagoen, finantzen aldetik egin daitekeen eta esparruaren baliorik handiena dakarren erabilera.

2. Eraitsi beharreko unitateetat jotako higiezin-unitateak dituzten esparruetan honela jokatu da:

a) Finkatzen ez duten higiezin-unitateen balioa honakoa izanen da: eraikuntzen egungo balioaren berdina, 30. arauari jarraituz kalkulatu.

b) Eraitsi beharreko unitateetat jo ez diren higiezin-unitateei metodo gehigarriaren bidez kalkulaturako balioa esleituko zaie, 35. arauari jarraituz, hala denean finkatu gabeko lurzorua eta lurzoru libre finkatuaren balioen zati proportzionala gehituta.

c) Eraitsi beharreko unitateetat jotako higiezin-unitate bakoitzaren balioa hauxe izanen da: finkatzen duen lurzoruaren azaleraren balizko balioa edo eraitsi ondoren azalera izango lukeen balioa (34. arauari jarraituz kalkulatu) ken Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak onetsi dituen zehaztapenen arabera lortutako azalera eraikiaren eraispen gastua, 7. arauari jarraituz. Kendu beharreko eraispen kostua lurzoruaren balizko balioaren %30ekoa izanen da, kalkularen arabera hori gainditzen badu. Hala denean, unitate horien balioari finkatu gabeko lurzoruaren eta lurzoru libre finkatuaren balioen zati proportzionala gehituko zaio.

37. araua.—Kapitalizazioaren araberrako balorazioa.

1. Kapitalizazioaren araberrako metodoan, ondasunaren balizko errenta edo errenta erreala eguneratuz baloratzen da.

Arau hauen ondorioetarako, higiezinaren balizko errentetat joko da higiezinaren haren ustiapenak ziur aski lortuko duen mozkin garbiari egiten dion ekarpena, eremuko batez besteko ekoizpen faktoreak edo ohikoan aplikatuz. Enpresaburu batek, hura ustiatzeko asmoz, eraikina alokatzeko urtean ordainduko lukeen eta ustiapen kontuen aurreikuspenetik aurrera lortzen den zenbatekoaren bidez zenbatets daiteke.

Higiezinari errenta erreala esleitzea eremuko antzeko ondasunen alokairuari buruzko merkatuko azterlanetik aterako litzateke, eta antzeko ezaugarriak dituzten higiezinaren egoera arruntean lortuko luketen batez besteko alokairua edo seguruenak ekarriko luke. Errenta erreala eguneratzeko metodoa aplikatzeko, nahitaezko baldintza izanen da ondasunaren errenta errealearen behar bezalako estimatzailea izatea, alokairuen merkatuaren lagin adierazgarri baten bidez lortutakoa. Errenta errealar %15 kenduko zaio, gastu, hutsune eta ordaingabeetarako.

2. Balizko errentak eguneratzeko, ondasunaren balioa higiezinari egozten ahal zaizkion etorkizuneko urteko errenta guztien gaur egungo balioaren bidez zehaztuko da; balio hori higiezinaren balio bizitzaren urte guztietarako aldi bakoitzerako aurreikusitako kutxako fluxuen batura da, fluxuetatik kostu, norberaren eta besteren lansari eta ustiapenaren mozkin guztiak kenduta; honela eguneratuko dira: fluxuak zati (1 gehi igarotako urteetara jasotako kapitalizazio tasa gehi balio bizitzaren amaierako erai-kinare gaineratiko balioa). Azken hori modu berean eguneratuko da.

Notazio matematikoan:

$$VA = \sum_{t=1}^n \frac{R_t}{(1+i)^t} + \frac{VR}{(1+i)^n}$$

Azalpena:

VA	Ondasunaren egungo balioa.
R <sub>t</sub>	Higiezinari egozten ahal zaion urteko errenta, t urteari dagokiona
t	Higiezinaren bizitza urteak.
n	Higiezinaren balio bizitzaren urteak.
i	Kapitalizazio tasa, bateko honenbestean adierazita.
VR	Higiezinaren balio bizitzaren amaierako gaineratiko balioa.

Aplikatu beharreko kapitalizazio tasa Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak onetsitakoa izanen da. "Bateko honenbestean" adieraziko da, eta ondasun motaren eta erabileraren araberrakoa izaten ahalko da.

3. Errenta errealar %15 kenduko zaio, gastu, hutsune eta ordaingabeetarako, eta emaitza betiko eguneratuko da, eguneratze tasaz zatituz.

Aplikatu beharreko eguneratze tasa Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak onetsitakoa izanen da. "Bateko honenbestean" adieraziko da, eta ondasun motaren eta erabileraren araberrakoa izaten ahalko da.

38. araua.—Lurzoria lehen mailako aprobetxamendu motaren araberrako batez besteko balioen metodoaren bidez baloratzea.

1. Metodo hori lurzoria osatzen dituen eta nekazaritza eta basozaintzako aprobetxamendu mota eta balio intratipoaren klasea esleituta dituzten higiezin-unitateei aplikatzen ahalko zaie.

Unitateen nekazaritza eta basozaintzako aprobetxamenduaren araberrako balioa honela kalkulatu da: azalera bider udalerriko motari eta klaseari dagozkion azalera unitateko balio koefizientea (balorazioa egiten den egunean indarrean dagoen balorazio ponentzian ezarritakoa) bider 9. arauak aipatzen duen eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak onetsi duen merkatuko kasuko erreferentzia koefizientea.

$$VU_{ijk} = S_{ijk} \times CV_{ij} \times CMAF$$

Azalpena:

VU <sub>ijk</sub>	i motako j klaseko k higiezin-unitatearen balioa.
S <sub>ijk</sub>	k higiezin-unitatearen azalera.
CV <sub>ij</sub>	Udalerriko i motako j klaseari dagokion azalera-unitateko balioaren koefizientea.
CMAF	9. arauak aipatzen duen lehen mailako aprobetxamendu motaren araberrako merkatuko kasuko erreferentzia koefizientea.

39. araua.—Merkatua erkatuz baloratzea, egungo balioak zenbatesteko eredu estatistikorik aplikatu gabe.

14. arauari jarraituz, Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak onetsitako zenbatespen ereduak aplikatzea bidezkoa ez bada eta, 15. arauak aipatzen dituen ezaugarri ezagunak dituzten ondasun ezagunen merkatuko balio errealei buruzko informazioa eskura badago eta denboraren joan-etorriak, kokalekuak eta beste ezaugarri jakin batzuek balio horien gainean dituzten ondorioak zenbatesiz homogeneizatze behar beste elementu badaude, antzeko ondasunak baloratzeko proposamena ezartzen ahalko da, laginen ondoriozko parametroak eta hartutako homogeneizazio irizpideak barne direla.

Aipatutako ondorioak zenbatesteko, lagina bera ez ezik, arauditik eta bibliografiatik ateratako parametroak ere hartzen ahalko dira kontuan, haien jatorria behar bezala dokumentatuta eta aplikazioa behar bezala justifikatuta.

F1003346

## 1.2. AGINTARIK ETA LANGILEAK

### 1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

**640/2010 EBAZPENA, martxoaren 8koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, zenbait izangai Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario izendatzen dituen, Laborategiko laguntzaile teknikoaren (herri lanak) lanetan aritzeko, eta lanpostuak esleitzen dizkiena.**

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak martxoaren 8an emandako 640/2010 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Adminis-

trazioko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario izendatu dira, Laborategiko laguntzaile teknikoen (herri lanak) lanetan aritzeko, Íñigo Aldunate Echarrri, María Cía Clemente, María Luisa Torregrosa Braco, Gascón Iurre Sanz, José Domingo Fernández Cardesa eta David Soto Díaz jaun-andreak, txanda irekikoak, eta lanpostu huts hauek esleitu zaizkie:

Íñigo Aldunate Echarrri jaunari, 6485 zenbakidun lanpostu hutsa, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiari atxikia, destinoa Burlatan.

María Cía Clemente andreari, 4907 zenbakidun lanpostu hutsa, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiari atxikia, destinoa Burlatan.

María Luisa Torregrosa Braco andreari, 7968 zenbakidun lanpostu hutsa, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiari atxikia, destinoa Burlatan.

Gascón Iurre Sanz jaunari, 7967 zenbakidun lanpostu hutsa, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiari atxikia, destinoa Burlatan.

José Domingo Fernández Cardesa jaunari, 2131 zenbakidun lanpostu hutsa, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiari atxikia, destinoa Burlatan.

David Soto Díaz jaunari, 2128 zenbakidun lanpostu hutsa, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Herri Lan Zuzendaritza Nagusiari atxikia, destinoa Burlatan.

Deialdia 2009ko 61. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, maiatzaren 20an.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an.—Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia, Gregorio Eguílaz Gogorza.

F1004876

**641/2010 EBAZPENA, martxoaren 8koa, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko lan bidezko terapeuta izateko 7 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko prozedura bukatzen duena.**

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, martxoaren 8ko 641/2010 Ebazpenaren bidez, bukaera eman dio Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko lan bidezko terapeuta izateko 7 lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko prozedurari, eta lanpostu hauek esleitu ditu:

Susana López Ayesa andreari, 8332 zenbakidun lanpostu hutsa, Nafarroako Mendekotasun Agentziari atxikia, destinoa Iruñean.

María Luisa Taus Ibaurren andreari, 8334 zenbakidun lanpostu hutsa, Nafarroako Mendekotasun Agentziari atxikia, destinoa Iruñean.

Deialdia 2009ko 66. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, maiatzaren 29an.

Iruñean, 2010eko martxoaren 8an.—Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia, Gregorio Eguílaz Gogorza.

F1004877

## 1.2.2. Oposizioak eta lehiaketak. Lan publikoaren eskaintza

**DEIALDIA, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak maiatzaren 12an emandako 51/2010 Ebazpenaren bidez onetsia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko unibertsitateko erdi mailako tituludun (Laneko Arriskuen Prebentzioa) izateko hiru lanpostu oposizio bidez betetzeko.**

Maiatzaren 12an emandako 51/2010 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko unibertsitateko erdi mailako tituludun (Laneko Arriskuen Prebentzioa) izateko hiru lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zuen.

Hautapen prozesua honako hauetan xedatutakoari jarraikiz eginen da: Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuen Testu Bategina, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aipatu estatutua garatu eta betearazteko Sarrera Erregelamendua, gainerako aplikazio arauak eta deialdi honen oinarriak.

## OINARRIAK

1.—Deialdiaren xedea.

1.1. Unibertsitateko erdi mailako tituludunen (Laneko Arriskuen Prebentzioa) 3 lanpostu oposizio bidez betetzea du xede deialdi honek. Lanpostuak funtzionarioen araubidekoak eta B mailakoak dira, Iruñean aritzeko, eta txanda hauetan banatzen dira:

—Lanpostu bat txanda irekian.

—Bi lanpostu, igoera txandan.

1.2. Deialdiko lanpostu hutsak hauek dira:

—Lanpostu bat, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusian. Plantillako zenbakia: 38033.

—Bi lanpostu Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusian. Plantillako zenbakiak: 5814 eta 8285.

1.3. Igoera txandako lanpostuak hutsik geldituz gero, izangaiek ez dutelako lortu hautaprobak gainditzeko behar den gutxienezko puntuazioa, txanda irekiko gehituko zaizkie.

Bestaldekik, igoera txandan, hutsik dauden lanpostuak baino izangai gehiagok gainditzeko badute, txanda horretan lanpostuak eskuratzen ez dituztenek aukera izanen dute txanda irekiko lanpostu hutsak eskuratzeko, txanda horretako izangaiekin lehian eta eskuratutako azken puntuazioaren arabera.

Era berean, deialdiaren 7.2 oinarrian agiriak aurkezteko ezarritako epea bukatzen denean, deialdiaren 2.1.2 oinarriko betebeharrak berariazkoak betetzen ez dituzten igoera txandako izangaiek aukera izanen dute txanda irekiko lanpostuak eskuratzeko, aurreko leheraldian adierazitako modu berean.

1.4. Lanpostuak B mailako lansariak izanen dituzte, uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Lansarien Behin-behineko Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz.

1.5. Halaber, deialdi honen bidez sarrerako hautapen prozesuan lanposturik lortzen ez duten izangaiekin aldi baterako kontratatuak izateko izangaien zerrenda hauek osatu nahi dira, 10. oinarrian xedatutakoarekin bat:

a) Probak gainditu arren, lanposturik lortzen ez duten izangaien zerrenda.

b) Oposizioko bigarren ariketa gainditu arren ariketa guztiak gainditzeko ez dituzten izangaien zerrenda, Administrazio Erroan aldi baterako kontratatuak izateko.

2.—Baldintzak.

2.1. Oposizio honetan onartuak izateko, izangaiek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean eta agiriak aurkezteko epea bukatzen denetik (deialdiaren 7.2 atalean adierazita) lanpostuaren jabetza hartu arte, baldintza hauek bete behar dituzte:

2.1.1. Izangai guztiak bete beharke baldintzak.

a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa edo, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa.

Orobat, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuak herriarren ezkontideek, edo aipatu nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartutako estatuak herriarren ezkontideek, zuzenbidez berezita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez berezita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteta izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina gainditua ez izatea.

c) Unibertsitateko diplomadun titulua, ingeniari tekniko edo arkitekto teknikoarena edo horien baliokidea den beste titulu bat edukitzea, edo eskuratzeko baldintza guztiak betetzea eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, edo lizentzia edo ingeniarietza bateko edo arkitektureko lehenengo hiru ikasturteak osorik gaindituak izatea.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharke da.

d) Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduen 37. artikulua ezartzen dituen goragoko eginkizunetan aritzeko gai dela dioen ziurtagiria izatea; hain zuzen, prebentzio hiru diziplinetan aritzeko: Laneko Segurtasuna, Industria Higienea eta Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatua, aipatu erregelamenduan eta horren ondotik emandako garapen arauetan ezarritakoari jarraikiz.

e) B motako ibilgailuen gidabaimena izatea.

f) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisikoa eta psikikoa izatea.

g) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik berezita ez izatea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek frogatu beharko dute ez dutela diziplina zehapenik edo zigor penalik beren estatuko funtzio publikoan sartzea eragozten dienik.

2.1.2. Igoera txandako izangaiek bete beharreko baldintzak.

Igoera txandako izangaiek, aurreko atalean adierazitako baldintzez gain, hauek ere bete beharko dituzte:

a) Nafarroako edozein administrazio publikotako langile finkoa izatea, edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari transferitutako Justizia Administrazioaren zerbitzuei atxikitako langile finkoa, eta abiapuntuko lanpostuan borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

b) Deialdiko lanpostu hutsen maila berekoa edo apalagokoa izatea.

c) Administrazio publikoetan bost urteko antzinatasun aitortua izatea, Nafarroako polizia kidegoetako kideen kasuan izan ezik, horiek frogatu beharko baitute zortzi urtez benetan eman dituztela zerbitzuak kidego horietan.

Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren zortzigarren xedapen gehigarrian ezarri dena aplikatuz, igoera txandan parte hartzeko gainerako baldintzak betetzen dituzten Nafarroako Parlamentuko funtzionarioek ere txanda horretan parte hartzen ahalko dute.

2.2. Deialdiaren 3.3 oinarriaren B) letran aipatzen den salbuespena salbuespen, izendatuak izateko proposatzen diren izangaiek deialdiaren 7.2 atalean ezarritako epean eta moduan frogatu beharko dituzte betebeharrak horiek.

3.–Eskabideak.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean (Karlos III.aren etorbidea, 2; 31002 Iruña) edo Nafarroako Gobernuaren gainerako erregistro bulegoetako edozeinetan (zerrenda 2008ko 14. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 30ean) aurkeztuko dira, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazi diren bideetako bat erabiliz, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hogeita hamar egun naturaleko epean.

Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian eginen da, postako langileek data eta ziguila jar ditzaten, ziurtatu aurretik.

Eskabideak deialdi honen eranskineko ereduari lotu behar zaizkio eta, horietan, izangaiek adierazi beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela. Eredu hori Nafarroako Gobernuaren edozein erregistro bulegotan dago eskuragarri. Interneten bidez ere lortzen ahal da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, bai argitaratzen den aldizkari ofizialetik abiatuta, bai atal honetatik abiatuta: "Zerbitzuak", "Enplegu Publikoa".

3.2. Eskabideari, behar bezala bete ondoren, agiri hauek erantsiko zaizkio:

A) Izangai guztiak aurkeztu beharreko agiriak.

Bat.–Nortasun agiri nazionalaren fotokopia, edo izangaiaren nortasuna frogatzen duen beste agiri baliokideren batena.

Bi.–Espedientea formalizatuko eta azterketa eskubideetarako 40 euro ordaindu izanaren jatorrizko ziurtagiria. Azterketa eskubideen tasa ordaintzen ez bada, baztertu egingen da izangaiak.

Sistema hauetako bat erabiliz ordaintzen ahalko da tasa hori:

–Behar den bezala betetako ordainketa gutunaren bidez (Nafarroako Foru Komunitateko banku entitateetan ordaintzeko). Interneten, deialdiaren iragarkian, agertzen da ordainketa gutunaren eredu, arestian aipatutako helbidean.

–Banestoko (Banco Español de Crédito) 0030 8124 87 0870002271 kontuan eskudirutan edo bankuko transferentzia bidez ordainduz; horrelakoetan, ordainagirian datu hauek jarri beharko dira nahitaez:

–Izangaiaren izen-deiturak.

–NAN/IFZ.

–Ordainketa zein kontutan egiten den, haren zenbakia.

–Kontzeptua: oposizioak.

–Deialdiaren xede den lanpostua.

Honako hauek ez dute tasarik ordaindu beharko:

a) %33ko edo hortik gorako desgaitasun aitortua duten pertsonak.

C) atalean ezarri bezala frogatu beharko da hori.

b) Deialdia argitaratu aurretik hilabetez edo luzaroago lan eskatzaile gisa inskribaturik egon diren pertsonak. Salbuespen hori aplikatzeko baldintza izanen da inskribaturik egon diren bitartean eskainitako inolako lan egokiri uko egin ez izana eta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari uko egin ez izana, justifikatutako kasuetan izan ezik, eta, horrez gainera, lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorakoa den diru-sarrerarik ez izatea hilabetero.

Lan eskatzailea dela frogatzeko, enplegu bulegoak emandako agiria aurkeztu beharko du. Bertan, lan eskatzaile gisa inskribatu zeneko data

agertuko da eta, orobat, adieraziko da inskribaturik egon den bitartean ez diola uko egin handik eskaintako inolako lan egokiri, ezta lanbide sustapen, prestakuntza edo aldaketarako ekintzetan parte hartzeari ere, justifikatutako kasuetan izan ezik.

Interesdunaren aitoprenaren bidez frogatuko da ez duela hilabetero lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako diru-sarrerarik. Aitopren eredu Nafarroako Gobernuaren Informazio Bulegoan eskuratzen ahalko da, edo bestela Interneten bidez, arestian emandako helbidean.

B) Igoera txandako izangaiek aurkeztu beharreko berariazko dokumentazioa, izangai horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa ez den Nafarroako beste administrazio publiko bateko langile finkoak badira edo Nafarroako Foru Komunitatera transferitutako Justizia Administrazioari zerbitzuei atxikitako langile finkoak badira:

A atalean adierazitakoaz gain, ondokoa aurkeztu beharko dute:

–Deialdi honen 2.1.2. ataleko a), b) eta c) letretan aipatzen diren betebeharrak frogatzen dituzten agiriak.

C) Desgaitasuna duten izangaiek.

3.2 oinarriaren A) atalean (tasak ordaindu beharrik ez izatea) eta 8. oinarrian (lanpostuak aukeratzeko lehentasuna) xedatutakoari dagokionez, eta denborak eta baliabideak egokitzea eskatzeko, %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten izangaiek hori frogatu beharko dute, jatorrizko agiri hauetako baten bidez edo kopia konpultsatuen bidez:

–IMSERSOK edo autonomia erkidegoan eskumena duen organoak lizatutako ziurtagiria.

–Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ebazpena, prestazio bat jasotzeko eskubidea onartzen diona hauetakoren bat izateagatik: ezintasun iraunkor osoa, erabateko ezintasun iraunkorra edo baliazintasun handia.

Desgaitasuna duten izangaiek ariketak egiteko denboretan eta baliabideen egokitzapenak eskatzeko, hala adierazi beharko dute eskabidean, eta aparteko orri batean azaldu beharko dute nolako desgaitasuna duten eta zein egokitzapen eskatzen duten. Egokitzapenak eskatzeko bada eredu bat interesdunen eskura [www.navarra.es](http://www.navarra.es) web orrian, Zerbitzuen Katalogoko "Enplegu Publikoa" atalean, deialdiaren aipuan.

3.4. Eskabideak aurkezteko epea ezin izanen da luzatu.

3.5. Eskabidean atzematen diren akats materialak edo egitekoak ofizioz edo interesdunak eskaturik zuzentzen ahalko dira, noiznahi ere.

4.–Izangaien onarpena eta erreklamazioak.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Sarrerarako Hautapenaren Zerbitzuko zuzendariak, erakunde autonomoko zuzendari kudeatzaileak emandako eskuordetaz (103/2008 Ebazpena, ekainaren 26koa), ebazpena emanen du izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

4.2. Behin-behineko zerrenda Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik, izangai bazterteak hamar egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko.

4.3. Erreklamazioak aurkezteko epea bukatutik eta haien gainean ebazti ondoren, Administrazio Publikoaren Institutuko Sarrerarako Hautapenaren Zerbitzuko zuzendariak, erakunde autonomoaren zuzendari kudeatzaileak emandako eskuordetaz (103/2008 Ebazpena, ekainaren 26koa), ebazpena emanen du izangai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadila aginduko du.

4.4. Izangaiei ez zaizkie azterketa egiteko eskubideak itzuliko, baldin eta beraiei egotzitako arrazoiengatik bazterten badira.

5.–Epaimahaia.

5.1. Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

–Mahaiburua: Carlos Arrieta Del Valle jauna, Lehendakaria, Justizia eta Barne Departamentuko Gizarte Prestazioen Zerbitzuko zuzendaria.

–Ordezkoa: Francisco Javier Esparza Sánchez jauna, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendaria nagusia.

–Mahaikidea: M.<sup>a</sup> del Carmen De Andrés Vierge andrea, Hezkuntza Departamentuko Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Ataleko burua.

–Ordezkoa: Araceli Esandi Santesteban andrea, Laneko Medikuntzako sendagile espezialista, Hezkuntza Departamentuko Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Atalari atxikia.

–Mahaikidea: Francisco Javier Vitrián Ezquerro jauna, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Atal Teknikoko burua.

–Ordezkoa: Javier Razquin Lizarraga jauna, unibertsitateko goi mailako tituluduna, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Atal Teknikoari atxikia.

–Mahaikidea: langileen ordezkari bat, Administrazio Erroko Langileen Batzordeak proposatua.

–Ordezkoa: langileen ordezkari bat, Administrazio Erroko Langileen Batzordeak proposatua.

–Mahaikide idazkaria: Jesús Berraondo Ramírez jauna, Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuko Laneko Arriskuei Aurrea hartzeko Ataleko burua.

–Ordezkoa: Víctor Manuel Idoate García jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuari atxikitako medikua.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu da.

5.2. Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta aritu ere, kideen gehiengo osoa bertan izan gabe.

Kide anitzeko organoaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburua eta mahaikide idazkariak edo haien ordezkoez egon beharko dute bertan.

5.3. Epaimahaiko kideek ez dute parte hartuko eta, baldin eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean parte ez hartzeko aipatzen diren egoeretak batean badaude, eta organo dei egileari hala jakinaraziko diote.

Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errefusatzeari, egoera horietako bat gertatzen denean.

5.4. Epaimahaia gehiengo erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduaren gainean sortzen diren arazo guztiak.

5.5. Epaimahaia aholkulari adituen laguntza izan dezake, proba batzuetan nahiz guztietan. Aholkulari horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta haietan bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

6.–Oposizioa nola eginen den.

6.1. Oposizioa 2010eko irailean hasiko da. Onartu eta baztertu behin betiko zerrenda onesten duen ebazpenean bertan finkatuko dira probak hasteko tokia, eguna eta ordua.

Ondoren, epaimahaia gainerako probak egiteko iragarkiak jakinaraziko ditu, arazuz egin behar den moduan.

6.2. Oposizioak ariketa hauek izanen ditu:

Lehenbiziko ariketa: ariketa teorikoa, gai zerrendako gaiei buruzko 100 galdera erantzun beharko dira. Galdera bakoitzak erantzun batzuk izanen ditu aukeran, baina bat bakarria izanen da egokia. Erantzun okerrengatik puntuak kenduko dira. Ariketa hori egiteko izangaiek zenbat denbora duten adieraziko du epaimahaia haren hasieran.

Bigarren ariketa: ariketa teorikoa, hiru gai garatu beharko dira idatziz; eranskinean ageri den gai zerrendako zati bakoitzeko bat. Horretarako, epaimahaia zati bakoitzeko bi gai aterako ditu zozketaz, eta izangaiek horietako bat, nahi dutena, garatu beharko dute. Hiru gaiak garatzeko 5 ordu izanen dira gehienez.

Hirugarren ariketa: praktikoa, non hiru kasu idatzita azaldu beharko diren. Horiek epaimahaia proposatuko ditu eranskineko gai zerrendako bigarren zatiko (Laneko Segurtasuna eta Industria Higienea) eta hirugarren zatiko (Ergonomia eta Psikosoziologia) gaietatik. Ariketa hasi aurretik, epaimahaia erabakiko du zenbat denbora izanen duten izangaiek ariketa hau egiteko, baina gehienez lau ordu emanen dira.

Laugarren ariketa: ingeleseko probak, borondatezkoak eta ez baztergarriak. Aurreko hiru ariketak gainditu dituzten izangaiek egin ahalko dituzte. Idatzizko proba bat eta ahozko bat eginen dira, izangaien jakite maila zehatzeko. Proba horiek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuak prestatuko ditu eta haren emaitza loteslea izanen da epaimahaiarentzat.

6.3. Oposizioko ariketen balorazioan 100 puntu eman daitezke gehienez, honela banatuak:

–Lehenbiziko ariketa: gehienez ere 30 puntu.

–Bigarren ariketa: gehienez ere 30 puntu.

–Hirugarren ariketa: gehienez ere 30 puntu.

–Laugarren ariketa: gehienez ere 10 puntu.

6.4. Lehenbiziko, bigarren eta hirugarren ariketak baztertzailerak izanen dira. Bazterturik geldituko dira ariketa bakoitzean puntuaziorik altuena lortzen duen izangaiaren puntuazioaren erdira iristen ez diren izangaiek. Nolanahi ere, ariketa gaindituztat hartzeko, deialdiko oinarrietan ezarritako gehieneko puntuazioaren herena atera beharko da gutxienez. Halaber, bazterturik geldituko da bigarren edo hirugarren ariketetako gai edo kasu praktikoetako edozeinetan 0 puntuko kalifikazioa ateratzen duena.

6.5. Bigarren eta hirugarren ariketak plika sistemaren bidez eginen dira.

6.6. Ariketa bakoitza kalifikatu ondoren, epaimahaia jendaurrean jarriko du, Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean eta ariketa egin den tokian, gainditu duten izangaien zerrenda, lortutako kalifikazioekin eta, halaber, oposizioaren hurrengo ariketa egiteko tokia, eguna eta ordua, gutxienez 48 ordu lehenago. Zerrenda Interneten bidez ere kontsultatzen

ahalko da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, Zerbitzuen Katalogoan, Enplegu Publikoaren atalean, deialdiari buruz dagoen aiputik abiatuta.

6.7. Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra eginen da. Izangaiek aldean izan beharko dute nortasun agiri nazionala, pasaportea, gidabaimena edo epaimahaiaren iritziz identifikaziorako balio duen beste agiriren bat. Azterketara agertzen ez direnak edo arestian aipatutako agirietako baten bidez nor diren frogatzen ez dutenak oposiziotik baztertuko dira.

6.8. Hautaprobak egiteko, onartutako desgaitasunen bat dutenentzat beharrezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak ezarriko dira, eskubidean azaldutakoaren arabera.

7.–Probak gainditu dituztenen zerrenda, izendapen proposamena eta agirien aurkezpena.

7.1. Azken ariketaren kalifikazioa bukatutik, epaimahaia jendaurrean jarriko du probak gainditzen dituztenen zerrenda, oposizioan lortutako kalifikazioekin, egin diren tokian eta Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean. Gero, zerrenda hori eta espediente osoa igorriko dizkio Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileari, bai eta puntuaziorik altuena lortu dituzten eta deialdiko lanpostuetan sartzen ahal diren izangaiek izendatzeko proposamena ere. Proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrenda Interneten bidez ere kontsultatzen ahalko da, [www.navarra.es](http://www.navarra.es) helbidean, Zerbitzuen Katalogoan, Enplegu Publikoaren atalean, deialdiari buruz dagoen aiputik abiatuta.

Berdinketarik gertatuz gero, hirugarren ariketan puntu gehien lortzen dutenen alde ebatziko da. Eta hala ere berdinduta segitzen badute, lehenbiziko ariketan eta bigarren ariketan lortutako puntuazioak hartuko dira kontuan, ordena horretan.

7.2. Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko 30 egun naturaleko epean, proposatutako izangaiek berariazko inprimaki batzuk jaso eta honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Sarrerarako Hautapenaren Zerbitzuan:

7.2.1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finko ez diren izangaiek:

a) Nortasun agiri nazionalaren bi fotokopia konpultsatua, edo izangaiaren nazionalitatea eta nortasuna frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.

b) Deialdiaren 2.1.1.c) oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena, edo, hala bada, eskaerak aurkezteko epean titulua eskuratze moduan dagoela frogatzen duen ziurtagiria.

c) Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduen 37. artikulua ezartzen dituen goragoko eginkizunetan aritzeko gai dela dioten ziurtagirien fotokopia konpultsatua; hain zuzen, prebentzioko hiru diziplinetan aritzeko: Laneko Segurtasuna, Industria Higienea eta Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikatuak, aipatu erregelamenduan eta horren ondotik emandako garapen arauetan ezarritakoari jarraikiz.

d) B motako ibilgailuak gidatzeko baimenaren fotokopia konpultsatua.

e) Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Atalak emandako txostena, interesdunak karguan aritzea eragozten dion eritasun edo akats fisiko edo psikikorik ez duela frogatzeko.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioten frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

f) Eginkizun publikoetarako ezgaitua edo gabetua ez izatearen eta inongo administrazio publikoren zerbitzutik berezia ez izanaren zinpeko aitortpena.

Proposatutako izangaiek Espainiako nazionalitatea ez badute, zinpeko aitortpen bat aurkeztu beharko dute, adierazteko ez dutela beren Estatuko funtzio publikoan sartzeari eragozten dien diziplina zehapenik edo zigor penalik.

g) Zin egin edo hitz ematea Nafarroako Foru Araubidea errespetatuko duela, Konstituzioari eta legeri men eginen diela eta karguari dagozkion eginkizunak zuzen beteko dituela.

Deialdi hau egin ez duen Nafarroako beste administrazio publikoren bateko langile finkoek edo Nafarroako Foru Komunitateari transferitutako Justizia Administrazioari zerbitzuei atxikitako langile finkoek, gainera, beste ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, aurreko administrazioari espediente pertsonalean ageri diren inguruabar eta aurrekari guztiak frogatzeko, hots, sarrerari, zuzenitasunari, mailari, egoera administratiboari eta abarri buruzko guztiak.

7.2.2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoak diren izangaiek:

a) Deialdiaren 2.1.1.c) oinarrian eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua, edo hura lortzeko eskubideak pagatu direla frogatzen duen gordekinarena, edo, hala bada, eskaerak aurkezteko epean titulua eskuratze moduan dagoela frogatzen duen ziurtagiria.



b) Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduaren 37. artikulua ezartzen dituen goragoko eginkizunetan aritzeko gai dela dioten ziurtagirien fotokopia konpultsatua; hain zuzen, prebentzioko hiru diziplinetan aritzeko: Laneko Segurtasuna, Industria Higienea eta Ergonomia eta Psikosoziologia Aplikata, aipatu erregelamenduan eta horren ondotik emandako garapen arauetan ezarritakoari jarraikiz.

c) B motako ibilgailuak gidatzeko baimenaren fotokopia konpultsatua.

Desgaitasunen bat alegatu duten izangaiek, gainera, desgaitasuna deialdiko lanpostuarekin bateragarria dela dioten frogagiria aurkeztu beharko dute, balorazio eta orientazio talde eskudunek emana.

7.3. Aipatu epearen barnean, eta aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, arestiko agiriak aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira izendatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, beren eskabidearen faltsukeria dela-eta legokiekeen erantzukizuna galarazi gabe.

7.4. Aurreko atalean ezarritakoa gertatuz gero, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak probak gainditu dituztenen zerrendan, 7.1 atalean aipatutakoan, hurrengo den izangaia-ekin beteko du hutsunea, eta horrekin ere aurreko ataletan adierazitako moduan jokatu da.

7.5. Nahitaezko betebeharren frogagiriez gain, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, bere eskudantziak erabiltzeko, beste edozein agiri eskatzen badio izangaia, horrek deialdi honen 7.2 oinarrian ezarritako moduan aurkeztu beharko du.

8.–Lanpostu hutsak hautatzea.

8.1. Aurreko oinarrian xedatu dena betetzen duten izangaiek Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko (NAPI) hartarako jartzen dien epean aditzaera eman beharko dute eskaintzen zaizkien lanpostuetatik zein hautatzen duten. Lanpostu horiek deialdian sartutakoak izanen dira, edo horien ordezkoko beste batzuk, zerbitzuaren beharren ondorioz, eta hala jakinaraziko zaie.

8.2. Lanpostu hutsak aukeratzeko, %33ko desgaitasun aitortua edo handiagoa duten izangaiek lehentasuna izanen dute gainerako izangaien aurretik, kontuan hartu gabe zein txandaren bidez parte hartu duten.

Hala izanagatik ere, desgaitasuna duen izangairik bada, eta horrek eragina badu lanpostu bat edo bestea hautatzeko, aukeratzeko hasi aurretik, desgaitasunarekin hobekien egokitzen direnak esleitu zaizkie, horren gainean balorazio eta orientazio talde eskudunek egindako txostenaren arabera.

8.3. Hautaprobak igoera txandan gainditzen dituzten izangaiek deialdiko lanpostuak betetzeko lehentasuna izanen dute txanda irekiko izangaien aldean, aurreko atalean adierazitako salbuespenarekin betiere.

9.–Izendapena, lanpostuen esleipena eta jabetza hartzea.

9.1. Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiak, ebazpen baten bitartez, aurreko oinarrietan ezarritakoa betetzen duten izangaia Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio funtzionario izendatuko ditu, unibertsitateko erdi mailako tituludun lanpostuetan aritzeko (Laneko Arriskuen Prebentzioa). Ebazpen horren bidez lanpostuen esleipena ere eginen da.

9.2. Izendapenak eta lanpostuaren jabetza hartzeak nomina eta plantillako funtzionario bilakatuko ditu izendatuak, eta Nafarroako Foru Komunitateko funtzionarioen arloan indarra duten xedapenetan ezarri diren eskubide eta betebeharrak guztiak izanen dituzte. Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliatuko dira, araubide horretan ezarritakoaren babesean.

Aurrekoa gorabehera, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutua onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapen gehigarriaren 3. puntuan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz, Nafarroako administrazio publikoaren edozein montepioren eskubide pasiboetan sarturik daudenek bi aukera izanen dituzte: Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoaren montepioan segitzea, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen bidezko eskubide pasiboaren araubideak babesturik, edo Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartzea.

9.3. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da eta noiznahi aldatzen ahalko dute administrazio organo eskudunek, aplikatzeko den araudian ezarritakoarekin bat.

9.4. Funtzionarioek bizilekua destinoko herrian ez izateak ez du alde batera uzten lantokira puntual iritsi beharra eta lanaldia eta lanpostuko eginkizunak zuzen bete beharra, eta, gainera, ez da inolako konpentsaziorik jasoko lantokirako joan-etorriengatik.

Behar bezala justifikatutako kasu batzuetan, administrazio publikoek zilegi izanen dute funtzionarioei destinoko herrian bizi daitezela eskatzea, lanpostuko eginkizunengatik eta eskatzen den dedikazioagatik bidezkoa denean.

9.5. Izendapena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta izangai izendatuek hilabeteko epean jabetu beharko dute lanpostuez, izendapenaren jakinarazpenetik kontatzen hasita.

Aipatutako epean eta ezinbesteko kasuetan izan ezik, izangairen bat lanpostuaren jabe egiten ez bada, Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionario izateko eskubide guztiak galduko ditu. Hala gertatzen bada, deialdiaren 7.4 atalean ezarritakoari jarraikiko zaio.

9.6. Izangai bat funtzionario bihurtu eta lanpostuan batere aritu gabe, zuzenean eta berak eskatuta, borondatezko eszedentzia ematen bazaio jabetza hartzearen egunetik beretik, data horretan beste administrazio publiko batean ari delako, kasuko lanpostu hutsa ere deialdiaren 7.4 atalak agintzen duen moduan beteko da.

Era berean, administrazio publiko berean beste lanpostu bat lortzen duten funtzionarioek, maila berean nahiz beste batean, bat aukeratu beharko dute eta bestean borondatezko eszedentzia eskatzen ahalko dute.

9.7. Aurreko bi idatz-zatietan aipatutako kasuetan, izendapena egin aurretik hautaturiko lanpostua ez da ardatuko. Beraz, funtzionario berriei, zuzenean, egoera horien ondoriozko lanpostuak esleitu zaizkie.

10.–Aldi baterako kontratueterako izangaien zerrenda.

10.1. Kontuan harturik Nafarroako Administrazio Publikoaren sartzeko Erregelamenduaren 42. artikulua, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren azaroaren 14ko 146/2005 Foru Agindua (Lanpostuak aldi baterako betetzeko kudeaketa arauak onetsi zituen) eta oinarri honexetan ezarritako prozedura, eta horiei jarraikiz, aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrenda hauek prestatuko dira:

a) Sarrerako hautapen prozesuko ariketa guztiak gainditu arren lanposturik lortu ez duten izangaien zerrenda, bat bera Foru Komunitateko Administrazio departamentu eta erakunde autonomo guztientzat.

b) Hautapen prozesuko bigarren ariketa gainditu arren ariketa guztiak gainditu ez dituzten izangaien zerrenda, Administrazio Erroan aldi baterako kontratuak izateko.

10.2. Probak gainditu arren lanposturik lortu ez duten izangaien zerrenda eta Administrazio Erroan aldi baterako kontratatze izangaien zerrenda.

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Sarrerako Hautapenaren Zerbitzuak espedientea igorri ondoren, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez onetsiko dira probak gainditu arren lanposturik lortzen ez duten izangaien zerrenda eta bigarren ariketa gainditzen dutenena, une horretan indarrean diren kudeaketa arauekin bat, eta argitaratu egingen dira Nafarroako Gobernuak iragarki oholean (Karlo III.aren etorbidea, 2, atalondoa, Iruña) eta Nafarroako Gobernuaren web orrian: [www.navarra.es](http://www.navarra.es).

Hauxe izanen da aldi baterako kontratazio zerrenden ordena: oposizioa gainditu arren lanposturik lortzen ez duten kasu, sarrerako hautapen prozesuan lortutako puntuaziorik handienaren arabera; gainerako izangaien kasuan, gainditutako ariketetan lortutako puntuazioen batura. Berdinketa dagoenean, nor nagusitzen den erabakitzeko, deialdi honetan kasu horietarako ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

Aldi baterako kontratazio izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi interesdunei onartzen zaient 2. oinarrian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela; izan ere, horiek oinarri honetan adierazten den bezala frogatu beharko dituzte.

Izangaiei deitu eta, kasua bada, haiek kontratatzerakoan, Administrazio Erroan, honako hauetan xedatutakoari jarraikiz jokatu da: Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuen Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88.b) artikulua eta hurrengoak; lanpostuak aldi baterako betetzeko arauak ezartzeko Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak 2005eko azaroaren 14an eman zuen 146/2005 Foru Agindua (2005eko 144. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua, abenduaren 2an); eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deia egiterakoan, kontuan hartuko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriaren 4. atalean ezarritakoa.

Deialdiaren 2. oinarrian adierazten diren titulazio betebeharrak eta gidabaimenari dagozkionak betetzen direla frogatzeko agiriak kontratuak izateko deia jasotzen duten izangaiek bakarrik aurkeztu beharko dituzte, kontratua formalizatzen denean, jatorrizko agiriak edo behar bezala konpultsatutako kopien bitartez.

Eskatzen diren agiriak aipatu epean aurkezten ez dituzten izangaiek, aski justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, eta eskatutako baldintzak betetzen ez dituztenek deialdian parte hartzetik eratorritako eskubide guztiak galduko dituzte; betiere, parte hartzeko eskabidea faltsutzeagatik legokiekeen erantzukizuna galarazi gabe.

Sarrera prozesuko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira beharkizunak eta, orobat, hautaprobak egin bitartean eta kontratazioaldiak irau bitartean.

10.3. Sarrera prozesuko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira beharkizunak eta, orobat, hautaprobak egin bitartean eta kontratazioaldiak iraun bitartean.

10.4. Dokumentazioa aurkezteko epea bukatuz, Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, aldi baterako kontratueterako izangaien zerrendak onetsiko dira eta Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean argitaratuko (Karlos III.aren etorbidea, 2, atalondoa, Iruña).

10.5. Hauxe izanen da aldi baterako kontratazio zerrenden ordena: oposizioa gainditu arren lanposturik lortzen ez dutenen kasuan, sarrerako hautapen prozesuan lortutako puntuaziorik handienaren arabera; gainerako izangaien kasuan, gainditutako ariketetan lortutako puntuazioen batura. Berdinketa dagoenean, nor nagusitzen den erabakitzeke, deialdi honetan kasu horietarako ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

#### 11.–Errekurtsoak.

Epaimahaiaren egintzen eta ebazpenen kontra, gora jotzeko errekurtsioa jartzen ahaliko da, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileari zuzendua, errekurtsioaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Deialdiaren, oinarrien eta horiek aplikatzeko egintzen kontra, epaimahaiak hartutako kontra izan ezik, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsioa jartzea, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariari zuzendua, errekurtsioaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluan eta urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an.–Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea, Gregorio Eguilaz Gogorza.

## I. ERANSKINA - ESKABIDEA

### Hautaprobetan onartua izateko eskabidea

#### Deialdiaren datuak.

Lanpostua:
Deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizial honetan argitaratu zen: zenbakia: ....., eguna: .....

#### Sartzeko txandak.

Txanda irekia <input type="checkbox"/>	Igoera txanda* <input type="checkbox"/>	Desgaitasunen bat dutenentzako erreserba txanda* <input type="checkbox"/>
--	---	---

#### Norberaren datuak.

Izen-deiturak:		
NANA edo agiri baliokidea:		Jaioteguna:
Jaioterra:	( )	Nazionalitatea:
Helbidea:		
Herria:	Probintzia:	Posta kodea:
Sakelako telefonoa:	2. telefonoa:	
Posta elektronikoa:		

#### Aurkeztutako agiriak.

Desgaitasunaren frogagiria <input type="checkbox"/>	Denboren eta/edo baliabideen egokitzapenak eskatzen ditu, beste orri batean <input type="checkbox"/>	Euskararen gaitasun agiria edo baliokidea* <input type="checkbox"/>
---	--	---

#### Ondoko hauen proba eskatzen du:

Euskara* <input type="checkbox"/>	Ingelesa* <input type="checkbox"/>	Frantsesa* <input type="checkbox"/>
-----------------------------------	------------------------------------	-------------------------------------

Sinatzaileak eskaera egiten du eskabide honetan adierazitako prozesuan onartua izan dadin eta adierazten du, erantzukizuna berea izanik, bertan azaltzen diren datu guztiak egiazkoak direla, deialdiaren oinarrien eskatutako beharkizun guztiak betetzen dituela eta datu horiek guztiak dokumentuen bidez frogatzeko konpromisoa hartzen duela.

(Sinadura)

.....(e)n, 2010eko .....aren .....(e)an

NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA.  
LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA.

(\* ) Deialdiaren oinarrietan xedatutakoari jarraikiz.

## II. ERANSKINA - GAI ZERRENDA

### Lehen zatia

1. gaia.–Espainiako 1978ko Konstituzioa: printzipio orokorrak. Oinarriko eskubide eta betebeharrak. Botere Judiziala. Gorte Nagusiak: osaera eta eginkizunak. Gobernu eta Estatu Administrazioa. Konstituzio Auzitegia: osaera, izaera eta eskumenak.

2. gaia.–Europar Batasuna. Parlamentua. Europako Kontseilua. Europako Batzordea. Kontseilua (ministroena). Justizia Auzitegia. Beste erakunde batzuk.

3. gaia.–Europar Batasuneko antolamendu juridikoaren iturriak: jatorrizko zuzenbidea eta zuzenbide eratorria.

4. gaia.–Espainiako 1978ko Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa: izaera eta esanahia. Atariko titulua. Nafarroaren eskumenak.

5. gaia.–Nafarroako Parlamentua edo Gorteak. Nafarroako Comptos Ganbera. Arartekoa.

6. gaia.–Nafarroako Gobernua. Eginkizunak. Osaera, izendapena, eratzea eta kargu-uztea. Eskudantziak eta eskumenak. Funtzionamendua. Laguntzako eta sostenguko organoak. Nafarroako Parlamentuaren erantzukizun politikoa, kontrola eta desegitea. Nafarroako Gobernuko lehendakaria.

7. gaia.–Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen ezarritako printzipio orokorrak. Herritarren eskubideak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekiko harremanetan. Antolaketa: printzipio nagusiak eta egitura organikoa, kide anitzeko organoak eta administrazio organoen eskumenak.

8. gaia.–Administrazio publikoaren araubide juridikoaren printzipio orokorrak. Administrazio publikoaren organoak. Prozedura administratiboko interesdunak.

9. gaia.–Administrazioaren xedapenak eta egintzak. Egintza administratiboen betebeharrak. Egintzen eraginkortasuna. Deuseztasuna eta deusezgarritasuna.

10. gaia.–Prozedura administratiboen xedapen orokorrak: prozeduraren abiaraztea, antolamendua, instrukzioa eta amaiera. Bide administratiboko egintzen berrikuspene: ofiziozko berrikuspene eta administrazio errekurtsioak.

11. gaia.–Kontratu Publikoari buruzko Foru Legea: aplikaziorako arau orokorrak eta eremua. Kontratistak. Administrazio publikoaren kontratu guztietarako xedapenak. Esleipenaren aurreko jarduketak.

12. gaia.–Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutua. Langile motak. Funtzionario publikoak hautatzea. Administrazio egoerak. Funtzionarioen eskubideak, betebeharrak eta bateraezintasunak. Ordainsariak.

13. gaia.–11/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan Administrazio Elektronikoa ezartzei buruzkoa.

14. gaia.–21/2005 Foru Legea, abenduaren 29koa, Politika Publikoak eta Zerbitzu Publikoaren Kalitatea Ebaluatzei buruzkoa.

15. gaia.–15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa. 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua onesten duena.

16. gaia.–Osasunari buruzko Lege Orokorra. Osasunari buruzko Foru Legea. Horren egitura eta edukiaren analisisa. Laneko osasunaren aipamen berezia. Nafarroako Lan Osasunaren Institutua: eginkizunak eta eskumenak.

17. gaia.–Lanerako ezintasunak, aldi baterakoak eta iraunkorrak. Kontzeptu orokorrak. Laneko gorabeheren kontingentziak. Indarra duen araudia. Araubide desberdinen ezaugarri bereizleak: Gizarte Segurantzza, Nafarroako Gobernu Montepioa, MUFACE eta MUGEGU.

18. gaia.–Gizarte Segurantzaren Sistema. Erakunde kudeatzaileak. Entitate laguntzaileak. Gizarte segurantzako lan-istripu eta gaixotasun profesionalen mutualitateak. Alderdi orokorrak eta laneko segurtasun eta osasunarekin zerikusia duten jarduketak. Indarra duen araudia.

19. gaia.–Laneko Arriskuei Aurrea Hartzei buruzko Legea. Egitura eta edukiaren azterketa. Garatzeko araudia.

20. gaia.–Langileen eta enpresaburuaren eskubide eta eginbeharrak. Laneko Arriskuei Aurrea hartzei buruzko Legearen arabera. Ekoizleen, inportatzaileen eta hornitzaileen betebeharrak. Langileen kontsulta eta parte-hartzea, laneko arriskuei aurrea hartzeko.

21. gaia.–Prebentzio zerbitzuen Erregelamendua. Egitura eta edukiaren azterketa. Garatzeko araudia.

22. gaia.–Prebentzio jardueretarako baliabideen antolaketa. Modalitateak. Prebentzio zerbitzuak. Kotzeptu orokorrak. Betebeharrak. Eginkizunak. Baliabideak eta langileak. Kreditazioa.

23. gaia.—Erantzukizunak eta zehapenak Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan. Lan Arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legea.

24. gaia.—Laneko arriskuen prebentzioko araudia administrazio publikoei egokitzea. Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen esparruari egokitzea.

25. gaia.—Langile bereziki sentikorrek babestea. Amatasunaren eta adingabeen babesa.

26. gaia.—Laneko arriskuei aurrea hartzeko plana: politika, printzipioak eta helburuak, antolaketaren egitura, eginkizunak eta erantzukizunak.

27. gaia.—Laneko arriskuen ebaluazioa. Kontzeptu orokorrak. Metodologia. Prebentzio ekintzaren plangintza.

28. gaia.—Birkokatze prozedura, lanean aritzeko ezintasunagatik. 114/2002 Foru Dekretua, 2002ko ekainaren 3koa.

#### Bigarren zatia

##### Laneko Segurtasuna eta Industria Higienea.

1. gaia.—Laneko segurtasuna eta osasuna. Oinarrizko kontzeptuak. Lan baldintzak eta osasuna. Lan arriskuak. Lanak eragindako kalteak. Prebentzioa eta babesa. Laneko arriskuei aurrea hartzeko teknikak.

2. gaia.—Lan istripuak eta gaixotasun profesionalak. Kontzeptua. Jakinarazpena, erregistroa eta sailkapena. Lege araudia.

3. gaia.—Lan istripuen kostua: lan istripuen kostua, giza bizitzetan eta dirutan. Prebentzioaren analisia, kostua eta onura aztertuta. Enpresako istripuen analisi estatistikoa.

4. gaia.—Segurtasun teknikak. Istripuak ikertzea, prebentzioko teknika gisa.

5. gaia.—Istripuak gertatzeko arriskuaren analisia eta ebaluazio orokorra.

6. gaia.—Segurtasuneko araua eta seinalizazioa. Laneko arau eta prozedurak.

7. gaia.—Taldekako eta banakako babesa.

8. gaia.—Laneko tokiei loturiko berariazko arriskuen analisia, ebaluazioa eta kontrola. Aplikatu beharreko araudia.

9. gaia.—Suteei loturiko berariazko arriskuen analisia, ebaluazioa eta kontrola.

10. gaia.—Larrialdietarako eta autobabeserako planak.

11. gaia.—Laneko makinei eta ekipoei loturiko berariazko arriskuen analisia, ebaluazioa eta kontrola.

12. gaia.—Eraikuntza lanetako segurtasuna eta osasuna. Eraikuntza sektoreko azpikontratazioa.

13. gaia.—Enpresa jardueren koordinazioa. Prebentzioko baliabideak. Aplikatu beharreko araudia.

14. gaia.—Altuerako lanetako arriskuen prebentzioa.

15. gaia.—Lantokiko egurats lehergarrien ondoriozko arriskuen analisia, ebaluazioa eta kontrola. Aplikatu beharreko araudia.

16. gaia.—Gune konfinatuak. Kontzeptu orokorrak. Arriskuak eta jarduketak. Laneko baimena. Larrialdi eta erreskateko prozedurak. Gune konfinatuetako lantaldearen entrenamendua eta betebeharrak.

17. gaia.—Arrisku elektrikoa. Langileen osasunaren eta segurtasunaren babesa arrisku elektrikoaren aurrean.

18. gaia.—Oinarrizko kontzeptuak. Metodologia industria higienean. Kutsatzaile fisiko, kimiko eta biologikoak.

19. gaia.—Agente kimikoak. Lan-toxikologia. Kutsatzaile kimikoen sailkapena. Esposizioa eta dosia. Tokikoen ondorioak. Intoxikazio motak. Dosia-ondorioa eta dosia-erantzuna erlazioak. Esposizioko maila onargarriak.

20. gaia.—Agente kimikoak. Esposizioaren ebaluazioa.

21. gaia.—Agente kimikoak. Esposizioaren kontrola. Printzipio orokorrak. Gune kutsagarriaren aurkako ekintzak. Hedatzeko ingurunearen kontrako ekintzak. Nola jokatu gizabanakoekin.

22. gaia.—Agente kimikoak. Legezko arautegi berariazkoa.

23. gaia.—Lan egitean agente minbizi-sortzaileen aurrean egoteari loturiko arriskuak. Laneko agente minbizi-sortzaileak. Legezko arautegi berariazkoa.

24. gaia.—Segurtasun eta osasun arloko gutxieneko xedapenak, amiantoaren arriskuan egin beharreko lanei aplikatzekoak.

25. gaia.—Agente fisikoak. Zarata. Ezaugarri orokorrak. Zarataren ondorioak organismoan. Ebaluazioa eta kontrola.

26. gaia.—Agente fisikoak. Zarata. Zarataz inguratuta egotearen arriskuak. Legezko arautegi berariazkoa.

27. gaia.—Agente fisikoak. Bibrazioak. Ezaugarri orokorrak. Bibrazioz inguratuta egotearen arriskuak. Ebaluazioa eta kontrola. Legezko arautegi berariazkoa.

28. gaia.—Giro termikoa. Balantze termikoaren ekuazioa. Termorregrulazioko eta bero trukeko mekanismoak organismoaren eta ingurunearen artean. Aplikatu beharreko legeria.

29. gaia.—Giro termikoa. Ezaugarri orokorrak. Ondorioak. Ebaluazioa eta kontrola.

30. gaia.—Agente biologikoak. Agente biologikoez inguratuta egotearen arriskuak. Legezko arautegi berariazkoa.

#### Hirugarren zatia

##### Ergonomia eta Psikosoziologia.

1. gaia.—Ergonomia eta Psikosoziologia: kontzeptua eta helburuak. Ergonomiako eta Psikosoziologiako ikerketa teknikak: metodo kualitatiboak eta kuantitatiboak.

2. gaia.—Lanpostuko gorputz-jarrera. Oinarrizko gorputz-jarrerak. Bizkar-gerrialdeko patologiei aurrea hartzea.

3. gaia.—Lanaren karga fisikoa eta giharren eta eskeletoaren trastornoak. Arrisku faktoreen identifikazioa eta haien prebentzioa.

4. gaia.—Zamak eskuz jasotzearen ondoriozko arriskua ebaluatzeko metodoak. INSHT eta NIOSH metodoak.

5. gaia.—Giharren eta eskeletoaren trastornoak izateko arriskua ebaluatzeko metodoak. OWAS eta REBA metodoak.

6. gaia.—Goiko gorputz-adarreko giharren eta eskeletoaren trastornoak izateko arriskua ebaluatzeko metodoak. RULA eta Strain Index metodoak.

7. gaia.—Datuak ikusteko pantailak. Lanpostu pantailadunen ebaluazioa eta egokitzapena.

8. gaia.—Ingurumeneko baldintzak. Konfort termikoa. Ebaluazio metodoak: PMV eta PPD.

9. gaia.—Lanpostuen argiztapena. Ebaluatzeko eta egokitzeko irizpideak.

10. gaia.—Barreneko giroaren kalitatea. Eraikin erriaren sindromea. Faktoreak, lotutako arriskuak, haien ebaluazioa, prebentzioa eta kontrola.

11. gaia.—Lan denboraren antolaketari buruzko alderdiak. Erritmo zirkadianoak. Txandakako lana. Gaueko lana.

12. gaia.—Lanaren zama mentala. Zama hori baldintzatzen duten faktoreak. Ebaluatzeko metodoak. Zama mentala egokitzea.

13. gaia.—Laneko estresa I: estresoreak; estresaren faktore modularrak, erantzun fisiologikoak, kognitiboak eta portaerakoak.

14. gaia.—Laneko estresa II: estresaren ondorioak enpresarentzat eta langilearentzat. Prebentzio neurriak antolaketan eta gizabanakoen gainean.

15. gaia.—Burnout sindromea. Laneko estresaren ondoriozko arriskuaren ebaluazioa eta kontrola.

16. gaia.—Jazarpena lanean. Jazarpen psikologikoa: mobbing.

17. gaia.—Indarkeria lanean: indarkeria fisikoa, jazarpen sexuala.

18. gaia.—Arrisku psikosozialeko faktoreak ebaluatzeko metodoak: INSL eta ISTAS 21 metodoak.

19. gaia.—Esku-hartze psikosoziala lanaren antolaketan, zuzendaritzaren estiloan eta gizabanakoekin.

20. gaia.—Prestakuntza laneko arriskuen prebentzioan. Eskubideak eta betebeharrak. Prestakuntzaren plangintza enpresan. Beharren diagnostikoa. Helburuen definizioa. Prestakuntzaren metodo eta teknikak.

Oharra: bigarren zatiko gai guztiak bat etorriko dira deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean indarrean den legeriarekin.

F1004725

### 1.3. LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA HIRIGINTZA

**ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2010eko martxoaren 15ean hartua, "El Cerro de Valpertenan etxebizitzak eta 18 zuloko golf zelaia egiteko jarduketa eta Los Pinos sektorean etxebizitzak egiteko jarduketa" Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeko espedientearen tramitazioa hasten duena. AR-1 Cerro Valpertenan izeneko konpentsazio batzordeak sustatu du El Cerro sektoreko antolamenduari eta urbanizazio faseei buruz, besteak beste.**

I.—Aurrekariak.

Nafarroako Gobernuak 2007ko apirilaren 16an hartutako Erabakiaren bidez, Fontellasko "El Cerro de Valpertenan etxebizitzak eta 18 zuloko golf zelaia egiteko jarduketa eta Los Pinos sektorean etxebizitzak egiteko

jarduketa" udalez gaindiko plan sektoriala onetsi zen. Jarduketa horiek Fontellasko Udalak, Tenis Club Cerro Fontellas elkarteak eta Construcciones Monrepos, S.A.k sustatzen dituzte (2007ko 71. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, ekainaren 8koa).

Gero, Lurraldearen Antolamenduko eta Etxebizitzako zuzendari nagusiaren urriaren 31ko 375/2007 Ebazpenaren bidez, aipatu UPSko araudia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki zen. (2007ko 153. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abenduaren 10ekoa), eta orduan hasi zen lurraldearen antolamenduko tresna horren determinazioen indar betetzalea.

Gaur egungo UPSko determinazioak bi lurralde eremu desberdinetan gauzatzen dira, bakoitza lurzoru urbanizagarriko sektore batean, banaketa eremu bati loturik.

–El Cerro sektorea: 730 etxebizitza (620 libreak eta 110 prezio tasatukoak) eta 18 zuloko golf zelaia.

–Los Pinos sektorea: 427 etxebizitza (babes ofizialeko 300 etxebizitza eta 127 prezio tasatukoak).

Lurzoru urbanizagarriko azken sektore horri dagokionez, Fontellasko Udalak, 2009ko abuztuaren 17an egindako osoko bilkura berezian, behin betiko onestea erabaki zuen Udalez gaindiko Plan Sektorialeko 2. eremuko (Los Pinos) plan partziala (2009ko 110. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, irailaren 7koa).

II.–Proposamenaren xedea eta justifikazioa.

UPSko El Cerro sektoreko antolamenduan aldaketa txiki bat egitea eta sektore horretako urbanizazio faseak handitzea dira espediente honen xede nagusia.

Bizitegien hasierako ereduak inguruneke ezaugarrietara moldatzea bilatzen du antolamenduarien aldaketak, batez ere egoera ekonomikoak sortutako eredu berrietara. Bestetik Espainiako golf federazioarekin egindako akordioen ondorioa da, hotel bat izan nahi baitu golf zelaian.

Zehazki, "jabekidetasun" tipologiako bizitegiatarako lurzatiaren azalera libre (erakiezina) handitzen da, baita hotel baterako ekipamendu pribatuarena ere, kirol sistema orokor pribatuaren kaltetan (golf zelaia).

Bestalde, aldatu egiten da sektoreko urbanizazio etapen plana; izan ere, fase batean egin beharrean bitan egingen da, proposamenaren dokumentuaren arabera, bizitegiko beharrei egokitutako neurria bezala. Lehen fasean ipar-ekialdea eta sektoreko eremu osoko (761.890 m<sup>2</sup>) %60 inguru (golf zelaia 1. zuloatik 9.era, 446 etxebizitza –hiru tipologiatarako etxebizitzak barne, eta horien artean prezio tasatuko 110 etxebizitzak–) eta ekipamendu pribatuko lurzati guztiak sartuko lirateke. Tramitean den dokumentuaren arabera, lehen faseko obrak –4 urtean egitekoak omen– bi urteko epean hasiko dira, urbanizazio proiektua onetsi ondotik; aldiz, bigarren fasea, iraupen berekoa, 10 urteko epean hasiko da.

III.–Kontuan hartu beharrekoak.

Dokumentu bat aurkeztu da, 3. kapitulan (Hirigintzako araubidea) AR-1 edo El Cerro sektoreko egungo hirigintzako araubidea agertzen duena aldaketaren batekin. Aldaketa horiek, besteak beste, etxebizitzaren banaketan dute eragina (bloke tipologiako 2 etxebizitza jabekidetasun tipologiakoak bihurtu dira), doikuntzak egiten dituzte eraikigarritasunean (etxebizitzaren batez besteko azalera eta ekipamenduko lurzati pribatuaren eraikigarritasuna gutxitu dira), eta zerbait handitu da irabazai asmoko aprobeztamendua.

Aldaketa horiek guztiak, oro har, garrantzirik gabeak dira eta ez dute, inola ere, funtsezko aldaketarik eragiten eremuko egiturazko hirigintza antolamenduan; gainera, ez dute eraginik LAHFLren 53. artikuluko determinazioak betetzeko orduan, ekipamenduetako estandarrei buruzko determinazioetan, alegia. Dena dela, LAHFLren (ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legea, Hirigintza eta Etxebizitzaren arloan Urgentziatzko Neurriak Hartzekoa) 53. artikuluko berriki aldatuan oinarrituta, bidezko da sektoreko guztiarako eraikigarritasunaren %7tik beherako eraikigarritasuna ematea udalez gaindiko ekipamenduko lur erreserbari. Orobat, aparkalekuen erreserba araututakotik oso hurbil dagoenez eta aparkatzeko tokiak bide publikoetan ezarritakoak handituz antolatuta direnez, bidezkotzat jotzen da justifikatzea aparkalekuen arrapaleto sarbideen edo zabor edukiontzien edo autobus geralekuen kokalekuak ez duela erreserba hori gutxituko.

Kirol sistema orokor pribaturako (golf zelaia) dokumentu berriak langileen etxebizitza eraikitzeo aukera gehitzen du. Hori dela eta, neurri gabeko interpretazioak saihestarren, irizpide bat hartzea komeni da etxebizitzaren kopurua langileei ostatu emateko dauden beharren arabera mugatzeko. Orobat, komenigarria da arauan argitzea zenbateraino diren berdinak "bizitegiko erabilera komunitarioa" eta D4.1 eta D4.2 lurzatiatarako "erabilera bateragarria", "integratu edo ez" edo "hotelekin edo beste erabilera bateragarriekin". Alde horretatik eta modu orokorrean, arauak definizio bat eman beharko luke bertan zehaztutako erabilera guztiarentzat, "bizitegi komunitarioa", "bateragarria", "xehakatu" edo "baimendua" izan.

Proposamenak, gutxieneko lurzati eraikigarria murrizteko planteatzeaz gain, bide publikora ematen duen lurzatiaren gutxieneko luzera (gaur egun 12 m-koa) eta lurzatiako eraikinaren gehieneko okupazioa kendu gogo ditu.

Ez dago justifikatuta; izan ere, gutxieneko lurzati eraikigarriari dagozkion luzera eta okupazioko parametroak proposatu behar lirateke.

Bestetik, "blokeko etxebizitza kolektibo" tipologian zilegi dira atikoak laugarren solairutik gora, solairu berritatz edo azalera eraikigarritzat jo gabe. Proposamen hori ez da onargarritzat jotzen eta, gainera, eragina du sektoreko hirigintzaren aprobeztamenduan.

Halaber, espedienteak "3.13 Kontserbazio entitateak, jabeen elkartea eta segurtasun pribatua" izeneko atala eransten du; horren arabera, sektoreak itxitura bat du bere inguruan eta bada kontrol bat urbanizaziora sartzeko. LAHFLren aipatu 53. artikuluko honela dio: "Ekipamendu publikoetako sare hau osatzen duten lurrek jabari eta erabilera publikokoak izan beharko dute; alabaina, zenbait formula itunduko dira partikularrekin haien mantentze eta kontserbazio lanetarako". Ekipamendu horien erabilerrari dagokionez, ez dago mugatuko duen formularik; hortaz, ezin da haiek ixteko planteatu, ekipamendu pribatuetakoak izan ezik, hala nola golf zelaia.

Bestetik, sektorearen urbanizazioaren bigarren fasean N-232 errepidearen gaineko oinezkoen pasabidea sartzeko proposatzen da. Proposamen honi buruz, uste da pasabidea lehen fasean egin beharko litzatekeela, hau da etxebizitzaren %60 inguru egiten direnean.

Gainera, testua ulergarriagoa izan dadin eta dokumentua aiseago aplikatzearren, informazioko testuak edo proposamena justifikatzen dutenak "araudia" eta "hirigintzako araubidea" ataletatik bereiztea iradokitzen da, haien tokia memoria baita edo beste edozein dokumentu deskriptibo. Helburu beragatik komeni da urbanizazio faseei buruzko artikuluko guztiak (3.4.2. Tipologiak, 1. faseko aparkalekuak, 3.10.2. Fasekoak aprobeztamenduak,...) taula bihurtzea, eta bertan fase bakoitzeko jarduketak aipatzea.

Azkenik, aldaketa honetako proposamenak gorabehera, esan behar da Nafarroako Gobernuak 2007ko apirilaren 16an hartutako Erabakian, UPSa onetsi zuen hartan, ezarri ziren determinazio guztiak beteko direla.

IV.–Ohar osagarria.

Proposamen honekin batean, 2009ko azaroaren 3an, Gobernuak Nafarroa duen Ordezkaritzako Industria eta Energia Alerreko zuzendariaren idazki bat sartu zen Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan, "La Serna-Magallón 2 eta 3" izeneko zirkuitu bikoitzeko 400 kV-eko linea elektrikoaren aurreproiektua eta Ingurumenaren eraginaren azterlana erantsita zituela, aipatu Industria eta Energia Alerreko "behar diren baldintzak, instalazio elektrikoarekiko adostasuna edo eragozpenak jasotzen dituztenak" igortzeko.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertutik, besteak beste, ohar hau egin zaio:

–V-15 eta V-16 erpinen arteko trazadurak 18 zuloko golf zelaia zeharkatzen du, Cerro de Valpertonan egin gogo den bizitegiaren ondoan, Fontellasko udal mugapean. Bada, lineak golf zelai horretan ahalik eta ukipen gutxien izan ditzan, linearen trazadura aldatzea azter liteke ondoko eskeman adierazi den moduan.

Ohar hori osatzearen, komenigarria litzateke linea gehiago urruntzea sektoreko hegoaldean kokatutako familia bakarreko etxebizitzetatik (urbanizazioaren 2. fasean egin gogo dira), antolamenduarien muga (biribilgunea) 60 bat metro atzera eramanda. Atzera eramate horrek familia bakarreko 6 etxebizitza kentzea ekarriko luke, baina sektoreko beste toki batean jartzen ahal lirateke.

Horrenbestez, Lurraldearen Antolamenduko Batzordearen txostenarekin bat, eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeari eta aplikatu beharreko gainerako arauak jarraiz, Nafarroako Gobernuak, Lurraldearen Antolamenduko eta Etxebizitzako kontseilariak proposaturik,

ERABAKI DU:

1. "El Cerro de Valpertonan etxebizitzak eta 18 zuloko golf zelaia egiteko jarduketa eta Los Pinos sektorean etxebizitzak egiteko jarduketa" Udalez gaindiko Plan Sektoriala aldatzeko espedientearen tramitazioa hastea. AR-1 Cerro Valpertonan izeneko konpentsazio batzordeak sustatu du El Cerro sektoreko antolamenduari eta urbanizazio faseei buruz, besteak beste.

2. Sustatzaileak erabaki honen azalpen zatiaren III. eta IV. atalei buruz kontuan hartu beharrekoak sartu, aldatu edo justifikatu beharko dituztela, zehaztasun maila egokiarekin.

3. Espedienteak hilabeteko epean jendaurrean jartzea eta proiektuaren eraginpeko lurren jabe den udalari entzunaldia ematea. Bi tramiteak aldi berean egingen dira, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean aurreikusitako ondorioetarako.

Hartarako, espedienteak ikusgai egonen da interesdunen eskura Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren bulegoetan (Armada Etorbidea, 2. 3. maila, Iruña), eta epe horretan zilegi izanen da idatziz nahi adina alegazio aurkezteak.

4. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta Herri Lanetako Zuzendaritza Nagusiari, Red Eléctrica de España, S.A.ri, NILSari, Tuterako Udalaren Ur Batzordeari, Tenis Club Cerro Fontellas elkarteari,

Construcciones Monrepos, S.A.ri, Fontellasko eta Tuterako udalei eta AR-1 Cerro Valpertuna konpentsazio batzordeari jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean.—Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari eta Gobernuaren eleduna, Nafarroako Gobernuko idazkariaren orde, Alberto Catalán Higuera.

F1004872

## 1.4. DIRU-LAGUNTZAK, LAGUNTZAK ETA BEKAK

**89/2010 FORU AGINDUA, otsailaren 25ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana. Horren bidez onesten da Nafarroako ehiza barrutietako ehiza aprobetxamenduaren titularrei diru-laguntzak emateko deialdia, baldin eta ehiza espezieek nekazaritzan egindako kalteen erantzule badira, Nafarroan ehizarako basa faunak egiten dituen kalteei aurre egiteko.**

Nafarroako alderdi batzuetan, zenbait ehiza espeziek, untxiek eta basurdeek batik bat, arazo larriak sortzen dituzte nekazaritzan, laboreetan egiten dituzten kalteengatik.

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legeak 86. artikuluan ezarritakoarekin bat, lege zibilen arabera erantzule direnek ordainduko dituzte ehizarako basa animaliek nekazaritzan eragindako kalteak.

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legeak 52. artikuluan (ehiza sustatzeko neurriak) zehazten du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak laguntza ekonomikoak ezartzen ahal dituela barrutietako ehiza aprobetxamenduaren titularrentzat, ehiza espezieek nekazaritzan egiten dituzten kalteengatik erantzukizun ekonomikoa estaltzeko.

Foru agindu honi Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aplikatuko zaio.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

### AGINDU DUT:

1. Ehiza barrutietako ehiza aprobetxamenduaren titularrentzako diru-laguntzen deialdia onestea, ehiza espezieek nekazaritzan eragindako kalteen erantzule direnean, ehizarako basa faunak eragindako kalte horiei aurre egiteko Nafarroan.

2. Deialdiaren oinarri arautzaileak onestea. Oinarri horiek foru agindu honen eranskinean daude.

3. 130.000 euroko gastua baimentzea, foru agindu honetatik sortutako gastu konpromisoetarako, 2010eko Gastuen Aurrekontuko "Partikular eta sozietateentzako kalte-ordain, aseguru eta laguntzak" izeneko 740002 74200 4809 456302 kontu-sailaren kargura.

4. Foru agindu hau eta eranskina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5. Deialdiaren aurkako errekurtsio administratiboak.

Deialdiaren eta oinarri arautzaileen kontra gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, Nafarroako Gobernuari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Foru agindu honen kontra administrazio publikoek zilegi dute administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzea, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, jakinarazi eta bi hilabeteko epean. Horrek ez du alde batera uzten alde aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

Iruñean, 2010eko otsailaren 25ean.—Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria, Begoña Sanzberro Iturriria.

### OINARRIAK

Lehenbizikoa.—Xedea.

1. Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legeak 52. artikuluan (ehiza sustatzeko neurriak) zehazten du Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak ezartzen ahal dituela barrutietako ehiza aprobetxamenduaren titularrentzat, ehiza espezieek nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako ustiatzeetan egiten dituzten kalteengatik erantzukizun ekonomikoa estaltzeko.

Horren haritik, deialdia onetsi da, norgehiagokako araubideari jarraikiz, Nafarroako ehiza barrutien ehiza aprobetxamenduaren titularrei ehiza

espezieek nekazaritzan egiten dituzten kalteen erantzule direnean emanen zaizkien diru-laguntzak arautze aldera, basa faunak egiten dituen kalteei aurre egiteko.

2. Laguntza horiekin oreka egokia eta iraunkorra lortu nahi da batek ehiza barrutietako ehiza espezieen populazioaren eta bestetik horiek nekazaritza arloan sor ditzaketan kalteen artean.

Bigarrena.—Baldintzak.

2.1. Honako hauek izaten ahalko dira deialdiko laguntzen onuradun:

—Tokiko ehiza barrutietan:

- Ehiza aprobetxamenduaren titularrak lege eraturako tokiko ehiztari elkarteak izatea, kalteak eragin dituen espeziearen ehiza aprobetxamendua zuzenean esleitu dutenak.

- Ehiza aprobetxamenduaren titularrak toki entitateak izatea, kalteak eragin dituen espeziearen ehiza aprobetxamendua zuzenean kudeatzen dutenak.

—Ehiza barruti pribatuetan, ehiza aprobetxamendua tokiko ehiztari elkarteak berak egiten badu, onuraduna tokiko ehiztari elkarteak izan da.

2.2. Betiere, eskatzaileek betebeharrak izan behar dituzte:

2.2.1. Ehiza barrutiak ehiza antolatzeke plana onetsia izatea, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legearekin bat.

2.2.2. Ehiza aprobetxamenduaren titularrak funtzionamendu zuzenaren frogarako aurkezte, ehiza arloan (Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea) eta basa fauna eta haren habitata babesteari gainean (Basa Fauna eta Haren Habitata Babestu eta Kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea) indarra duten arauak jarraitzea.

2.2.3. Zorrik ez izatea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin.

2.2.4. Tributu arloko betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak izatea.

2.2.5. Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren abenduaren 10eko 0191/2009 Ebazpenak ukitutako ehiza barrutiek kalteei aurrea hartzeko programa bat, ehiza aprobetxamenduko titularrak sinatua, aurkeztu beharko dute, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan, 2010eko ekainaren 30a baino lehen. Ebazpen haren bidez, baimena eman zen zenbait barrutitan 2010ean untxi populazioa kontrolatzeko, nekazaritzan izandako kalteak direla medio.

Aurea hartzeko programa horretan adierazten denez, hilero aurkeztuko dira, abuztutik otsailera, Ehiza eta Arrantza Atalean, populazioaren eta harrapakinen bilakaera begiratzeko programaren emaitzak.

Kalteei aurrea hartzeko programak ehiza aprobetxamenduaren titularraren jarduketara konpromisoa eskatzen du. Programa aplikatzearen ondorioz, ehiza barrutiko untxi populazioa kontrolatzea lortu beharko da eta, horrekin batera, kalteak nabarmen gutxitzea.

Horregatik, ehiza aprobetxamenduaren titularrak ez badu lehen aipatu dokumentazioa 2010eko azaroaren 12a baino lehen aurkeztu, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak laguntza ekonomikoa ukatuko du.

2.2.6. Halaber, aurreko puntuan aipatu ebazpenak ukitutako barrutiek, diru-laguntzen deialdian parte hartu ahal izateko, ehizazaina izan beharko dute. Ehizazainak ekainaren 11ko 48/2007 Foru Dekretuaren 8.2 artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Dekretu horren bidez, Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea garatu eta betearazteko Erregelamendua onetsi zen.

Ehizazainaren kontratazioa frogatzen duen kontratua Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan aurkeztu beharko da 2010eko uztailaren 15a baino lehen.

Hirugarrena.—Baztertzekoak.

3.1. Foru agindu honi dagokionez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zenbait kasu diru-laguntzetatik kanpo utziko ditu:

3.1.1. 2009ko urriaren 1a eta 2010eko irailaren 30a artean ehiza espezieek ehiza barrutian egindako kalte guztiak 600 eurora iristen ez badira.

3.1.2. Ukitutako nekazaritzako lurzatiek baldintza hauek betetzen ez badituzte:

Laborantza lanak bere garaian egin behar dira, eta ohiko teknikak erabiliz. Era berean, laborantza lehengaiak, hala nola, haziak, ongari herbizidak eta gai fitosanitarioak egokiak izan behar dira eta beharrezkoak, labore normal gara dadin. Kaltetutako lurzatiek ez dute belar gaiztonik edukiko. Halakorik bada, ez dira kalteak baloratuko. Peritoak eskatzen dionean, ehiza aprobetxamenduaren titularrak fakturak eta dokumentuak aurkeztu beharko ditu, ukitutako jabeak kaltetutako laborean egin dituen laborantza lanak eta aplikatutako produktuak justifikatzeko. Lehengaiak

eta kaltetutako laborean egin ez diren lanak deskontatu eginen dira, kaltea baloratzean.

3.1.3. Jarraian adierazten diren labore mota iraunkorretan edo balio ekonomiko handikoetan, kalteak jasateko arriskua duten eskualdeetan daudenak, babes sistema hauek ez badaude:

–Hazitarako patata laboreak eta ezarri berri diren belsoroak hesi elektrokoarekin babestuko dira.

–Uztarik ezin bilduz isolatuta gelditzen diren arto landak hesi elektrokoarekin babestu beharko dira.

–Untxi edo erbien kalteak jasateko arriskua duten eskualdeetan, mahatso, olibondo, zainzuri, almendrondo eta gainerako fruta arbolen sail berrietan eta zuhaitzi berrietan landareak nahitaez babestu behar dira, hodiekin, sareekin edo hesi elektrokoarekin.

–Mahatso, olibondo, almendrondo eta gainerako fruta arbola helduen sailak sare edo hesi elektroko batekin babestuko dira, kaltea eragiteko aukera handia izaten hasten bada betiere.

–Brokoli, azalore eta bestelako barazkiak landatzen diren alorretan, untxien kontrako aurreneurri eraginkorrak hartuko dira.

–Arroz alorretan, ahateak uxatzeko kanoiak erabiliko dira, ahate gehiegi izanez gero.

Ehiza aprobetxamenduaren titularrek, ukitutako jabeekin batera, babes sistema horiek jarriko dituzte, kalteen arriskua saihesteko.

Nolanahi ere, jartzen den babes motak eta horren garaierak, bai eta mantentze lanek ere, egokiak beharko dute izan, babes lana bete dezaten, ehiza espezieek egin ditzaketen kalteen aurrean.

3.1.4. Kalteak zereal, proteginoso, oleaginoso eta lekadunen alorretan edo belsoroetan izan badira, horietako bakoitza 5,5 erregutik beheitikoa izanik.

3.1.5. Zereal, proteginoso, oleaginoso eta lekadunen alorretan, gainazal kaltetuak lurzati osoarekin alderatuta gutxieneko portzentaje hauek gaintzen ez baditu:

Lurzatiaren azalera	Kalteen gutxienekoa %-tan
22 erregu baino gutxiago	%10
22,1etik 40 erregura bitarte	%6,5
40,1etik 60 erregura bitarte	%5
60,1etik 100 erregura bitarte	%4
100 erregu baino gehiago	%3,5

3.1.6. Ehiza aprobetxamenduaren titularrek peritu tasatzaileari eskatzen badio gutxieneko portzentajetik beheitiko eremu ukitua duen alor batera joan dadila, bisitak kobratuko zaizkio, azken diru-laguntzatik deskontatuz, honelaxe:

Lurzatiaren azalera	Kalteen gutxienekoa %-tan	Tarifaren zenbatekoa
5,5 erregu baino gutxiago	%10	36 euro
5,6tik 11 erregura bitarte	%10	48 euro
11,1etik 22 erregura bitarte	%10	60 euro
22,1etik 40 erregura bitarte	%6,5	72 euro
40,1etik 60 erregura bitarte	%5	90 euro
60,1etik 100 erregura bitarte	%4	150 euro
100 erregu baino gehiago	%3,5	180 euro

3.1.7. Kaltetuaren edo hirugarren baten utzikierari edo borondateari egozten ahal zaizkion kalteak izan badira. Utzikiera izan dela ulertuko da baldin eta kalteak eragiten dituzten animaliak ugaltzeko eta bertan gelditzeko laguntzen ahal duten lanak egiten badira, hala nola barrutirako hartutako aurreneurriak egokiro mantentzen ez badira.

3.1.8. Ustiategi industrialetan edo era artifizialean zein basa ez den era batean hazitako ehiza espezieek egindakoak.

3.1.9. Basa faunako zenbait espezie izurri deklaratu eta haiek harrapatu eta hiltzeko neurriak arautzeko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emandako maiatzaren 5eko 198/2008 Foru Aginduaren bidez izurri izendatu diren espezieek sortutako kalteak.

3.2. Barruti baten barrenean dauden lurren jaberaren batek bere lurrik barrutitik bereizi nahi eta barrutian sartzen ez baditu, erantzukizuna ez da ehiza aprobetxamenduko titularrena izanen eta, beraz, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ez du diru-laguntzarik emanen.

Laugarrena.–Epea, kalteak egiaztatzeko modua eta balorazioak.

4.1. Ehiza aprobetxamenduaren titularrek kalteak erreklamatzeko orriak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko erregistroan aurkeztu beharko dituzte. Halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan aurreikusitako tokietan aurkezten ahal dira.

Hauexek izanen dira horiek aurkezteko epeak:

Untziek neguko zerealak kaltetu dituztela erreklamatzeko orriak, 2010eko apirilaren 15a arte.

Untziek mahasti eta fruta arboletan kalteak eragin dituztela erreklamatzeko orriak, 2010eko ekainaren 10a arte, urteko tasazioetarako.

Erreklamazio orriak epe horiek amaitu ondoren aurkezten badira, peritu tasatzaile taldeak ez du tasaziorik eginen, eta ez da diru-laguntza eskubiderik izanen.

Bestelako laboreak kaltetzearen ondoriozko edo beste espezie batzuk eragindako kalteen ondoriozko laguntza eskaerak aurkezteko epea 2010eko irailaren 30ean amaituko da. Data horren ondotik aurkezten diren eskaerak hurrengo urteko deialdian sartuko dira, halakorik bada.

Peritu-tasatzaileei deitu aurretik, ehiza aprobetxamenduaren titularrek kaltea baieztatuko beharko du, eta ikusi gutxieneko azalera gaintzen duela diru-laguntza eskuratu ahal izateko. Ehiza aprobetxamenduaren titularrek peritu tasatzaileari eskatzen badio gutxieneko portzentajetik beheitiko eremu ukitua duen alor batera joan dadila edo kalterik ez bada, bisitak kobratuko zaizkio, azken diru-laguntzatik deskontatuz.

4.2. Ehiza aprobetxamenduaren titularrek, tasazioaren aurretik, dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

–Diru-laguntza eskatzeko orria, eranskinean ageri denaren arabera.

–Ehiztarien Elkarteari zuzendutako erreklamazio orria, gehitzen den ereduaren arabera, eskatzen diren datu guztiak adierazita.

–Mahastiak badira, jatorrizko deituran inskribatutako mahastien zerrandaren kopia ekarri beharko da.

–Ukitutako eskualdearen katastro zedularen kopia, eta, mahasti edo fruta arbolen kasuan, kaltetutako kopurua.

–Dirua transferentzia bidez jasotzeko eskabidea, behar den bezala bete, eta ehiza aprobetxamendurako eskubidearen titularren IFZren kopia. Baldintza hori nahitaez bete beharko dute dokumentazioa aldatu duten barrutiek, edo 2009an halako laguntzarik jaso ez dutenek.

NPBko deklarazioa egin ondotik, horren kopia emanen zaio peritu tasatzaileari.

4.3. Peritu tasatzaileek beharrezkotzat jotzen dutenean bakarrik, ehiza aprobetxamenduaren titularrek eta kaltetuak lurzatiaraino lagunduko diote peritu tasatzaileari, kaltea erakusteko. Gainerako kasuetan, peritu tasatzaileari ehiza aprobetxamenduaren titularrek baizik ez dio lagunduko, laguntzaren eskatzaile gisa.

Landa tasazioak egin ondotik, kaltetutako gainazalaren zenbatespenaren kopia emanen dio ehiza aprobetxamenduko titularri peritu tasatzaileak, nekazari kaltetuek horren berri izan dezaten.

Ekoizpenak eta prezioak jakin eta gero, perituak kalteen balorazioa igorriko du Ehiza eta Arrantza Atalera. Balorazioa barrutira bidaliko da, erantzuleak kalteak ordain ditzan, eta dagokion laguntza jaso.

Bosgarrena.–Laguntzen zenbatekoa.

5.1. Ehiza barrutian izandako kalte tasatu guztien arabera kalkulatu dira ehiza aprobetxamenduko titularrentzako diru-laguntzen zenbateoak:

Tasaturiko kalteak	Tasaturiko kalteen %
18.000 eurotik beheiti	%50
18.001 eurotik 24.000ra bitarte	%45
24.001 eurotik 30.000ra bitarte	%40
30.001 eurotik 35.000ra bitarte	%35
35.001 eurotik gora	%30

5.2. Nolanahi ere, ehiza aprobetxamenduko titularrei diru-laguntzak emateko, Administrazioak baliabide ekonomikoak izan beharko ditu eta kreditua aurrekontuetan, eskaeren ebazpen administratiboak emateko uen. Aurkeztu eta diru-laguntzak izateko eskubidea duten eskaerak guztiei erantzuteko adina krediturik ez badago aurrekontuetan, kalteei aplika dakieken portzentajea modu proportzionalan jaitsi egiten da 5.1 puntuan ezarritako tarte guztietan.

5.3. Prezioa eta produktzioa.

5.3.1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak kontratatutako peritu tasatzaileak tasatzen duen kaltearen zenbatekoa finkatzeko erabiliko duen araudia, nekazaritzako produktuen preziorako, honako hau izanen da:

–Nekazaritzako produktuen prezioa, Agrosegurosek finkatua, edo zerealen likidazio prezioa, kooperatibek urtero, uztailen, abuztuan eta irailean egiten dutena.

–Mahatsaren kasuan, kalteak sortu diren herrietako upategiek ordaindutako prezioa.

–Landareen kasuan –zainzuriak, mahastiak, olibondoak, bestelako fruta-arbolak eta oihan espezieak–, merkatuko prezioa erabakitzeko Nafarroako merkatuan diharduten enpresen fakturetakoak erabiliko dira.

5.3.2. Produktzio datuak biltzeko, Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren "Boletín de Coyun-

tura Agraria” delakoan nekazaritzako eskualdeen arabera argitaratzen direnak hartuko dira kontuan. Mahatsaren kasuan, “Nafarroa” eta “Errioxa” jatorrizko deituentzat ezarritakoak jasoko dira. Alternatiba gisa, produktu guztietarako, kaltetuak lortutako uztaeren zuzeneko zenbatespenaren batez besteko ekoizpena hartuko da kontuan. Horretarako, ekoizpen horren ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Seigarrena.—Organo eskudunak.

6.1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, bidezkoa denean, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez emanen dio laguntza ekonomikoa ehiza aprobetxamenduko titularrari, deialdiaren oinarrien arabera betiere. Diru-laguntzak emateko ebazpenean kaltetu bakoitzari egindako kalteen tasazioen zenbatekoa agerraraziko da, bai eta kalteen zenbateko osoa eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren laguntzaren zenbatekoa ere.

Prozedura ebazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izanen da, irailaren 30etik aurrera. Epe horretan ebazpen espresik eman ez bada, eskaera ezetsitatzeko da.

6.2. Aurkeztutako eskaeraren berriazko edo presuntziozko ezepenen aurka zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsoa jartzea, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari zuzendua, administrazio prozedura erkideari buruzko legeriari jarraikiz.

6.3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak onuradunen eta emandako diru-laguntzen zerrenda argitaratuko du Nafarroako Gobernuaren web gunean.

Zazpigarrena.—Ordainketa.

7.1. Laguntza emateko ebazpena jaso ondoren, onuradunek kaltetuei kalteak ordaindu beharko dizkiete tasazioaren zenbateko osoarekin (kaltearen %100). Ehiza aprobetxamenduko titularrak, tasatutako kalteen %100 ordaindu duela frogatu beharko du, banku transferentzien egiaztagiriak Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren erregistroan aurkeztuz, ezertan galarazi gabe Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan xedatutakoa. Egiaztagiriak 15 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, laguntza emateko ebazpena jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita.

Agiriak posta bulego batean aurkezten badira, gutun-azal ireki batean egin beharko da, lehenengo orriko goiko aldean bulegoaren izena, eguna, tokia eta ordua adierazi ahal izateko. Datu horiek guztiak gordekinen ere azaldu beharko dira (Posta zerbitzuak arautzen dituen abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren 31. artikulua).

7.2. Ehiza aprobetxamenduko titularrak, kaltetuei egindako ordainketak justifikatu ondoren, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ehiza aprobetxamenduko titularrari diru-laguntza ordainduko dio, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez.

Zortzigarrena.—Onuradunaren betebeharrak.

8.1. Noiznahi Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuari datu eta jarduerak egiaztatzen uztea.

8.2. Espedientea aurrera eramatean edukiaren edo gastuaren aldatzeko bat dakarren edozein gorabeheraren berri ematea, gertatzen den unean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari. Aldaketa horrek ez dio Foru Komunitateko Administrazioari inolako konpromisorik ekarriko, bere gain espresuki hartzen ez badu.

8.3. Ehiza aprobetxamenduen titularrak peritu tasatzaileari eskatzen badio ehizaldi berean alorrera behin baino gehiagotan joan dadila, bigarren bisitan eta hurrengoetan 150 euroko tarifa kobratuko zaio eskatzaileari, azken diru-laguntzatik kenduta.

8.4. Informazio guztietan adieraztea jarduera edo proiektua Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren laguntzarekin egiten ari dela.

8.5. Foru agindu honetan ezarritako baldintza eta arau guztiak betetzea.

8.6. Lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako beste diru-laguntza edo laguntza batzuen berri ematea organo emaileari.

8.7. Kalte-ordain bat eman beharko die nekazariei, kalteen tasazioaren %100 eginen duena, eta agirien bidez, hau da, bankuko transferentzien agirien bidez, egiaztatutako du tasatutako kalteen %100 ordaindu duela.

Bederatzigarrena.—Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Diru-laguntza hauek ez dira bateragarriak jarduera berbererako beste laguntza batzuekin.

Hamargarrena.—Laguntza ekonomikoaren kontrola.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, Ehiza eta Arrantza Atalaren eta Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuaren bitartez, ardura hartuko du diru-laguntzak emateko eskatzen diren baldintzak bete daitezela eta aurreikusitako inbertsioak behar bezala egin daitezela. Horretarako, ikuskapen eta egiaztapenak egiten ahal ditu eta onuradunei eskatzen ahalko dizkie jarduerari buruz beharrezkotzat jotzen dituen argibideak eta agiriak, baita haiek bertara ager daitezela ere.

Hamaikagarrena.—Ezarritako baldintzak ez betetzearen ondorioak.

Foru agindu honetan eskatutako betebeharrak eta hartutako konpromisoak bete ezean, diru-laguntza itzuli egin beharko da eta, bidezkoa denean, behar diren zehapenak jarriko dira.

Diru-itzultzeen, arau-hausteen eta zehapenen arloan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35., 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

I. ERANSKINA

2010ean ehiza espezieek nekazaritzan eragindako kalteengatiko diru-laguntzaren eskabidea

Izena: ..... (herriko ehiztarien elkarte burua, alkatea edo toki entitateko buruak), NAN: ..... helbidea: .....kalea, zk.: ....., solairua: ....., herria: ....., telefonoa: ..... jaun/andrea ordezkatzuz, IFZ: ....., NA-..... ehiza aprobetxamenduen titularrak,

ADIERAZTEN DUT:

2010. urtean ehizarako basa faunak nekazaritzan eragindako kalteei aurre egiteko Nafarroako ehiza barrutietako ehiza aprobetxamenduen titularrari diru-laguntzak emateko deialdiari dagokionez, zeina otsailaren 25eko 89/2010 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen, deialdi horren oinarriak osorik onartzen ditudala, eta uste dudala eskatzen diren beharkizunak betetzen ditudala. Hori dela eta, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren diru-laguntza eskatzen dut.

Era berean, hauxe aitortzen dut:

–Jarduera bererako ez naizela beste diru-laguntzarik jasotzen ari.

–Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan onuradun izateko adierazita dauden debekuetako bat ere ez dudala.

–Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari baimena ematen diodala Ekonomia eta Ogasun Departamentuan eta Gizarte Segurantzaren dauden datuak ikusteko, horrela egiazta dezan, diru-laguntzak ematen dituen ebazpenaren proposamena egiten den unean, zerga arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneratuak ditudala.

..... (e)n, 2010eko .....aren ..... (e)an

(Eskatzailearen, ehizarako eskubidedunaren, sinadura)

II. ERANSKINA

Ehiztarien Elkarteari kalteak erreklamatzeko

Izena: ..... Tel. .... NA-..... barrutiko burua den aldetik, erreklamazio hau jaso du: .....

Izena:....., IFZ: ..... Helbidea: ..... Herria: ..... Tel.: .....

(Arrazioia) ..... sortutako kalteak dituela, finka hau-etan:

Jabetza Errentan Herrilurra	Poligonoa	Lurzatia	Lehorreko lurra edo urreztalurra	Lur mota	Espezie erruduna	Azalera, guztira	Ukitutako azalera, nekazariaren arabera	Peritazioa (Kaltea duten erreguak)

Ukitutako lurzati bakoitzaren planoa gehitu, eta eremu kaltetua adierazi.

.....(e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)an.

Kaltetua                      Burua

F1004365

**102/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 5ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, 2010eko deialdia onesten duena erlezaintzako produktuen ekoizpena eta merkaturatzea hobetzeko jarduerak sustatzen dituzten laguntzetarako, Erlezaintzari Laguntzeko Neurrien 2008-2010 hiru-terteko Programa Nazionalaren barrenean.**

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren apirilaren 30eko 194/2008 Foru Aginduaren bidez, erlezaintzako produktuen ekoizpena eta merkaturatzea hobetzeko jarduerak sustatzen dituzten laguntzetarako arauak ezarri ziren Erlezaintzari Laguntzeko Neurrien 2008-2010 hiru-terteko Programa Nazionalaren barrenean. Agindua 2008ko 61. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, maiatzaren 16an.

Erlezaintzako produktuen ekoizpena eta merkaturatzea hobetzeko programa, Espainiak 2008-2010 hiru-terteko aurkeztua, Kontseiluaren 797/2004 (EE) Erregelamenduari jarraikiz, Batzordeak 2007ko abuztuaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez onetsi zen.

Adierazitakoarekin bat, foru agindu honen bidez, 2010. urteko laguntzetarako deialdia egiten da, erlezaintzako produktuen ekoizpena eta merkaturatzea hobetzeko jarduerak sustatzeko, Erlezaintzari Laguntzeko Neurrien 2008-2010 hiru-terteko Programa Nazionalaren barrenean, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren apirilaren 30eko 194/2008 Foru Aginduan aurreikusitako arauak aplikatuko dira.

Foru agindu honi Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aplikatuko zaio.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Erlezaintzako produktuen ekoizpena eta merkaturatzea hobetzeko jarduerak sustatzen dituzten laguntzetarako 2010eko deialdia onestea, Erlezaintzari Laguntzeko Neurrien 2008-2010 hiru-terteko Programa Nazionalaren barrenean.

2. 2010ean eskaerak aurkezteko epea foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunearan hasiko da, eta 2010eko maiatzaren 30ean amaituko.

3. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren apirilaren 30eko 194/2008 Foru Aginduan aurreikusitako arauak aplikatuko zaizkio deialdi honi; izan ere, bertan onesten dira erlezaintzako produktuen ekoizpena eta merkaturatzea hobetzeko jarduerak sustatzen dituzten laguntzetarako arauak, Erlezaintzari Laguntzeko Neurrien 2008-2010 hiru-terteko Programa Nazionalaren barrenean.

4. Foru agindu honek sortutako konpromisoak ordaintzeko, 39.700 euroko gastua baimentzea, Nafarroako Gobernuaren 2010eko Gastuen Aurrekontuetako "Eztiaren ekoizpena eta merkaturatzea hobetzea (FEA-GA)" izeneko 71230-710001-4700-414212 kontu-sailaren kargura.

5. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

6. Deialdiaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkezten ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, argitaratu eta bihamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2010eko martxoaren 5ean.—Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria, Begoña Sanzberro Iturriria.

F1004594

**110/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 9koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean bertako abere arrazen produkzio sistemak araubide estentsiboetan bultzatzeko laguntzetarako deialdia onesten duena, 2010. urterako.**

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren apirilaren 29ko 229/2009 Foru Aginduaren bidez, oinarri arautzaileak ezarri ziren, Nafarroako Foru Komunitatean bertako abere arrazen produkzio sistemak araubide estentsiboetan bultzatzeko laguntzetarako, eta 2009. urterako deialdia onetsi zen.

Aldez aurretik, Europako Batzordeko Nekazaritzaren eta Landa Garapenaren Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi zitzaion arau hau, eta hark bateragarritzat jo zuen jakinarazitako neurria EE Tratatuaren 87.3.c) artikulua erekin. Bestetik, aipatu arau-proiektua N 10/2008 laguntza gisa erregistratu zuen.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 18. eta 19. artikuluek ezartzen dutenez, diru-laguntzak emateko prozedura ofizios hasiko da, lehenik, organo eskudunak diru-laguntzari buruzko araua edo deialdia eta oinarriak ezarrita dituenean, salbu eta lehenagotik ezarrita badaude.

Aurreko horretan eta 2013ko abenduaren 31 arte dirauen laguntzen araubidean oinarrituta, foru agindu honen bitartez egiten da 2010eko ekitaldioko laguntzen deialdia, Nafarroako Foru Komunitatean bertako abere arrazen produkzio sistemak araubide estentsiboetan bultzatzeko.

Foru agindu honi Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aplikatuko zaio.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. 2010. urteko laguntzak emateko deialdia onestea, Nafarroako Foru Komunitatean bertako abere arrazen produkzio sistemak araubide estentsiboetan bultzatzeko.

2. 2010ean eskaerak aurkezteko epea foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bihamunearan hasiko da, eta 2010eko maiatzaren 31n bukatuko.

3. Deialdi honi Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak apirilaren 29ko 229/2009 Foru Aginduan ezarritako oinarri arautzaileak aplikatuko zaizkio, foru agindu horretan ezartzen baitira Nafarroako Foru Komunitatean bertako abere arrazen produkzio sistemak araubide estentsiboetan bultzatzeko diru-laguntzen arauak.

4. 500.000 euroko gastua baimentzea 2010. urterako, "PDRn sartu gabeko nekazaritza eta ingurumen neurriak" izeneko 710001 - 71230 - 4700 - 414203 kontu-sailaren kargura. Guztira eskatzen den zenbatekoak baimendutako kreditu hori gainditzen badu, laguntza ematerakoan kontu-sailaren baliagarri dagoen kreditua deialdi honi erantsiko zaio, ahalik eta eskaera gehienei erantzun ahal izateko.

5. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

6. Foru agindu honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkezten ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, argitaratu eta bihamunetik hilabeteko epean.

7. Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2010eko martxoaren 9an.—Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria, Begoña Sanzberro Iturriria.

F1004593

**113/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 10ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak ezarri eta 2010. urteko deialdia onesten duena.**

Nafarroako Gobernua nekazaritza politika bultzatzen ari da, landa ingurune garapen iraunkorra biltzen duena, hori egiazki sustatzeko. Landa garapena ezin da homogeneoa izan Nafarroa osoan. Horrek politika batzuk sortu ditu, Nafarroaren barruan, eskualdeak antolatu eta haien ekonomia bultzatzeko.

Xede hori 2006an onetsitako Nafarroako Nekazaritzaren Plan Estrategikoan ageri diren helburuei lotuta dago, bereziki "Nekazaritzako egiturak eta azpiegiturak" izeneko 1. ardatz estrategikoan ageri direnei, non "Egitura finkatu eta hobetzea" izeneko 1.3 helburua zehazten baita, eta horretan sartzen dira foru agindu honetan ezarritako jarduketako ildoak eta laguntza neurriak, larreak eta abeltzaintzako azpiegiturak hobetzen laguntzekoak, hain zuzen ere.

Bestalde, laguntza hauen xede diren jarduketak "Abeltzaintzako toki azpiegiturak" izeneko ekintzaren barnean ageri dira Landa Garapeneko 2007-2013 aldirako Programan, hain zuzen ere 1. ardatzean ("Nekazaritzaren eta basogintzaren lehiakortasuna handitzea") eta "Nekazaritza eta basogintza garatu eta egokitzeko azpiegiturak hobetu eta garatzea" izeneko neurrian. Batzordeko Garapen Lantaldeak 2007ko azaroaren 20an onetsi zuen programa hori.

Nafarroan Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak martxoaren 25ean emandako 145/2009 Foru Aginduaren bidez aplikatzen da neurri hori. Foru agindu horrek arauak ezarri ditu 2009-2013 aldiran abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko.

Neurri hori 2007., 2008. eta 2009. urteetan aplikatu ondoren, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, NBEFen zuzentzarauak betetzearren eta neurriaren kudeaketa eta laguntzen eraginkortasuna hobetzearren, uste du komenigarria dela martxoaren 25eko 145/2009 Foru Agindua indargabetzea. Agindu horren bidez, abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak ezarri ziren 2009-2013



aldirako, 2009ko deialdia onetsi zen eta Cortesko Udalari zuzenean 100.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion herrian artegiak egiteko.

Aldaketa garrantzitsuenak arlo hauetakoak dira:

- a) Eskaera eta agiriak telematika bidez aurkezteko aukera.
- b) Proiektuen eta memoria teknikoen gutxienezko edukia.

c) Eskatutako inbertsioen kostuen moderazioa egiazatzeko erreferentzia moduluak.

d) Ziurtagiri eredua, toki entitateko idazkariak egiazta dezan kontratazio publikoaren arloan aplikatu beharreko xedapenak bete direla, bai eta diru-laguntzen araudiak eskatzen dituen eragimen eta ekonomia irizpideak ere.

e) Exekuzio txikiagoa izateagatik murrizketak, bazterketak eta graduazioa aplikatzeko sistemak inbertsioak ordaintzeko eskaeretan eta gerorutatuko betetzearen konpromisoerarako.

f) Aipatu diren aldaketekin lotutako eranskinak.

Nafarroako Gobernuak 2010eko urtarrilaren 18an hartutako Erabakia-aren bidez, zenbait urtetarako gastua baimendu da 2010erako eta 2011rako, abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak finantzatzeko.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikuluko ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

AGINDU DUT:

Artikulu bakarra.—Abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak onestea 2010-2013 aldirako. Foru agindu honen I. eranskinean daude.

Lehen xedapen gehigarria.—2010. urterako deialdia.

Abeltzaintzako toki azpiegituretan hobetzeko laguntzetarako 2010. urteko deialdia onestea. Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, foru agindu hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarren xedapen gehigarria.—Aurrekontuetako kredituak.

2.000.000 euroko gastua baimentzea, kontu-sail hauen kargura: 1.000.000 euro 2010eko aurrekontuko "Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak PDR (LGENF)" izeneko 720001-72120-7609-414304 kontu-sailaren kargura, eta 1.000.000 euro 2011ko aurrekontuko pareko kontu-sailaren kargura. Gastua honela banatuko da:

a) Eskualde menditsuetako edo gainbehera doazen udalerrietako toki entitateen jarduketak: 1.880.000,00 euro. Haietako 940.000,00 euro 2010eko gastuen aurrekontuaren kargura eta 940.000,00 euro 2011ko gastuen aurrekontuaren kargura.

b) Gainerako toki entitateen jarduketak: 120.000 euro. Haietako 60.000 euro 2010eko gastuen aurrekontuaren kargura eta 60.000 euro 2011ko gastuen aurrekontuaren kargura.

Hirugarren xedapen gehigarria.—Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka gora jotzeko errekurtsua paratzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

Administrazio publikoek zilegi dute deialdi honen aurka administrazio-arekiko auzi-errekurtsoa jartzea, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, argitaratu eta bi hilabeteko epean. Horrek ez du alde batera uzten aldeaz aurreko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

Xedapen indargabetzaile bakarra.—Indargabetzen diren xedapenak.

Martxoaren 25eko 145/2009 Foru Agindua indargabetzen da. Agindu horren bidez, abeltzaintzako toki azpiegituren hobekuntzarako laguntzak emateko arauak ezarri ziren 2009-2013 aldirako, 2009ko deialdia onetsi zen eta Cortesko Udalari zuzenean 100.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion herrian artegiak egiteko. Horretatik kanpo daude agindu horren babesean emandako laguntzen espedienteak, horixe aplikatuko baitzaie.

Azken xedapen bakarra.—Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2010eko martxoaren 10ean.—Landa Garapeneko eta Ingarumeneko kontseilaria, Begoña Sanzberro Iturriria.

## I. ERANSKINA

### *Abeltzaintzako toki azpiegituretan hobetzeko laguntzei buruzko arauak, 2010-2013 aldirako*

1. artikulua. Xedea eta helburua.

Foru agindu honen xedea da arauak ezartzea abeltzaintzako toki azpiegituretarako laguntzak emateko, abeltzaintzarekin zuzeneko lotura duten eta titulartasun eta erabilera publikoak diren azpiegitureta eta ekipamenduak sustatzearen, 2010-2013 aldirako.

2. artikulua. Diru-laguntza jaso dezaketen jarduketak.

Jarduera hauek dira diru-laguntza jaso dezaketenak:

a) Inbertsioak egitea abeltzaintzarekin eta abereen elikadurarekin loturiko ur hornidurako azpiegituretan, adibidez aska, putzu eta abarretan. Urtegiak kanpoan geldituko dira, baita ibaiak ukitzen dituzten lanak ere.

b) Bide publikoak, altxonbideak eta larreetarako edo abeltegien guneetarako sarbideak sortu eta hobetzea, duela 25 urte baino gutxiago erabakitako lurzati berrantolamenduetan eginak dauden bideak mantendu eta hobetzea izan ezik.

c) Udalen ukuiluak eraikitzea.

d) Ibilgailuak desinfektatu edo desintsektatzeko zentroak eraikitzea.

e) Abeltzaintzarekin zuzenean loturiko zerbitzuen ekipamendu publikoetarako eraikinak egin edo zaharberitzea.

f) Abeltzaintzako ustiatzearen guneentzako instalazioak, ekipamenduak edo azpiegituretan egitea, adibidez elektrifikazioak, telefonia, ur hornidura, hondakin urak hustea, abeltzaintzako hondakinak kudeatzea, etab.

g) Herri mendietan larreak sortu eta hobetzeko jarduketekin lotutako azpiegitureta ekipamenduak, hala nola, idoiak, itxiturak, ur hodiak, tratamendu-eskortak, parillak, etab. Laguntzetatik kanpo geldituko dira larreak sortu eta hobetzeko lan hauek: luberritzeak, sasiak garbitzea, ereitea, ongarritzea, zuzenketak, etab.

h) Abere lehiaketak eta azokak garatzeko azpiegituretan.

i) Egun dauden hiltegiak indarra duten arauetara egokitzea.

3. artikulua. Diru-laguntzaren zenbatekoa.

1. Landa Garapeneko eta Ingarumeneko Departamentuak laguntza hauek banatuko dizkie foru agindu honetako baldintzak betetzen dituzten entitate eskatzaileei:

a) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurako kontseilariak 2002ko maiatzaren 15ean emandako Foru Aginduan eskualde menditsutat jotzen diren toki entitateei edo gainbehera doazen herrien zerrendan (foru agindu honen V. eranskina) ageri direnei, diru-laguntzaren xede izan daitekeen inbertsioaren %60. Diru-laguntzak, toki entitate bakoitzeko, gehienez ere 180.000 euro eginen du.

b) Gainerako toki entitateentzat, diru-laguntzaren xede izan daitekeen inbertsioaren %40. Diru-laguntzak, toki entitate bakoitzeko, gehienez ere 50.000 euro eginen du.

c) Zenbait toki entitatek inbertsioak mankomunitatean egiten badituzte eta mankomunitateko lurren %50 baino gehiago eskualde menditsutan edo gainbehera doazen eremuetan badaude, diru-laguntzaren xede izan daitekeen inbertsioaren %60. Diru-laguntza gehienez 500.000 eurokoa izanen da.

d) Zenbait toki entitatek inbertsioak mankomunitatean egiten badituzte eta mankomunitateko lurren %50 baino gehiago eskualde menditsutik edo gainbehera doazen eremuetatik kanpo badaude, diru-laguntzaren xede izan daitekeen inbertsioaren %40. Diru-laguntza gehienez 150.000 eurokoa izanen da.

2. Diru-laguntzaren xede izan daitezkeen gastuetan honakoak sartuko dira: eraikinak, makineria eta ekipoa eskuratu eta obrak egiteko inbertsioen benetako kostu guztia BEZik gabe eta, kasua izanez gero, teknologia eskuratzeko inbertsio materialena.

3. Inbertsioak norberaren baliabideekin edo auzolanean egiten badira, hautatzen ahal diren gastuetan ez dira sartuko lanekuaren kostua, gastu orokorrak eta industria mozkina.

4. artikulua. Onuradunak.

Nafarroako toki entitateek jasotzen ahal dituzte foru agindu honetan ezarritako diru-laguntzak, diruz laguntzen ahal den jarduketaren baten xedeko lurren edo eraikuntzen titularrak badira edo haiek erabiltzeko eskubidea badute.

5. artikulua. Eskabideak, dokumentazio osagarria eta baldintzak betetzen direla frogatzeko agiriak aurkezteko epea.

1. Eskaerak telematika bidez aurkeztuko dira edo, teknikoki ezinezkoa bada, bertaratuz, Landa Garapeneko eta Ingarumeneko Departamentuari zuzenduta. Departamentu horretako erregistroan aurkezten ahalko dira edo, bestela, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean, edo Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan aurreikusitako tokietako edozeinetan.

Eskatzaile bakoitzak eskabide bakarra aurkeztuko du, egin gogo diren jarduketa guztiak azaltzen dituena.

Agiriak telematika bidez aurkezteko, deialdiaren oinarri arautzaileetako eranskinetan ageri diren eredu ofizialak bide elektronikoa erabiliz jaitsi eta halaxe beteko dira, eta eredu ofiziala ez duten agiriak, berriz, PDF formatuan; proiektuaren aurrekontua edo memoria teknikoa Excel formatuan.

2. Eskabideak aurkezteko epea deialdian ezarritakoa izanen da.

3. Eskabidea deialdi honen II. eranskineko inprimaki ofizialean eginen da, eta beterik, zigiturik eta sinaturik aurkeztuko da. Inprimaki hori Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren bulegoetan eskuragarri dago (Alondegi kalea 1, 2. solairua, 31002 Iruña) eta Nafarroako Gobernuaren [www.navarra.es](http://www.navarra.es) web guneko zerbitzuen katalogoan.

4. Eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) IFKren fotokopia, toki entitate eskatzailea Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren kudeaketa-aplikazioan erregistraturik ez badago.

b) Toki entitate eskatzailearen izenean egindako banku ziurtagiria, bankuak beterik, sinaturik eta zigiturik, eskatzailea berria bada edo aurreko kanpainetan laguntzak kobratzeko eman zuen kontu zenbakia aldatu nahi bada.

c) Diru-laguntzaren xede den jarduketaren proiektu teknikoak, teknikari kualifikatu batek egina, non jarduketa azalduko baita eta abeltzaintzarekin eta, hala denean, abeltzietekin zuzenean loturik dagoela frogatuko baita. 30.000 eurotik beherako exekuzio materialeko aurrekontua duten inbertsioen kasuan, memoria tekniko baloratua aurkezten ahalko da. Bi dokumentu horiek XIII. eranskinean deskribatutako gutxieneko edukiarekin bat egin beharko dira.

Inbertsioa 50.000 eurotik gorakoa bada, proiektuan informazio plaka edo publizitate hesia sartu behar da, kasu bakoitzean behar dena, 1698/2005 EE Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko.

d) Jarduketak gauzatzeko egutegia, non azalduko baita inbertsioaren aurrekontuaren erdia gutxienez kontzesio urteko azaroaren 15a baino lehen gauzatu dela, eta obrak kontzesio ekitaldiaren ondorengoko urriaren 31 baino lehen bukatu beharko direla.

e) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako ingurumen baimena, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legearekin bat. Betebehar hau ezin izanen da ordeztu baimenaren eskabidea aurkeztearekin.

f) Toki entitatearen ziurtagiria, herrilurren aprobetxamendua erregulatzen duen ordenantza, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen arabera, badagoela adierazten duena.

g) Konpromisoen inprimakia, foru agindu honen III. eranskinean ageri dena, beterik, toki entitateko alkateak edo buruak bete, zigitatu eta sinaturik.

h) Zenbait toki entitate inbertsioak mankomunitatean egiten badituzte, laguntzak tramitatu eta jasotzerakoan besteak ordezkatzeko dituen toki entitatea izendatu behar da.

i) Kostuen moderazioa frogatzeko inprimakia, foru agindu honen VI. eranskinean ageri dena, proiektua edo memoria teknikoa egin duen teknikariak bete, zigitatu eta sinatu. Toki entitateko alkatearen edo buruaren oniritzia ere beharko du.

j) Toki entitateko idazkariaren ziurtagiria, lurren edo eraikinen titulartasuna edo erabilera daukatela frogatzen duena.

k) Lurzati zedula edo inbertsioen xede diren lurzati edo eraikinen titulartasuna frogatzeko agiriak, edo lurrak edo eraikinak erabiltzen ahal dituztela frogatzen duten agiriak. Bideak egin edo hobetzeko obretan ez da beharrezkoa izan lurzati zedula aurkeztea.

Toki entitate eskatzailearen titulartasuna ez duten finketan edo eraikinetan inbertsioak egiten direnean, lurrak edo eraikinak erabilgarri daudela frogatzen duen agirian erabilgarritasun horren epea jarri beharko da. Inbertsioaren amortizazio teknikoaren epearen adinakoa izanen da epe hori gutxienez. Horretarako, IX. eranskinean ("Inbertsioak amortizatze epeak, lurren edo eraikinen erabilera izatearen ondorioetarako") ezarritakoa betekoa da.

5. Aukera gisa, baremoko puntuak gehitzeko, agiri hauek aurkezten ahalko dira:

a) Toki entitatearen ziurtagiria, non herrilurren aprobetxamenduaren kanona, eskabidea aurkeztu aurreko 3 urtekoa, agertuko baita.

b) Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribaturik dauden abeltzietan kopurua eta titularren zerranda.

6. Foru agindu honen babeseko laguntzak eskatzen direnean jarduketarako, eta aurreko urteren batean ere eskatu baldin bazen horietarako laguntza, baina lortu ez, eskabide berria bere garaian aurkeztu ez ziren eta indarra duten oinarri arautzaileek eskatzen dituzten agiriekin osatu beharko da. Jarduketak egiteko egutegi berria ere aurkeztuko da eta, bidezkoa bada, inbertsioaren aurrekontu eguneratua. Eskabidean inguruabar hori eta aurreko eskabideari emandako erreferentzia zenbakia adieraziko dira.

6. artikulua. Diru-laguntza emateko modua, lehentasunak eta irizpide objektiboak.

1. Foru agindu honen xede diren laguntzak norgehiagokako prozeduraren bidez emanen dira.

2. Laguntzak emateko hurrenkerak finkatzeko, eskabideak ondoko irizpide hauei jarraituz baloratuko dira, gehienez 100 puntu arte:

a) Batasunaren Intereseko Lekuak erabili eta kudeatzeko planen barneko jarduketak izanez gero, 15 puntu.

b) Entitateak bi urte honetan abeltzaintzako toki azpiegiturendako laguntzarik ez badu edo jarduketak aurreko deialdietan onetsi zen proiektu orokor baten barrukoak badira, 10 puntu.

c) Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Nekazaritza Ustiategien Erregistroan ehun abeltzietako bakoitza bakoitzeko, gehienez 10 puntu.

d) Puntu erdi bat jarduketak ukitu eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Nekazaritza Ustiategien Erregistroan dagoen abeltzietako bakoitzeko, gehienez 10 puntu.

e) Herrilurren aprobetxamendurako kanona egonez gero, 10 puntu.

f) Proiektuaren interes sozial, ekonomiko eta teknologikoa, 20 puntu gehienez. Aurreko bi urteetako edozeinetan toki entitateari laguntza deuseztatu edo ukatu bazaio baldintzaren bat ez betetzeagatik, proiektuaren interesa ez da baloratuko.

Proiektuaren interes soziala, teknologikoa eta ekonomikoa, Abeltzaintzako Azpiegituren Batzorde Teknikoak ebaluatu ditzen, berariaz eta argitasunez azaldu behar dira proiektuaren memorian.

g) Toki entitate gainbehera doazen udalerrien zerranda badago (V. eranskina), 5 puntu. Toki entitatea eskualde menditsuan badago, 5 puntu.

h) Deialdiaren aurreko urtean eguraldi txarrak abeltzaintzako azpiegiturretan eragindako kalteak Nafarroako Gobernuari jakinarazi eta inolako laguntzarik jaso ez duten toki entitateak, 15 puntu.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko teknikariak onartu eta baloratutako kalteetarako bakarrik emanen da diru-laguntza. Kasu horretan, balorazio horretan agertzen dena izanen da laguntzen ahal den inbertsioa.

7. artikulua. Deialdiaren antolamendua, instrukzioa eta ebazpena.

1. Eskabideak jaso ondoren, Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuak behar bezala beteak dauden eta agiri guztiak aurkeztu diren egiaztatuko du. Hala ez bada, toki entitateari hamar eguneko epea emanen zaio akatsak konpontzeko, eta adieraziko zaio horrela egin ezean eskabidea bertan behera utzitzat hartuko dela eta artxibatze epea emanen dela.

2. Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuak egiaztatuko du eskatutako laguntzaren xede diren jarduketak 2. artikuluko zerranda daudela, diru-laguntza jaso dezaketean jarduketan zerranda, alegia, eta eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen direla. Bestela, zerbitzu horrek eskabidea ukatzeko proposamena igorriko du.

Proposatutako kostuen moderazioa egiaztatze, sistema hauek erabiliko ditu aipatu zerbitzuak:

a) "Inbertsio moduluak" izeneko V. eranskinean aipatutako erreferentziak. Eranskin horietako erreferentziako balioak urtero eguneratuko dira automatikoki, aurreko urteko Estatuko KPIa aplikatuz. Eguneratze hori espedienteetan aplikatzeko, eskaeraren datari begiratuko zaio.

b) Inbertsioak, beren ezaugarrietatik, "Inbertsio moduluak" izeneko V. eranskinean sartuta ez badaude, Balorazio Batzorde batek baloratuko ditu. Batzorde hori Nekazaritza Azpiegituren Berrikuntzaren Ataleko buruak eta Abeltzaintzako Azpiegiturei Laguntzeko Bulegoko buruak osatuko dute.

Proposatutako inbertsioen kostuen ebaluazioa bukatu, inbertsioa aurrekontu onargarritzat jotzen ez bada, dagokion toki entitateari eskatuko zaio kostuen moderazioa betekoa duen beste aurrekontu bat aurkez dezala hamar eguneko epean gehienez.

Nekazaritza Azpiegituren Berrikuntzaren Ataleko teknikariak edo Balorazio Batzordeak, bidezkoa denaren arabera, kostuen moderazioari buruzko txosten bat egiten dute eskaera bakoitzeko."

3. Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzuak zerranda bat osatuko du dokumentazio osoa duten eta diru-laguntza jaso dezaketean jarduketak biltzen dituzten eskabideekin, eta Abeltzaintzako Azpiegituren Batzorde Teknikoari emanen dio, eskabideekin eta horiei erantsitako agiriekin batera, ebaluatu ditzen, 6. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz.

4. Abeltzaintzako Azpiegituren Batzorde Teknikoak eskaerari ezetza ematea proposatu ahal izanen du, espedienteko akats teknikoek jarduketak ebaluatzea eragozten badute edo aurrekontuan ageri diren obra unitateen prezioak eta neurriak gehiegizkoak badira.

5. Abeltzaintzako Azpiegituren Batzorde Teknikoak kide hauek izanen ditu:

a) Teknikari bat, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza Nagusiak izendatua.

b) Teknikari bat, Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak izendatua.

c) Teknikari bat, Ingurumenaren eta Uraren Zuzendaritza Nagusiak izendatua.

6. Bi proiektu edo gehiagoren artean, puntuetan berdinketarik gertatuz gero, proiektuaren interes sozial, ekonomiko eta teknologikoaren atalean (6. artikulua, 2.e) puntu gehien lortu dituztenei emanen zaie diru-laguntza.

Berdinduta segitzen badute, jarduketak ukitu eta Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren Nekazaritza Ustiatzaren Erregistroan inskribaturik dauden abeltzietan atalean (6. artikulua, 2.c) puntu gehien lortu dituzten proiektuei emanen zaie diru-laguntza.

Berdinketarik irauten badu, toki entitatearen mugapean Erregistro horretako abeltzietan gehien dituen entitateari emanen zaio diru-laguntza.

7. Batzorde Teknikoak proposamena jakinaraziko dio Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuari.

8. Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak ebazpen proposamena egiten du. Bertan diru-laguntzak esleituko ditu, lortutako puntuazioak kontuan izanik, aurrekontuko kredituak agortu arte.

Azken onuradunari esleitu gabe geratzen den saldoa emanen zaio; beraz, aurrekontuko diru kopurua handiagoa izan balitz berari zegokiokeen diru-laguntza baino gutxiago emanen zaio.

Jarduketa mota bakoitzerako aurrekontuan esleitu den dirua agortzen ez bada, 3. artikuluan ezarritako jarraituz, soberakina beste jarduketa motari emanen ahalgo zaio, betiere, baremoaren arabera lortutako puntuazioari jarraituz.

9. Ebazpen proposamena ikusirik, Landa Garapenerako zuzendari nagusiak ebaztuko du diru-laguntzen gainean, arrazoiak emanda, gehienez ere hiru hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik hasita.

8. artikulua. Onuradunaren betebeharrak.

Onuradunek, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 9. artikuluko betebeharrak ez ezik, hauek ere bete beharko dituzte:

a) Inbertsioetako obrak Kontratu publikoari buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean ezarritakoaren arabera esleitzea.

Toki entitateak diruz lagundutako inbertsioen %100 bitarte kontrata dezake.

b) Jarduketak egitea aurkeztutako egutegiaren arabera, baina, betiere, foru agindu honetako epeak beteta.

c) Toki entitateak laguntzaren xede diren inbertsioak ez egitea erabakitzen badu, emandako diru-laguntzari uko egitea.

Toki entitateak, deialdi honetan ezarritako egunerako inbertsioak gautzen ez baditu edo laguntzari uko egiten ez badio, hurrengo bi deialdietan ezin izanen ditu eskatu foru agindu honetan araututako laguntzak.

d) Kontseiluak irailaren 20an eman 1698/2005 (EE) Erregelamenduan eta hori aplikatzeko erregelamenduetan Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) bitartez kudeatzen diren landa garapenerako laguntzei buruz ezarritako kontrolak burutzeko behar den laguntza ematea.

e) Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuan frogatzea harturiko funtsak diru-laguntzak kobratzeko oinarri izan zen helburuan, ezarritako moduan eta epeetan, erabili direla, eta harturiko funtsak erabiltzeko gastuak egin direla.

f) Diru-laguntzak ematen dituen ebazpenaren proposamena egin baino lehen, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan onuradun izateko ezarritako ezein debekutan sarturik ez egotea eta, zehazki, Gizarte Segurantzarekiko zorrak eguneratuak eta zerga guztiak pagatuak izatea.

g) Foru agindu honetan eta laguntza emateko proposamenaren izaeraren ondorioz ezarritako diren gainerako betebeharrak betetzea.

h) Diruz laguntzen diren inbertsioei eusteko konpromisoa: onuradunak konpromisoa hartu behar du laguntzaren likidazioaren ondoko 5 urteetan ez duela inbertsioan aldaketa garrantzitsurik egiten, salbu eta hondamendi naturalen ondorioz edo ezinbestez. Aldaketa garrantzitsutzat hartuko dira inbertsioaren izaera edo hura gauzatzeko baldintzak ukitzen dituztenak. Ezin izanen da jabetza araubidea aldatu, erabilera aldatu edo eten edo diruz lagundutako inbertsio unitateen kopurua txikitu.

i) Xede berarekin beste diru-laguntzaren bat jasoz gero, horren berri ematea Landa Garapenerako Zuzendaritza Nagusiari.

9. artikulua. Diru-laguntzaren helburua lortu dela eta hartutako dirua erabili dela frogatzeko epea eta modua.

1. Onuradunek diru-laguntzen xede diren jarduketak burutu dituztelako agiri hauek aurkeztuz frogatuko dute:

a) Obren ziurtagiriak, dagozkien fakturak eta egindako ordainketen frogagiriak. Jatorrizko agiriak edo horien fotokopia konpultsatuek aurkeztu behar dira.

Obren ziurtagiriak onetsitako proiektuko obra unitateen arabera egin behar dira. Modu berean, aurkeztutako faktura edo gastuen frogagiri bakoitza dagozkion ziurtagiriari lotua egonen da.

Inbertsioak norberaren baliabideekin edo auzolanean eginak badira, obra-ziurtagirietan ez dira sartuko lanekuaren kostua, gastu orokorrak eta industria mozkina.

Ordainketen frogagiri horiek ezarritako epean aurkeztu ez, edo horien zenbatekoa ziurtatu den gastua baino txikiagoa bada, ordainketa frogatu gabe duen inbertsio zatiari dagozkion diru-laguntza ez da ordainduko.

b) Inbertsioa frogatzen duten faktura eta ziurtagirien zerrenda, IV. eranskineko inprimaki ofizialean egina.

c) Obren behin betiko esleipenetik hasita 15 eguneko epean, obren behin betiko esleipenaren agiriaren fotokopia konpultsatua aurkeztuko da, eta toki entitateko idazkariaren ziurtagiria, kontratazio publikoari buruzko xedapenak (Foru Komunitatekoak, Estatuakoak eta Europar Batasunekoak) bete direla azalduko duena; horretan agertuko dira obrak esleitzeko prozedura, esleipena hartu duen enpresaren datuak, esleipenaren prezioa eta aurkeztutako eskaintzen kopurua, eta diru-laguntzen kudeaketan eskatutako eragimen eta ekonomia irizpideak ere bete direla bermatuko da. VII. eranskinean ageri den inprimaki ofiziala erabiliko da.

2. Diru-laguntza eman eta hurrengo urteko urriaren 31rako amaitu behar dira diru-laguntzaren xede diren jarduketak. Lehenbiziko urteko jarduketak laguntza ematen den urteko azaroaren 15a baino lehen amaitu behar dira.

Urte bakoitzeko obra-ziurtagiri, faktura eta gastu-frogagiriak goian adierazitako egunen aurretik aurkeztu beharko dira.

Lehenbiziko urteko diru-laguntza ordain dadin, egun horretara arte egindako inbertsioa frogatu behar da ezarritako epean eta moduan.

Laguntza ematerakoan aurreikusitako inbertsioa baino inbertsio txikiagoa egiten bada, emandako laguntzari zati bat kenduko zaio, benetan egindako inbertsioari egokitzeko. Inbertsio txikiagoa ezin izanen da inoiz konpentsatu hurrengo urteko inbertsioa handituz. Inbertsioaren zati bat egin gabe geratu dela ulertuko da eta urteko diru-laguntzatik kenduko da egin gabeko inbertsioari dagozkion zatia.

3. Bai ziurtagiri partzialan bai amaierakoan, zilegi izanen da obra unitate batzuen ordez onartutako proiektuko beste batzuk jartzea, baldin eta horien exekuzio materialaren balioa onartutako proiektuaren exekuzio materialeko aurrekontuaren %10etik beherakoa bada. Ziurtagiriarekin batera obren zuzendariak egindako txostena aurkeztuko da, egindako aldaketan beharra edo/eta egokitasuna justifikatzeko.

Obra unitateetako aldaketak onartutako proiektuaren exekuzio materialeko aurrekontuaren %10etik gorakoak badira, arrazoitu egin beharko dira baimendu ahal izateko. Egin baino lehen, Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuari jakinarazi beharko zaizkio, aldatutako proiektuak laguntza jasotzeko baldintzak betetzen segitzen duela egiaztatzeko, eta aldatutako obrari baremoa aplikatzen lortutako puntuazio berria kontzesio baremoaren gehieneko puntuazioa baino handiagoa dela ere egiaztatzeko. Landa Garapenerako zuzendari nagusiak ebazpena emanen du proposaturiko aldaketak onesteko edo baimena ukatzeko. Baimenik izan ezean, aldaketa horiek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Baldin eta, aldaketa horien ondorioz, onartutako proiektuak jaso duen ingurumen baimena aldatu behar bada, Nafarroako Foru Administrazioaren ingurumen baimen berria eskuratu beharko da, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko 4/2005 Foru Legeari jarraituz.

Landa Garapenerako Zuzendaritza Nagusiak ez du baimenduko emandako diru-laguntza edo diru-laguntzaren xede izan daitekeen inbertsio baimendua handitzea dakarren aldaketarik.

4. Laguntzaren azken ordainketa egin baino lehen, organo kudeatzailerak bertatik bertara egiaztatuko du jarduketak benetan egin direla.

5. Entitatearen batek uko egiten badio emandako laguntzari, soberako kredituak, lehendabizi, aurrekontuko funtsak aski ez izateagatik behar baino diru-laguntza txikiagoa jaso duen onuradunari laguntza gehiago emateko erabiliko dira, eta, bigarrenik, eskabidea onartu bai baina kreditu aski ez izateagatik diru-laguntzarik eman ez zaien eskatzaileei emateko, baremoan lortutako lehentasun hurrenkerari jarraituz.

Lehen urteko obra egin izana frogatzen duten agiriak aurkezteko epea, onuradun berri horientzat, laguntza ematen den urteko abenduaren 15era arte luzatuko da.

6. Laguntza ematen den urteko irailaren 30etik aurrera uko egiteen ondorioz askatzen diren kredituak eta obra exekuzio txikiagoen ondoriozkoak, hala deialdi honetakoak nola aurreko deialdietakoak, erabiltzen ahalgo dira, aurrekontuan behar diren doiketak egin ondoren, bigarren urteko ordainketa aurreratuak egiteko, eskatuz gero, inbertsioak epea amaitu baino lehen burutu dituztenei.

Bigarren urteko ordainketa aurreratu ahal izateko ezinbesteko baldintza izanen da diru-laguntzaren xede den proiektua erabat burutua egotea laguntza ematen den urteko azaroaren 15erako.

Obraren amaierako ziurtagiria, fakturak eta gastuen frogagiriak goian adierazitako egunaren aurretik aurkeztu beharko dira.

10. artikulua. Ordaintzeko modua eta epeak.

Jarduketak egin direla frogatzeko agiri guztiak aurkezturik, hiru hila-beteko epean eman da ordaintzeko ebazpena.

11. artikulua. Interes publikoak bermatzeko neurriak.

Diru-laguntzaren onuradunek diru-laguntzaren xede diren jarduketan jabetzari edo erabiltzeko eskubideari eutsi beharko diote bost urtean, gutxienez.

12. artikulua. Diru-laguntzaren bateragarritasuna.

Deialdi honen babesean ematen diren laguntzak toki entitateak hel-buru bererako hartzen dituen bestelakoekin bateragarriak izanen dira, baldin eta 1698/2005 (EE) Erregelamenduaren arabera ematen ez bada. Zenbatekoak, bakarrik edo gainerako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide berekiekin baturik, behin ere ezin izanen du gaintitu diru-laguntzen xede diren jarduketan.

13. artikulua. Onuradunen eginbeharrak publikitateari dagokionez.

1. 50.000 eurotik gorako kostu osoa gaintitzen duten inbertsioak dakartzaten ekintzetarako, onuradunak azalpen plaka bat paratu beharko du, eta 500.000 eurotik gorako kostu osoa gaintitzen duten azpiegiturretan publikitate hesi bat paratu beharko da.

Plakak gutxienez 1,20 metroko zabalera izanen du eta 0,80 metroko garaiera, eta, publikitate hesiak, 2,00 metroko zabalera eta 1,50 metroko garaiera.

Bai plakan, bai publikitate hesian, proiektu edo eragiketaren azalpena agertuko da, plaka edo hesiaren %25 hartuko duena, gutxienez. Gainera, Europako bandera agertuko da, 1974/2006 (EE) Erregelamenduaren VI. eranskineko 4. puntuan ezarritako arau grafikoekin bat, eta, harekin batera, irakurgarri hau: "Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa: Europak landa eremuetan inbertitzen du".

2. Agertu beharko du jarduketa hori Nafarroako Gobernuak finantzatu duela.

14. artikulua. Diru-laguntzen kontrola, ez-betetzeen mailakatzea, murrizketak eta salbuespenak.

1. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak diru-laguntzak emateko baldintzak betetzen diren eta aurreikusitako inbertsioak behar bezala egiten diren begiratu du, eta horretarako behar diren ikuskapenak eta egiaztapenak egiten ahalko ditu; bidezkotzat jotzen duen informazioa ere eskatzen ahalko die laguntzen onuradunei.

2. Foru agindu honetan ezarritako konpromisoak betetzen ez badira, diru-laguntza ukatu ahal izanen da, edo ordaindutako laguntzak itzularaziko dira, osorik edo hein batean, kasuaren arabera, Diru-laguntzei buruzko 11/2005 Foru Legearen II. kapituluaren xedatutakoarekin bat, berandutza korrituak gehituta edo ez, kasu bakoitzean bidezkoa dena.

3. Inbertsioak egin ondoren, ordainketarako eskaeran justifikatutako inbertsio lagungarriaren zenbatekoa onartutako inbertsioa baino txikiagoa bada, laguntzen zenbatekoa egokitu egingen da eta proportzioan murriztu, penalizaziorik gabe, eta hori baldin eta egindako inbertsioak Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuaren ustez oraindik ere baliozkoak badira, teknikoki eta ekonomikoki, eta proiektatutako obra unitateen murrizketak edo ez-gauzatzek ez badu ukitzen laguntzak ematea ekarri zuten baremazioan lortutako puntuazioa.

4. Ordainketa eskabideko zenbatekoa onargarritasun azterlana egin ondoren ateratzen den zenbatekoa baino %3 handiagoa bada, ordaintzeko zehaztutako zenbatekoa beste horrenbeste gutxituko da.

Hala ere, ez da bat ere gutxituko onuradunak frogatzen badu ez dela diru-laguntzaren xede izaterik ez duen zenbatekoa sartzearen erantzulea.

5. Espediente baten bidez egiaztatzen bada onuradunak gezurrezko adierazpen bat egin duela nahita, onarturiko laguntzak bertan behera utziko dira, eta ordaindutako zenbateko guztiak berreskuratuko dira. Gainera, onuraduna neurri horretarako laguntzetatik baztertuko da, ekitaldi horretan eta hurrengoan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako zehapenak deusetan galarazi gabe.

15. artikulua. Emandako diru-laguntzen publikitatea.

Foru agindu honen babesean ematen diren diru-laguntzak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea garatzen duten arautan xedaturikoarekin bat argitaratuko dira.

16. artikulua. Gero betetzeko konpromisoak. Murrizketak eta bazterketak.

1. Foru agindu honen 8.h) artikuluan aipatzen diren konpromisoak bete ezik, laguntzak osorik edo hein batean itzuli beharko dira.

2. 8.h) artikuluan aipatzen den konpromisoa ez-betetzat joko da, inbertsioen eta/edo gastuen azken ziurtagia egin eta hurrengo bost urtean ondokoa gertatzen bada:

- a) Diruz lagundutako inbertsioen jabetza araubidea aldatzea.
- b) Diruz lagundutako inbertsioaren erabilera aldatzea.

c) Diruz lagundutako inbertsioen erabilera etetea.

d) Diruz lagundutako inbertsioen obra unitateak gutxitzea, behar bezala frogatutako ezinbesteko baldintzak izaten direnean izan ezik.

3. Aurreko atalean aipatzen den konpromisoa ez betetzea jarraian zehaztuko diren irizpideen arabera mailakatuko da, laguntzak itzultzeko portzentajeak sortuko ditu, eta kasua bada legez ezarritako korrituak gehituko dira:

a) Diruz lagundutako inbertsioen jabetza araubidea aldatzea: laguntzaren %100 itzuli beharra.

b) Diruz lagundutako inbertsioa abeltzaintzakoa ez den erabilera batera aldatzea: laguntzaren %100 itzuli beharra.

c) Diruz lagundutako inbertsioen erabilera etetea: laguntzaren %50 itzuli beharra. Hilabeteko epean erabilera berrituz hasten ez bada, laguntzaren %100 itzuli beharko da.

d) Diruz lagundutako inbertsioen obra unitateak gutxitzea, behar bezala frogatutako ezinbesteko baldintzak izaten direnean izan ezik: gutxitutako unitateei dagokien laguntzaren %100 itzuli beharra. Hilabeteko epean unitateak berrezartzen badira, berrezarritako unitateen laguntzaren %50 itzuli beharko da.

Xedapen gehigarri bakarra.–Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren (LGENF) finantziazioa.

Hiltegiak indarra duen araudira egokitzeko obren finantziazioan LGENF-ek ez du parte hartuko eta horrelako obren espedienteak Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura finantzatu dira oso-osorik.

## II. ERANSKINA

### Abeltzaintzako azpiegiturarako laguntza eskaera

#### DEIALDIA

ESPEDIENTEA:									
--------------	--	--	--	--	--	--	--	--	--

(Administrazioak bete beharrekoa)

<b>ENTITATE ESKATZAILA</b>	TOKI ENTITATEAREN IZENA:		
	IFK:		
	HELBIDEA (kalea/plaza/etorb./zk.):		
	HERRIA:	POSTA K.:	PROBINTZIA:
	TELEFONOA:	FAXA:	E-MAILa:

<b>ORDEZKARIA</b>	IZEN-DEITURAK:		
	IFZ:		
	HELBIDEA (kalea/plaza/etorb./zk.):		
	HERRIA:	POSTA K.:	PROBINTZIA:
	TELEFONOA:	FAXA:	E-MAILa:

<b>TEKNIKARIA (Proiektuaren egilea)</b>	IZEN-DEITURAK:		
	IFZ:		
	TITULAZIOA:		
	ENPRESA:		
	HELBIDEA (kalea/plaza/etorb./zk.):		
	HERRIA:	POSTA K.:	PROBINTZIA:
	TELEFONOA:	FAXA:	E-MAILa:
	<input type="checkbox"/> JAKINARAZPEN TELEMATIKOA ESKATZEN DU		

#### GAUZATZE AURREKONTUA, GUZTIRA:

Deialdi honetan ezarritakoarekin bat, eskatzen du abeltzaintzako toki azpiegiturak hobetzeko laguntza eman dakiola, eskabide honi erantsitako agirietan agertzen diren inbertsioen aurrekontuari dagokiona.

.....(e)n, 20....(e)ko .....aren ....(e)an.

(Eskatzailearen edo haren ordezkariaren sinadura)

Sin.: .....

## III. ERANSKINA

DEIALDIA: 20...../.....

..... jaunak/andreak .....

.....(e)ko alkate udalburuak .....

Adierazten du:

a) BAI  / EZ  eskaera honen xedeko inbertsioetarako beste laguntza publiko batzuk eskatu dituela.



MORENTIN  
 MUES  
 MURIETA  
 NABASKOZE  
 NAZAR  
 OKO  
 ODIETA  
 OITZ  
 OLEXOA  
 OLORITZ  
 ORBAITZETA  
 ORBARA  
 ORISOAIN  
 ORONTZE  
 OROTZ-BETELU  
 PETILLA ARAGOI  
 PIEDRAMILLERA  
 PUIU  
 ORREAGA  
 ZARE  
 SALDIAS  
 JAITZ  
 SANTSOL  
 SARTZE  
 SORLADA  
 TIRAPU  
 TORRALBA DEL RIO  
 TORRES DEL RIO  
 UKAR  
 UNTZITI  
 UNTZUE  
 URDAZUBI  
 URRALBEITI  
 URROTZ  
 URZAINKI  
 UTERGA  
 UZTARROZE  
 LUZAIDE  
 BIDANKOZE  
 VILLAMAYOR DE MONJARDIN  
 HIRIBERRI AEZKOA  
 ESA  
 ZABALTZA  
 ZIORDIA  
 ZUBIETA  
 ZUGARRAMURDI  
 ZUÑIGA

VI. ERANSKINA

Kostuen moderazioaren justifikazioa

UN.	KONTU-SAILA	EXEKUZIO MATERIALAREN PREZIOA (euroak)
Un.	Metro bateko diametroko hodia, 6 m-ko luzerakoa, kutxeta eta ahoa barne, erabat funtzionala eta bukatua	
Un.	0,8 m-ko diametroko hodia, 6 m-ko luzerakoa, kutxeta eta ahoa barne, erabat funtzionala eta bukatua	
Un.	0,6 m-ko diametroko hodia, 6 m-ko luzerakoa, kutxeta eta ahoa barne, erabat funtzionala eta bukatua	
ml	3 m-ko zabalerako bidea, 0,15 m-ko lodierakoa, material pikorduna (2") duena, erabat funtzionala eta bukatua	
m <sup>3</sup>	Harrobi komertzialeatik heldu den material pikorduna, birrinke-ta bidez hautatua (2"), konpaktuan neurtua, materiala, karga eta garraioa barne, erabat funtzionala eta bukatua	
m <sup>3</sup>	"Zagor natural" gisako material pikorduna, baheketa bidez hautatua (2"), konpaktuan neurtua, materiala, karga eta garraioa barne, erabat funtzionala eta bukatua	
m <sup>2</sup>	Beroan egindako emultsio bituminosoko zoladura, S12 motakoa, agregakin ofitrikoduna, 5 cm-ko lodierakoa, itsaspeneko emultsio bereziarekin (ECR1) alde aurretik ureztatua eta bidezulo eremuen birprofilatzea, erabat funtzionala eta bukatua	
m <sup>3</sup>	Hormigoizko zoladura bideetan, hormigoiz hornidura barne, hedatua, erregela dardarkariarekin trinkotua, talotzatzea eta erremateak, azaleko testurarako arrabotaketa, produktu filmogenoekin onduta, eta uzkuradura-junturak egitea gogorean; enkofratzea eta ertzen arriñonamendua barne, erabat funtzionala eta bukatua	
m <sup>3</sup>	80 cm-ko diametrotik gorako kareharrizko lubeta, beharrezkoak diren obra osagarri guztiak barne, lurra harriak jarri aurretik egokitzea eta material iragazlez beteriko estradosa, erabat funtzionala eta bukatua	
m <sup>2</sup>	Eskorta itxia, 15 m-tik gorako hutsartea eta 4 m-tik gorako garaiera duena, erabat funtzionala eta bukatua	
m <sup>2</sup>	Eskorta itxia, 15 m-tik beherako hutsartea eta 4 m-tik beherako garaiera duena, erabat funtzionala eta bukatua	

UN.	KONTU-SAILA	EXEKUZIO MATERIALAREN PREZIOA (euroak)
Un.	Hesi kanadiarra, ondoan metro bateko zabalerako ate metalikoa, giltzarra eta alboan altzairu galbanizatuzko bi baranda, eta, gainera, gehienez ere metro bateko diametroko eta 5 m-ko luzerako hodia, erabat funtzionala eta bukatua	
Un.	Altzairu galbanizatu teleskopikoko ataka, 1-5 metroko luzerakoa eta 1,2 m-ko garaierakoa jarrita dagoela, erabat funtzionala eta bukatua	
ml	Akaziako hesolekin egindako itxura. Hesolak 1,7 m-ko garaierakoak eta 10 cm-ko punta meharrekoak izanzen dira, zartzetik heldu direnak, beraien artean 1,8 m utziko da, metro bateko garaierako sarea jarriko da edo alanbre ziztaduneko 5 ilara, zorutik 15-30-50-75-105 cm-tara; hesolak eskuz edo zamariz banatuko dira 200 m-ko distantziara gehienez, pertsonak pasatzeko pasabideak utziko dira 250 m-ko tarte bakoitzean gutxienez eta bidexka edo bideekin gurutzatzen. Erabat funtzionala eta bukatua.	
ml	Itxitura kentzea	
ml	Itxitura konpontzea	
m <sup>2</sup>	Abeltzaintzako tratamendu-eskorta, erabat funtzionala eta bukatua	
m <sup>3</sup>	Iragazizte naturaleko putzua, zangak irekitzea barne, erabat funtzionala eta bukatua	
m <sup>2</sup>	Material iragazizgarri komertzialekin iragazizteagatik gehigarria, erabat funtzionala eta bukatua	
Un.	Hormigoizko armaturak, neurri estandarrekoak, buia eta babesa barne, erabat funtzionala eta bukatua	
Un.	Altzairu galbanizatuzko uraska aurrefabrikatua, neurri estandarrekoak, erabat funtzionala eta bukatua	
h	Ezpondetatik erortzen diren materialak kentzeko eta arekak garbitzeko makineria	

VII. ERANSKINA

Obren esleipenaren ziurtagiria

Izena: .....  
 Toki entitate honetako idazkaria: .....  
 ZIURTATZEN DUT:  
 ...../...../.....(e)an egindako osoko bilkuran erabaki zela udal muga-  
 pean "abeltzaintzako azpiegiturak hobetzeko obren" esleipena egitea,  
 ..... deialdian.

Esleipena ..... prozedura bidez egin zen, kontratazio publi-  
 koaren arloko xedapenekin bat, eta ..... enpresak hartu zuen eslei-  
 penaren, ..... euroren truke, hau da, %.....(e)ko beherapenarekin.

Diru-laguntzen arloko araudiak ezarritako eragimen eta ekonomiako  
 irizpideak bete direla esleipenean.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu, eskaintza hauek jaso dira,  
 ondokoek aurkeztuta:

ENPRESA	ESKAINZA

Eta bidezkoa den tokian ager dadin, ziurtagiri hau luzatzen dut  
 ..... (e)ko alkatearen oniritziarekin eta ...../...../..... datarekin.

O. E.  
 Idazkaria Toki entitateko alkatea edo burua  
 Sin.: ..... Sin.: .....

VIII. ERANSKINA

Proiektuen eta memoria teknikoaren gutxienezko edukia

Proiektuek agiri hauek izanzen dituzte: memoria, aurrekontua, baldin-  
 tza-agiria, Ingurumen ukipenen azterlanak (4/2005 Foru Legearen arabera  
 beharrezkoa bada) edo bestela Ingurumen eraginaren azterlanak, 1:10.000  
 eskalako edo hortik gorako planoak, segurtasun eta osasun arloko azter-  
 lanak, 1627/1997 Errege Dekretuarekin bat, zeinaren bidez eraikuntza  
 lanetan gutxienez bete beharrezko segurtasun eta osasun baldintzak  
 ezartzen baitira.

a) Memoria: Laguntza zein jarduketarako eskatzen den, horren deskribaketa zehatza egin beharko du, bai eta jarduketaren aurrerakinak eta xedea ere azaldu.

Jarduketaren erreferentzia geografikoak eta planoetako kokaguneak zehaztuko dira.

b) Baldintza-agiria: proiektuetan baizik ez da eskatuko. Laguntza zein lanetarako eskatu den, lan horiek guztiak aipatu beharko ditu eta adierazi, gutxienez, obra bakoitzean erabiliko diren baliabideak, makinerian behar den indarra kalkulatu.

c) Aurrekontua, honako agiriekin osatua:

1. Neurketen taula.

2. Prezioen taula:

–Prezioen taula letraz.

–Prezio xehakatuaren taula (laneskua, makineria eta materialak)

–Prezio osagarrien taula.

3. Aurrekontu partzialak.

4. Aurrekontuen laburpen orokorra.

d) Planoak:

1. Kokapen planoak.

2. Plano zehaztua, 1:10.000 eskalako edo hortik gorakoa. Laguntza eskaeran aipatzen diren jarduketa guztien erreferentzia geografikoak eman beharko dira, eta lokalizatze moduan azaldu.

3. Plano zehatzagoak egiten dira fabrika-obretarako, harri-lubetararako, etab.

Aurrekontuetako eta memoriako unitateek bat etorri beharko dute planoetan ageri direnekin.

e) Segurtasunari eta osasunari buruzko oinarriko azterlana. Agiri hori proiektuetan soilik eskatzen ahalko da, eta horren edukia 1627/1997 Errege Dekretuarekin bat etorri beharko du:

1. Memoria.

Obren ezaugarrien deskribapena.

Egiteko epea.

Aurreikusitako langileak.

Behin-behineko instalazioak eta osasun laguntza.

Aurreikusitako makineria eta baliabide osagarriak.

Arriskuen azterketa orokorra.

Prezentzio neurriak.

2. Aurrekontua. Espedientean eskatutako aurrekontua oinarritzat harturik zehaztuko da.

Memoria teknikoak eskatzen den kasuetan, honakoak bildu behar ditu: memoria, aurrekontua, Ingurumen ukipenen azterlana (4/2005 Foru Legearen arabera beharrezkoa bada) eta 1:10.000 eskalako edo hortik gorako planoak.

## IX. ERANSKINA

*Inbertsioak amortizatze epeak, lurren edo eraikinen erabilera izatearen ondorioetarako*

Eraikinak:

Obra berria: 25 urte.

Obra berritzea: 20 urte.

Ekipoak: 12 urte.

## X. ERANSKINA

Inbertsio moduluak:

UN.	KONTU-SAILA	EXEKUZIO MATERI- ALAREN PREZIOA (euroak)	
		I. MOTA	II. MOTA
Un.	1 m-ko diametroko hodia, 6 m-ko luzerakoa, kutxeta eta ahoa barne, erabat funtzionala eta bukatua	1.660,00	2.158,00
Un.	0,8 m-ko diametroko hodia, 6 m-ko luzerakoa, kutxeta eta ahoa barne, erabat funtzionala eta bukatua	1.291,00	1.678,30
Un.	0,6 m-ko diametroko hodia, 6 m-ko luzerakoa, kutxeta eta ahoa barne, erabat funtzionala eta bukatua	1.026,00	1.333,80
ml	3 m-ko zabalera bidea, 0,15 m-ko lodierakoa, material pikorduna (2") duena, erabat funtzionala eta bukatua	10,00	12,00
m <sup>3</sup>	Harrobi komertzialekin heldu den material pikorduna, birrinketa bidez hautatua (2"), konpaktuan neurtua, materiala, karga eta garraioa barne, erabat funtzionala eta bukatua	18,00	25,00

UN.	KONTU-SAILA	EXEKUZIO MATERI- ALAREN PREZIOA (euroak)	
		I. MOTA	II. MOTA
m <sup>3</sup>	"Zagor natural" gisako material pikorduna, baheketa bidez hautatua (2"), konpaktuan neurtua, materiala, karga eta garraioa barne, erabat funtzionala eta bukatua	7,50	7,50
m <sup>2</sup>	Beroan egindako emultsio bituminosoko zoladura, S12 motakoa, agregakin ofitikoduna, 5 cm-ko lodierakoa, itsaspeneko emultsio bereziarekin (ECR1) aldezturik ureztatua eta bidezulo eremuen birprofilatzea, erabat funtzionala eta bukatua	9,00	10,00
m <sup>3</sup>	Hormigoizko zoladura bideetan, hormigoi hornidura barne, hedatua, erregela dardarkariarekin trinkotua, talotxatzea eta erremateak, azaleko testurarako arrabotaketa, produktu filmogenoekin ondura, eta uzkurdu-junturak egitea gogorrean; enkofratzea eta ertzen arriñonamendua barne, erabat funtzionala eta bukatua	120,00	150,00
m <sup>3</sup>	80 cm-ko diametrotik gorako kareharrizko lubeta, beharrezkoak diren obra osagarri guztiak barne, lurra harriak jarri aurretik egokitzea eta material iragazlez beteriko estradosa, erabat funtzionala eta bukatua	40,00	70,00
m <sup>2</sup>	Eskorta itxia, 15 m-tik gorako hutsartea eta 4 m-tik gorako garaiera duena, erabat funtzionala eta bukatua	150,00	150,00
m <sup>2</sup>	Eskorta itxia, 15 m-tik beherako hutsartea eta 4 m-tik beherako garaiera duena, erabat funtzionala eta bukatua	130,00	130,00
Un.	Hesi kanadiarra, ondoan metro bateko zabalera ate metalikoa, giltzarrapoa eta alboan altzairu galbanizatuzko bi baranda, eta, gainera, gehienez ere metro bateko diametroko eta 5 m-ko luzerako hodia, erabat funtzionala eta bukatua.	5.000,00	6.000,00
Un.	Altzairu galbanizatu teleskopikoko ataka, 1-5 metroko luzerakoa eta 1,2 m-ko garaierakoa jarrita dagoela, erabat funtzionala eta bukatua	500,00	600,00
ml	Akaziazko hesolekin egindako itxitura. Hesolak 1,7 m-ko garaierakoak eta 10 cm-ko punta meharrekoak izanzen dira, zartatetik heldu direnak, beraien artean 1,8 m utziko da, metro bateko garaierako sarea jarriko da edo alianbre ziztaduneko 5 ilara, zurutik 15-30-50-75-105 cm-tara; hesolak eskuz edo zamariz banatuko dira 200 m-ko distantziara gehienez, pertsonak pasatzeko pasabideak utziko dira 250 m-ko tarte bakoitzean gutxienez eta bidekka edo bideekin gurutzatzean. Erabat funtzionala eta bukatua.	4,50	6,00
ml	Itxitura kentzea	0,50	1,00
ml	Itxitura konpontzea	0,50	1,00
m <sup>2</sup>	Abeltzaintzako tratamendu-eskorta, erabat funtzionala eta bukatua	40,00	60,00
m <sup>3</sup>	Iragazitze naturaleko putzua, zangak irekitzea barne, erabat funtzionala eta bukatua	10,00	15,00
m <sup>2</sup>	Material iragazgaitzgarri komertzialekin iragaziteagatik gehigarria, erabat funtzionala eta bukatua	15,00	18,00
Un.	Hormigoi armatuko uraska, neurri estandarrekoa, buia eta babesa barne, erabat funtzionala eta bukatua	500,00	600,00
Un.	Altzairu galbanizatuzko uraska aurrefabrikatua, neurri estandarrekoa, erabat funtzionala eta bukatua	1.350,00	1.550,00
h	Ezpondetatik erortzen diren materialak kentzeko eta arekak garbitzeko makineria	60,00	60,00

I. mota: makinaren errendimendu normalarekin egindako lanak.

II. mota: makinaren errendimendu baxuarekin egindako lanak (orografia konplexua, %15etik gorako maldak, sarbide zaila, materialez hornitzeko zentroak urrun izatea...)

F1004686

**114/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 12koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, Nafarroan egiten diren abeltzaintzako saneamendu kanpainetan azienda mugitzeko debekuaren edo osasun arrazoiengatik ustiatzea hustu beharrendo ondorioz abeltzaintzako ustiatzei laguntzak emateko 2010. urteko deialdia onesten duena.**

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak abuztuaren 5ean emandako 391/2009 Foru Aginduen bidez, abeltzaintzako saneamendu kanpainetan azienda mugitzeko debekuaren edo osasun arrazoiengatik ustiatzea hustu beharrendo ondorioz abeltzaintzako ustiatzei laguntzak emateko arauak ezarri ziren eta 2009. urterako deialdia onetsi zen.

Lehenago, arau hori Europako Batzordearen Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi zitzaion. Organo horrek Espainiako agintariek igorritako informazio laburtuaren idazkia jaso zuela

adierazi, eta goian aipatutako arau proiektua erregistratu zuen, XA 198/2009 laguntza gisa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 18. eta 19. artikuluek ezartzen dutenez, diru-laguntzak emateko prozedura ofizios hasiko da, organo eskudunak diru-laguntzari buruzko araua edo deialdia eta oinarri arautzaileak ezartzean, salbu eta lehenagotik ezarrita badaude.

Horren ondorioz, kontuan harturik laguntzen araubidea 2013ko abenduaren 31ra artekoa dela, bidezkoa da, foru agindu honen bidez, 2010. urteko deialdia onestea, abeltzaintzako saneamendu kanpainetan azienda mugitzeko debekuaren edo osasun arrazoiengatik ustiatagia hustu beharrenden ondorioz abeltzaintzako ustiatagiei laguntzak emateko.

Foru agindu honi Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aplikatuko zaio.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

#### AGINDU DUT:

1. Abeltzaintzako saneamendu kanpainetan azienda mugitzeko debekuaren edo osasun arrazoiengatik ustiatagia hustu beharrenden ondorioz abeltzaintzako ustiatagiei laguntzak emateko 2010. urteko deialdia onestea.

2. Eskaerak aurkezteko hiru hilabeteko epea izanen da, abereak mugitu gabe edukitzeko epea bukatu eta biharamunetik hasita.

3. Deialdi honi Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak abuztuaren 5ean emandako 391/2009 Foru Aginduan ezarritako arauak aplikatuko zaizkio. Izan ere, foru agindu horren bidez, abeltzaintzako saneamendu kanpainetan azienda mugitzeko debekuaren edo osasun arrazoiengatik ustiatagia hustu beharrenden ondorioz abeltzaintzako ustiatagiei laguntzak emateko arauak ezarri ziren.

4. 197.200 euroko gastua baimentzea, 2010eko gastuen aurrekontuko "Lortu gabeko irabaziagatik laguntzak" izeneko 711000 71320 4700 412202 kontu-sailaren kargura, foru agindu honen ondoriozko gastu konpromisoei erantzuteko.

5. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

6. Foru agindu honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

7. Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an.—Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria, Begonia Sanzberro Iturriria.

F1004913

**117/2010 FORU AGINDUA, martxoaren 12koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, kalitate bereziaren ikurra duten nekazaritzako elikagai babestuak sustatzeko elkarteak eta kontseilu arauemaileak sortu, indartu eta garatzeko laguntzak emateko 2010eko ekitaldirako deialdia onesten duena.**

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak apirilaren 21ean emandako 167/2008 Foru Aginduaren bidez kalitate bereziaren ikurra duten nekazaritzako elikagai babestuak sustatzeko elkarteak eta kontseilu arauemaileak sortu, indartu eta garatzeko laguntzak emateko arauak ezarri ziren eta 2008ko deialdia onetsi zen.

Lehenago, arau hori Europako Batzordearen Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi zitzaion. Organo horrek Espainiako agentariak igorritako informazio laburtuaren idazkia jaso zuela adierazi, eta goian aipatutako arau proiektua erregistratu zuen, XA 107/2008 laguntza gisa.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak urtarrilaren 23an emandako 28/2009 Foru Aginduaren bidez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren apirilaren 21eko 167/2008 Foru Agindu hori aldatu zen eta 2009. urterako deialdia onetsi.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 18. eta 19. artikuluek ezartzen dutenez, diru-laguntzak emateko prozedura ofizios hasiko da, organo eskudunak diru-laguntzari buruzko araua edo deialdia eta oinarri arautzaileak ezartzean, salbu eta lehenagotik ezarrita badaude.

Hori horrela, foru agindu honen bidez kalitate bereziaren ikurra duten nekazaritzako elikagai babestuak sustatzeko elkarteak eta kontseilu arauemaileak sustatu, sortu eta garatzeko laguntzak emateko 2010eko deialdia onesten da. Deialdian Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak apirilaren 21ean emandako 167/2008 Foru Aginduko arauak eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak urtarrilaren 23an emandako 28/2009 Foru Aginduaren bidez onetsitako aldaketak aplikatuko dira.

Nafarroako Gobernuak, 2010eko otsailaren 22an hartutako Erabakiaren bidez, Landa Garapeneko zuzendari nagusiari baimena eman dio 2010eko eta 2011ko ekitaldietan laguntza hauek finantzatzeko gastu konpromisoa hartzeko.

Foru agindu honi Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea aplikatuko zaio.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

#### AGINDU DUT:

1. Kalitate bereziaren ikurra duten nekazaritzako elikagai babestuak sustatzeko elkarteak eta kontseilu arauemaileak sortu, indartu eta garatzeko 2010. urterako laguntzen deialdia onestea.

2. Hilabeteko epea dago eskaerak aurkezteko, deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

3. Deialdiari Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak apirilaren 21ean emandako 167/2008 Foru Aginduan jasotako arauak aplikatuko zaizkio. Foru agindu horren bidez, kalitate bereziaren ikurra duten nekazaritzako elikagai babestuak sustatzeko elkarteak eta kontseilu arauemaileak indartu, sortu eta garatzeko laguntzak emateko arauak onetsi ziren.

4. Foru agindu hau aplikatzeak sortzen dituen gastuetarako, 130.000 euroko gastua baimentzen da 2010eko ekitaldirako eta 467.000 eurokoa 2011korako. Gastua 2010eko aurrekontu orokorretako "Kontseilu arauemaileentzako transferentziak" izeneko 721001-72220-4459-413103 kontu-sailaren kargura eginen da eta, orobat, 2011ko ekitaldian haren baliokide gisa gaitzen den kontu-sailaren kargura, eta betiere behar adinako kreditu egokia baldin badago.

5. Deialdi honen aurka gora jotzeko errekurtsua paratzen ahal da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

6. Foru agindu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

7. Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an.—Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria, Begonia Sanzberro Iturriria.

F1004933

## 1.7. BESTELAKOAK

**ERABAKIA, Nafarroako Gobernuak 2010eko martxoaren 15ean hartua, Nafarroako Foru Komunitateko Azpiegituren Lurralde Plana, "Neo-Sky 2002, S.A.k" aurkeztua, jendaurrean jartzeko eta, aldi berean, ukitutako udalari entzunaldia emateko tramiteei hasiera ematen diena.**

I.—Aurrekariak.

Azken urteotan telekomunikazioen merkatuan geroz eta liberazio handiagoa izan denez, asko handitu eta ugartu dira konpainia operatzaileek zerbitzuak kalitatez emateko beharrezkoak diren elementu eta azpiegiturak. Foru Komunitate osoan zabaldu dira eta zabalitzen ari dira azpiegitura horiek, bai hiri inguruetan bai landa eremuetan, eta gure inguruenari lotuta ikusten ditugu.

Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarritzko estazioak antolatu eta planifikatzearen, herritarren osasunerako prebentzio eta babes neurriak hartzearen, azpiegitura horien ingurumen, begi eta hirigintza inpaktua gutxitzearen, maiatzaren 6ko 10/2002 Foru Legea onetsi zen (Nafarroako Foru Komunitatean uhin elektromagnetiko ez-gidatuen bidezko telekomunikazioko oinarritzko estazioak antolatzea).

Foru lege horrek halako estazioen instalazio eta funtzionamendurako baldintza eta muga batzuk ezartzen ditu, eta instalazioen kontrola eta aldizkako ikuskapena aurreikusten du. Esposizioko gehieneko mailak finkatzen ditu, Zientzia eta Teknologia Ministerioak onetsitako araudian ezarritakoak baino zorrotzagoak, eta dituen helburuetako bat da instalazioak partekatzeko beharra, azpiegitura horien eragina arintzeko.

Horrez gainera, xedatzen du operatzaileek Azpiegituren Lurralde Plan bat aurkeztu behar dutela —hemendik aurrera ALP—, non adieraziko baitira dauden estazio finkoak eta sare horren barrenean ezarri eta garatu nahi direnak. 10/2002 Foru Legearen 10. artikulua erabera, Azpiegitura Planean informazio hau jaso beharko da, laburtuta, grafikoetan eta euskarri informatikoetan:

—Agiri orokorrak: sarea garatzeko titulu gaitasun-emailea, instalazio berriak jartzeko programa eta egutegia, enpresa garapenaren nahiz lehiazeko gaitasunaren gaineko eragina, bai eta Nafarroako Foru Komunitatearen lu-











lanpostuak betetzeko ezarrita dauden baliabideen bitartez, eta kidegoan benetan sartu ziren eguna dela-eta dagozkien eskubide guztiak mantenduko zaizkie.

Hamargarrena.–Errekurtsoak.

Epaimahaia ematen dituen egintza eta ebazpenen kontra gora jotzeko errekurtsua paratzen ahal da Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariari zuzenduta, errekurtsuaren xedeko egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Ebazpen honen eta aplikazio egintzen kontra gora jotzeko errekurtsua paratzen ahal da, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluekin bat eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2010eko martxoaren 11n.–Giza Baliabideen Zerbitzuko Zuzendaria, Begoña Unzué Vela.

F1004624

**LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA.**  
**Enpresa Zientzietako diplomadunen 11 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia. Gora jotzeko errekurtsuak.**

Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak, azaroaren 19 202/2009 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko Enpresa Zientzietako diplomadun izateko 11 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi zuen (2010eko 149. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abenduaren 4koa).

Miguel Azcona Sainz jaunak eta María Isabel Moriones García andreak gora jotzeko errekurtsua bana aurkeztu dute aipatu deialdiaren aurka, tasen ordaintetari eta gai-zerrendari dagokienez. Horren berri ematen zaie interesdun guztiei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 112. eta 59. artikuluei jarraituz, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita gehienez ere hamar egun balioduneko epean alegazioak egin ditzaten Erregistro Orokorrean aurkeztuta (Nafarroako Jauregia, Karlos III.aren etorbidea, 2, Iruña).

Aurkeztutako errekurtsuen kopia interesdunen eskura dago, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Sarrerarako Hautapenaren Zerbitzuan (Navarrería kalea, 39, lehenbiziko solairua, Iruña). Aldez aurretik 848 42 37 80 telefonora deitu beharko da, hitzordua hartzeko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean.–Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea, Gregorio Eguilaz Gogorza.

F1004724

**LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA. Gora jotzeko errekurtsuak, 10 telefonista lanpostu betetzeko bigarren ariketako behin betiko emaitzen aurka.**

Foru Komunitatearen eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko telefonista izateko 10 lanpostu oposizio bidez betetzeko deialdia, abenduaren 19ko 233/2008 Ebazpenaren bidez onetsia (2009ko 5. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, urtarrilaren 12koa).

Sergio Oiz Ibarrola jaunak, Paz Otermin Elizalde andreak, M.<sup>a</sup> Desamparados Joyas Arocena andreak, Edurne Serrat Cea andreak, Luis Iriarte Bellostas jaunak, M.<sup>a</sup> Cristina Astigarraga Arancibia del Puerto andreak eta Juan Barreneche Irigoien jaunak gora jotzeko errekurtsua bana aurkeztu dute 2010eko otsailaren 12an deialdi horren epaimahaia bigarren ariketan onetsi dituen behin betiko emaitzen aurka. Horren berri ematen zaie interesdun guztiei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 112. eta 59. artikuluei jarraituz, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik gehienez ere hamar egun balioduneko epean, alegazioak egin ditzaten Nafarroako Jauregiko Erregistro Orokorrean aurkeztuta (Karlos III.aren etorbidea, 2, Iruña).

Aurkeztutako errekurtsuen kopia interesdunen eskura dago, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko Sarrerarako Hautapenaren Zerbitzuan (Navarrería kalea, 39, lehenbiziko solairua, Iruña). Aldez aurretik 848 42 37 80 telefonora deitu beharko da, hitzordua hartzeko.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean.–Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea, Gregorio Eguilaz Gogorza.

F1004780

**EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA. Jarduera Ekonomikoaren Erregistroa jendaurrean jartzea.**

Azaroaren 11ko 614/1996 Foru Dekretuaren 2. artikuluko hirugarren leerroaldean xedatutakoa betetzeko, jakinarazten da, orok jakin dezaten, zergadunen Jarduera Ekonomikoaren edo Lizentzia Fiskalaren Erregistroa, 2010eko urtarrilaren 1ekoa, zergaren ordainarazpena egitea dagokien udaletan jendaurrean jarriko dela 2010eko apirilaren 1etik 15era, biak barne.

Iruñean, 2010eko martxoaren 12an.–Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea, José Ignacio Pérez de Albéniz Andueza.

F1004700

**OSASUN DEPARTAMENTUA. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua. Gora jotzeko errekurtsuak, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Farmazia Hospitalarioko BFEko 4 lanpostu betetzeko behin betiko emaitzen aurka.**

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Farmazia Hospitalarioko BFEko 4 lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Iragakia:

Esther Lacalle Fabo andreak eta Idoia Mitxelena Hernández andreak gora jotzeko errekurtsuak jarri dituzte Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko aipatu deialdiaren behin betiko emaitzen kontra. Hori dela eta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 112. eta 59. artikuluetan xedatutakoarekin bat, interesdunei jakinarazten zaie, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik gehienez ere hamar egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Aurkeztutako errekurtsuen kopiak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Araubide Juridikoaren Zerbitzuan daude interesdunen eskura, Iruñeko Irunlarrea kaleko 39ko lehen solairuan.

Alegazioak Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako moduan aurkez daitezke.

Iruñean, 2010eko martxoaren 15ean.–Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea, José Carlos Garde Celigueta.

F1004779

## 2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### 2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA

#### BERRIOZAR

##### Izangai onartuen behin betiko zerrenda, lorategietarako zerbitzu anitzetako enplegatu izateko 2 lanpostu, oposizio-lehiaketa bidez eta barne igoera murriztuan betetzeko deialdian

2009ko 132. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 26an, lorategietarako zerbitzu anitzetako enplegatu izateko bi lanpostu, oposizio-lehiaketa bidez eta barne igoera murriztuan betetzeko deialdia. Izangai onartuen behin betiko zerrenda 2010eko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, otsailaren 15ean.

Ikusirik Kontu Hartzailtzaren txostena, deialdiari ekiteko aurrekontu faltaz ohartarazten zuena, alkatetzaren otsaileko 34/2010 ebazpenaren bidez bertan behera gelditu zen azterketarako data, martxoaren 9rako aurrekusten zena.

Aurrekontuko arazoa konpondurik, data berria finkatu behar da probak egiteko, izangaien behin betiko zerrenda behin berriz sartuta.

Alkatetzaren martxoko 17/2010 ebazpenaren bidez, behin berriz onetsi da izangai onartuen behin betiko zerrenda, I. eranskinean dagoena, eta ezarri da oposizioaldia hasteko data.

Oposizioa hasteko tokia, eguna eta ordua (lehenbiziko eta bigarren ariketa): 2010eko urriaren 5a, 10:00etan, "Francisco Casanova" Udalaren Musika Eskolako lokaletan, Berriozarren.

Berriozarren, 2010eko martxoaren 5ean.—Alkatea, Xabier Lasa Go-raiz.

#### ERANSKINA

Onartuak:  
GOÑI JIMÉNEZ, ANTONIO  
MORENO ROSÓN, JOAQUÍN  
Baztertuak: inor ez.

L1004221

#### BERRIOZAR

##### Izangai onartuen behin betiko zerrenda, Obra Alorreko zerbitzu anitzetako enplegatu izateko 3 lanpostu, oposizio-lehiaketa bidez eta barne igoera murriztuan betetzeko deialdian

Alkatetzaren 2009ko urriaren emaniko 15/2009 ebazpenaren bidez onetsi zen Obra Alorreko zerbitzu anitzetako enplegatu izateko 3 lanpostu oposizio-lehiaketa bidez eta barne igoera murriztuan betetzeko deialdia. 2009ko 132. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen deialdi hori, urriaren 26an.

Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, hiru eskaera aurkeztu dira. Martxoko Alkatetzaren ebazpenaren bidez (martxoko 55/2010) eranskinean dagoen izangai onartuen behin betiko zerrenda onetsi da eta oposizioaldia hasteko data ezarri da.

Oposizioaldia hasteko tokia, eguna eta ordua (ariketa teorikoa eta praktikoa eginen dira): 2010eko apirilaren 13an, arratsaldeko 17:00etan, Eskola Lantegiko aretoetan, Burlatako San Frantziskoko 2.ean, Uranga parkean, ondoan Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo gidabaimena daukatela.

Berriozarren, 2010eko martxoaren 16an.—Alkatea, Xabier Lasa Go-raiz.

#### ERANSKINA

Onartuak:  
AIZKORBE UHARTE, JON  
BAZTAN CARRERA, INMANOL  
CABALLERO CASADO, JOSE MANUEL  
Baztertuak: inor ez.

L1004869

### 2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

#### OIBAR

##### Behin-behineko esleipena museo etnografiko eta arkeologikoaren udal eraikina eraberritzeko

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Le-gearen 135. artikuluan xedatutakoari jarraituz, aditzera ematen da ezen, osoko bilkurak 2010eko martxoaren 12an hartutako erabakiaren bitartez, behin-behinekoz esleitu dela kontratu hau:

Xedea: Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Funtsa, udal eraikina eraberritzea Oibarko Leatxe zeharkaleko 3an, museo etnografiko eta arkeologikoa izateko.

Esleitzeko modua: prozedura negoziatua, publikizaterik gabe.

Esleipenaren prezioa: 79.706,03 euro, BEZa kanpo.

Esleipen hartzailea: Construcciones Lergaiz, S.L. IFK B31553480 duena eta helbide soziala Burlatako Kale Nagusian 21, 1. B bulegoa, 31600.

Oibarren, 2010eko martxoaren 15ean.—Alkatea, Manuel Martínez Aldunate.

L1004722

#### ALTSASU

##### 4/2010 aldaketa aurrekontuan. Hasierako onespina

Altsasuko Udalak, 2010eko martxoaren 8an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2010era luzatutako 2008ko ekitaldiko aurrekontua aldatzen duen 4/2010 espediente, diru-sarrera bidez sortutako kreditua baita.

Espediente Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun balioudun, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien errekamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraituz.

Altsasun, 2010eko martxoaren 12an.—Jarduneko alkatea, Iñaki Miguel Martiarena.

L1004602

#### ALTSASU

##### 5/2010 aldaketa aurrekontuan. Hasierako onespina

Altsasuko Udalak, 2010eko martxoaren 8an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2010era luzatutako 2008ko ekitaldiko aurrekontua aldatzen duen 5/2010 espediente, diru-sarrera bidez sortutako kreditua baita.

Espediente Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun balioudun, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien errekamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraituz.

Altsasun, 2010eko martxoaren 12an.—Jarduneko alkatea, Iñaki Miguel Martiarena.

L1004603

#### ALTSASU

##### 6/2010 aldaketa aurrekontuan. Hasierako onespina

Altsasuko Udalak, 2010eko martxoaren 8an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2010era luzatutako 2008ko ekitaldiko aurrekontua aldatzen duen 6/2010 espediente, diru-sarrera bidez sortutako kreditua baita.

Espediente Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun balioudun, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek aztertu eta egokiak

iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Altsasun, 2010eko martxoaren 12an.—Jarduneko alkatea, Iñaki Miguel Martiarena.

L1004604

## ALTSASU

### 7/2010 aldaketa aurrekontuan. Hasierako onespena

Altsasuko Udalak, 2010eko martxoaren 8an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2010era luzatutako 2008ko ekitaldiko aurrekontua aldatzen duen 7/2010 espedientea, diru-sarrera bidez sortutako kreditua baita.

Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliadunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Altsasun, 2010eko martxoaren 12an.—Jarduneko alkatea, Iñaki Miguel Martiarena.

L1004607

## ALTSASU

### 8/2010 aldaketa aurrekontuan. Hasierako onespena

Altsasuko Udalak, 2010eko martxoaren 8an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2010era luzatutako 2008ko ekitaldiko aurrekontua aldatzen duen 8/2010 espedientea, diru-sarrera bidez sortutako kreditua baita.

Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliadunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Altsasun, 2010eko martxoaren 12an.—Jarduneko alkatea, Iñaki Miguel Martiarena.

L1004608

## ALTSASU

### 9/2010 aldaketa aurrekontuan. Hasierako onespena

Altsasuko Udalak, 2010eko martxoaren 8an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2010era luzatutako 2008ko ekitaldiko aurrekontua aldatzen duen 9/2010 espedientea, diru-sarrera bidez sortutako kreditua baita.

Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliadunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Altsasun, 2010eko martxoaren 12an.—Jarduneko alkatea, Iñaki Miguel Martiarena.

L1004609

## ANTSOAIN

### Ordenantza fiskalak. Behin betiko onspena

Argitara ematen dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean Antsoaingo Udalak behin betiko onetsi dituen ordenantza fiskalen eta prezio publikoei buruzko arauen testu osoak, haien kontra ez baita inolako erreklamaziorik, kexarik edo oharrik jaso horretarako epean; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan ezarritakoa betez.

Antsoainen, 2010eko martxoaren 4an.—Alkate udalburua, Antonio Gila Gila.

## ORDENANTZA FISKAL OROKORRA

### 0 ordenantza

### I. KAPITULUA

#### Printzipio orokorrak

#### Xedea

1. artikulua. Honako Ordenantza fiskal orokor honen xedea da udalerrri honetako zerga araubidea osatzen duten ordainarazpen guztiendako arauak eta oinarri orokorrak finkatzea. Ordenantza honen arauak ordenantza partikular bakoitzaren osagarritzat hartuko dira, azken horiek berariaz arautzen ez duten orotan.

#### Zergaren orokortasuna eta interpretazio murriztailea

2. artikulua. Tokian tokiko ordenantza fiskalek eta bai toki ogasunei buruzko foru legeek ere —halakorik beharrezkoa ez izateagatik ordenantza partikularrik onetsi ez den kasuetan—, agintzen duten bezala, zergak ordaintzeko obligazioa, guztion betebeharra da, eta ukitzen ditu pertsona fisiko zein juridiko oro, eta bai eskubide eta betebeharrak fiskalak dituzten nortasun juridikorik gabeko subjektuak ere.

Ezin izanen dira aplikatu foru lege batean espresuki ezartzen diren hobari fiskalak baizik, eta, era berean, ez da onartuko inolako analogiarik, zergapeko egintzaren edo zerga salbuespen edo hobarien eremua bere muga hertsietatik haratago hedatzeko.

#### Aplikazio eremua

3. artikulua. Ordenantza fiskalak Antsoaingo udalerrri osoan ezarriko dira, indarra hartzen duten unetik beretik indargabetu edo aldatzen diren arte.

### II. KAPITULUA

#### Zerga harremanaren elementuak

#### Zergapeko egintza

4. artikulua. Zergapeko egintza izaera juridikoa edo ekonomikoa duen betebeharra da, ordainarazpen bakoitza finkatzeko behar den ordenantza zehaztutakoa, eta hura gauzatzeak zerga ordaintzeko betebeharra sorrarazten du.

Ordenantza fiskal partikular bakoitzak osatuko du zergapeko egintzaren zehaztapena, lokabetasunerako arrazioak zein diren eta zerga ordaindu beharra zer baldintzetan sortzen den aipatuz.

Ordainarazpenak erroldatu, matrikulatu edo erregistratu egin behariko dira, baldin eta, beren ezaugarriak direla medio, zergapeko egintzak jarraitutasunez gertatzen badira.

5. artikulua. 1. Subjektu pasiboa pertsona natural edo juridikoa da, Legearen arabera zerga-prestazioak betetzeko obligazioa duena, zergaduna edo haren ordezkaria izateagatik.

Zergaduna pertsona natural edo juridikoa da, Legearen arabera zergapeko egintzatik sortutako tributuaren zama bere gain hartzen duena.

Zergadunaren ordezkaria da, Legearen aginduaren ondorioz, haren ordezkari zerga betebeharren prestazio material eta formalak betetzera behartuta dagoen subjektu pasiboa.

2. Zergapeko egintza bati titular bi edo gehiago batera egokitzeak berekin ekarriko du horiek elkarrekin beharturik izanen direla, Udala Ogasunari begira, salbu eta Legeak, tributua erregulatzean, kontrakoa ezartzen bada.

#### Zerga erlazioaren aldaezintasuna

6. artikulua. Subjektu pasiboaren eta zerga betebeharraren gainerako elementuak ezin dira partikularren egintza edo hitzarmenen eraginpean aldatu.

Egintza eta hitzarmen horiek ez dute eraginik izanen Udala Administrazioan, berekin dakartzaten ondorio juridiko-pribatuak ukatu gabe.

#### Helbide fiskala

7. artikulua. Pertsona fisikoendako zerga ondorioetarako helbidea bere ohiko bizitegia izanen da; pertsona juridikoendako, aldiz, bere egoitza soziala, betiere bertan baldin badago zentralizatua haren administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Horrela ez bada, aipatu kudeaketa edo zuzendaritza kokatzen den tokira igorriko dira afera horiek.





exekutiboak luza daitezen ordainezintasuna deklaratu zen momentuan zeuden kobrantza egoera berean.

### III. KAPITULUA

#### *Tributu gaietako arau-hausteak eta zehapenak*

##### *Tributuen arloko arau-hausteak*

24. artikulua. 1. Tributu arloko arau-hausteak dira, bai ordenantza honetan bai toki entitateen ogasuna arautzen duten gainerako legezko xedapenetan azaldu eta zehatzen diren ekintzak eta ez-egiteak. Arau-hausteak zabarkeria hutsezkoak badira ere zeha daitezke.

2. Subjektu arau-hausletzat joko dira legez arau-haustetzat hartutako ekintzak edo omisioak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, eta, bereziki, ondoko hauek:

a) Tributuen subjektu pasiboak, zergadunak nahiz ordezkokoak izan.

b) Jarduteko gaitasunik ez duten subjektu pasiboen legezko ordezkaria.

c) Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 62. artikulua xedatutakoari jarraikiz, Administrazioari informazioa edo laguntza eman beharrean dauden pertsona fisiko nahiz juridikoak.

3. Legez arau-haustetzat hartzen diren egintzek edo egin gabe utzitakoek honako kasuetan ez dute erantzukizunik sortuko:

a) Tributu gaitetan obratzeko gaitasunik ez dutenek eginak direnean.

b) Ezinbertzeoetan.

c) Erabakia anitzen artean hartua delarik, beren botoa gorde dute-nendako edo erabakia hartu zeneko bileran egon gabeendako.

4. Aurreko zenbakiak aipatzen dituen kasuetan, Subjektu pasiboen edo gainerako behartuen tributu egoera erregularizatzean, tokatzen diren kuota eta errekarguez gain, dagokion berandutza korritua eskatuko da.

5. Toki administrazioak arau-hausteei Ogasun Publikoaren kontrako delituak izan daitezkeela deritzen kasuetan, jurisdizio eskudunari jakinaraziko dio dagokiokeen errua, eta ez dio administrazio prozedurari segidari emanen epai agintarietara epai sendoa eman, jarduketak largetsi edo artxibatu, edo Ministerio Fiskalak espedientea itzultzen ez duen bitartean.

Epailiek zigortzeko epaia emanez gero, ez da administrazio zehapenik izanen.

6. Deliturik antzematen ez bada, toki entitateak segida emanen dio zehapen espedienteari epaitegiek frogatutaz jo dituzten gertaerak oinarritzat harturik.

25. artikulua. Arau-hausteak bi motatakoak izan daitezke:

a) Arinak.

b) Larriak.

26. artikulua. Arau-hauste arintzat hartzen da tributuen kudeaketan edozein pertsonari, subjektu pasiboa izan ala ez, eskatzen zaizkion tributu-obligazio edo betekizunak ez konplitzea, arau-hauste larriak ez direnean, eta horiek zehapena graduatzeko osagai gisa hartzen ez direnean.

27. artikulua. Arau-hauste larriak honako hauek dira:

a) Legeek edo behar den ordenantzak ezarritako epeetan ez ordaintzea tributu-zor osoa, edo haren parte bat.

b) Salbuespenak, zerga-onurak edo itzulkinak bidegabe baliatu edo erdiestea.

c) Toki entitateak autolikidazio jardunbidearen bidez eskatzen ez diren tributuen likidatu ahal izateko behar dituen aitortpen edo agiriak ez aurkeztea, epez kanpo aurkeztea edo modu osatugabe edo okerrean aurkeztea.

##### *Zehapenak*

28. artikulua. Arau-hausteak zigortzeko, diru bidezko isunak jarriko dira, finakoak edo proportzionalak. Diru bidezko isun proportzionala aplikatuko da zerga kuotaren, ordaindu gabeko kopuruen eta bidegabe lorturiko onura edo itzulkinen zenbatekoaren gainean.

29. artikulua. 1. Arau-hauste arin bakoitzak 6,01 eurotik 901,52ra bitarteko zehapena izanen du.

2. Ikuskatzaileen jardunari, beren eskumenak erabiltzen ari direlarik, kontra, uko edo traba egiten bazaio, 300,50etik 6.010,12 eurora bitarteko isuna ezarriko da.

3. Arau-hauste larriei diru-isun proportzionala jarriko zaie, kuotaren %50etik 150era bitartekoa, 31. artikuluan aipatutako gutitza deusetan galarazi gabe.

Orobat, zilegi izanen da berandutza korrituak eskatzea borondatezko epea bukatu eta zerga-egoera erregularizatuko duen likidazioa egiten den egunera bitarteko denboragatik.

##### *Zehapenen graduazioa*

30. artikulua. 1. Tributu zehapenak graduatzeko honakoak hartuko dira kontutan:

a) Tributu-hausteak behin eta berriz egin izanak.

b) Toki entitatearen ikerketei kontra, uko edo traba egitea.

c) Arau-haustea egitean iruzurbideak edo bitarteko pertsona bat erabiltzea.

d) Aitorpenik ez aurkeztea edo aitortpen faltsu, osagabe edo zehaztugabeak aurkeztea, horrek tributu-zorra gutitzea badakar berarekin.

e) Eginbide edo betekizun formalak edo laguntzakoak, nork bere kabuz ez betetzea edo horietan berandu ibiltzea.

f) Zerga kudeaketarako zer-nolako munta duten eman gabeko datu, txosten edo aurrekarietara, oro har, ez betetzeak eginbide formalak, kontabilitatekoak edo erregistrokoak, eta toki entitateari lagundu edo informatzekoak.

2. Graduatzeko irizpideak batean aplika daitezke.

3. Tributu-hausteko zehapenen zenbatekoa %30 gutituko da subjektu arau-hausleak edo, hala balitz, erantzuleak egiten zaion arautze proposamenarekin bat datorrela adierazten duenean.

e) eta f) letretan aipatzen diren irizpideak arau-hauste arinei dagozkien zehapenak graduatzeko baizik ez dira erabiliko. d) letretan aipatzen diren irizpidea arau-hauste larriei dagozkien zehapenak graduatzeko baizik ez da erabiliko.

##### *Zehatzeko prozedura*

31. artikulua. Tributu arloko zehapenak ezartzeko espedientea ez da izanen subjektu arau-hauslearen tributu-egoera egiaztatu eta ikertzeko inostruitutako bera, baizik eta bertze bat, eta hartan interesdunari entzunaldia emanen zaio.

Zehapenak erabaki eta ezarriko dituzte tributuen behin-behineko edo behin betiko likidazioak burutzeko egintza administrazioak eman behar dituzten organo bereberak.

##### *Zehapena gutitzea*

32. artikulua. 1. Arau-hausteei sortzen duten erantzukizuna zehapena ordaindu edo betetzean iraungitzen da edo preskripzioz.

2. Subjektu arau-hausleak hiltzean, gauzatu gabeko tributu eginbeharrak oinordeko edo legaziodunei transmitituko zaizkie, legeria zibilean herentzia eskuratzeari buruz finkatzen dena ukatu gabe. Inoiz ez zaio zehapenik bertze bati transmitituko.

3. Sozietateak edo entitateak deuseztatu eta likidatzen direlarik, haien tributu eginbehar burutu gabeko bazkide edo kapital-partaideei pasatuko zaizkie, eta haiek solidarioki hartuko dute erantzukizun hori, esleitu zaie likidazio kuotaren balioa muga dutela.

### IV. KAPITULUA

#### *Kudeaketa arauak*

Tributu kudeaketa hasteko moduak.

33. artikulua. Ordainarazpenen kudeaketa ondoko bidez hasiko da:

a) Subjektu pasiboaren aitortpen edo ekimenaren bidez.

b) Ofizioz.

c) Ikerketa bidez.

##### *Tributu aitortpena*

34. artikulua. a) Tributu aitortpentzat hartuko da zergapeko egintza baten inguruabarrak edo elementuak gertatu edo sortu direla adierazi edo aitortzen duen dokumentu oro. Halaber, aitortpen balioa emanen zaio zergapeko egintza biltzen edo eratzen duen dokumentua aurkezte hutsari.

b) Inondik inora ere ez da eskatuko zerga aitortpenak zinpean egin daitezen.

c) Aurkezteko garaian, aitortpenaren hartu-agiria emanen zaie interesdunari; aitortpenaren kopiak ere horretarako balioko du.

d) Froga agiria aurkeztean, interesdunek erantzen ahal diote kopia soil bat edo fotokopia bat, hain zuzen ere, udal administrazioak erkatu ondoren, jatorrizkoa itzul diezaien, non ez den erabakitzen ez dela itzuli behar prozedurari buruzko behin betiko ebazpena eman baino lehen,

agiria pribatua izateagatik edo bidezkotzat jotzen den bertze arrazoiren batengatik.

#### *Aitorpena nahitaez aurkeztu beharra*

35. artikulua. Aitorpena nahitaez aurkeztu beharko da ordenantza partikular bakoitzean zehaztutako epeetan, eta, oro har, zergapeko egintza gertatzen den egunaren ondoko hogeita hamar egun balioduneko epearen barrenean. Epe horietan aurkezten ez bada, arau-hauste soiltzat hartuko da eta dagokion zehapena ezarriko zaio.

#### *Aurkezpenaren ondorioak*

36. artikulua. a) Aitorpena udal administrazioan aurkezteak ez du erran nahi zerga bidezkoa dela ontzat eman edo aitortzen dela.

b) Udal administrazioak aitorpenak eska ditzake, eta datu gehiago ematea ere bai, eta orobat aurkitu diren okerrak zuzentzea ere, ordainarazpenaren likidaziorako eta egiaztapenerako beharrezko den neurrian.

c) Aurreko erroaldeak aipatzen dituen betebeharrak ez egitea arau-hauste soiltzat hartuko da eta horren arabera zehatuko.

#### *Tramitatze epeak*

37. artikulua. a) Ordenantza partikularretan tramite bakoitza egiteko zein izanen diren bete beharreko epeak adieraziko da. Ordenantza horiek ez badituzte epeak finkatzen, oro har ulertuko da ez dela sei hilabete baino gehiago izanen administrazio prozedura hasten denetik prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren egunera arteko denbora; betiere hori galarazteko behar bezala justifikatutako aparteko arrazoiak ez badira behintzat. Ikuskatze kasuan, epe hori bi urtekoa izanen da.

b) Administrazioak epeak betetzen ez baditu ere, horrek ez du erran nahi administrazio ekintza iraungi egiten dela, baina, hala ere, interesduneri arrangura erreklamazioa aurkezteko baimena ematen die.

c) Tramitazio akatsen kontrako kexako erreklamazioak noiznahi egiten ahal dira, bereziki, akats horiengatik prozedura gerarazten bada, jarritako epeak hausten badira edo arazoa behin betikoz ebatzi aitzin konpon daitezkeen tramiteak egiten ez badira. Kexa baiesten bada, erantzukizuna duen funtzionarioaren kontrako diziplina espedientea irekiko da, horretarako arrazoirik izanez gero.

#### *Ikerketa eta ikuskapena*

38. artikulua. Udal administrazioak ikertuko ditu zergapeko egintza osatzen edo baldintzatzen duten gertaera, egintza, egoera, jarduera, ustiapen eta gainerako inguruabarrak oro, eta egiaztatu du karga-oinarriaren balorazioa.

39. artikulua. Ikerketa egiteko, subjektu pasiboaren kontabilitate nagusiko edo osagarriko dokumentuak, liburuak, fitxategiak, fakturak, frogagiriak eta idazpenak aztertuko dira; era berean, ondasunen, elementuen, ustiapenen eta tributua zehazteko beharrezko den edozein argibide-aurrekari ikuskatuko dira.

40. artikulua. Subjektu pasiboak beharturik daude kontabilitate liburuak, erregistroak eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako dokumentuak eraman eta kontserbatzera, bai eta ikuskatze lanetarako laguntza ematera ere, administrazioaren esku jarri zergapeko egintzarekin zerikusia duten datu, txosten eta aurrekariak edo frogagiriak.

41. artikulua. a) Ikuskaritza jarduketak subjektu pasiboendako eragin ekonomikorik baldin badakar, alde aurreko nahiz behin- betiko eginbide, jakinarazpen eta akten bidez dokumentatuko dira. Dokumentu horietan ondoko hauek zehaztuko dira:

–Eginbidea norena den (izen-deiturak) eta bertan zeren kariaz edo ordezkaritza gertatzen den.

–Zergapeko egintzaren funtsezko elementuak eta hura subjektu pasiboari atxikitzeak.

–Bidezko jotzen diren tributua egoerak.

–Subjektu pasiboaren adostasuna edo desadostasuna, edo haren ordezkariarena.

b) Subjektu pasiboak akta izenpetu ez, edo izenpetu arren bertan bildutako inguruabarrekiko bere adostasuna adierazten ez badu, bai eta hartarako behar bezala baimendutako pertsonarik izenpetzen ez badu, dagokion espedientea irekiko da izenburutzat aipatu akta izanen duela, eta bertan subjektu pasiboari bere alegazioak aurkez ditzan hamabortz eguneko epea emanen zaio.

c) Espedienteari buruzko ebazpena handik ateratzen den likidazioan jakinaraziko da.

#### *Salaketa*

42. artikulua. a) Toki entitateen ikerketa lanari salaketa batek ematen ahal dio hasiera. Salaketa paratzeak ez du galarazten Administrazioari laguntza emateko obligazioa, Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 62. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Salatzailea ez da interesduntzat hartuko salaketaren ondorioz hasten den ikerketan, eta salatzailea den aldetik ez du eskubiderik izanen errekurso edo erreklamaziorik aurkezteko.

c) Nabarmenki funtsik gabeak diren salaketak bertzelako tramiterik gabe artxibatzen ahal dira.

#### *Ordainarazpenen likidazioa*

43. artikulua. a) Zerga-oinarriak zehaztu ondoan, kudeaketak jarraituko du: likidazioa eginen da, tributua-zorra finkatzeko. Likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izanen dira.

b) Behin betikotzat hartuko dira:

–Zergapeko egintzaren ikerketa administratiboa egin ondoan eta karga-oinarria egiaztatutakoan egindakoak, tartean behin-behineko likidaziorik izan edo ez.

–Preskripzio epearen barrenean egiaztatu ez direnak.

c) Aurreko atalean adierazitako kasuetatik at, likidazioak behin-behinekoak izanen dira, kontuaren gainekoak, osagarriak, kauziokoak, partzialak edo osoak izan.

44. artikulua. a) Likidazioak egiterakoan administrazioak egiaztatuko ditu tributua aitorpenetan adierazitako egintza, elementu eta balorazio guztiak.

b) Aitorpenen emaitzaren gaineko tributua oinarria handitzen bada, subjektu pasiboari adierazi beharko zaio, handitze hori sorrarazten duten egitateak eta elementu gehigarriak zehatz azalduz, egiten den likidazio-arekin batera.

45. artikulua. a) Likidazioak subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkie, honako hauek adierazita:

–Haien funtsezko elementuak.

–Erabil daitezkeen inpugnazio bideak, bai eta zer epeetan eta zein erakundetan paratu behar diren ere.

–Tributua-zorra ordaintzeko tokia, epea eta modua.

b) Subjektu pasiboari behar bezala jakinarazitako likidazio orok behartuko du subjektu pasiboari tributua-zorra ordaintzera.

c) Jakinarazpen akastunak eragina izaten hasiko dira subjektu pasiboari jakinarazi zaiola espresuki onartzen duenean, dagokion errekursoa aurkezten duenean edo tributua-zorraren ordaintzeta egiten duenean.

d) Dena den, subjektu pasiboari pertsonalki emandako jakinarazpenek sei hilabeteren buruan izanen dute eragina, baldin eta egintzaren testu osoa izanik, bertze edozein baldintza saihestu badute, salbu eta Administrazioak akatsa zuzen dezan eskatuz epe horretan arau bidezko protesta egin bada.

46. artikulua. Subjektu pasibo baten gaineko ordainarazpenen likidazioa eta diru-bilketa egintza bakar batean fusionatzen ahal dira, eta kasu horretan ondokoak eskatuko dira:

–Likidazioan jaso beharko dira kontzeptu bakoitzeko oinarriak eta tasak edo kuotak, halako eran non fusionatzen diren likidazioak oro zehazturik eta bereizturik geratuko baitira.

–Diru-bilketan bereizirik jaso beharko dira kontzeptu bakoitzari dagokion zorrak, eta horiek batuz finkatuko da ordainarazi beharreko zor fusionatua.

#### *Zergadunen erroldak*

47. artikulua. Ordenantza partikularrean berean zehazten diren kasuetan, udal administrazioak, interesdunen aitorpenak ikusirik, ezagutzen dituen datuen arabera eta, orobat, administrazio ikuskapenaren ondoan, dagokion zergadunen erroldak prestatuko ditu. Zergadunen errolda, horrela prestatu eta gero, erregistro iraunkor eta publikotzat hartuko da, eta erabiliko da Udalak paratzen duen edonolako prozedura bidez, mekanikoa ere barne dela.

48. artikulua. a) Zergadunen zentsua eratu ondoan, bertan gertatzen diren alta, baja eta aldaketa guztiak onesteko, egin beharko da erreklama daitekeen administrazio egintza bat, eta aldaketak subjektu pasiboari jakinarazi beharko zaizkie legeak agindu bezala.

b) Erroldan gerora zernahi alta, baja edo aldaketarik sor dezakeen mudantzen berri eman beharko dio zergadunak udal administrazioari, hura gertatu eta hogeita hamar egun balioduneko epean.

49. artikulua. Zergadunen zentsuek zerga gaietarako agiri balioa izanen dute, haiek erabiliko baitira zerrenda, ordainagiri eta kobrantzak bertzelako agiritan, kasuan kasuko ordainarazpena gauzatzeko.

## V. KAPITULUA

*Diru-bilketa**Printzipio orokorrak*

50. artikulua. Diru-bilketaren kudeaketa da udal ogasunaren ondatsun osatzen dituzten kreditu eta eskubideak gauzatzera bideratutako eginkizun administratiboa betetzea.

51. artikulua. a) Diru-bilketa egin daiteke:

– Borondatezko aldiari.

– Derrigorrezko aldiari.

b) Borondatezko aldiari ordaintzera behartuta daudenek horretarako adierazitako epeen barrenean kitatuko dituzte beren zorrak. Derrigorrezko ordaintzaren aldiari, indarra duen legeriari atxikiz, zerga ordaindu behar duenak borondatezko aldiari bere eginbeharra betetzen ez badu, diru-bilketa nahitaez egingen da ondarearen gaineko premiamendu bidez.

52. artikulua. Udalaren baliabideen bilketa egingen da udal diruzaintzaren edo ezartzen diren banketxeen bidez, halako moduan non kontu-hartzaileak zerbitzuen fiskalizazioa betetzen ahalko baitu.

*Zorren sailkapena diru-bilketari doakionean*

53. artikulua. a) Udal agintariak eginiko likidazioen ondorioz sortutako tributuzorrrak, diru-bilketari dagokionez, honela sailkatuko dira: jakinarazi beharrekoak, jakinarazpenik gabekoak eta norberak likidatutakoak.

b) Jakinarazi beharrekoetan ezinbertzekoa da jakinarazpena igortzea, subjektu pasiboak tributuzorren berri izan dezan. Hortaz, legearen arabera jakinarazpenik gabe, zorra ezin izanen da eskatu.

c) Jakinarazpen gabeko zorrak dira bana-banako jakinarazpenik behar ez dutenak, subjektuek aurretik ezagunak dituzten zergadun errol-detatik datozelako.

Konparaziora, epez epe errezibo bidez kobratu beharreko tributuetan, behin errola, padroi edo matrikula hartan alta hartuaren likidazioa jakinarazi denean, zilegi izanen da hurrengo likidazioak multzoka jakinaraztea, ediktu bidez horren berri emanez, baldin likidazio horiek lehengoan berdin-berdinak badira, edo izan diren aldaketak orokorrak badira.

d) Norberak likidatuak dira subjektu pasiboak, aitorten-likidazio baten bitartez, tributuzorra aldi berean ordaintzen duenean.

*Ordaintzeko tokia*

54. artikulua. a) Udal administrazioaren aldeko zorren diru-sarrera bertako kutxan egingen da, non eta ordainarazpen bakoitzari dagozkion ordenantza partikularrak espresuki agintzen ez duen diru-sarrera udal zerbitzu ezberdinetan eraturako kutxetan egin daitekeela edo egin behar dela.

b) Era berean, bankuetan nahiz aurrezki kutxetan Udalaren alde irekitako kontuetan ere sartzan ahal da tributuzorra, ordaindu behar duenak ordenantza honen 57. artikuluan aipatutako bitartekoren bat erabiliz.

*Ordaintzeko epeak*

55. artikulua. Tributuzorrrak honela ordainduko dira:

1. Jakinaraziak, jakinarazi eta hogeita hamar egun balioduneko epean.

2. Epez epe ordainagiri bidez kobratu beharreko tributuen kasuan, banan-banako jakinarazpena beharrezkoa ez dutenetan, aurreko zenbakian adierazitako epean; borondatezko ordaintzarako epearen lehenbiziko eta azkeneko egunak zehaztuko dira, tributuhoriei dagozkien kuotak onesten dituen ebazpenean.

Kobratzeko epea zein den multzoka jakinaraziko da, eta horretarako beharrezko ediktuak argitaratuko dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean.

3. Subjektu pasibo berak autolikidatutako zorrak, dagozkien aitortzen aurkezterakoan ordaindu beharko dira, tributuhoriei bakoitzari arautzen duen Ordenantzak seinatzen dituen egun eta epeetan, eta hori egin ezean, hogeita hamar egun balioduneko epean, zergapeko egintza sortzen den egunetik aurrera.

*Korrituak eta errekareruak*

56. artikulua. Derrigorrezko aldiaren hasierak errekareru bat sorrazten du, zeinak sartu ez den zorraren zenbatekoaren %20 joko baitu, bai eta zor horri dagozkion berandutza korrituak ere.

Tartean, eten, geroratze edo zatiketarik ez dagoenean, ordaindu gabeko tributuzorra ordaintzen baldin bada premiamenduzko probidentzia

jakinarazi baino lehen, errekareru %10ekoa izanen da, eta ez dira eskatuko epe exekutiboak hasten denetik sorraztutako berandutza korrituak.

57. artikulua. 1. Berandutza korritua galdutako da egintzaren exekuzioa eteten den kasuetan, bai eta geroratzeetan, zatiketetan edo edozein motako luzapenetan ere.

2. Aitorten-likidazioei edo autolikidazioei dagozkien diru-sarrerari, haiek epetik kanpo baina alde aurretik errekerimendurik izan gabe aurkeztu badira, bai eta epetik at eta aurreko errekerimendurik gabe aurkeztutako aitortpenek eragindako likidazioei ere, %20ko errekareru ezarriko zaie; horiei bertze zenbait kasutan ezar zitezkeen zehapenak ez zaizkie paratuko, baina bai, ordea, berandutza korrituak. Hala ere, diru-sarrera edo aitortpenaren aurkezpena egiteko borondatezko epea amaitu eta ondoko hiru, sei edo hamabi hilabeteetan egiten bada diru-sarrera edo aurkezten bada aitortpena, errekareru bakarra aplikatuko da, hurrenez hurren %5, %10 edo %15ekoa, eta ez dira galdutako bertze zenbait kasutan galda zitezkeen berandutza korritua eta zehapenak.

Errekareru horiek premiamendu errekareruekin batera galdatzen ahalko dira, baldin eta tributua ordaintzera beharturik daudenek ez badute dirua sartzan aitorten-likidazioa edo epetik kanpoko autolikidazioa aurkeztearekin batera.

*Ordaintzeko modua*

58. artikulua. Tributuzorren ordaintzeta eskudirutan egingen da edo, bertzenaz, efektu tinbratuen bitartez, ordainarazpen bakoitzari buruzko ordenantzaren xedatzen den bezala. Berariaz xedatzen ez bada, ordaintzeta eskudirutan egingen da.

59. artikulua. 1. Tributuzorrrak eskudirutan ordaindu behar dira honako bitarteko hauetako bat erabiliz:

a) Indarra duen dirua.

b) Posta edo telegrafia bidezko igorpena.

c) Banku txekia.

d) Kreditu eta aurrezki entitateetan toki entitateak horretarako irekitako kontuetan, transferentzia edo ordaintzeta gutunaren bidez.

2. Aitzineko atalean erranagatik ere, zilegi da tributuzorrrak kreditu eta aurrezki entitateetan helbideratzea; horrela, azken hauek subjektu pasiboaren administratzaile lana egingen dute, hark baimendutako zorrak ordainduz. Helbideratze horretarako betebeharrak bakarra da toki entitateko diruzaintzari eta aurrekontu eta kreditu entitateari alde aurretik idatziz jakinaraztea helbideratze hori zein zerga kontzeptutarako den.

*Ordaintzeta geroratzea eta zatikatzea*

60. artikulua. Geroratzea edo zatikatzea eskatzeko zer baldintza behar diren, haiek erdiesteko zer jardunbide segitu behar den, zer berme eta bertzelako baldintzari iritzi zaien beharrezko, hori dena, udal aurrekontuak betearazteko oinarrietan jasoko da.

## VI. KAPITULUA

*Errekareruak*

61. artikulua. Ordenantzen behin betiko onespeneraren kontra, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean, udal ebazpenen aurka egiteko orokorrean ezarri diren errekareruak aurkezten ahal dira, ordenantzak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik hasita.

62. artikulua. Aurreko artikuluan ezarritakoagatik ere, indarrean egonen da beti interesdunen eskubidea errekareru aurkezteko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legean edo ordenantzetan ezarritakoa hausten duten ordainarazpenen gaineko xedapenak aplikatzen dituzten udal erabakien kontra, Udalaren ebazpenen kontrako errekareruak aurkezteko ezarritako dagoen prozedura orokorrari jarraikiz.

63. artikulua. Zergak ordaintzeko obligazioaren edo ordainarazpen bat dela-eta likidatutako kuota baten zenbatekoaren aurka errekareruen bat aurkezteko, galdutako kopurua aitzinetik ordaintzerik ez da eskatuko, baina erreklamazioak ez du inolaz ere zor hori kobratzeko administrazioak egiten duena oztopatuko, interesdunak ez badu udal diruzaintzan uzten likidazioaren zenbatekoa, gehi %25, sor daitezkeen errekareru, kostu edo gastuak bermatu ahal izateko.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.–Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera behin betikoz onetsitakoan, ordenantza fiskal honek indarra hartuko du

eta ondorio juridiko guztiak izanen ditu, Nafarroako Aldizkari Ofizialean testua oso-osorik argitara emandakoan.

Bigarrena.—Ordenantza fiskal orokor hau edo toki entitate honek onesten dituen ordenantza partikularrak aldatzeko, onespenerako egin diren tramite berdinak eginen dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen IX. tituluko hirugarren ataleko lehen kapituluaren xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.—Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan aplikagarri izanen dira Ordenantza fiskal orokorrean, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean eta udal erabakiak baino goragoko xedapen guztietan xedatzen direnak, araututako arloei aplikatzeko modukoak diren heinean.

## ORDENANTZA FISKALA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

### 1. ordenantza

#### Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluko V. Kapitulu 167.etik 171.era bitarteko artikuluetan, biak barne, xedatutakoaren babesean.

#### Zergapeko egintza

2. artikulua. Zerga honen zergapeko egintza da udalaren mugapean zernahi eraikin, instalazio edo obra egitea, baldin hartarako beharrezkoa bada hirigintza edo obra lizentzia bat, hori ematea Antsoaingo Udalari dagokion guztietan, lizentzia hori erdietsia izanik ala izan gabe.

Zergari atxikitako zergapeko egintzat har daitezke hauek:

1. Mota guztietako eraikin eta instalazioak eraikitzeo obrak, eraikuntza berrikoak badira.
2. Lehendik eginak dauden mota guztietako eraikin eta instalazioak handitzeko obrak.
3. Lehendik dauden eraikinen edo instalazioen egitura edo kanpoko itxura ukitzen duten obrak, aldatzekoak edo berritzekoak, edozein mota-takoak direla ere.
4. Eraikinen barreneko egitura aldatzen duten obrak, edozein izanik ere haien erabilera.
5. Behin-behinekoz egin beharreko obrak.
6. Zerbitzu publikoak paratzeko obrak.
7. Lur-erazketak, hala nola, zelaiketa, hondeaketa eta betelanak, baldin onetsia edo baimendua den urbanizazio edo eraikitze proiektu barneko obra gisa zehaztu eta programatu ez badira.
8. Lurzatiaren itxiturak.
9. Eraikinak botatzea, aurri egoeran deklaratuak izan ezik.
10. Zorupea ukitzen duten obrak edo instalazioak.
11. Eremu publikotik ikusten diren propagandako kartelak paratzea, betiere lokal itxietan ez badaude.
12. Halako ahalmen ekonomikoa erakusten duten baliabide ekonomiko inbertsioak berekin dakartzaten obrak, eraikuntzak edo instalazioak, baldin eta obra edo hirigintza lizentzia behar badute.

3. artikulua. Zernahi eraikin, instalazio edo obra egitea salbuetsirik egonen da baldin eta horien jabeak badira Estatuia, Nafarroako Foru Komunitatea, autonomia erkidegoak, edo toki entitateak, eta baldin, zergapekoak direlarik ere, zuzenean erabiltzekoak badira errepide, burdinbide, aireportu, lan hidrauliko, hiri saneamendu edo haien hondakin uren saneamendurako, nahiz eta erakunde autonomoek kudeatzen dituzten, dela eraikuntza berriko lana, dela kontserbaziozkoa.

#### Subjektu pasiboak

4. artikulua. 1. Zerga honen subjektu pasiboak honakoak dira, zergadun gisa: pertsona fisiko nahiz juridikoak, herentzia banatu gabeak, ondasun elkartek, eta nortasun juridikorik ez dutelarik, obraren jabetasuna duten bertze entitate, unitate ekonomikoa edo ondare banandua osatzen dutenak.

2. Antsoaingo Udalaren aitzinean argi eta garbi egiaztatzen ez bada obren jabea obra horretako eraikinaren jabeaz bertze pertsona bat edo entitate bat dela, obrena bera hartuko da eraikinaren jabe gisa.

5. artikulua. Zergadunaren ordeko subjektu pasiboak dira hartarako lizentzia eskatzen dutenak edo eraikuntza, instalazio edo obrak egiten dituztenak, ez baldin badira zergadunak berak.

#### Zerga-oinarria

6. artikulua. 1. Zerga-oinarria eraikin, instalazio edo obraren kostu erreale eta benetakoa da.

2. Aurreko zenbaki horretan xedatutakoaren ondorioetarako, kostu erreale eta benetakoa exekuzio materialeko aurrekontuaren arabera zehaztuko da, ordainsariak eta industria-mozkina kenduta.

#### Kuota

7. artikulua. Zerga honen kuota izanen da zerga-oinarriari ordenantza honetako eranskinetako karga mota ezartzetik heldu dena.

#### Sorrazpena

8. artikulua. Zerga hau, eraikina, instalazioa edo obra hasten delarik sorrazten da, nahiz eta hartarako lizentziarik lortu ez den.

#### Zergaren kudeaketa

9. artikulua. Nahitaezko baimena ematen delarik, behin-behineko likidazio bat eginen da, eta zerga oinarria finkatuko, interesdunek aurkeztu duten aurrekontuaren arabera, baldin eta hura dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia badago.

Halako lizentziarik ez dagoenean, edo proiektua ikus-onestea nahitaezkoa ez bada, zerga oinarria udaleko teknikariek finkatuko dute proiektuaren kostu estimatuaren arabera.

Hasierako proiektua dagokion lizentzia eman ondoren aldatzen bada, lizentzia aldatzeko eskaera aurkeztu behar da, aurrekontu berriarekin batera, behin behineko likidazio berria egiteko, aurrekontuan izandako aldatetaren arabera, hasierakoa gainditzen duen kopuru berean.

10. artikulua. 1. Ikusirik egiazki egin diren eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baita horien benetako kostu eraginkorra ere, Udalak, hala behar denean, behin-behineko zerga-oinarria aldatuko du eta behin betiko likidazioa eginen; hori egin ondoren, subjektu pasiboari eskatuko dio paga diezaion edo, hala behar denean, gehiegi jarritakoa itzuliko dio.

2. Aitzineko atalean xedatutakoari dagokionez, obra burutu edo behin-behinekoz jaso eta hurrengo hilabetean, inguruabar horren berri ematen duen deklarazioa aurkeztuko da eta horrekin batera eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostu eraginkorra eta obraren zuzendari fakultatiboak emandako ziurtagiria ere bai, bidezkoa denean behar den lanbide elkargoak ikus-onetsia, zeinean obraren kostu osoa egiaztatuko baita.

11. artikulua. Zergaren likidazioaren ondorioetarako, berdin jokatu da administrazioaren isilbide positiboaz eman diren lizentziarik eta berariaz eman direnekin.

12. artikulua. Lizentziaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak egiteari uko egiten badio, idatziz aurkeztu berariazko ukoaz, Antsoaingo Udalak, hala behar denean, ordaindutakoa itzuliko dio.

Halaber, behin lizentzia iraungi ondoren, Antsoaingo Udalak egindako likidazioa deuseztatuko du eta, hala behar denean, itzuliko, titularrak ez badu, behinik behin, lizentzia horren berritzea eskatzen eta Udalak baimentzen.

#### Karga-tasa

Ezarri den tasa %5 da.

## ORDENANTZA FISKALA, HIRILURREN BALIO IGOERAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

### 2. Ordenantza

#### Oinarria

1. artikulua. Honako ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen II. Tituluko VI. Kapitulu 172.etik 178.era bitarteko artikuluetan, biak barne, xedatutakoaren babesean.

#### Zergapeko egintza

2. artikulua. 1. Zergapeko egintza hirilurren balio igoera da. Hura agerian jartzen ahal da bai horien jabetza edozein modutan eskualdatzearen ondorioz, bai horietaz baliatzeko edozein eskubide erreale, jabaria mugatzen duena, eratu edo eskualdatzearen ondorioz.

2. Ondorio horietarako, ondokoak dira hirilurrak:

- a) Hirilurzoria eta lurzoru urbanizagarri programatua.



*Zergaren kudeaketa.*

13. artikulua. Zergadunak edo, hala balitz, haien legezko ordezkioak, beharturik daude aitorpena Udalaren kudeaketa bulegoan aurkeztera, hartan ematen duten ereduak betez; aitorpen horretan agertuko dira bidezko likidazioa egiteko tributu-harremanerako elementu nahitaezkoak.

Aitorpen hori aurkeztuko da, zerga sorrarazten denetik hasita ondoko epe hauetan:

- a) Bizidunen arteko egintzak direnean, epea bi hilabetekoa izanen da.
- b) Heriotzaren ondoriozko egintzak direnean, epea sei hilabetekoa izanen da, luzagarria, urtebetekoa izanen baita subjektu pasiboak hala eskatzen badu

Aitorpenari agiri bat erantsiko zaio, non ezarraldia sortzen duten egintza edo kontratuak agertuko diren, bai eta subjektu pasiboak onuradun den aldetik eskatzen dituen salbuespenen egiaztagiri guztiak ere.

14. artikulua. Udal Administrazioak eskatzen ahal dizkie interesdunei behar diren datu, argibide, aurrerakin eta frogagiriak, zerga likidatzeko.

15. artikulua. 13. artikuluan xedatua ukatu gabe, halaber beharturik daude subjektu pasiboek dituzten epe eta molde beretan Udalarik aditzera ematera zergapeko egintzaren gauzatea zein izan den, lurren eskualdatzaileak edo jabaria mugatzen duten gozameduko eskubide errealean eratzailerak edo eskualdatzaileak, betiere irabazi asmoz eta bizien arteko negozio juridikoaren ondorioz eman badira.

16. artikulua. Notarioak beharturik egonen dira Antsoingo Udalarik igortzera, hiruhileko bakoitzaren lehen hamabostaldian, aurreko hiruhilekoan baimendu dituzten agiri guztien zerrenda edo aurkibidea, zerga honen zergapeko egintza gauzatu dela agerian uzten duten gertakari, egintza edo negozio juridikoei buruzkoak, azken borondatezko egintzak izan ezik.

Halaber, beharturik egonen dira, epe berean, sinadura ezagutu edo legitimatzeko aurkeztu zaizkien agiri pribatuen zerrenda, gertakari, egintza edo negozio juridiko berberak osatutakoak, igortzera.

Artikulu honetan aurreikusitakoak ez du galarazten lege orokor eta tributuzkoetan ezarritako betebeharrak orokorra.

ORDENANTZA, AGIRIAK LUZATU  
ETA TRAMITATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

3. ordenantza

*Oinarria*

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

*Zergapeko egintza*

2. artikulua. Ordainarazpen honen xedea da udal organoek agiriak luzatu edo horien gain ardura duten udal organo eta agintariak egiten duten jarduerak administratiboak, alderdi batek eskatuta:

1.–Ziurtagiriak, Udal Erroldaren gaineko edozein motatako datuei buruzkoak izan ezik.

2.–Kopia eginbidetuak.

3.–Agirien konpultsak, salbu eta Katastroko edozein datuen gainean egindakoak.

4.–Fotokopiak.

5.–Arma txartelak.

6.–Lanpostuak betetzeko deialdiak.

7.–Lizentzia eta baimenak ziurtatzeko titulak, salbu eta luzatzen badira, horiek ematerakoan, aldatzerakoan edo, tasapean berraztertzerakoan.

8.–Txostenak eta kontsultei emaniko erantzunak.

*Sorrarazpena*

3. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasak agiriak luzatu edo tramitatzeko eskabidea aurkeztean sorraraziko dira, eta agiri hori ez da emanen, edo, hala behar badu, ez da tramitatu, baldin eta lehenago ordaindu ez bada, eta hori egiaztatuko behar duen ordainagiria eman ez bada.

*Subjektu pasiboak*

4. artikulua. Ordaintzeko beharra dute tasa honen xedea diren agiriak luzatu edo tramitatzeko eskatzen dutenek.

*Tarifak*

5. artikulua. Ordaindu beharreko tasak ordenantza honen eranskinean azaltzen dira.

*Kudeaketa arauak*

6. artikulua. Tasak udal diruzaintzan ordainduko dira, eskaera aurkeztean denetan.

## TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.–Ziurtagiriak.

1. Udalaren base informatikoetan bildutako datuei buruzko egiaztagiriak, automatikoki luzatzen direnak, eta erroldako esku orriak: 3,90 euro.

2. Espediente administratiboetan jasotako erabaki edo agirien ziurtagiriak: 7,80 euro.

3. Luzatuak izateko, aurretik txosten bat edo datu baseak gaurkotzea eskatzen duten egiaztagiriak: 19,30 euro.

Egiaztagiriarekin batera plana edo/eta fotokopia –eginbidez edo gabe– ematen direnean, II edo IV. epigrafeetatik dagozkien tasak ere galdatuko dira.

II. epigrafea.–Kopia eginbidetuak.

1. Espediente administratiboetan jasotako agirien kopia eginbidetua: 3,50 euro.

2. Udalaren base informatikoetan bildutako datuen kopia eginbidetua: 4,60 euro.

Tarifa aplikatzeko, eginbide bakartzat jotzen da espediente batean jasotako agiri eta datuen gainean egiten dena, pertsona berarendako. Aurreko zenbakietan ezarritako tasari gehitu behar zaio IV. epigrafetik dagozkion, eginbidetu beharreko plano edota fotokopiengatik.

3. Trafiko istripu baten atestatuaren kopia eginbidetua: 80,90 euro.

III. epigrafea.–Agirien konpultsa.

1. Konpultsa bakoitza: 2,80 euro.

Tarifa aplikatzeko, konpultsa bakartzat jotzen da espediente bakar batean pertsona batek eta berak aurkezten dituen agiriak oro.

IV. epigrafea.–Agirien fotokopiak, partikularrek eskatuak.

Agirien fotokopia bakoitzagatik:

–DIN A3, zuri-beltzekoa: 0,35 euro.

–DIN A4, zuri-beltzekoa: 0,25 euro.

–DIN A3, kolorezkoa: 1,50 euro.

–DIN A4, kolorezkoa: 1,20 euro.

V. epigrafea.–Arma txartelen tramitazioa.

1. Txartel bakoitza: 34,60 euro.

VI. epigrafea.–Langileak hartzeko deialdien tramitazioa.

1. 1.-A eta B mailatan sartzeko (Funtzio Publikoaren Estatutuaren ariora), izena emateagatik: 17,11 euro.

2. C mailan sartzeko, izena emateagatik: 9,10 euro.

3. D eta E mailan sartzeko, izena emateagatik: 5,70 euro.

Deitu beharreko lanpostuak lan-kontratutakoak izanez gero, deialdian aurreikusitako ordainsariak funtzionario maila bati atxiki, eta maila horri dagozkion tasa aplikatu behar da.

VII epigrafea.–Txostenak eta kontsultei emaniko erantzunak.

1. Etxebizitzak deskalifikatzeko eskatutako txostena luzatzeagatik: 44,50 euro.

2. Bertzelako txostenak eta kontsultei emaniko erantzunak: 16,00 euro.

Oharra: txostenak egin edo erantzuna emateko ordu erditik goitiko denbora behar bada, tasari kopuru hauek erantsiko zaizkio:

–Ordu erdi edo horren denbora zati bakoitzeko: 10,97 euro.

VIII. Epigrafea.–Ordainagiri edo bertzelako agirien bikoiztuak, jatorrizkoa galdu edo desagertzeagatik.

1. Agiri bakoitza: 1,70 euro.

Oharra, I.1 eta VIII. epigrafeei buruz. Ziurtagiriak, esku orriak edo ordainagirien bikoiztuak egiteko eskabideak 012-Infolocal telefonoaren bidez egiten badira, ez dute inolako tasarik sorraraziko.

IX. epigrafea.–Arrisksutu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak ematea.

1. Lizentzia bakoitzeko: 37,00 euro.

ORDENANTZA FISKALA, LIZENTZIAK EMATEAGATIK  
ETA HIRIGINTZAKO JARDUKETAK EGITEAGATIK  
ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

## 4. ordenantza

## Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kaptituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

## Zergapeko egintza

2. artikulua. Zergapeko egintza hirigintzako jarduketari dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiboak ematean datza, etxegintzari eta lurzorua erabileraren arloko egintzak indarra duten hirigintza eta eraikuntza araei egokitu ahal izateko.

3. artikulua. Tasa hauei loturiko udal ekintza hirigintzako jarduketa hauetan gauzatzen da:

–Partikularrek aurkeztu antolamendurako plan partzial edo bereziak eta haien aldaketak, xehetasun azterlanak, aurrerapen azterlanak, antolamendurako planen aurrerapenak edo aurreproiektuak eta birzatiketak tramitatzea.

–Partikularrek aurkeztu urbanizazio proiektuak tramitatzea.

–Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 189. artikuluan zehaztutakoak.

Aipatzearren, ondokoak dira:

–Lurziketa egiteko lizentziak.

–Honako obra lizentzia hauek: etxe berriak egitekoak, etxeak eraberritzekoak, tramitazio laburrekoak, obra txikiak, etxeak mantendu eta apaintzekoak eta eraikuntza txikitakoak.

–Lehen erabilerako lizentziak edo, oro har, eraikinak eta instalazioak okupatzekoak.

–Lizentziak, eraikinak eraisteko, eta bota, hustu eta apeoa egiteko obretarako.

–Lurrag mugitu, zelaitu eta lurrerauzteko lizentziak.

–Emandako lizentzien aldaketak.

–Eraikinaren erabilera erabat edo hein batean aldatzea.

–Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen testu bateginaren 136. artikulua babesean emandako behin-behineko lizentziak.

## Ordaindu beharra

4. artikulua. 1. Zergak ordaindu beharra lizentzia ematen den uanean hasten da. Ez da tasarik sortuko interesdunak eskabideari uko egiten badiu lizentzia emateko udal erabakia hartu baino lehen.

2. Plan partzialak edo bereziak eta haien aldaketak, xehetasun azterlanak, birzatiketak eta urbanizazio proiektuak tramitatu gero, haiek ebatzi edo behin betikoz onesten diren uanean sortuko da ordaindu beharra.

## Subjektu pasiboa

5. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak eta nortasun juridikorik izan ez, baina unitate ekonomiko edo ondare berezia diren entitateak, baldin egindako hirigintzako jarduketengatik edo emandako lizentziangandik eragina edo onura hartzen badute.

Zergadunaren ordezkoak izanen dira, zoruari eta hiri-antolamenduari buruzko arauetan hirigintza lizentziak emateko aurreikusitako tasetan, eraikitzaileak eta obra kontratistak.

## Tarifak eta karga-tasak

6. artikulua. Aplikatu beharreko tarifa, tasa eta karga-oinarriak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.

Lizentzien tramitazioa eta horien ondorioak.

7. artikulua. Hirigintza jarduketari buruzko edozein eskabide Hirigintza prozedurari buruzko ordenantzaren eta aplikagarri diren bertzelako arauetan ezarritako moduan bete behar da.

8. artikulua. Lizentzien iraugipenaren inguruko orotan, Hirigintza prozedurari buruzko ordenantzaren xedatutakoari jarraituko zaio.

Kudeaketa arauak.

9. artikulua. Planeamendurako espedienteak eta lizentziak tramitatzeko ardura duten bulegoetatik, udal teknikariek adostasun txostena eman

eta gero, zergak likidatu dituen bulegora igorriko dira espedienteak. Bulego horrek likidazioa egiten du, eta bertan honako hauek aipatuko ditu: subjektu pasiboaren izena, tasa zer kontzepturen arabera likidatzen den, tasaren tarifa eta zenbatekoa.

10. artikulua. Urbanizazio proiektuak tramitatzeke, proiektua onesteraoan egiten da tasen likidazioa.

11. artikulua. Lizentziak emateagatik ordaindu beharreko tasak behin-behineko likidatu dira obraren kostuaren arabera.

Obraren kostua zehaztuko da hura gauzatzeko aurrekontuaren arabera, ordainsariak eta industria mozkina salbu.

Barne urbanizatorako proiektuaren zenbatekoa tasaren zerga-oinarriaren elementu bat da. Horretarako, interesdunek, barne urbanizatorako proiektua aurkeztu behar dute, aurrekontu eguneratuarekin batera.

Ez dira tasaren zerga oinarriaren zati izanen bertze elementu batzuk, hala nola, altzariak eta bertze, ezta obra proiektuan funtsezko ez diren bertze batzuk ere.

12. artikulua. Obra burutu edo behin-behineko onartu eta hurrengo hilabetean, inguruabar hori ziurtatzen duen aitopena aurkeztuko da, obraren zuzendariak emandako ziurtagiriarekin batera, behar den elkargo profesionalak ikus-onesia, bideragarria bada, zeinak obraren kostua oso ziurtatuko baitu.

Aipatutako kostua udal teknikariek aztertuko dute eta errealitateari ez zaiola egokitzen ikusten badute, egokitzen saiatuko dira, eta behin betiko likidazioa egiten da, obraren kostu erreal eta benetako oinarritzat hartuz.

Partikularren aldeko diferentziarik izanez gero, itzuli egiten zaio; Udalaren aldekoa bada, berriz, hura ordaintzeko hilabeteke epea emanen zaio. Ordaintzen ez badu, premiamendu bidez kobratuko da, bertzerik gabe.

13. artikulua. Tasen likidazioa onetsi eta gero, interesdunari jakinaraziko zaio, erregelamenduzko epean tasak ordain ditzan.

14. artikulua. "Tramitazio laburreko" lizentzien kasuan, eskatzaileak Udal Diruzaintzako Departamentutik hartuko du baimenaren agiria. Horrela geratuko da lizentziaz eta haren aplikazioaz jabeturik.

## Arau-haustea eta zehapenak

15. artikulua. Arau-hausteei eta zehapenei dagokien orotan, Ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.

## TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.—Antolamendurako plan partzial edo berezien tramitazioa.

Espediente bakoitza tramitatu eta ebazteko tasak, plan bakoitzaren barrenean sartzen den lurzoruaren zabaleraren arabera likidatu dira, hain zuzen ere 85,80 euro 1.000 metro karratu edo horren zatiki bakoitzeko.

II. epigrafea.—Plan partzial edo berezien aldaketak eta xehetasun azterlanak tramitatzea.

Aplikatzeko tarifak I. epigrafeko %50 izanen dira.

III. epigrafea.—Birzatiketen tramitazioa.

III-A) Birzatiketa espedienteak tramitatu eta ebazteko tasak guztira erabiltzen den azalera edo bolumen eraikigarriaren arabera likidatu dira, tarifa hauei jarraituz:

–1.000 metro karratu edo zatiki bakoitza: 85,80 euro.

III-B) Birzatiketak aldatzeko tramitazioa:

Tarifak, III-A epigrafean aplikatutako %50 izanen dira.

IV. epigrafea.—Eskatzaileek egindako urbanizazio proiektuak tramitatzea.

Proiektuaren kostuaren arabera egiten da tasen likidazioa, %1,65eko karga-tasa aplikatuta.

V. epigrafea.—Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko legearen 189. artikulua babesean emandako lizentziak.

V-1) Finkak zatitu, banandu edo bereizteko lizentziak:

–Lizentzia bakoitza tramitatu eta ebazteagatik ondoko tasa ordaindu behar da: 120,60 euro.

V-2) Eraikitze, handitze, eraberritze eta eraiste obrak egiteko, lurrag mugitzeko, arbolak mozteko eta horma irudiak paratzeko lizentziak, eta lizentziarekin egin beharreko gainerako egintzak, aitzineko ataletan jaso ez badira:

–Obra gauzatzeko aurrekontua 18.000 euro edo guttiagokoa duen lizentzia bakoitza tramitatu eta ebazteagatik, 50,00 euroko tasa ordaindu behar da.

–Obra gauzatzeko aurrekontua 18.000 eurotik goitikoa duen lizentzia bakoitza tramitatu eta ebazteagatik, 114,00 euroko tasa ordaindu behar da.

V-3) Lizentziak, eraikinak edo instalazioak lehen aldiz erabili edo okupatzeagatik:

–Lizentzia emateko espediente bakoitza tramitatu eta ebazteagatik, ondoko tasa ordaindu beharko da: 780,44 euro.

V-4) Eraikinen erabilera guztiz edo partez aldatzeko lizentziak:

Lizentzia emateko espediente bakoitza tramitatu eta ebazteagatik ondoko tasa ordaindu beharko da: 585,36 euro.

VI. epigrafea.–Gutieneko eskubideak.

Aurreko epigrafeengatik ordaindu behar diren tasak gutieneko zenbateko haieztatik beheitikoak badira, honako hauek ordaindu beharko dira:

–Plan partzialak edo bereziak tramitatzea: 456,44 euro.

–Plan partzial edo berezietan eta xehetasun azterlanetan aldaketak tramitatzea: 228,22 euro.

–Birzatiketak: 456,44 euro.

–Lurzatiketak: 120,60 euro.

ORDENANTZA FISKALA; JARDUERA SAILKATUETAN  
ETA KALTEGABEKOETAN ARITZEKO ETA ESTABLEZIMENDUAK  
IREKITZEKO LIZENTZIA EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO  
TASAK ARAUTZEN DITUENA

5. ordenantza

Oinarria

1 artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

Zergapeko egintza

2. artikulua. Zergapeko egintza ingurumena babesteko jarduera sailkatuetan edo jarduera kaltegabeetan aritzeko zerbitzu tekniko eta administratiboak egitea da, ondoko kasuetan:

- Jarduteko lizentzia.
- Jarduerarako lizentzia berrikustea.
- Irekitzeko lizentzia.
- Irekitzeko lizentziaren aldaketa.
- Instalazioa aldzika irekitzea.
- Titulartasun aldaketak.

Ordaindu beharra

3. artikulua. Zergak ordaindu beharra lizentzia ematen den unean hasten da. Ez da tasarik sortuko interesdunak eskabideari uko egiten badio lizentzia emateko udal erabakia hartu baino lehen.

Subjektu pasiboa

4. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasak ordaindu behar dituzte pertsona fisiko eta juridikoek, baita, nortasun juridikorik ez izan arren, batasun ekonomikoa edo aparteko ondarea osatzen duten entitateek ere, baldin haien izenean lizentzia eman, aldatu edo berraztertzen bada.

Tarifak

5. artikulua. Ordenantza honen eranskinean jaso dira aplikatuko diren tarifak.

Kudeaketa arauak

6. artikulua. Jarduteko eta irekitzeko lizentziak eskuratu nahi dituztenek eskabidea aurkeztuko dute Udaletxean, lokalean egin beharreko jarduera edo jarduerak eta haien kokapena zehazten dituztela, dagozkien udal ordenantzetan eskatutako dokumentazioarekin batera.

7. artikulua. Lizentzia eman eta tasaren likidazioa onetsita dela, interesdunak zenbateko bat ordaindu beharko du borondatezko kobrantza aldiaren barruan, jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera; bertzenaz, inolako gaztigurik gabe, premiamendu bidez kobratuko da.

8. artikulua. Emandako lizentziek balioa galduko dute dagokien ordenantzan ezarritako epe eta arauen arabera, eta hori gertatuz gero, jardueran aritu nahi duten interesdunek lizentzia berria eskatu beharko dute eta tasa oso-osorik berriz ordaindu.

9. artikulua. Titulartasuna aldatu edo jardueraren eskualdaketa gertatzen denean, lizentziaren titular berriak Udalarri jakinaraziko dio, eta

horretarako behar diren egiaztagiriak aurkeztuko ditu. Titular berriaren aldeko lizentzia frogatzen duen titulua eskuratze aldera, dagokion tasa kobratuko zaio.

Arau-hausteak

10. artikulua. Arau-hausteei eta zehapenei dagokien orotan, Ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.

TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.–Jarduerarako lizentzia eta haren berrikustea.

–Emandako lizentzia bakoitza: 1.454,89 euro.

II. epigrafea.–Irekitzeko lizentzia eta irekitzeko lizentziaren aldaketa.

–300 metro karratu bitarteko azalera eraikia duten lokaletan emandako lizentzia bakoitza: 765,40 euro.

–300 metro karratu baino gehiagoko azalera eraikia duten lokaletan emandako lizentzia bakoitza: aitzineko kuotaz landa, 1,14 euro ordainduko dute azalera horretatik goiti egiten duen metro karratu eraiki bakoitzagatik.

III. epigrafea.–Titulartasun aldaketak.

–Eskualdaketa bakoitza, lizentzian aldaketarik egin gabe: 153,16 euro.

ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK EREMU PUBLIKOTIK KENDU  
ETA ONDOTIK ALTXATZEKO ETA IBILGAILUAK EREMU PUBLIKOAN  
IBILGETZEKO ZERBITZUAREN TASAK ARAUTZEN DITUENA

6. ordenantza

Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

Zergapeko egintza

2. artikulua. Zergapeko egintza sortzen da Udalaren zerbitzu eskudunek ibilgailuak ere publikotik kentzeko nahiz kentzen hasteko edo ibilgetzeko zerbitzua egitean.

Halaber, zergapeko egintza da udal bulegoetan edozein arrazoiengatik gordeta dauden ibilgailuak zaintzea.

3. artikulua. Honako hauek tasa ordaintzetik salbuetsita daude:

1. Behar den baimena duten kabalkada, desfile, segizio, kirol-saio edo bertze jarduera nabarmenen bat egiten den ibilbidean aparkaturik egoteagatik kentzen diren ibilgailuak.

2. Aparkaturik egonik, eremu publikoa konpontzea edo garbitzea eragozten dutelako kentzen diren ibilgailuak.

3. Jabeei ebatsirik eremu publikotik kentzen diren ibilgailuak. Horretarako, jabeari ibilgailua ebatsi zaiola ulertuko da hark ebasketa-salaketa kopia aurkezten duenean.

Tasaren sorrarazpena

4. artikulua. Ibilgailua kentzeko tasa sorraraziko da zerbitzua hasten den momentuan.

5. artikulua. Ibilgailua kendu eta 24 ordu iraganik izanen du sorrarazpena ibilgailua altxatzeko tasak.

Subjektu pasiboa.

6. artikulua. Kasu bakoitzean ezarri behar diren arauekin bat, ondokoek ordaindu beharko dute tasa: ibilgailuaren gidariak, titularrak, gordailuzainak edo ibilgailuaren erantzuleak.

Karga-oinarria

7. artikulua. Kendu, altxatu edo ibilgetu den ibilgailu bakoitza da karga-oinarria.

Salbuespenak

8. artikulua. Lege nahiz erregelamenduetako xedapenek hala aginduta nahitaez aplikatu beharreko salbuespenak baizik ez dira onartuko.



*Tarifak*

9. artikulua. Ibilgailuak kentzeagatik -hasita nahiz osorik- eta altxatzeagatik aplikatu beharreko tarifak ordenantza honetako eranskinean daude ezarrita.

*Tributuaren kudeaketa*

10. artikulua. Ordinarazpen honen diru-bilketarako arau berezi gisan, zerbitzu honek sorraraziko dituen tasak Udaleko diru-bilketa zerbitzuetan ordainduko direla ezarri da. Horiek luzatuko dituzte ordainketa frogatzeko behar diren ordainagiriak edo tributu efektuak.

11. artikulua. Kendutako ibilgailua ez zaito jabeari itzuliko hura kendu eta altxatzeak sortu dituen eskubideak ordaindu arte.

12. artikulua. Tasa honen likidazioa ordaintzeak ez du kentzen inolaz ere zirkulazio arauak hausteagatik bertzalde izan daitezkeen zehapen edo isunak pagatu beharrik.

*Jabeek eraman gabeko ibilgailuak*

13. artikulua. Udalak bere Altxatokitik dauzkan ibilgailuak esleituko ditu, egungo legezko xedapenetan ezarritakoari jarraituz.

## TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.-Zerbitzu egitera joan, eta ibilgailua Udalaren altxatikira eramateko lanak hasi ondotik, gidaria edo hark baimendutako pertsona agertzeagatik lana bukatzen ez bada:

-2.500 kilogramorainoko pisua duten ibilgailuak: 41,00 euro.

-Ibilgailuak, 2.500 kilogramo baino astunagoak: 74,00 euro.

II. epigrafea.-Zerbitzua osorik egiten denean, ibilgailu arau-hauslea Udalaren altxatikira eramanda.

-2.500 kilogramorainoko pisua duten ibilgailuak: 82,00 euro.

-Ibilgailuak, 2.500 kilogramo baino astunagoak: 148,00 euro.

III. epigrafea.-Ibilgailua altxatikira eraman eta inork erretiratu gabe 24 ordu pasatzen direnean, zaintzagatiko tarifa, egun edo egun zati bakoitzeko, honako hau izanen da:

-2.500 kilogramorainoko pisua duten ibilgailuak: 6,14 euro.

-Ibilgailuak, 2.500 kilogramo baino astunagoak: 12,29 euro.

IV. epigrafea.-Ibilgailua eremu publikoan ibilgaitzeagatik.

-2.500 kilogramorainoko pisua duten ibilgailuak: 82,00 euro.

-2.500 kilogramo baino astunagoak: 148,00 euro.

V. epigrafea.-Ibilgailuen berezitasunengatik Udalak dituen baliabideekin ezin kendu bada eta zerbitzua egiteko bertze batzuegana jo beharra baldin badago, kobratu beharreko tasa izanen da Udalak ibilgailuak kentzeko lana egiten duen enpresari ordaindu behar diona gehi %20, administrazio arloko gastu orokorrenengatik.

2.500 kilo baino guttiagoko ibilgailu baten berezko ezaugarriak direla medio, 2.500 kilo baino gehiagokoak kentzeko erabiltzen den garabia erabili behar izanez gero, horietarako aurreikusten den tasa kobratuko da.

## ORDEZKO BETEARAZPENETARAKO ETA BETEARAZPEN AGINDUETARAKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

## 7. Ordenantza

*Oinarria*

1. artikulua. Ordinarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

*Zergapeko egintza*

2. artikulua. 1. Zergagaia honako kasu hauetan zerbitzu egitea edo laguntza ematea da:

a) Lur eta lokaletan dauden ibilgailuak, zaborrak eta obra-hondakinak garbitu eta handik eramatea, baldin eta horien jabeek eta okupatzaileek -edo pilaketaren arduradunek- kentzeko agindua bete nahi ez edo horren aurka egiten badute.

b) Betearazpen aginduak, eraispinak, konponketak, urbanizazio pribatuaren exekuzioak, kolektoreen garbiketa, eta orokorki Udalaren ordenantza nahiz erabakiak betetzeko ordezkoko betearazpenen egintzabideak.

c) Herritar soilek eragindako Udaltzaingoaren zerbitzu bereziak.

2. Interesdunek berek eragiten dituzten zerbitzuek, eta bereziki beren mesederako direnek, baita ondasunak berreskuratzen presagatik

edo ordena publikoa, segurantzaz, osasungarritasuna edo higiena direla medio derrigor eman beharrekoak direnek ere, ordinarazpena sorrarazteaz ekarriko dute, nahiz eta zerbitzua ez izan interesdunek eskatua.

3. artikulua. Udalak zilegi izanen du, nolahi ere, enpresa pribatu batekin kontratatzea, ordenantza honek aipatzen dituen zerbitzuak egiteko. Larrialdiko kasuetan, eta kontratazio arautegiak agintzen duenaren arabera, udal zerbitzuek zilegi izanen dute zuzenean kontratatzea enpresen, teknikari eskudunen eta bertze bitarteko partikular batzuen zerbitzuak, eta gero Alkatetzari edo Udalbatzari horren berri ematea.

*Tasaren sorrarazpena*

4. artikulua. Zerga ordaindu beharra, zerbitzua egiten den momentu berean sortzen da, eta zilegi da konturako nahiz zatikako kitapenak ordaintzeko eskatzea.

*Subjektu pasiboa*

5. artikulua. Modu solidarioan pagatzea behartuta daude legez erantzun beharra duten pertsona natural nahiz juridikoak, hurrengoak, alegia:

a) Zerbitzua egin beharra eragiten duten egintzetako ondasunen jabe edo erantzuleak edo haren onura jasotzen dutenak.

b) Halakorik bada, maizter edo erabiltzaileak, edozein titulu dela bide.

c) Espresuki egindako betearazpen erabaki edo agindu baten ondorioz erantzule ateratzen direnak.

*Zerga-oinarria*

6. artikulua. Honako hauek dira ordinarazpen honen zerga-oinarria:

a) Betearazpen aginduak: eginkizun dagoen obrari egin behar zaion baloraziotik heldu dena izanen da.

b) Ordezko betearazpena: egin den betearazpenaren kostu osotik heldu dena.

*Kudeaketa arauak*

7. artikulua. Udalak, obrak egiteko, zilegi izanen du kautelazko likidazioak formulatzea tasen zenbateko kalkulatuaren arabera, alde zuretik, eta bai hura ordainarazi eta bildu ere Ordenantza fiskal orokorrean agintzen den gisara. Obrak burututakoan, tasak likidatuko dira eta soberakinik bada, eskatu edo bihurtuko dira.

Zilegi izanen da kautelazko likidazio horiek erantzuleen artean zatitu edo banatzea, edo erabiltzaile nahiz errentari gisa borondatez kostuaren zati proportzional bat beren gain hartu nahi dutenen artean.

*Arau-hausteak eta zehapenak*

8. artikulua. Tasa honen aplikaziotik ateratzen den likidazioaren zenbatekoa goiti-beheiti, subjektu pasiboak erantzun beharko du irekitzen ahal den espediente zehatziletik sor daitezkeen zehapenen aurrean, hori guztia Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoa betez.

## TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.-Betearazpen aginduak.

-Karga-tasa izanen da zerga-oinarriaren %1.

II. epigrafea.-Ordezko betearazpenak.

-%125eko tasa ezarri da.

ERABILERA PUBLIKOKO LURRETAN ZANGAK, LAGINKETAK  
 ETA ZULOAK IREKI ETA EREMU PUBLIKOKO ZORUAN EDO  
 ESPALOIETAN EDOZEIN MUGIMENDU EGITEKO TASAK ARAUTZEN  
 DITUEN ORDENANTZA FISKALA

## 8. ordenantza

*Oinarria*

1. artikulua. Ordinarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

**Zergapeko egintza**

2. artikulua. Zergapeko egintza da erabilera publikoko tokiko lurretan, tokiko errepide, bide eta gainontzeko eremu publikoak barne, zangak, laginketak eta zuloak irekitzea, tutueria, hodiak eta bertzelako instalazioak jarri eta konpontzeko, bai eta eremu publikoko zoruan edo espaloietan edozein mugimendu egitea ere.

**Ordaindu beharra**

3. artikulua. Zergak ordaindu beharra toki entitatearen jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean sortzen da.

**Ordaintzera behartuak daudenak**

4. artikulua. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadunak diren aldetik, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak, baldin eta Ordenantza honetako 2. artikuluan aurreikusitako kasuetako bati jarraikiz, toki entitatearen jabari publikoa beren alde erabili edo ustiatzen badute edo hari onura ateratzen badiote.

**Oinarriak, tasak eta tarifak**

5. artikulua. Tasa oinarritzat hartuko da egin beharreko aprobetxamendua egin ahal izateko mugitu edo ireki beharreko toki entitatearen jabari publikoko azalera.

Ordaindu behar den tasaz gain, ordaintzeko obligazioa dutenek ordaindu beharko dute lanaren ondorioz jabari publikoan eragiten den kalteari dagokion zenbatekoa, tarifan eranskinean ageri denaren arabera.

Hornidurako zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten enpresek egindako aprobetxamendu bereziei zein erabilera pribatiboei dagozkien tasak horren gaineko Ordenantza Fiskalak edo horiek arautzeko Udal Erabakiek gobernatuko dituzte.

**Ondasunak eta instalazioak berreraiki, birrezarri edo konpontzea**

6. artikulua. Ordaintzeko beharturik dagoenak aprobetxamendua egin den tokietako ondasun eta instalazioak berreraiki, birrezarri eta konpondu beharko ditu.

7. artikulua. Konponezinak diren kalteak egiten badira, interesdunak ordaindu beharko ditu. Udal teknikariek zehaztuko dute kalte-ordainaren zenbatekoa, desegindako gaiek balio dutenaren edo kalteatutakoaren balio galeraren arabera, aplikagarri den legeriari jarraikiz.

8. artikulua. Aurreko artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, ordaintzera beharturik dagoenak gordailu bat egin beharko du, lehenik eta behin, zanga behar bezala betetzeko erabiliko dena eta, behar izanez gero, zoladura emateko, eta pasabidean kasuan, hurrengo batean berreraikitzeke, hala nola konponezinak gerta daitezkeen kalteak ordaintzeko.

Indarra duen arautegia edo lizentziaren baldintzak ez betetzeagatik ezarritako zehapenekin lotu daiteke gordailua. Gordailua berreskuratu ahal izateko aldeko txostena beharko da, indarra duen arautegia eta lizentzia hartzeko baldintzak hertsiki bete eta lurzorua behar bezala konpondu dela egiaztatzen duena.

9. artikulua. 1. Pasabideak egiterakoan gordailuak eratu, handitu eta itzultzeko gaietan, "Eremu publikoetako espaloietan eta erreserbatutako lekuetan barna ibilgailuak pasatzeko lizentziei buruzko tasak arautzen dituen ordenantza fiskalak" xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Ordenantza honen xede diren gainerako aprobetxamenduetan, aipatu gordailu horien zenbatekoak aprobetxamendurako baimendutako azaleraren arabera zehaztuko dira, betiere tarifan eranskinean ageri denari jarraikiz.

**Kudeaketa arauak**

10. artikulua. Edozein arrazoi dela medio, tokiko erabilera publikoko lurretan, zangak, laginketak edo zuloak ireki edo zoladura edo espaloiak kendu nahi dituen pertsona natural edo juridikoak, behar den baimena eskatuko dio Udalari, eta horretarako Hirigintzako prozeduraren ordenantzan eta Urbanizazio ordenantzan eskatutako baldintzak bete beharko ditu eta, hala behar badu, Espaloietan eta leku erreserbatuetan barna ibilgailuak pasatzeko lizentziaren ordenantzan eskatutakoak ere bai.

11. artikulua. Lizentziak ematen diren unean behar diren tasak ordaindu beharko dira. Pasabideak egiten direnean, lizentziaren eraginkortasuna lotua geldituko da espaloia zeharkatzeko baimenari.

12. artikulua. Baimenak indarra galduko du hura eman eta sei hilabetetan ez badira obrak hasi edo ezarri epean ez badira bukatu.

**TARIFEN ERANSKINA**

Ordenantza fiskal honetan aplikatuko diren tarifak honako hauek dira:

I. epigrafea.–Zangak irekitzea.

I.1. Zanga, laginketa edo zuloaren metro lineal bakoitzeko: 22,82 euro.

I.2. Zanga, laginketa edo zulo bat irekitzeko beharrezkoa bada ibilgailuei pasabidea galaraztea, bai osorik bai norabide bat edo bide edo gune zabal samarra itxiz, aitzineko epigrafeetako tarifak %20 igoko dira.

II. epigrafea.–Ibilgailuen pasabideak, karga-ahoak, aireztapenak, lukanak, kalapatxak egin edo deuseztatzea eta zoladuran edo espaloietan edozein mugimendu egitea.

Metro lineal bakoitzagatik, alderik handienean: 22,82 euro.

–Kalte-ordainak, zangak, laginketak edo zuloak irekitzeagatik.

II.1. Zanga, laginketa edo zuloaren zabalera metro lineal bat baino txikiagoa bada, luzeran metro bakoitzak honenbertzeko sorrarazpena izanen du:

II.1.1. Harrizko zoladura den lekuetan: 48,06 euro.

II.1.2. Zoladura orokorra den lekuetan: 24,03 euro.

II.1.3. Zoladurarik gabeko lekuetan: 4,06 euro.

II.2. Zanga, laginketa edo zuloaren zabalera metro lineal batekoa edo handiagoa denean, luzeran metro bakoitzak honenbertzeko sorrarazpena izanen du:

II.2.1. Harrizko zoladura den lekuetan: 72,31 euro.

II.2.2. Zoladura orokorra den lekuetan: 36,10 euro.

II.2.3. Zoladurarik gabeko lekuetan: 6,03 euro.

–Fidantzak, zangak, laginketak edo zuloak irekitzeagatik.

II.3. Zanga, laginketa edo zuloaren zabalera metro lineal bat baino txikiagoa bada, luzeran metro bakoitzak honenbertzeko sorrarazpena izanen du:

II.3.1. Harrizko zoladura den lekuetan: 200,68 euro.

II.3.2. Zoladura orokorra den lekuetan: 137,92 euro.

II.3.3. Zoladurarik gabeko lekuetan: 79,10 euro.

II.4. Zanga, laginketa edo zuloaren zabalera metro lineal batekoa edo handiagoa denean, metro karratu bakoitzak honenbertzeko sorrarazpena du:

II.4.1. Harrizko zoladura den lekuetan: 241,93 euro.

II.4.2. Zoladura orokorra den lekuetan: 164,03 euro.

II.4.3. Zoladurarik gabeko lekuetan: 92,39 euro.

ORDENANTZA FISKALA, IBILGAILUAK ESPALOIETAN BARNA SARTZEKO, ETA APARKAMENDU ESKLUSIBORAKO EDO GELDITZEKO LEKUA NAHIZ EDOZEIN MOTATAKO SALGAIEN ZAMALANAK EGITEKO EREMU PUBLIKOA ERRESERBATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

**9. Ordenantza****Oinarria**

1. artikulua. Ordinarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

**Zergapeko egintza**

2. artikulua. Espaloietan barna ibilgailuak sartzea eta aparkamendu eskusiborako nahiz edozein motatako salgaien zama-lanak egiteko edo ibilgailuak gelditzeko eremu publikoa erreserbatzea, horra zergapeko egintza.

**Ordaindu beharra**

3. artikulua. Tasa urtarrilaren 1ean sorraraziko da urtero, eta zergaldia urte naturala izanen da, salbu eta erabilera pribatiboa edo erabilera berezia urte hartan hasi edo bukatu egin den kasuetan, orduan zergaldia horren arabera moldatuko baita eta kuota hainbanatuko.

Erabilera edo aprobetxamendua urte naturala hasi eta gero egiten bada, seihileko osoaren tasa ordaindu beharko da.

**Ordaintzera behartuak daudenak**

4. artikulua. Tasa ordaintzera beharturik daude, zergadunak diren aldetik, pertsona fisiko zein juridikoak eta, nortasun juridikorik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten entitateak,







b) Diru-sarrerak aurreko lerroaldean adierazi moduan aterata, kon-tuan hartu diren kide kopuruaren artean eginen da zatiketa.

5. artikulua. Tarifen kalkulua abuztuan eginen da, ikasturtea hasi baino lehen, eta haren iraupen osoan zehar aplikatuko dira (11 hilabete).

6. artikulua. Azken errenta aitortpena edo izandako diru-sarrera gor-din eta garbier agiriak aurkezten ez dituztenei, Udalak askietsita, Haur Eskolako kuota gorena aplikatuko zaie.

7. artikulua. Ordaindu beharreko kuotak (2009/2010 ikasturtera-ko)

a) Haur bakoitzak hilean ordaindu beharko dituen kuotak, gehienez, honako hauek izanen dira:

–Eskola: 209,00 euro.

–Jantokia: 95,00 euro.

b) Nafarroako Foru Komunitatean eskumena duen organoak per capita errentako tarke bakoitzarentzat edota familia egoerarentzat ezartzen dituen hobariak aplikatuko dira.

c) Aurreko bi ataletako kuota horiek eguneratuko dira ikasturte bakoitzaren hasieran, Nafarroako Foru Komunitatean eskumena duen organoak ezartzen duenari jarraikiz.

#### ORDENANTZA, UDA-NEGUETAKO IGERILEKUAK, GUNE HIDROTERMALA ETA INSTALAZIO OSAGARRIAK ERABILTZEN PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUENA

##### 13. Ordenantza

###### Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. idatz-zatiko 2. azpitalean xedatutakoari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikuluko baimenaren babesean.

###### Ordaindu beharra

2. artikulua. Igerilekuak, gune hidrotermala eta instalazio osagarriak erabiltzen dituztenak daude ordaintzera beharturik.

###### Ordaindu beharra

3. artikulua. Igerilekutarako, gune hidrotermalerako edo instalazio osagarrietarako sarbidea ematen duen sarrera edo udal baimena esku-ratzen denean sortzen da ordaindu beharra.

###### Tarifak

4. artikulua. Ordenantza honen 1 eta 2. eranskinetan agertzen direnak dira aplikatzeak.

###### Kudeaketa arauak

5. artikulua. Egun bateko balioa duten txartel edo sarrerak instala-zioetan sartzeko unean luzatuko dira. Horretarako arau berezia izanen da instalazioetako diru-bilketa zerbitzuei ordaintzea prezioa. Haiek luzatuko dituzte txartelak, ordaintzetaren frogagiriak izanen direnak.

6. artikulua. Instalazioak abonamendu bitartez erabili nahi dituztenek, abonamendu hori denbora mugarik gabekoa ala denboraldikoa izan, Udalak finkatzen duen moduan eta baldintzetan eskuratuko dute.

7. artikulua. Urtero Udalak erabakiko du noiz hasi eta noiz bukatuko den igerilekuen denboraldia, baita instalazio bakoitza zein ordutan ireki eta itxi ere. Instalazioak itxirik egonen dira urtean 15 egunetan, ikuskapen teknikoetarako. Gainera, itxirik egonen dira urtarilaren 1ean eta abenduaren 24, 25 eta 31n.

2007ko urtarilaren 1etik aurrera, ordutegi hauek izanen dute indarra:

Uda-neguetako igerilekuak:

Neguko denboraldia (irailaren 16tik ekainaren 14ra arte).

–Astelehenetik larunbatera, 9:00etatik 22:00etara.

–Ilgandeak eta jaiegunak, 9:00etatik 14:30era.

Batean nahiz bertzean ontziak instalazioak itxi baino 30 minutu lehe-nago itxiko dira.

Udako denboraldia (ekainaren 15etik irailaren 15era arte).

–Egunero, 10:00etatik 21:30era.

Ontziak instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago hertsiko dira.

Gune hidrotermala

–Astelehenetik larunbatera, 9:00etatik 22:00etara.

–Ilgandeak eta jaiegunak, 9:00etatik 14:30era.

Batean nahiz bertzean ontzien esparrua instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago hertsiko dira.

Gimnasioa

–Astelehenetik larunbatera, 9:00etatik 22:00etara.

–Ilgandeak eta jaiegunak, 9:00etatik 14:30era.

Aretoa instalazioak itxi baino 30 minutu lehenago hertsiko da.

###### Erabiltzeko arauak

8. artikulua. Instalazioen barrenean diren bitartean, erabiltzaileek aldean eraman beharko dituzte txartelak eta arduradunei erakutsi eska-tutakoan, bertzenaz kanpora bidaliko baitituzte.

9. artikulua. Instalazioetan sartzten diren guztiak men egin beharko diete zentro bakoitzean ikusgai dauden funtzionamendu araei. Beraz, instalazioen erabiltzaileek uneoro bete beharko dituzte portaera arauak eta instalazioa erabiltzekoak, ikusgai baitaude.

10. artikulua. Instalazioetan sartu ahal izateko nahiaez eduki beharko dira ordainduta tarifen eranskinen zehazten diren kuotak.

Udalak, ofizioz, baja ematen ahalko die instalazioen erabilpenean zortzi ordainagiri baino gehiago ordaindu ez dituzten erabiltzaileei, baja beraiek eskatu ez badute. Horrek ez du kenduko bajaren eguna arte sortu diren kuotak ordaintzeko beharra.

###### Arau-haustea eta zehapenak

11. artikulua. Arau-haustea arinak, larriak eta oso larriak izan dai-tezke.

12. artikulua. Arau-hauste arinak.

–Hauek dira arau-hauste arinak:

1.–Esparruko instalazioak zuzen ez erabiltzea.

2.–Behar bezalako zapatak ez erabiltzea bai berdeguneetan bai igerilekuen esparruan.

3.–Jatea edo edatea horretarako eremuetatik kanpora.

4.–Paperontziak, hautsontziak eta instalazioa garbi edukitzeko gaine-rako elementuak ez erabiltzea.

5.–Esparrura sartzeko bizikleta, triziklo, patin eta abarrekin, eta berde-gunetara aulkiekin, aulkitxoekin eta haurtxoendako gurditxoekin, baimen espresurik izan ezean.

6.–7 urtetik beheitiko haurrak zaindu gabe edukitzea, arrisku egoerei kasurik egin gabe, hala nola ondoan heldurik ez dutela palastakoak ez diren igerilekuetan bainatzea.

7.–Gune hidrotermalean 14 urtetik beheitiko haurrak zaindu gabe edukitzea.

8.–Igerilekuan edo eremu hezeetan dutxatu gabe sartzea.

9.–Uretan hegatsak, uretako betaurrekoak eta flotagailu handiak erabiltzea. Orobat, jaurtitzen diren zerekin edo bertzeei traba egiten dietenekin jostatzea.

10.–Neguko igerilekuan eta gune hidrotermalean, bainatzeko txanorik gabe bainatzea.

11.–Helduak palastako igerilekuan premiarik gabe gelditzea

12.–Palastako igerilekuan bainujantzirik edo pixoihalik gabe sartzea.

13.–Palastako igerilekuen barnean jatea edo jatera ematea.

14.–Aldageletan edo igerilekuen esparruan erretzea.

15.–Gainean gauzak ezarri mahaiak eta aulkiak berehala erabiltzeko asmorik gabe okupatzea.

16.–Aire zabaleko jantokia erabili ondoan zikin uztea.

17.–Instalazioko langileek (begiraleek, sorosleek, udal langileek eta oro har mantentze lanetakoek) erabilera dela-eta egiten dituzten oharrei kasurik ez egitea.

18.–Instalazioko edozein arau ez betetzea, arau-hauste larria edo oso larria ez denean.

13. artikulua. Arau-hauste larriak.

–Hauek dira arau-hauste larriak:

1.–Txartelaren titularrak ez denak hura erabiltzea, hura galdu edo galtzeagatik salaketa dagoenean izan ezik. Txartelaren titularrak izanen da arau-hauste honen erantzulea.

2.–Egun berean bi arau-hauste arin egitea.

3.–Instalazioan animaliak sartzea, gidazakurrak izan ezik.

4.–Bainu hartzaileei traba egitea.

5.–Basakerietan aritzea.

- 6.–Horditurik edo edozein drogaren eraginpean bainatzea.
- 7.–Bertze edozein arau ez betetzea, bertze erabiltzaileen edo arau-hauslearen beraren segurtasunari eragiten ahal badio, bereziki igerilekuak, bainu turkiarrak, hidromasajea, terma, presioko dutxak, jacuzzia eta aldagelak oker erabiltzeari dagozkion guztietan.
- 8.–Instalazioko edozein higigarri edo higiezini kalte egitea.
- 9.–Instalazioaren barnean ordena publikoa asaldatzea dakarren edozer egitea edo ez egitea.
- 10.–Langile arduradunak eta instalazioan lan egiten dutenak iraintzea edo mendratzea.
- 11.–Instalazioetan horditxura nabarmenean edo drogen eraginpean sartzea.
- 12.–Eguneko erabilpenaren ondotik takilla itxirik uztea.
14. artikulua. Arau-hauste oso larriak.
- 1.–Hutsegite larrien errepika.
- 2.–Instalazioaren barnean bizikidetzari, ordenari eta segurtasunari bereziki eragiten dieten arau-hauste larriak.
- 3.–Instalaziora sartzeko txartel edo giltzak faltutzea.
- 4.–Instalazioko materiala edo bertzeen ondasunak lapurtzea eta ebastea.
- 5.–Instalazioaren erabiltzaileei edo bertako langileei erasotzea.
- 6.–Instalazioaren barnean drogak saldu edo kontsumitzea.
- 7.–Inor instalaziora edozein arma mota daramala sartzea.
- 8.–Instalaziora sartzea horretarako aurreikusitako sarbideak erabili gabe.

#### Zehapenak

15. artikulua. Arau-hausteak honela zehatuko dira:
- a) Arinak:
- Lehen hutsegite arina, idatziz kargu hartzea.
  - Bigarren hutsegite arina urte berean, egun baterako bidaltzea.
  - Hirugarren hutsegite arina urte berean, aste baterako bidaltzea.
  - Laugarren hutsegite arina urte berean arau-hauste larritzat hartuko da.
- b) Larriak:
- Lehen hutsegite larria, hamabortz egunerako bidaltzea.
  - Bigarren hutsegite larria urte berean, hogeita hamar egunerako bidaltzea.
  - Hirugarren hutsegite arina urte berean arau-hauste oso larritzat hartuko da.
- c) Oso larriak:
- Lehen hutsegite oso larria, hiru hilabeterako bidaltzea.
  - Bigarren hutsegite oso larria urte berean, abonamendua galtzea.

#### TARIFEN 1. ERANSKINA

##### Uda-neguetako igerilekuak

- I. epigrafea.–Denbora mugarik gabe inskribatzen diren erabiltzaileen tarifak.
- Ondoko A eta B ataletako kuotak ordainduko dituzte:
- A atala.
- A.1.–Banakako inskripzio kuotak:
- 18 urtetik goitikoak: 181,04 euro.
  - 14 urtetik 17 urte bitartekoak, eta erretiratuak eta pentsiodunak: 135,78 euro.
  - 4 eta 13 urte bitartekoak: 90,52 euro.
- A.2.–Inskripzio kuota murriztuak (26 urtetik beheitiko familiako hirugarren kideak aitzina).
- 18 urtetik goitikoak.
  - 3. kidea: 135,78 euro.
  - 4. kidea: 90,52 euro.
  - 5. kidea eta hurrengoak: 45,26 euro.
  - 14tik 17 urte bitarte.
  - 3. kidea: 101,83 euro.
  - 4. kidea: 67,90 euro.
  - 5. kidea eta hurrengoak: 33,95 euro.
  - 4 eta 13 urte bitarte.
  - 3. kidea: 67,90 euro.
  - 4. kidea: 45,26 euro.
  - 5. kidea eta hurrengoak: 22,64 euro.

#### B atala.

- B.1.–Hiruhileko kuotak igerilekua erabiltzeko (banakakoak).
- 18 urtetik goitikoak: 38,71 euro.
  - 14 urtetik 17 urte bitartekoak, eta erretiratuak eta pentsiodunak: 33,29 euro.
  - 4 eta 13 urte bitartekoak: 27,64 euro.
- B.2.–Hiruhileko kuotak igerilekua erabiltzeko (murriztuak) (26 urtetik beheitiko familiako 3. kideak aitzina).
- 18 urtetik goitikoak.
  - 3. kidea: 29,03 euro.
  - 4. kidea: 19,36 euro.
  - 5. kidea eta hurrengoak: 9,67 euro.
  - 14tik 17 urte bitarte.
  - 3. kidea: 24,96 euro.
  - 4. kidea: 16,65 euro.
  - 5. kidea eta hurrengoak: 8,31 euro.
  - 4 eta 13 urte bitarte.
  - 3. kidea: 20,74 euro.
  - 4. kidea: 13,81 euro.
  - 5. kidea eta hurrengoak: 6,91 euro.
- II. epigrafea.–Denboraldiko abonamenduak:
- 18 urtetik goitikoak.
  - Udako denboraldia: 92,16 euro.
  - Neguko denboraldia: 219,44 euro.
  - 14 urtetik 17 urte bitartekoak, eta erretiratuak eta pentsiodunak.
  - Udako denboraldia: 73,73 euro.
  - Neguko denboraldia: 175,55 euro.
  - 4 eta 13 urte bitarte.
  - Udako denboraldia: 55,30 euro.
  - Neguko denboraldia: 131,66 euro.
- III. epigrafea.–Eguneko sarrerak.
- 18 urtetik goitikoak: 8,00 euro.
  - 14 urtetik 17 urte bitartekoak, eta erretiratuak eta pentsiodunak: 6,00 euro.
  - 4 eta 13 urte bitartekoak: 4,00 euro.
- IV. epigrafea.–Bertzelako zerbitzuak.
- Gimnasioa, hiruhilekoa: 53,50 euro.
  - Sauna, saio bakoitzeko: 0,70 euro.
  - Karnetak luzatzea (galdu edo hondatzeagatik): 7,00 euro.
- I. epigrafeko tarifak aplikatzeko arauak.
1. Erabiltzaile bakoitzak aipatu epigrafeko A eta B ataletatik dagozkion kuotak ordainduko ditu, ondoko arauak jarraituz.
  2. Inskripzio kuotak behin bakarrik ordainduko dira, lehendabiziko 8 hiruhileko naturalatan.
  3. Ezinbertzeakoak salbu, oso-osorik ordainduko dira nahiz eta erabiltzailea baja izan ordaintzeko 8 epeak iragan baino lehen.
  4. Inskripzio kuota ordainduta edukitzeak lehentasuna emanen du instalazioak erabiltzeko igerilekuen edukiera beteko balitz.
  5. Igerilekuak erabiltzeko kuotak hiruhilekoetan ordainduko dira. Inskripzioa urtean zehar eskatzen bada, inskribatzeko unean ordainduko da hiruhileko horren kuota eta, gainerakoak, hiruhiletik behin. Adin tarte bakoitzeko tarifetan agertzen diren kuotak dagokion adina betetzen den hiruhileko beretik hasiko dira osorik ordaintzen.
  6. Betiere nahitaezko betebeharrak izan da banku batean helbide-eratzeari behar diren kuotak kobratzeko.
  7. Kuota murriztuak izateko baldintzak:
    - Kuota murriztuak 26 urtetik beheitikoei aplikatuko zaizkie, bi baldintza hauek betetzen badituzte:
      - a) Berarekin bizi diren familiako 2 kide igerilekuko ohiko erabiltzaile izatea, banakako kuotak ordaintzen dituztenak murrizketarik gabe.
      - b) Familiako aipatu kideak gurasoak edo 26 urtetik beheitiko anai-arrebak izatea.
        - 26 urtetik goitiko anai-arrebek ez dute murrizketarako eskubiderik sortzen, eta ez dute kuota murrizturako eskubiderik.
        - Udalak edozein unetan frogatu ahal du murrizketarako eskubidea sortzen duten egoera familiarrak, eta urtero berrikusiko dira.
        - Izena emanik edo hiruhileko ordainagiria luzaturik familiaren inguruabarrak aldatzen badira, ez dira hurrengo hiruhilekoa arte kontuan hartuko.
    - 8. Erretiratuak eta pentsiodunak gizarte sektore horretarako ezarritako kuota izan dezaten, lanbide arteko gutieneko soldata gaintzen ez duen





- II.7.–Yoga:  
–1,5 orduko bi saio astean: 171,90 euro/denboraldia.
- II.8.–Erretirodunen eta pentsiodunen soinketa:  
–Ordubeteko hiru saio astean: 31,46 euro/denboraldia.
- II.10.–Helduen igeriketa ikastaroak:  
–18 urtetik goitikoak: 206,67 euro/ikasturtea.
- III. epigrafea.–Haurrendako kultur jarduerak.
- III.1.–Ludotekak: ikasturteko 50,82 euro, bizilagunek; 60,50 euro, kanpotarrek.
- III.2.–Uda txokoak: 17,94 euro/ikasturtea.
- III.4.–Euskal dantzak:  
–Ordubeteko bi saio astean: 50,82 euro/ikasturtea.
- III.6.–Erritmo eta dantza lantegia:  
–Ordubeteko bi saio astean: 50,82 euro/ikasturtea.
- IV. epigrafea.–Gazteen eta helduen kirol jarduerak.
- IV.2.–Dantza latinoak, 90 minutuko saio bat astean:  
–Abonatuak: 139,21 euro/denboraldia.  
–Abonatu gabeak: 168,53 euro/denboraldia.
- IV.3.–Eskulanak:  
–2 orduko bi saio astean: 202,71 euro/denboraldia.
- IV.4.–Erretiratuen eskulanak:  
–2 orduko bi saio astean: 46,06 euro/ikasturtea.
- V. epigrafea.–Bertzelako jarduerak.
- V.1.–Udako kanpalekuak (aste batekoak)  
–Antsoaingo bizilagunak: 168,80 euro.  
–Antsoaingo bizilagun ez direnak: 242,65 euro.
- V.2.–Helduen futbol txapelketa: 175,66 euro.
- VI. epigrafea.–Antzerkiko sarrerak.
- VI.1.–Haurrak-Adin guztietarako:  
–Zinema, antzerkia eta bertze batzuk: 3,50 euro saio bakoitzeko.
- VI.2.–Helduak:  
–Zinea, abesbatzak, bandak, musika klasikoa: 4,50 euro saio bakoitzeko.
- Antzerkia eta bertze batzuk: 6,00 euro saio bakoitzeko.
- Ikuskizun bereziak: 10,00 euro saio bakoitzeko.
- VII. epigrafea.–Gazteriaren Etxeak antolaturiko ikastaroak.
1. 20 orduko ikastaroak: Antsoaingo bizilagunenak, 23,20 euro ikastaro bakoitza; Antsoaingo bizilagun ez direnendako, 34,80 euro ikastaro bakoitza.
2. 40 orduko ikastaroak: Antsoaingo bizilagunenak, 46,40 euro ikastaro bakoitza; Antsoaingo bizilagun ez direnendako, 69,60 euro ikastaro bakoitza.
- VII. epigrafeko oharrak:
- 1.–Erroldatu gabeak ikastaro eta lantegietan plaza liberrik gelditzen bada baizik ez dira onartuko.
- 2.–Behin betiko izen ematea gauzaturik ez da ordaindutako zenbatekoa itzuliko.
- 3.–Izen emateko epea bukatuta, eskainitako ikastaroren batean plaza liberrik gelditzen bada, matrikula berriak ematen ahalko dira, betiere ikastaro gutzia ordaintzen badute.
- 4.–Halako ikastaro berariazkoak badira, ezaugarri bereziak biltzeagatik, 10 erabilzailerik baino gehiagori batera ezin zaienean eman, ez dira tarifa hauen barrenean sartuko. Horrelakoetan, tarifa igoko zaie kostuaren %50 estaltzeko, gutienez.
- 5.–Arrazoi bereziren batengatik herriko gazte batek ezin badu zehazten den inskripzio kuota ordaindu, Gizarte Zerbitzuek haren kasua baloratuko dute, eskaintzen diren ikastaro edo lantegian aritzen ahal den inor ez dadin diru kontuengatik gelditzailean sarrera izan gabe.

ORDENANTZA, UDAL ORDENANTZA ETA ERABAKIETAN  
 AURREIKUSITAKO IKUSKAPENENGATIK ORDAINDU BEHARREKO  
 TASAK ARAUTZEN DITUENA

15. Ordenantza

Oinarria

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

Zergapeko egintza

2. artikulua. Zergapeko egintza Udalak bere langileen bidez egiten duen ikuskapen jarduerak dakar, osasun arloko ordenantzek ezarritako arauak, jarduera sailkatuen inguruak eta gainerako ordenantza eta udal erabakietan agertzen direnak hertsiki betetzen direla frogatzeko, haiek urratu direla edo betetzen ez direla uste denean.
3. artikulua. Ikuskapenak bide hauei jarraikiz egin daitezke:
- a) Ofizioz, arauak hala ezartzen dutenean.
- b) Alderdi batek hala eskaturik, edo inork egindako salaketan ondorioz.
4. artikulua. Pertsona natural edo juridiko orok Alkatetzaren aurrean salatzen ahalko ditu, jarduera sailkatuen, osasungintzako eta emaniko gainerako arauen arloan egindako arau-hausteak, arau horietan ezarritako betekizunei eusten badie.
5. artikulua. Udal administrazioak ikustaldiak noiznahi egin ahal izanzen ditu, kasuan kasuko arauak betetzen direla egiaztatzeko.

Tasaren sorrarazpena

6. artikulua. Tasaren sorrarazpena, kasuan kasuko espedienteari edo jarduerari dagokionez, udal langileek egindako ikustaldiarengatik eta egiaztapenarengatik gauzatuko da, honako arau hauekin osatuz:
- a) Tasa ezartzeko, ikustalditzat joko da ikuskatzaileek egindako joan-etorria, ikuskatu beharreko lekura iristerik ez badute ere.
- b) Irekitzeko lizentzia duten jarduerari dagokienean, lokalaren neurri zuzentzaileak eta segurtasunekoak betetzen diren egiaztatzeko egiten den lehenbiziko bisitaldiak ez du inolako tasarik sortuko.

Subjektu pasiboak

7. artikulua. Ordaintzera beharturik daudenak:
- a) Ikuskapenaren xede den jardueraren pertsona natural edo juridiko titularrak.
- b) Ikuskatzen diren eraikin, establezimendu, zentro, lokal eta gainerrakoen jabeak, arau-haustearekin zerikusia baldin badute.
- c) Arau-haustea egiten duten pertsonak.
- d) Salaketa kasuetan, ausartegi justifikatu gabea edo argi eta garbi funtsik gabekoa dela jotzen bada, txosten teknikoaren arabera, salatzailearen gain geratuko dira ikuskapenak sortzen dituen tasak.
- e) Halaber, higiezinaren jabeak ordaindu beharko ditu tasak, auri espedienteen ondorioz egiten diren ikuskapenetan.

Tarifak

8. artikulua. Tarifak, beren karga-oinarriekin batean, ordenantzaren eranskinean agertzen dira.

Tasaren kudeaketa

9. artikulua. Ikuskatzaileek agertaldia egin izanaren berri emanen dio behar den departamentuari, likidazioa egiteko beharrezkoak diren datuekin eta salaketa, kasuan kasu, ausartegi edo arrazoitu gabetzat hartzen den adieraziz, eta horrek kasuari dagokion likidazioa egiten du, egokitzen denean zigorrarekin gehituz, eta behar den organoari onespena proposatuko dio.

Onetsitakoan, pertsona behartuari jakinaraziko zaio, kuota jakinarazpenaren ondoko hilabetearen barnean ordaindu beharko delarik. Ordaintzen ez bada, bertzelako oharrak gabe, premiamendu bidez kobratzeari ekinen zaio.

Arau-hausteak eta zehapenak

10. artikulua. Arau-hausteei eta zehapenei buruzko orotan, ordenantzan xedatutakoari jarraikiko zaio.

TARIFEN ERANSKINA

Ikuskapenak sortzen dituzten tasak honako tarifa honetan ageri dira:

1. epigrafea.–Egindako ikustaldiak, jarduera sailkatuen arloan eta gainerako ordenantza eta erabakietan ezarritakoaren arabera, bai eta udal ondarean egindako kalteengatik ere, egindakoak:  
–Agerraldi bakoitza: 77,02 euro.

II. epigrafea.—Eraikinen azterketa, segurtasun baldintzak eta auri egoereta espedienteak direla eta :

–Gutieneko ikuskapena: arkitekto edo aparejadore baten 1,5 orduko lana: 77,02 euro.

–Lan gehiago behar bada, ordu bakoitza: 38,51 euro.

## ORDENANTZA FISKALA, KONTRIBUZIO BEREZIAK ARAUTZEN DITUENA

### 16. Ordenantza

#### Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 8. ataleko 109tik 120ra bitarteko artikuluetan, biak barne, xedatutakoaren babesean ezarri da ordainarazpen hau.

#### Zergapeko egintza

2. artikulua. Honako hau da kontribuzio berezien zergapeko egintza: subjektu pasiboak onura bat edo bere ondasunen balio gehitze bat erdi-estea Udalak herri lanak egitearen ondorioz edo zerbitzu publikoak ezarri edo handitzearen ondorioz.

3. artikulua. 1. Honakoak hartuko dira Udalaren obra eta zerbitzuetzat:

a) Udalak bere eskumenen esparruan esleitu zaizkien eginkizunak betetzeko egiten dituenak, salbu eta bere ondareko ondasunen jabe titular gisa egiten dituenak.

b) Udalak bertze entitate publikoren batek esleitu edo eskuordetuta egiten dituenak eta legeari jarraikiz titulartasuna bere gain hartuta egiten dituenak.

c) Udalak diru-laguntza emanik bertze entitate publikoren batek edo haien kontzesiodunek egiten dituztenak.

2. Aurreko zenbakiko a) letran sartzen direnak Udalaren esparruko lan edo zerbitzuetzat joko dira nahiz eta haien egileak izan kapital soziala osorik Udalarena duten erakunde autonomo edo merkataritza elkarteak, edo Udalak diru-laguntza emandako kontzesiodunak edo zergadunen administrazio elkarteak.

4. artikulua. Zein obra edo zerbitzutarako biltzen diren kontribuzio bereziak, haien gastuak ordaintzeko bakarrik erabiltzen ahal dira.

#### Subjektu pasiboa.

5. artikulua. 1. Unitate ekonomikoa edo ondare banatua osatzen duten pertsona fisikoak zein juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko entitateak dira kontribuzio berezien subjektu pasiboak, haiek ordaintzera behartuak, obrak egiteagatik edo Udalaren zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik onura berezia jasotzen badute.

2. Onura berezien hartzailetzat jotzen dira:

a) Kontribuzio berezia delarik ondasun higiezinak ukitzen dituzten obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik, haien jabeak.

b) Kontribuzio berezia delarik enpresa ustiapenen ondorioz obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik, haien titular diren pertsona edo entitateak.

c) Kontribuzio berezia delarik su-itzaltze zerbitzuak handitu edo hobetzeagatik, ukitutako ondasunen jabeak eta, gainera, arlo horretan udalerrian diharduten aseguru konpainiak.

d) Kontribuzio berezia delarik lurpeko galeriak egiteagatik, haiek erabili behar dituzten hornidura enpresak.

3. Jabetza horizontaleko kasuetan, jabeen komunitateko ordezkari-tzak udal administrazioari emanen dizkio jabeekideen izenak eta komunitate horretan bakoitzak duen parte hartzearen koefizientea, banako kuotak igor ditzan. Horrela egiten ez bada, kuota bakarria igortzea onartzen dela ulertuko da, eta komunitateak berak egiten duela banaketa.

#### Zerga-oinarria

6. artikulua. 1. Gehienez ere, lanak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo handitzeagatik Udalak jasaten duen kostuaren %90ek osatuko du kontribuzio berezien zerga-oinarria. Udalak, ordenatzeko erabakia hartzean, kasu bakoitzean aplikatu beharreko portzentajea finkatuko du.

2. Kostu hori honako kontzeptu hauek osatuko dute:

a) Peritu lan, proiektu prestatze eta obra zuzentze, plan eta egitarau teknikoaren kostu benetakoa.

b) Egin beharreko obrak edo zerbitzuak ezarri edo handitzeko lanen zenbaterako.

c) Lan edo zerbitzuek etenik gabe okupatu behar dituzten lurren balioa, non eta erabilera publikoko ondasunak ez diren, edo Udalari dohainik eta nahitaez emandako lurren edo Estatuak nahiz Nafarroako Foru Komunitateak Udalari emandako eraikinena.

d) Eraikinak lurreratu eta laborantzak, obrak edo instalazioak desegiteagatik ordaindu behar diren kalte-ordainak, baita lurreratu edo okupatu beharreko ondasunen errentariei dagozkienak ere.

e) Zerbitzu eta obretan inbertitu den kapitalaren korritua, Udalak kreditura jo behar duenean kontribuzio bereziek ez dutelako kostu osoa berdintzen edo, berdinduta ere, kontribuzioak orokorki zatikatutik daudelako.

3. Obra edo zerbitzuetarako aurrekontuak jarritako kostu osoa aurreikuspen hutsa izanen da. Benetako kostua handiagoa edo txikiagoa izatera, hura hartuko da dagokion kuota kalkulatzeko.

4. Obra edo zerbitzuak direlarik 3.1 artikuluko c) letrak aipatzen dituenetakoak, edo artikuluko horretako 2) zenbakiak aipatzen dituenetakoak, Udalak diru-laguntza emanda kontzesiodunek egindakoa alegia, kontribuzio berezien zerga-oinarria finkatzeko, diru-laguntza horien zenbaterako hartuko da kontuan; horrek ez du galarazten bertze administrazio publikoek lan edo zerbitzu horrexengatik ezar ditzaketanak. Dena dela, artikuluko honen lehen zenbakiak aipatzen duen muga begiratu da, %90 alegia.

5. Zerga-oinarria finkatzeko, honako hau izanen da udal administrazioak bere gain hartutako kostua: osotarako kostuaren zifrari udal administrazioak erdiesten dituen diru-laguntzak kenduz ateratzen den zenbaterako.

6. Diru-laguntza edo laguntza hori kontribuzio bereziaren subjektu pasibo batek emana bada, haren zenbaterako pertsona edo entitate horren kuota konpentsatzea izanen du lehen helburua. Diru-laguntzaren edo laguntzaren zenbaterako kuotari gainez egiten badio, gaindikina, hainbana partiturik, bertze subjektu pasiboen kuotak gutitzeko erabiliko da.

#### Kuota

7. artikulua. 1. Kontribuzio berezien zerga-oinarria subjektu pasiboen artean banatuko da, obra eta zerbitzuak zer motatakoak eta nolakoak diren kontuan hartuz eta arau hauei jarraikiz:

a) Kasu guztietarako, batera nahiz bereiz, banaketa modulutzat ezarriko dira eraikinen fatxadako metro linealak, haien azalera, haien bolumen eraikigarria eta lurraren gaineko kontribuziorako duten katastroko balioa.

b) Su-itzaltze zerbitzua ezarri, handitu edo hobetu beharra delarik, udalerrian dauden ondasunengatik arriskua estaltzen duten entitate edo sozietateen artean egingen da banaketa, aurre-aurreko urtean bildutako primen zenbaterakoaren proportzioan egin ere. Subjektu pasibo bakoitzari eskatzen zaion kuota baldin bada berak bildutako primen %5 baino gehiagokoa, gaindikina hurrengo ekitaldietara pasako da erabat amortizatu arte.

c) Ordenantza honetako 5. artikuluko 2. zenbakiko d) atalean aipatzen diren obrak kasuan, haiek erabili behar dituzten konpainia edo enpresen artean banatuko da kontribuzio bereziaren zenbaterako osoa, bakoitzari erreserbatzen zaion espazioaren arabera edo haien osotarako sailarekiko proportzioan, nahiz eta berehala erabiltzekoak ez izan.

8. artikulua. Lege edo hitzarmen nazioartekoek onura fiskalak ematen badituzte, onuradunei egokitzen zaizkien kuotak ez dira banatuko bertze zergadunen artean.

9. artikulua. Ordaindu beharreko kuota finkatu delarik, Udalbatzak zilegi izanen du, subjektu pasiboak hala eskatuta, kuota zatikatu edo gerokotu dadin agintzea gehienez bortz urtez.

#### Tributuaren sorrarazpena

10. artikulua. 1. Obrak egiten diren unean berean gertatzen da kontribuzio berezien sorrarazpena, edo zerbitzua ematen hasten denean. Obrak zatikatzea zilegi baldin bada, tarte edo zatiki bakoitza burutu denetik izanen da sorrarazpena subjektu pasibo bakoitzarentzat.

2. Aurreko zenbakian xedatu dena ukatu gabe, ezartzeko eta ordenatzeko erabaki zehatza hartu delarik, Udalak zilegi izanen du eskatzea aurrez ordain daitezela kontribuzio bereziak, hurrengo urterako aurreikuspen den kostuaren arabera. Aurrerakina zer obratarako eskatu zen, hura burutu ez bada ez da zilegi izanen bertze urtealdi bat aurreratzeko eskatzea.

3. Kontribuzio bereziak sorrarazteko unea kontuan hartuko da ordaintzera nor beharturik dagoen finkatzeko 5. artikuluko arabera, nahiz eta ordenatzeko erabaki zehatzean bertze subjektu pasibo bat

agertu, hura onetsi zen datan hala zena alegia, eta kuoten ordainketa berak aurreratatu bazuen ere, artikuluko honetako 2. zenbakiak xedatzen duenarekin bat. Ordenatzeko erabaki zehatzetan subjektu pasibo gisa ageri den pertsonak jakinarean gainean egon eta ezarpena sortzen duten ondasun edo ustiapenen gainean dituen eskubideak eskualdatzen baditu, erabaki hori onestetik hasi eta sorrarazpena gertatu arteko epean, egin den eskualdatzearen berri eman beharko dio Udalari eskualdatzearen datatik hasi eta hilabeteko epean, eta hala egiten ez badu, administrazio horrek zilegi izanen du espedientearen subjektu pasibo gisa ageri zenaren kontra jotzea kobratzeko ekintza.

4. Obrak osorik nahiz partez bururatu direlarik, edo zerbitzua ematen hasi delarik, subjektu pasiboak, oinarria eta kuota indibidualizatu behin betikoak seinalatuko dira, bidezko likidazioak igorriko eta aurreratuta egon litezkeen ordainketa konturako entrega gisa konpentsatuko. Udalak egiten du behin betiko seinalamendu hori, zein obra edo zerbitzutarako antolatzen den tributua, hartarako erabakiaren arauetara jarraituz.

5. Ordainketa aurreratutako tributua sortu zen eguneko subjektu pasibo ez diren pertsonen egin badituzte, edo berez tokatzen zaizen kuota indibidual behin betikoaz goiti egiten badute, udal administrazioak bere kabuz egiten du behar den itzulketak.

#### *Ezarpena eta ordenazioa*

11. artikulua. 1. Kontribuzio bereziak ordainarazteko, kasu bakoitzean hura ezartzeko erabaki hartu beharko da alde aurretik.

2. Ez da zilegi izanen kontribuzio berezien bidez ordaindu beharreko obra bat egiteari edo zerbitzu bat ezarri nahiz handitzeari buruzko erabakia betetzea, harik eta kontribuzio berezien ordenazio zehatza onesten ez den arte.

3. Ordenatzeko erabakia nahitaez hartu beharrekoa izanen da eta obra eta zerbitzuen kostu zenbatetsia finkatu beharko du, baita onuradunen artean banatu beharreko zenbatekoa eta banaketa irizpideak ere. Ordenatzeko erabaki zehatzak ordenantza honi egiten dio aipua.

4. Behin kontribuzio bereziak ordenatzeko erabaki zehatza hartu delarik eta ordaindu beharreko kuotak finkatu, subjektu pasibo bakoitzari emanen zaizkio aditzera kuota horiek, baldin subjektua edo bere helbidea ezagunak badira, eta, bertzenaz, ediktuko bidez. Interesdunek zilegi izanen dute errekurtsioa aurkeztea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen Bederatzigarren Tituluko II. Kapituluak aurreikusitako moduan.

12. artikulua. 1. Udalaren eskumeneko obrak eta zerbitzuak Udalak bertze toki entitate baten laguntzarekin egiten dituenean, eta baldin kontribuzio bereziak ezartzen badira foru arauetan xedatzen denaren arabera, obra egitea edo zerbitzuak ezartzea bere gain hartzen duen entitate arduratuko da kontribuzio horiek kudeatu eta biltzeaz, nahiz horrek ez duen galarazten entitate bakoitzak dagokion eskumena atxikitzea, ezartzeko eta ordenatzeko erabakiei dagokienez.

2. Entitate horietako batek onesten ez badu ordenatzeko erabaki zehatza, jarduketara unitate baliogabetuko da eta haietako bakoitzak bakarka hartuko ditu behar diren erabakia.

#### *Herritarren laguntza*

13. artikulua. 1. Lanek ukitutako jabe edo titularrek zergadunen elkarte administratiboa sortzen ahal dute, Udalak lanak egin edo zerbitzuak paratu edo handitu ditzan sustatzeko, konpromisoa hartuz, lana edo zerbitzua zein izan, dagokien zatia ordaintzeaz gain, hari dagokion zatia ere ordaintzeko, Udalaren finantza egoera larria denean.

2. Orobat, Udalak sustatutako lanak egitean edo zerbitzuak ezartzeko edo handitzeko, ukituriko jabe edo titularrek zergadunen elkarte administratiboak sortzen ahal dituzte, kontribuzioak ordenatzeko erabakia jendaurrean egon artean, Udalak aurretik erabakita egiten den lanean edo zerbitzuan parte hartzeko.

3. Zergadunen elkarten funtzionamendu eta eskumenak haien estatutuaren xedatzen direnak izanen dira. Estatutuak Udalak onetsi beharko ditu. Nolanahi dela ere, zergadunen elkarteak erabateko gehiengoaz hartzen dituen erabakia, ukitutako jabetzaren bi herenak biltzen baldin badituzte, lotesleak izanen dira gainerakoentzat. Elkarteak, behar den quoruma bildurik, zuzendaritza batzordea izendatzen baldin badu, horrek hartutako erabakia lotesleak izanen dira interesdun guztientzat.

14. artikulua. Aurreko artikuluko aipatzen dituen zergadunen elkarte administratiboak sortu ahal izateko, ukitutako erabateko gehiengoaz hartu beharko da erabakia; betiere, ordaindu beharreko kuoten bi herenak biltzen baldin badira edo, kuotak zehaztu gabe izanez gero, ukitutako jabetzaren bi herenak.

## ORDENANTZA FISKALA, EZKONTZA ZIBILAK EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

### 17. Ordenantza

#### *Oinarria*

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluako 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

#### *Zergapeko egintza*

2. artikulua. Zergapeko egintza ezkontza zibilak egiteko zerbitzu publikoa ematean datza, Kode Zibilaren aldaketari buruzko abenduaren 23ko 35/1994 Legearen babesean.

#### *Ordaindu beharra*

3. artikulua. Ezkontza zibila egiten den unean berean sortuko da ordaindu beharra. Udal bulegoetan ezkontza zibila egin izanaren eguna eta ordua zehazten dituen udal agiria, tasa ordaindu ondoren luzatuko da.

Subjektu pasiboari egotzitako arrazoiengatik ordenantza honetan aurreikusitako zerbitzu publikoa ematen ez bada, ordaindutako dirua ez da itzuliko.

#### *Ordaintzera behartuak daudenak*

4. artikulua. Tasa ordaindu behar dute, zergadunak diren aldetik, ordenantza honen xede den zerbitzua eskatzen duten edo haren onuradunak diren pertsonak.

## TARIFEN ERANSKINA

#### *I. epigrafea.–Tarifak.*

Ezkontza bakoitzeko prezioa: 76,00 euro.

## ORDENANTZA, UDALAREN LOKALAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

### 18. Ordenantza

#### *Oinarria*

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluako 2. idatz-zatiko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikuluko baimenaren babesean.

#### *Ordaindu beharra*

2. artikulua. Prezio publikoa ordaindu beharra erabilpen baimendua hasten denetik sortzen da, hura gauzatu baino bi egun lehenago zenbatekoaren gordailua eskatuko bada ere.

3. artikulua. Interesdunak erabiltzeari uko egin ahal izanen dio ekitaldirako ezarritako data baino hogeita lau ordu lehenago, eta kasu horretan prezio publikoaren %50 itzuliko zaio.

#### *Ordaintzera behartuak daudenak*

4. artikulua. 1. Udalak aipatu lokalak erabiltzeko baimena nori ematen dion, haiexek daude beharturik prezio publikoa ordaintzera.

2. Gizarte eta hezkuntza arloko ekarte eta entitateek ez dute prezio publikoa ordaindu behar, irabazi asmorik ez badute.

#### *Erabilera*

5. artikulua. Baimena Udabatzak udal lokalen erabilpenerako onetsitako arauen arabera emanen da.

6. artikulua. Jaieguntzat hartuko dira Udal honetako langileek lan egutegian halakotzat hartzen direnak.

#### *Tarifak*

7. artikulua. Lokalak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifak ordenantza honen eranskinean agertzen dira, eta balio erantsiaren gaineko zerga beren baitan izanen dute, hala badagokie.

## TARIFEN ERANSKINA

- I. epigrafea.—Udalaren lokalak erabiltzea.  
 –3 ordu edo denbora gutiagorako lagatzea, egunean: 56,97 euro.  
 –3 ordutik 6 ordu arte lagatzea, egunean: 102,65 euro.  
 –6 ordu baino gehiagorako lagatzea, egunean: 148,33 euro.  
 II. epigrafea.—Murritzetak.  
 II.1. Lokalaren erabilpena gutienez ere 5 egun jarraian: %20.  
 II.2. Lokalaren erabilpena gutienez ere 7 egun jarraian: %30.

L1003954

## ARTZIBAR

## 20010eko aurrekontuak. Behin betiko onespina

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 272. artikuluan ezarriari jarraituz, jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iragan baita, behin betikoz onetsi da Udalaren 2010eko aurrekontua. Hasierako onspenaren erabakia 2010eko 17. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, otsailaren 8an.

## DIRU-SARRERAK:

- I. kapitulua: 36.122 euro.  
 II. kapitulua: 16.000 euro.  
 III. kapitulua: 6.280 euro.  
 IV. kapitulua: 171.434 euro.  
 V. kapitulua: 27.734 euro.  
 VII. kapitulua: 747.172,45 euro.  
 IX. kapitulua: 51.553,55 euro.  
 Diru-sarrerak, guztira: 1.056.296 euro.

## GASTUAK:

- I. kapitulua: 95.006 euro.  
 II. kapitulua: 75.743 euro.  
 III. kapitulua: 100 euro.  
 IV. kapitulua: 27.660 euro.  
 VI. kapitulua: 857.787 euro.  
 Gastuak, guztira: 1.056.296 euro.

Artzin, 2010eko martxoaren 4an.—Alkatea, José Ignacio Videgáin Ibarra.

L1004147

## ARMAÑANTZAS

## 1/2010 aldaketa aurrekontuan

Armañantzasko Bizilagunen Batzarrak, 2010eko otsailaren 25ean egin bilkuran, legez eskatutako gehiengo zuela, hasiera batean onetsi zuen aldaketa 2010eko ekitaldirako luzatutako aurrekontuan. Hona hemen:

Kredituaren sorrera diru-sarrera bidez:

## DIRU-SARRERAK:

–1.720 kontu-saila. Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Funtsaren diru-laguntza: 7.135,00 euro.  
 Diru-sarrerak, guztira: 7.135,00 euro.

## GASTUAK:

–1.433.62101 kontu-saila. Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Funtsaren obra: 7.135,00 euro.  
 Gastuak guztira: 7.135,00 euro.

Espedientea ikusgai egonen da Udal Idazkaritzan, interesdunen eskura, hamabortz egun baliouduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Armañantzasen, 2010eko martxoaren 4an.—Alkatea, Francisco Javier Oyón Sanz.

L1004156

## AIEGI

2010eko aurrekontu orokor eta bakarra.  
Behin betiko onespina

Aiegiko Udalak, 2009ko abenduaren 15ean egin osoko bilkuran, legeak eskatzen duen quoruma zuela, erabaki zuen hasiera batean onestea Aiegiko Udalaren 2010eko aurrekontu orokor eta bakarra eta hura beteazterteko oinarriak, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko

6/2010 Foru Legearen 267. eta 274. artikuluetan eta horiek in bat datozen beste arauekin bat.

Hasiera batean onetsitako aurrekontu orokor eta bakarra jendaurrean egon da hamabortz egun baliouduneko, 2010eko 9. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 20koan, eta Udalaren iragarki oholean argitaratu ondoan.

Erreklamazioak egiteko jendaurreko epea iraganda, inork batere aurkeztu ez duenez, behin betikoz onetsitaz jo da Aiegiko Udalaren 2010eko aurrekontu orokor eta bakarra.

Hona hemen aipatu aurrekontuaren edukiaren laburpena, kapituluz kapitulu:

## DIRU-SARRERAK:

1. kapitulua.—Zuzeneko zergak: 396.300,00 euro.
  2. kapitulua.—Zeharkako zergak: 100.000,00 euro.
  3. kapitulua.—Tasak, prezio publikoak eta bertzelako diru-sarrerak: 61.200,00 euro.
  4. kapitulua.—Transferentzia arruntak: 520.900,00 euro.
  5. kapitulua.—Ondareko diru-sarrerak: 42.800,00 euro.
  6. kapitulua.—Inbertsio errealek besterentzea: 10.600,00 euro.
  7. kapitulua.—Finantza-pasiboak: 15.600,00 euro.
  9. kapitulua.—Finantza-pasiboen goiti-beheitiak: 148.700,00 euro.
- Diru-sarrerak, guztira: 1.296.100,00 euro.

## GASTUAK:

1. kapitulua.—Langileria gastuak: 481.000,00 euro.
  2. kapitulua.—Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea: 572.800,00 euro.
  3. kapitulua.—Finantza-gastuak: 22.000,00 euro.
  4. kapitulua.—Transferentzia arruntak: 43.800,00 euro.
  6. kapitulua.—Inbertsio errealek: 114.000,00 euro.
  7. kapitulua.—Kapital transferentziak.
  8. kapitulua.—Finantza-aktiboak.
  9. kapitulua.—Finantza-pasiboen goiti-beheitiak: 62.500,00 euro.
- Gastuak, guztira: 1.296.100,00 euro.  
 Aiegin, 2010eko martxoaren 9an.—Alkatea, José Artiz Segura.

L1004402

## BAKAIKU

## Alkatetzaren eskuordetzea

2010eko otsailaren 25ean, ebazpen hau eman zuen Udal honetako alkateak:

Udalerritik kanpo izanzen naizenez martxoaren 3tik 11ra bitartean, lana dela-eta.

Ebatzi dut: Alfredo Zelaia Goikoetxea alkateordea eskuordetzea alkatearen eginkizunetarako; hark 2010eko martxoaren 3tik 11ra arte beteko ditu, biak barne.

Bakaikun, 2010eko otsailaren 25ean.—Alkatea, Eduardo Urrestarazu Fernández.

L1004398

## BAKAIKU

## UE 56 unitatea birzitatzea. Hasierako onespina

Bakaikuko Udalak, 2010eko otsailaren 19an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen UE 56 unitatea (Bakaiku) birzitatzeke proiektua.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 151. artikuluan ezarritakoari jarraituz, espedientea jendaurrean egonen da hogeitun egun baliouduneko, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek aztertu eta alegazioak aurkez ditzaten.

Bakaikun, 2010eko otsailaren 19an.—Alkatea, Eduardo Urrestarazu Fernández.

L1004450

## BARAÑAIN

## Hornidura kontratua, Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Funtsaren kargura finantzatua (urriaren 26ko 13/2009 ELD)

Entitate esleitzaila: Barañaingo Udala.

Kontratuaren xedea: igorgailu ekipoaren hornidura udaltzaingoak erabili dezan.

Lanak egiteko epea: hilabetea.

Lizitazioaren aurrekontua: 22.241,38 euro, BEZa kanpo.

Eslaitzeko eta tramitatzekeo prozedura: irekia, presako tramitazioa-  
rekin.

Kontratistek bete beharreko baldintza berariazkoak: Propio horretarako  
eginiko baldintza-agirian zehazten direnak.

Agiriak: administrazio baldintza partikular eta teknikoan agiria interes-  
dunen eskura dago Nafarroako Kontratazioaren Atarian eta Udalaren web  
orrian: www.baranain.es.

Eskaintzak aurkezteko epea: 8 egun natural, iragarkia Nafarroako  
Kontratazioaren Atarian argitaratu eta biharamunetik aitzina (2010eko  
martxoaren 25a).

Eskaintzak aurkezteko tokia: Barañaingo Udaleko erregistro oroko-  
rean, Udaletxe plaza, z.k.g., 31010 Barañain.

Eslaitzeko irizpideak: baldintza agirian adierazitakoak.

Eskaintzak noiz ireki: eskaintza ekonomikoak irekitzeko eguna Nafa-  
rroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da.

Barañainen, 2010eko martxoaren 18an.–Alkatea udalburua, José  
Antonio Mendive Rodríguez.

L1005016

## BAZTAN

### Jarduerarako lizentzia. Eskaera

Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko  
4/2005 Foru Legean xedatua bete dadin, aditzera ematen da Udal honetako  
bulegoetan jendaurrean egonen dela hamabortz egun baliodunean, iragarki  
hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita,  
ondotik zehazten den espedientea, jarduerak ukituta gertatzen direnek  
epe horretan bidezko alegazioak egin ditzaten.

Eskatzailea: Isaac Recalde Irigoien. Jarduera: Haragia mozteko gela  
eta saltzeko puntua. Tokia: Arizkun.

Baztanen, 2010eko martxoaren 15ean.–Alkatea, Virginia Aleman  
Arrastio.

L1004734

## BAZTAN

### Hirigintza hitzarmena. Behin betiko onespena

Baztango Udalak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2010eko martxoaren  
1ean egin bilkuran, 15. puntuan, erabaki zuen behin betikoz onestea  
Urtelor, S.L.k proposaturiko hirigintza hitzarmena, Arraiozko zerbitzuen  
poligonoari dagokion hirigintza aprobetxamenduen %10 gauzatzeko,  
8. poligonoko 187. lurzatian, eta Tycesa enpresak 2009ko martxoan egin  
tasazio teknikoak. Biak, behar bezala eginbideturik, horretarako irekitako  
espedientean daude.

Aditzera ematen da orok jakin dezan, interesdunek erabakiaren ja-  
kinarazpena izan dezaten eta behar diren ondorioak izan ditzan, indarra  
duen legeriak agindutakoari jarraituz.

Elizondon, 2010eko martxoaren 3an.–Alkatea, Virginia Alemán Arras-  
tio.

L1004875

## BEINTZA-LABAIEN

### 2010eko aurrekontua. Hasierako onespena

Beintza-Labaiengo Udalak, 2010eko otsailaren 26an egin osoko bil-  
kuran, hasiera batean onetsi zituen Udalaren 2010eko aurrekontua eta  
hura betearazteko oinarriak.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru  
Legearen 271. artikuluan xedatuari jarraituz, onetsitako aurrekontua  
Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki  
hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita,  
bizilagunek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen  
zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten. Jendaurreko epean inork alega-  
ziorik aurkezten ez badu, espedientea behin betiko onetsitatzeko da.

Beintza-Labaienen, 2010eko martxoaren 12an.–Alkatea, Francisco  
Javier Otxandorena Juanotena.

L1004606

## BERRIOZAR

### Aldaketa R8 unitatea birzaitzeko proiektuan. Hasierako onespena

Berriozarko Udaleko Gobernu Batzarrak, 2010eko otsailaren 26an egin  
bilkuran, erabaki zuen aldaketa hasiera batean onestea Berriozarko Arau  
Subsidiarioetako R8 unitatea birzaitzeko proiektuan, unitate horretako  
konpentsazio batzordeak sustaturik.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko  
35/2002 Foru Legearen 134. artikuluan ezarritakoari jarraituz, espedientea  
jendaurrean egonen da hogeit egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari  
Ofizialean argitaratzen denetik hasita, azter dadin eta bidezko alegazioak  
aurkez daitezten. Jendaurreko aldi inork ez badu alegaziorik aurkezten,  
dokumentua behin betiko onetsiko da, bidezko bada.

Berriozarren, 2010eko apirilaren 3an.–Alkatea, Xabier Lasa Gorraiz.

L1004123

## BUÑUEL

### Zinegotzi delegatuaren izendapena

Toki Entitateen Antolaketaren, Funtzionamenduen eta Araubide  
Juridikoaren gaineko Erregelamenduko 43. artikuluan eta ondokoetan  
xedatuari jarraituz, 2010eko otsailaren 12ko Ebazpenaren bidez, Francisca  
Gil Palos Hezkuntza eta Osasuneko zinegotzi delegatua izendatu dut.

Aditzera ematen da, orok jakin dezan eta ondorioak izan ditzan.

Buñuelen, 2010eko otsailaren 12an.–Alkatea, Santiago Mayayo Chu-  
eca.

L1004260

## BURLATA

### Aldaketa 2009tik luzatutako 2010eko udal aurrekontuan. Hasierako onespena

Burlatako Udalak, 2010eko otsailaren 25ean egin osoko bilkuran,  
onetsi zuen 2009tik luzatutako 2010eko udal aurrekontuko aldaketa eta  
182.290,38 euroko kreditu berezia gehitzea, Burlatako 0-3 urtekoendako  
Haur Eskolarako ekipamenduz arduratzeko.

Espedientea jendaurrean egonen da Udalaren Idazkaritzan hamabost  
egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu  
eta biharamunetik hasita, bizilagunek eta interesdunek aztertu eta egokiak  
iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Aditzera ematen da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen  
202. eta 214. artikuluei jarraituz.

Burlatan, 2010eko martxoaren 4an.–Alkatea, José Muñoz Arias.

L1004152

## BURLATA

### Aldaketa 2009tik luzatutako 2010eko udal aurrekontuan. Hasierako onespena

Burlatako Udalak, 2010eko otsailaren 25ean egin osoko bilkuran,  
onetsi zuen 2009tik luzatutako 2010eko udal aurrekontuko aldaketa eta  
230.558,10 euroko kreditu berezia gehitzea, Burlatako 0-3 urtekoendako  
Haur Eskolaren funtzionamenduen hasieraz arduratzeko.

Espedientea jendaurrean egonen da Udalaren Idazkaritzan hamabost  
egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu  
eta biharamunetik hasita, bizilagunek eta interesdunek aztertu eta egokiak  
iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Aditzera ematen da, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen  
202. eta 214. artikuluei jarraituz.

Burlatan, 2010eko martxoaren 4an.–Alkatea, José Muñoz Arias.

L1004153

## CAPARROSO

### Herrilurrak okupatzeko baimena. Aldaketa baldintza agirian

Caparrosoko Udalak, 2009ko azaroaren 27an egin osoko bilkura  
berezian, hasiera batean onetsi zuen Caparrosoko herrilurretako 2.767  
metro koadroren okupazioa, Caparrosoko 17. poligonoko 58, 59, 65, 66,  
68, 76, 77, 78, 82, 83, 84, 87, 90, 94, 101, 102, 103 eta 251. lurzatietan,

Hibridación Termosolar Navarra, S.L. ren alde, 66 kv-ko goi tentsioko aireko linea parartzeko, biogaseko plantan sortutako energia elektrikoa kanporatzearen.

Espedientea jendaurrean egon da iragarkia Herriko Etxearen iragarki oholean eta 2009ko 158. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 25ean, argitaratu baita, eta inork ez du alegaziorik aurkeztu.

2010eko martxoaren 5ean egin bilkura berezian aho batez onetsi zen delako espedientearen baldintza agiriko aldaketa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 172. artikulua xedatzen duenez, espedientea jendaurrean egonen da, hamabost egun baliodunean, interesdunek egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Caparrosen, 2010eko martxoaren 8an.—Alkate udalburua, Irene Jiménez Iribarren.

L1004268

## CAPARROSO

### Herrilurrak okupatzeko baimena. Aldaketa baldintza agirian

Caparrosoko Udalak, 2009ko azaroaren 27an egin osoko bilkura berezian, hasiera batean onetsi zuen 2.197 metro koadroren okupazioa, 68, 61, 70, 76, 78, 82, 83, 84, 87, 90, 94, 101 eta 102. lurzatieta baitaude, Caparrosoko 17. poligonon, hori guztia abeltzaintzako ustiategitik Valle de Odieta, S.C.L. ren biometanizazio plantara minda eramateko hoditeria jarri ahal izateko.

Espedientea jendaurrean egon da iragarkia Herriko Etxearen iragarki oholean eta 2009ko 158. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, abenduaren 25ean, argitaratu baita, eta inork ez du alegaziorik aurkeztu.

2010eko martxoaren 5ean egin bilkura berezian aho batez onetsi zen delako espedientearen baldintza agiriko aldaketa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 172. artikulua xedatzen duenez, espedientea jendaurrean egonen da, hamabost egun baliodunean, interesdunek egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Caparrosen, 2010eko martxoaren 8an.—Alkate udalburua, Irene Jiménez Iribarren.

L1004270

## CASTEJÓN

### Jarduerarako lizentzia. Eskaera

Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean xedatua bete dadin, aditzera ematen da Udal honetako bulegoetan jendaurrean egonen dela hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, ondotik zehazten den espedientea, jarduerak ukituta gertatzen direne epe horretan bidezko alegazioak egin ditzaten.

Eskatzailea: Hormigones Vicente, S.L. Jarduera: legar hobia. Tokia: 3. poligonoko 13-A, 13-B eta 13-C lurzatiak. Corraliza del Pozo alderdia.

Castejonen, 2010eko martxoaren 3an.—Alkate udalburua, Francisco Javier Sanz Carramiñana.

L1004120

## CASTEJÓN

### Jendaurrean, ingurumenaren gaineko eragina ebaluatzeko

Martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean xedatutakoa betetzeko, aditzera ematen da Udal honetako bulegoetan jendaurrean egonen dela, hogeita hamar egunean, ondotik zehazten den jarduerari buruzko espedientea, eta egokitzat hartzen diren alegazioak onartuko direla epe horretan:

Eskatzailea: Hormigones Vicente, S.L. Jarduera: legar hobia. Tokia: 3. poligonoko 13-A, 13-B, 13-C eta 14. lurzatiak. Corraliza del Pozo alderdia.

Castejonen, 2010eko martxoaren 3an.—Alkatea, Francisco Javier Sanz Carramiñana.

L1004121

## ZIRAUKI

### Urbanizatzeko eta birzitatze proiektuak. Behin betiko onespina

Ziraukiko Udalak, 2010eko martxoaren 3an egin bilkuran, behin betiko onetsi zituen Hiri Antolamenduko Udal Planeko U.E. 12 exekuzio unitatea urbanizatzeko eta birzitatze proiektuak.

Argitara ematen da, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Ziraukin, 2010eko martxoaren 8an.—Alkatea, Pedro Apesteguía Arraiza.

L1004283

## ZIZUR

### Aldaketa puntuala antolamenduko egiturazko determinazioetan. Hasierako onespina

Udalbatzak, 2010eko otsailaren 4an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Zizur Zendeako Arau Subsidiarioetako antolamenduko egiturazko determinazioetan aldaketa egiteko proposamena, Muru Astraingo UE3.2 exekuzio unitateari dagokionez Rubén Isturiz Carok proposaturik. Aldaketari dagozkion agiriak jendaurrean edukiko dira hila bidez, honako iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Epe horretan, interesa duten entitate edo pertsona guztiek agiri horiek ikusi eta aztertzen ahalko dituzte, Udalaren bulegoetan, Gazolatzen, baita bidezko juzgatzen dituzten alegazio idazkiak aurkeztu ere.

Gazolatzen, 2010eko otsailaren 24an.—Alkate udalburua, José Ricardo Pérez Torrano.

L1004139

## DEIKAZTELU

### Ordenantza fiskaletako aldaketa. Behin betiko onespina

Deikazteluko Udalak, 2009ko abenduaren 23an egin osoko bilkuran, aldaketa hasiera batean onetsi zuen ordenantza fiskaletan.

Hasierako onspenaren iragarkia urtarilaren 27an argitaratu zen, 2010eko 12. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta jendaurrean egoteko legeak aurreikusten duen epea iragan da inork erreklamaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu gabe. Hortaz, behin betikoz onetsirik gelditu dira, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Hona hemen nola gelditu diren idatzirik.

Deikaztelu, 2010eko martxoaren 5ean.—Alkatea, J. Carmelo Salvatierra Macua.

### ORDENANTZA FISKALA, IREKITZEKO LIZENTZIEN TASAK ARAUTZEN DITUENA

10. artikulua. 1. 1. Establezimenduak berritik paratzea.

Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren kuotako %100 ordaindu beharko dute urtean.

### UDALAREN KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Udal pilotalekua: Tarifak honela aldatzea:

A) Egoiliarak: Banakako pistaren erabilpena, lau lagun bitarte. Ordua, 1,5 euro. Taldekako erabilpena (lau lagun baino gehiago). Ordua, 3,00 euro.

### ORDENANTZA, AGIRIAK LUZATU ETA TRAMITATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

2. Zerbitzu Orokorrak:

a) Ekarrirako agiriaren fotokopiak, bakoitza 0,10 euro, DIN A4 motakoa bada, eta 0,15 euro, DIN A3 motakoa bada.

Kolorekoa bada, 0,20 euro, DIN A4 motakoa bada, eta 0,30 euro, DIN A3 motakoa bada.

Idazkaritzan dagoen agiri baten fotokopia: euro 1.

b) Fax zerbitzua: 0,10 euro.

### ORDENANTZA, EREMU PUBLIKOKO ETA HERRILURRETAKO ZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEKO APROBETXAMENDU BEREZIEN TASAK ARAUTZEN DITUENA

1.1. Mahaiak, aulkiak eta beladoreak.

Doan, alde zuretik Udalaren baimena izanik. 50 euroko tarifa ezartzen da terrazak baimentzeko, uztailean eta abuztuan.

ORDENANTZA, EZKONDU GABEKO ELKARTZEEN UDAL  
 ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA  
 ARAUTZEN DITUENA

–Aldatzea 10. artikulua. Tarifak.

Erregistro liburuan egiten diren inskripzioak, 3,00 euro.

Inskripzioen gainean ematen diren ziurtagiriak, 1,00 euro.

L1004223

**DEIKAZTELU**

**Aldaketa ordenantzari.  
 Behin betiko onespenera**

Deikazteluko Udalak, 2009ko abenduaren 23ko osoko bilkuran, aldatzea hasiera batean onetsi zuen Deikazteluko udalerriko zakurrak arautzen dituen ordenantzari.

Hasierako onespeneraren iragarkia urtarrilaren 27an argitaratu zen, 2010eko 12. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta jendaurrean egoteko legeak aurrekusten duen epea iragan da inork erreklamaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu gabe. Hortaz, behin betikoz onetsirik gelditu da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 325. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Hona hemen nola gelditu diren idatzirik.

Deikaztelun, 2010eko martxoaren 5ean.–Alkatea, J. Carmelo Salvatierra Macua.

**ALDAKETA ORDENANTZARI.  
 BEHIN BETIKO ONESPENA**

*12. artikulua*ren aldaketa.

“12. artikulua. Huts egiteak.

Honako hauek dira:

- a) Hutsegite arinak dira 2, 3, 6, 7, 8 eta 9. puntuetan bildutakoak.
- b) Hutsegite larriak:

–Hutsegite arinak behin eta berriz egitea.

–Zakurrak alde batera uztea eta haiei tratu txarrak eragitea.

–Osasun zerbitzu ofizialei ez jakinaraztea badituztela halako eritasunak, nahitaez deklaratu beharrekoak badira, baita Animaliak babesteari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legearen agertzen diren gainerako puntukoak buruzkoak, betiere bertan agertzen diren zenbatekoekin.

- c) Hutsegite oso larriak. Bi hutsegite larri baino gehiago egitea.”

*13. artikulua* berria.

“13. artikulua. Zehapenak.

- c) Hutsegite arinak 60 euroko isunarekin zehatuko dira.
- d) Hutsegite larriak 300 euroko isunarekin zehatuko dira.
- e) Hutsegite oso larriak 600 euroko isunarekin zehatuko dira.”

L1004225

**DEIKAZTELU**

**Udalaren putzuak erabiltzeko araudia.  
 Behin betiko onespenera**

Deikazteluko Udalak, 2009ko abenduaren 23ko osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Deikazteluko udalerrian Udalaren putzuak erabiltzeko araudia.

Hasierako onespeneraren iragarkia urtarrilaren 27an argitaratu zen, 2010eko 12. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, eta jendaurrean egoteko legeak aurrekusten duen epea iragan da inork erreklamaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu gabe. Hortaz, behin betikoz onetsirik gelditu da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 325. artikuluan ezarriari jarraituz. Hona hemen nola gelditu den idatzirik.

Deikaztelun, 2010eko martxoaren 5ean.–Alkatea, J. Carmelo Salvatierra Macua.

**UDALAREN PUTZUAK ERABILTZEKO ARAUDIA**

Deikazteluko Udalak hainbat putzu eginik eta legeztaturik ditu alderdi hauetan: Pradoekoiengo, El Prado, Urbaltza eta Pradovedado.

Udalaren ur putzuetatik, ezarri da nekazaritzarako ondoko hauek erabiltzeko aukera: Pradoekoiengo putzua (idoiko bidearen bertze aldera dagoena), El Pradoko putzua eta Urbaltzako putzua.

Nekazaritzarako erabiltzea kasu hauei mugaturik ulertzen da:

Lehena. Baimendu da Pradoekoiengo (idoiko bidearen bertze aldera dagoena), El Pradoko eta Urbaltzako putzuetako ura herbizidetarako erabiltzea.

Bigarrena. Baimendu da Pradoekoiengo (idoiko bidearen aldean dagoena) ur putzua erabiltzea mahastia eta olibondoa bustitzeko.

Pradovedadon dauden ur putzuek xede bakarria dute, alegia, baratze gisa familia mailan ustia ditzaten herritarrei ureztalurreko loteetan banatzen zaizkien herrilurretako lurzatiak ureztatzea.

Nekazaritzako erabilera honela arautu da:

1. artikulua. Herbizidetarako erabiltzeko baimena duten putzuak, erran nahi baita, Pradoekoiengo (idoiko bidearen bertze aldera dagoena), El Pradoko eta Urbaltzako, urte osoan egonen dira irekiak.

2. artikulua. Mahastia eta olibondoa bustitzeko baimena duten putzuak, erran nahi baita, Pradoekoiengo (idoiko bidearen aldean dagoena), hetsirik egonen dira irailaren 30etik apirilaren 15era. Salbuespenez, Udalak baimen lezake data horien artean erabiltzea, eskatzaileraren batek behar adina arazoitzen badu erabili beharra.

3. artikulua. Mahastia eta olibondoa bustitzeko baimena duten putzuak, erran nahi baita, Pradoekoiengo (idoiko bidearen aldean dagoena), orobat baimendurik daude frutarbolak bustitzeko, soil-soilik produktua denean bateragarria mahastian eta olibondoa erabiltzen direnekin.

4. artikulua. Erabiltzaileak beharturik daude ontzi eta kapsula guztiak biltzera eta eramatera horretarako baimendurik dauden tokietara.

5. artikulua. Erabiltzaileek ura xurgatzeko erabiltzen dituzten mangerek atzera egitea galarazteko sistemaz horniturik egon beharko dute (atzera egitea galarazteko orburu-sarea).

6. artikulua. Jarduketa hauek debeku dira arras:

1. Edonolako produktu toxiko botatzea, bai putzu barnera, bai haien inguruko zorura, bertako urari kalte larria egiten ahal badiote.

2. Herbiziden orgak erabiltzea, mahastia eta olibondoa bustitzeko putzuetatik ura biltzeko.

3. Putzuetako ura urteztatzeko erabiltzea, non ez den behar adina arazoituriko eskaera egiten eta Udalak espresuki baimentzen.

4. Idoieta ura ureztatzeko edo nekazaritzako bertze edozein erabilera egiteko erabiltzea, non ez den behar adina arazoituriko eskaera egiten eta Udalak espresuki baimentzen.

7. artikulua. Hutsegite arinak dira:

1. Herbiziden edo bertzelako gai toxikoen ontziak botatzea horretarako baimendurik ez dauden tokietan.

2. Mahastia eta olibondoa bustitzeko baimena duten putzuak, erran nahi baita, Pradoekoiengo (idoiko bidearen aldean dagoena), hetsirik egon behar duten epeetan erabiltzea, non ez dion Udalak erabiltzaileari baimena espresuki ematen.

3. Putzuak edo idoiak ureztatzeko ura ateratzeko erabiltzea, Udalak aitzinetik baimenik eman gabe.

8. artikulua. Hutsegite larriak dira:

1. Putzuak edo idoiak herbizidetarako erabiltzea, horretarako baimenik ez dutenean.

2. Ura xurgatzeko mangerak erabiltzea, atzera egitea galarazteko sistemarik ez dutenean.

3. Herbizida-orgak erabiltzea, mahastia eta olibondoa bustitzeko putzuetatik ura biltzeko.

4. Hutsegite arinen errepika.

9. artikulua. Ondokoak joko dira hutsegite oso larritzat:

1. Edonolako gai toxikoa edo herbizida botatzea putzu edo idoe-tara.

10. artikulua. Beren mailaketaren arabera, hutsegiteak ondoki ematen diren isunekin zehatuko dira.

1. Hutsegite arinen zehapena 60,00 euro da.

2. Hutsegite larrien zehapena 600,00 euro da.

3. Hutsegite oso larrien zehapena 6.000,00 euro da.

11. artikulua. Arau-hausleak, behar den zehapen prozeduratik heldu diren zehapenez gain, erantzun beharko du hirugarrenei edo ingurumenari eragin dien kalteengatik; horiek Udalak galdatuko ditu edo, bertzenaz, ingurumen arloan eskumena duen bertze edozein agintarik.

L1004226

**ELGORRIAGA**

**2010eko ekitaldiko plantilla organikoa. Hasierako onespenera**

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 19 eta 20. artikuluetan eta aplikatzeko den gainerako legedian ezarritakoa bete dadin, eta Elgorria-

gako Udalak 2010eko martxoaren 5an egin osoko bilkuran erabakitakoari jarraikiz, ondokoa erabaki da:

1. Hasiera batean onestea Elgorriagako Udalaren plantillako lanpostuak betetzen dituzten funtzionario, administrazio-kontratudun eta lan-kontratudunen izenen zerrendak, plantillarekin batera heldu direnak.

2. Espedientea jendaurrean edukitzea entitate honetako Idazkaritzan, hamabost egun baliodunearan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren oholean iragarkia paratu ondoan, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak, kexak edo oharak aurkez ditzaten.

Elgorriagan, 2010eko martxoaren 8an.—Udalburua, Santos Irurueta Santesteban.

L1004305

## ELGORRIAGA

### UU6-UU7-UU8 unitateak birzatzitzeko proiektua. Hasierako onespina

Alkatetzak 2010eko otsailaren 26an eman ebazpenaren bidez hasiera batean onetsi da UU6-UU7-UU8 unitateak birzatzitzeko proiektua, Eduardo Valcarlos arkitektoak eta José Iruretagoyena eta María Jesús Labiano abokatuek prestatua, eta unitate horien kopentsazio batzordeek sustatua.

Hirigintzako Kudeaketari buruzko Erregelamenduaren 108. artikuluan eta abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 151.1 artikuluan agindutakoari jarraikiz, jendaurrean egonen da hogeiki egunez udal Idazkaritzan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina, aztertu eta egoki juzgatzen diren alegazioak aurkez daitezzen.

Elgorriagan, 2010eko martxoaren 1ean.—Alkatea, Santos Irurueta Santesteban.

L1004308

## ENERITZ

### Bigarren Sektoreko Plan Partziala. Hasierako onespina

Enerizko Udalak, 2010eko martxoaren 2an egin osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez, hasiera batean onetsi du Arau Subsidiarioetako bigarren sektoreko plan partziala, Inversiones Ibonciecho, S.L.-k sustatua. Jendaurrean jarriko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean dagozkion iragarkiari argitaratu eta hilabeteko epean.

Espedientea eta hasiera batean onetsitako agiria udal Idazkaritzan daude ikusgai, delako epe horretan edozein interesdunek aztertu eta, hala balegokio, bidezkoak juzgatzen dituen alegazio, ohar eta iradokizunak aurkez ditzan.

Eneritzen, 2010eko martxoaren 4an.—Alkate udalburua, José Alberto Valencia Trueba.

L1004228

## ESPARTZA

### 2010eko plantilla organikoak. Behin betiko onespina

Espartza Zaraitzuko Udalak, 2009ko abenduaren 11n egin bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea aldaketa Espartza Zaraitzuko Udalaren 2010eko plantilla organikoan.

Iragarkia 2010eko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, otsailaren 15ean, eta horren ondotik jendaurrean egon da, inork erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe; hortaz, behin betikoz onetsitaz jotzen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 236 eta 271. artikuluekin bat. Hona hemen haren laburpena, argitaraturik:

## LANPOSTUEN ZERRENDA

### Funtzionarioak

Lanpostuaren izena: idazkaria, zerbitzuen batasunean, Espartza Zaraitzuko, Sartzeko, Gorzako eta Galozeko Udalekin batean. Buru den udala: Espartza Zaraitzuko Udala. Lanpostu kopurua: 1; maila: A. Lanpostuko osagarria: %29,22. Sarbidea: erregelamenduaren arabera.

### Lanaldi partzialeko lan-kontratudun finkoa

Zerbitzu anitzetako enplegatua. D mailaren pareko lansaria. Lanaldi erdian. Itzaltzuko Udalarekin partekatua. Buru den udala: Espartza Zaraitzuko Udala. Mailako osagarria, %12; lanpostuko osagarria, %8,79. Sarbidea: oposizio-lehiaketa. Hizkuntz eskakizuna: merezimendua: euskaraz jakitea.

## ENPLEGATUEN IZENEN ZERRENDA

### Funtzionarioak

Valentín Alzueta Fernández. Idazkaria. Jardunearan. Maila: A. Gradua: 6. Bosturtekoak: 6. Lanpostuko osagarria: %29,22.

### Lanaldi partzialeko lan-kontratudun finkoa

Sanz Loigorri, Oskar Juan. Zerbitzu anitzetako arduraduna. D mailaren pareko lansaria. Mailako osagarria, %12; lanpostuko osagarria, %8,79. Egoera administratiboa: jardunearan. Sarbidea: oposizio lehiaketa; Itzaltzuko Udalarekin partekatua. Lanaldi erdia, lan-kontratudun finkoa.

Aditzera ematen da, orok jakin dezan.

Espartza Zaraitzuko, 2010eko martxoaren 8an.—Alkate udalburua, Idoia Elarre Elizondo.

L1004506

## LIZARRA

### Aldaketa aurrekontuetan. Hasierako onespina

Lizarrako Udalak, 2010eko martxoaren 4an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2. aldaketa Udalaren 2010eko aurrekontu luzatua.

Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabost egun baliodunearan, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Lizarran, 2010eko martxoaren 10ean.—Alkatea, María Begoña Ganuza Bernaola.

L1004466

## EZKABARTE

### Alkateordearen izendapena

Alkatetzak martxoaren 4an emandako 31/2010 Ebazpenaren bidez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.2 artikuluan ematen dizkidan ahalmenak erabiliz eta 2568/1986 Errege Dekretuaren bitartez onetsitako Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 46. artikuluan xedatuari jarraikiz.

### EBATZI DUT:

1. Roberto Martínez Ibañez izendatzea Udal honetako bigarren alkateorde.

2. Izendapen horren berri ematea Osoko Bilkurari, egiten duen lehen saioan.

3. Zuzenean jakinaraz bekio, orobat, izendatuari, eta argitara bedi Nafarroako Aldizkari Ofizialean, nahiz eta indarra ebazpena sinatu eta biharamunearan hartuko duen.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Ezkabarten, 2010eko martxoaren 4an.—Alkatea, Carola Gutiérrez Collazos.

L1004471

## FALTZES

### Faltzesko herrilarreak aprobetxatzeko ordenantza aldaketa egiteko proiektua. Behin betiko onespina

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan zehaztutakoari jarraikiz, argitara ematen da Faltzesko herrilarreak aprobetxatzeko ordenantza egin den aldaketaren testu osoa, behin betikoz onetsi baita. 2009ko abenduaren 21eko osoko bilkuran onetsi zen hasiera batean, eta inork ez du erreklamaziorik batere aurkeztu jendaurrean egon den bitartean.

"7. artikulua.—Addenda:

Nafarroako Ubideetik ekarririk, ur bidezko sute-ahokak paratu dira lau eskorta hauekin: Valovero, Polainasko eskorta, 14-228B lurzatian; Arquillo, 14-238 lurzatian; Rebollos-Vergalada, 19-645 lurzatian, eta Ponfollas, 19-280AJ eta AK lurzatian. Hori dela-eta, belarren esleipen hartzaileri tarifa hau aplikatuko zaie:

—NAT sekzioko (nekazaritza eta abeltzaintzako aprobetxamendu txikiak) urteko kuota finkoak; horiek zerbitzuaren eta ustiapeneko zenbatekoaren kuotari dagozkio, Nafarroako Ubideko IV-3 sektoreko Ureztatzaileen



Elkarteak Udalarri igortzen baitio; belarren esleipen hartzaileari osorik kobratuko zaio, gehi bakoitzak egiten duen kontsumoaren itzulketak m<sup>3</sup>-tan neurtuta.

–(Soil-soilik jakite aldera, 2009ko gastu unitario finkoak 258,08 euro dira, eta kontsumoaren tarifa aldakorra, berriz, 0,0237 euro/m<sup>3</sup>). 2010erako eta ondokoetarako, urteko KPlaren arabera eguneratuko da).”

Faltzesen, 2010eko martxoaren 1ean.–Alkate udalburua, José Carlos García García.

L1004151

## GALAR

### Jarduerarako lizentzia. Eskatera

Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean xedatua bete dadin, aditzaera ematen da honako ezaugarri hauek dituen jarduerarako lizentzia eman dela:

Lizentzia eman zen eguna: 2010eko martxoaren 1a. Eskatzailea: Embalajes Pamplona, S.L. Jarduera: kogeneraziorako planta, 990 kw-eko gas bidezko motorra duena. Tokia: Comarca 2 industrialdea, F karrika, 16. Barbatain.

Getze Galarren, 2010eko martxoaren 1ean.–Alkatea, Ricardo Ariz Imízcoz.

L1004135

## GALOZE

### 2010eko plantilla organikoa. Behin betiko onespena

Galozeko Udalak, 2009ko abenduaren 29an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Galozeko Udalarren 2010eko plantilla organikoa.

Iragarkia 2010eko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, otsailaren 15ean, eta horren ondotik jendaurrean egon da, inork erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe; hortaz, behin betikoz onetsizat jotzen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 236 eta 271. artikuluekin bat. Hona hemen haren laburpena, argitaraturik:

#### LANPOSTUEN ZERRENDA

##### Funtzionarioak

Lanpostuaren izena: idazkaria, zerbitzuen batasunean, Espartza Zaraitzuko, Sartzeko, Gorzako eta Galozeko Udalekin batean. Buru den udala: Espartza Zaraitzuko Udala. Lanpostu kopurua: 1; maila: A. Lanpostuko osagarria: %29,22. Sarbidea: erregelamenduaren arabera.

##### Lanaldi partzialeko lan-kontratadun finkoa

Ur biltegi erregulatzailerak mantendu eta kudeatzeko enplegatua, lanaldi murriztuan, behin-behinekoa eta E mailakoa.

#### ENPLEGATUEN IZENEN ZERRENDA

##### Funtzionarioak

Valentín Alzueta Fernández. Idazkaria. Jardunean. Maila: A. Gradua: 6. Bosturtekoak: 6. Lanpostuko osagarria: %29,22.

##### Behin-behineko lan-kontratadunen zerrenda

Juana Moreno Domínguez, ur biltegi erregulatzailerak mantendu eta kudeatzeko enplegatua, lanaldi partzial eta murriztuan, behin-behinekoa.

Aditzaera ematen da, orok jakin dezan.

Galozen, 2010eko martxoaren 8an.–Alkate udalburua, Francisco Sarriés Martínez.

L1004508

## GARDE

### 2010eko aurrekontuak. Hasierako onespena

Gardeko Udalak, 2009ko abenduaren 19an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Udalarren 2010eko aurrekontua.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatuari jarraikiz, onetsitako aurrekontua idazkaritzan egon da ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarkia hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita,

bizilagunek edo interesdunek espedienteaz aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Garden, 2009ko abenduaren 19an.–Alkatea, Marcos Ureña Marco.

L1004432

## GORZA

### 2010eko plantilla organikoa. Behin betiko onespena

Gorzako Udalak, 2009ko abenduaren 4an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Gorzako Udalarren 2010eko plantilla organikoa.

Iragarkia 2010eko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, otsailaren 15ean, eta horren ondotik jendaurrean egon da, inork erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe; hortaz, behin betikoz onetsizat jotzen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 236 eta 271. artikuluekin bat. Hona hemen haren laburpena, argitaraturik:

#### FUNTZIONARIOEN ZERRENDA

Lanpostuaren izena: idazkaria, zerbitzuen batasunean, Espartza Zaraitzuko, Sartzeko, Gorzako eta Galozeko Udalekin batean. Buru den udala: Espartza Zaraitzuko Udala. Lanpostu kopurua: 1; maila: A. Lanpostuko osagarria: %29,22. Sarbidea: erregelamenduaren arabera.

#### ENPLEGATUEN IZENEN ZERRENDA

##### Funtzionarioak

Valentín Alzueta Fernández. Idazkaria. Jardunean. Maila: A. Gradua: 6. Bosturtekoak: 6. Lanpostuko osagarria: %29,22.

Aditzaera ematen da, orok jakin dezan.

Gorzan, 2010eko martxoaren 8an.–Alkate udalburua, Celestino Larrañabe Pascualena.

L1004507

## ITURMENDI

### Ordenantza, Herriko bideak eta mendiko pistak arautzen dituenak. Behin betiko onespena

Jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, Iturmendiko Udalak, 2010eko martxoaren 5ean egin osoko bilkuran, behin betiko onetsi zuen Iturmendiko herriko bideak eta mendiko pistak arautzen dituen ordenantza, 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz. Orobat xedatu zuen haren testu osoa argitaratzeko, behar diren ondorioak izan ditzen.

Ordenantza, Iturmendiko udal mugapeko herriko bideen eta mendiko pisten erabilera arautzen duena.

1. artikulua. Ordenantza honen xedea da Iturmendiko udal mugapeko herriko bideak eta mendiko pistak erabiltzeko arauak ezartzea.

2. artikulua. Bide eta pista horiek zaintzea Udalarri dagokionez, beharrezkoa da haien erabilera arautzea.

3. artikulua. Udalarri baimena eskatzen behartuta daude partikularrak, edozein izaera juridikoko sozietateak, eta baita elkarte eta entitate publiko zein pribatuak ere, ondoko artikuluetan ezarritako eran eta baldintzetan. Iturmendiko Udala da salbuesirik dagoen bakarra.

4. artikulua. Hauek egiteko Udalarren baimena behar da:

a) Zurgai diren oihaneko gaiak pista eta bide horietan barrena ateratzea, baldin eta ibilgailu motordunen bidez ateratzen badira. Berariaz salbuesi dira nekazarien produktuek eta etxerako egurra, 15 tona bitartekoak, horiek oso garrantzi txikikoak baitira.

b) Eraikuntzako materialak pista eta bide horietan barrena garraiatzea, baldin eta ibilgailu motordunen bidez egiten bada.

c) Makina astunak bide eta pista horietatik pasatzea, salbu eta Iturmendiko Udalak berak eskatuta erabiltzen badira.

Erabat debekatutako dago oihaneko gaiak eta eraikuntzako materialak arrastaka eramatea, dela ibilgailu motordunen bidez edo animaliak erabiliz, baldin eta gaiok behar bezala eta ibilgailu egokian kargaturik ez badaude. Debeku hau haustea zorrotz zehatuko da. Egindako kalte guztien ordaina eskatzeaz gain, garraiatutako oihaneko gaiak edo eraikuntzako materialek balio dutenaren halako bi ordainaraziko da, isun gisa.

5. artikulua. Baimena nahitaez eskatu behar duten subjektuak:

a) Zura denean, zurketariak edo oihan gaiak ateratzeaz arduratzen den enpresak. Halakorik ezean, zuraren jabea izanen da erantzulea.

b) Eraikuntzako materialen kasuan, obraren sustatzaileak.

c) Makina astunak direnean, makina horien zerbitzuak kontratatzen dituenak.

d) Garraio batek 7. artikuluan ezarritako pisu muga gainditzen bada (15 tona), zerbitzu hori eskatu edo kontratatu duen pertsonak edo, horrelakorik ez bada, gidariak.

6. artikulua. Aurreko puntuaren arabera baimena eskatu beharra daukanak, eskaera eginen du, behar bezala aurkeztutako eta erregistratutako eskabidearen bidez, gutxienez ere 7 egun natural lehenago, eta hartan honako hauek adierazi:

–Bertatik zenbat zur garraiatu nahi duten; mendia ustiatzeko baimen ofiziala ere aurkeztu beharko dute, kontratazioa dela-eta, zerga ordaintzeko.

–Eraikuntzako materialen kantitatea.

–Makina astunen tonajea.

–Garraio mota eta pisua, 15 tonako muga gaindituz gero.

–Zer egunetan egin behar den.

Edonola ere, aurreko kasu guztietan garraio eginen da, nahitaez, eskatzaileari baimen idatzia jakinarazi ondoren.

7. artikulua. Guztiz debekaturik dago 15 tona baino gehiagoko garraiorik egitea. Arau horren salbuespena da aurreko puntuen arabera dagokion baimena tramitatu eta lortzea.

8. artikulua. Herriko pista eta bideetan, abiadura gehienez ere 40 km/ordua izanen da.

9. artikulua. Euri edo elur egunetan espresuki debekaturik dago zuraren edo eraikuntzako materialen garraioa edo makina astunen pasatzea, Udalak espresuki baimena eman ezean.

10. artikulua. Bide horiek erabiltzen dituztenek beraien jarduerarekin eragiten dituzten kalteak konpondu beharko dituzte. Hartara, jarduera hasi baino lehen, behar den fidantza utzi beharko dute Iturmendiko Udaletxean, fidantza hori emateko espresuki eskatu bada. Kasu bakoitzean Udalak kalkulatu du fidantza, bideetan ustez sor dezakeen arriskuaren arabera.

11. artikulua. Kasu bakoitzean, eta jarduera, urte sasoia, ibilgailu mota eta horrelatsukoen arabera, Udalak egoki iruditzen zaizkion mugak eta fidantzak ezarriko ditu, ordenantza honetan biltzen direnen osagarri.

12. artikulua. Ordenantza honetako bide eta pistetan sartzeko finka pasabideak eraikitzerakoan, baldintza hauek bete beharko dira:

–Jabeak alde zurratik baimena eskatuko du, bai eta,aldi berean, ezaugarri teknikoak buruzko krokisa aurkeztu ere.

–Pasabide guztiek hodi bat izan beharko dute, gutxienez 40 cm-ko diametroa eta gutxienez 6 metroko luzera dituenak.

–Finkako pasabidearen zorua horretarako egokia dena izanen da.

–Jabeak edo, bestela, errentariak pagatuko ditu beti eraikitzeko eta zaintzeko gastuak; hala ere, horrek ez du inolako eskubiderik sorraraziko.

13. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak.

Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzea arau-haustea izanen da. Arau-haustea ekarriko dute, orobat, baimena ez eskatzeak eta, fidantza eskatu bada, hura behar den denboran eta moduan ez emateak; baita ordenantza honetako beste arauen bat ez betetzeak ere.

Ordenantza honetako edozein arau ez betetzeak 300 euroko isuna izanen du zehapen. Berriz eroriz gero, halako bi eginen du isunak.

14. artikulua. Kalte-ordainak.

Bideetan eragindako kalteak konponduko dira ordenantza honetan ezarritako jarduketak egin dituenaren kargura. Kalteen balorazioa administrazio bidez eginen da.

15. artikulua. Isunak ez badira borondatez ordaintzen, premiamendu bidez ordainaraziko dira.

Iturmendin, 2010eko martxoaren 8an.–Alkatea, Nicolás Arbizu Gabirondo.

L1004307

## LAKUNTZA

### 2010eko plantilla organikoaren hasierako onespina

Lakuntzako Udalak, 2010ko martxoaren 4ko osoko bilkuran, 2010. urteko plantilla organikoa onetsi zuen hasiera batez.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, onetsitako plantilla organikoa idazkaritzan egonen da ikusgai, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Lakuntza, 2010eko martxoaren 11n.–Alkate udalburua, Jose Ramon Garin Lizarraga.

L1004544

## LAKUNTZA

### 2010eko aurrekontuen hasierako onespina

Lakuntzako Udalak, 2010ko martxoaren 4ko osoko bilkuran, 2010. urteko aurrekontua onetsi zuen hasiera batez.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, onetsitako aurrekontua idazkaritzan egonen da ikusgai, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Lakuntzan, 2010eko martxoaren 11n.–Alkatea, Jose Ramon Garin Lizarraga.

L1004547

## LAKUNTZA

### 2009ko ekitaldiko kontuen onespina

Lakuntzako Udalak, 2010eko martxoaren 4an egindako bilera, 2009ko kontuen espedienteari adostasun txostena ematea erabaki zuen.

Espedientea jendaurrean hamabost egunez egonen da, interesdunek aztertu eta erreklamazioak egin ditzaten, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 305. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Lakuntzan, 2010eko martxoaren 11n.–Alkatea udalburua, Jose Ramon Garin Lizarraga.

L1004549

## LAKUNTZA

### Aldaketa xehakatuaren hasierako onespina

Lakuntzako Udalak, 2010eko martxoaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea Lakuntzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Eraikuntzari buruzko Ordenantza Orokorreko aldaketa puntuala, Jon Sagarzazu Andueza jaunak sustatua.

Espedientea udal bulegoetan egonen da jendaurrean hilabetez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, interesdunek egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten udal bulegoetan, bertan izanen baitute eskura; hori guztia Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. artikulua xedatzen duena aplikatuz.

Lakuntzan, 2010eko martxoaren 11n.–Alkatea, José Ramón Garin Lizarraga.

L1004663

## LAKUNTZA

### Aldaketa xehakatuaren hasierako onespina

Lakuntzako Udalak, 2010eko martxoaren 4an egindako bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea Lakuntzako Planeamenduko Arau Subsidiarioetako aldaketa puntuala, 2. poligonoko 370, 371 eta 372. partzeleko eremuan, Lakuntzako Udalak sustatua.

Espedientea udal bulegoetan egonen da jendaurrean hilabetez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, interesdunek egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten udal bulegoetan, bertan izanen baitute eskura; hori guztia Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. artikulua xedatzen duena aplikatuz.

Lakuntzan, 2010eko martxoaren 11n.–Alkatea, José Ramón Garin Lizarraga.

L1004673

## LAKUNTZA

### Xehetasun azterlanaren hasierako onespina

Lakuntzako Udalak, 2010eko martxoaren 4ko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Lakuntzako 2. poligonoko 370, 371 eta 372. partzeleko xehetasun azterlana, Lakuntzako Udalak sustatua.

Espedientea udal bulegoetan egonen da jendaurrean, hogei egunez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, interesdunek egokiak iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten udal bulegoetan, bertan izanen baitute eskura; hori guztia Lurraldearen Antola-

menuari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikulua xedatzen duena aplikatuz.

Lakuntzan, 2010eko martxoaren 11n.—Alkatea, Jose Ramon Garin Lizarraga.

L1004674

## LAKUNTZA

### Kudeaketako hirigintzako hitzarmena hasiera batez onetsita

Lakuntzako Udalak, 2010eko martxoaren 4an egindako osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Lakuntzako Udalaren eta Lamapor, S.A.ren arteko kudeaketako hirigintzako hitzarmena.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 25.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz, espedientea jendaurrean egonen da hogeigunegun, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitezzen.

Lakuntzan, 2010eko martxoaren 11n.—Alkate udalburua, Jose Ramon Garin Lizarraga.

L1004676

## LAKUNTZA

### 2010eko ekitaldiko karga-tasak

Lakuntzako Udalak ondotik ematen den erabakia hartu zuen, 2010eko martxoaren 4an egin osoko bilkuran eta legeak eskatzen duen quoruma zuela. Hona hemen haren testu osoa:

—Ura:

a) Etxeko kontsumoa: 60 m<sup>3</sup> bitarte: 0,31 euro/m<sup>3</sup>; 61 m<sup>3</sup>-tik goiti: 0,55 euro/m<sup>3</sup>.

b) Industriako kontsumoa: 450 m<sup>3</sup> bitarte: 0,48 euro/m<sup>3</sup>; 451 m<sup>3</sup>-tik goiti: 0,71 euro/m<sup>3</sup>.

Lakuntzan, 2010eko martxoaren 11n.—Alkatea, Jose Ramon Garin Lizarraga.

L1004677

## LEITZA

### Xehetasun azterlana hasiera batez onetsia

Leitzako alkateak martxoaren 11ko 2010/59 Ebazpenaren bitartez hasiera batez onetsi zuen 2. poligonoko 38., 39. eta 54. lurzatiei dagokien xehetasun azterlana, bertan bi bizitzako etxea egiteko, Javier Flores eta Lander Aranburu arkitektoek egindako dokumentuaren arabera.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraituz, espedientea jendaurrean egonen da hogeigunegun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitezzen. Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkezten, dokumentua behin betiko onetsiko da, bidezko bada hori egitea.

Leitzan, 2010eko martxoaren 11n.—Alkatea, Javier Zabalo Betelu.

L1004651

## LODOSA

### 2009tik luzatutako 2010eko aurrekontuko 1. aldaketa. Hasierako onespena

Udalak, 2010eko martxoaren 4an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi du kredituak aldatzen dituen espediente hori.

Espedientea jendaurrean egonen da idazkaritzan, hogeigunegun baliodunean, bizilagun edo interesdunek aztertu eta bidezkoak iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

Lodosan, 2010eko martxoaren 5ean.—Alkatea, Jesús María García Antón.

L1004159

## MENDABIA

### 2010eko ekitaldiko aurrekontu arrunta. Hasierako onespena

Udalak, 2010eko martxoaren 11n egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2010eko ekitaldiko aurrekontu orokor eta bakarra.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatuari jarraikiz, onetsitako aurrekontua idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Mendabian, 2010eko martxoaren 12an.—Alkatea, Miguel Angel De Carlos.

L1004600

## MENDABIA

### 2010eko plantilla organikoa. Hasierako onespena

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan 236.1 artikuluari buruz xedatua bete beharrez, Udalak, 2010eko martxoaren 11n egin osoko bilkuran, honako hau erabaki zuen:

1. Hasiera batean onestea Udalaren 2010eko plantilla organikoa.
2. Onetsitako plantilla jendaurrean jartzea; idazkaritzan egonen da hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina, bizilagunek edo interesdunek espedientea aztertu eta bidezkoak iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.
3. Erabaki horiek behin betikotzat joko dira erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Mendabian, 2010eko martxoaren 12an.—Alkatea, Miguel Angel de Carlos.

L1004601

## MURILLO EL CUENDE

### 2010eko aurrekontua. Onespena

Murillo el Cuendeko Kontzejuko Batzarrek, 2009ko abenduaren 21ean egin bilkuran, hasiera batean onetsi zituen 2010eko ekitaldiko aurrekontuen espedientea eta hura betearazteko oinarriak. Hasierako onspena 2010eko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenez gero, otsailaren 22an, inork alegaziorik aurkeztu gabe, aurrekontua behin betiko onetsirik gelditu da.

Hona hemen aurrekontuaren laburpena, kapituluz kapitulu:

GASTUAK:

1. kapitulua: 600,00 euro.
2. kapitulua: 19.180,00 euro.
4. kapitulua: 60,00 euro.
6. kapitulua: 200.000,00 euro.
- Gastuak, guztira: 219.840,00 euro.

DIRU-SARRERAK:

3. kapitulua: 1.270,00 euro.
4. kapitulua: 24.900,00 euro.
5. kapitulua: 3.182,00 euro.
7. kapitulua: 140.000,00 euro.
9. kapitulua: 50.488,00 euro.
- Diru-sarrerak, guztira: 219.840,00 euro.

Murillo El Cuenden, 2010eko martxoaren 10ean.—Kontzejuburua, José Ramón Amadoz Sola.

L1004510

## NOAIN (ELORTZIBAR)

### Aldaketa xehakatu puntuala, Noaingo Talluntxe I industrialdean, 2. poligonoko 662, 663 eta 665. lurzatiei dagokienez Noain Elortzibarko Udal Planean. Hasierako onespena

Noain Elortzibarko Udalak, 2010eko martxoaren 3an egin bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea aldaketa xehakatu puntuala Noaingo Talluntxe I industrialdean, 2. poligonoko 662, 663 eta 665. lurzatiei dagokienez Belén, Francisco eta José Javier Osácar Iruritik Noain Elortzibarko Udal Planean sustaturik. Txosten teknikoan eta txosten juridikoan egin diren zehaztepenek jarraitu beharko diete. Herritar mugakideei jakinarazi beharko zaie. Iragakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Udalaren iragarki ohelean eta Nafarroako egunkarietan paratuko, hilabetez,

aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitezzen; hori dena Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 49. eta 74. artikuluei jarraikiz.

Noain Elortzibarren, 2010eko martxoaren 4an.—Alkate udalburua, Miguel Elizari Reta.

L1004129

### NOAIN (ELORTZIBAR)

**Noaingo 1. eremuko U.E. 1.1 exekuzio unitateko 2. poligonoko 1436 eta 1411. lurzatiei xehetasun azterlana, Noain Elortzibarko Udal Planean sustaturik. Behin betiko onespina**

Noain Elortzibarko Udalak, 2010eko martxoaren 3an egin bilkuran, behin betikoz onetsi zuen Noaingo 1. eremuko U.E. 1.1 exekuzio unitateko 2. poligonoko 1436 eta 1411. lurzatiei xehetasun azterlana, Eduardo Ojer Morenok eta María José Llamas Montoyak Noain Elortzibarko Udal Planean sustaturik. Onespina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu Departamentura igorriko da.

Noain Elortzibarren, 2010eko martxoaren 4an.—Alkate udalburua, Miguel Elizari Reta.

L1004131

### NOAIN (ELORTZIBAR)

**Aldaketa xehakatu puntuala Talluntxe I industrialdean, 2. poligonoko 662, 663 eta 665. lurzatiei dagokienez. Hasierako onespina**

Noain Elortzibarko Udalak, 2010eko martxoaren 3an egin bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea aldaketa xehakatu puntuala Noaingo Talluntxe I industrialdean, 2. poligonoko 662, 663 eta 665. lurzatiei dagokienez Belén, Francisco eta José Javier Osácar Iruritik Noain Elortzibarko Udal Planean sustaturik. Txosten teknikoan eta txosten juridikoan egin diren zehaztepenei jarraitu beharko diete. Herritar mugakideei jakinarazi beharko zaie. Iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta Udalaren iragarki oholean eta Nafarroako egunkarietan paratuko, hilabetez, aztertu eta bidezko alegazioak aurkez daitezzen; hori dena Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 49. eta 74. artikuluei jarraikiz.

Noain Elortzibarren, 2010eko martxoaren 4an.—Alkate udalburua, Miguel Elizari Reta.

L1004136

### NOAIN (ELORTZIBAR)

**Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2010eko udal zerga (Zirkulazioaren gaineko zerga)**

Honen bitartez Noain Elortzibarko herritarrei aditzera ematen zaie Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2010eko udal zerga (lehen Zirkulazioaren gaineko zerga) borondatez ordaintzeko epea 2010eko apirilaren 7an hasiko dela eta maiatzaren 7an bukatuko.

Epe hori bukatuta, hilabetez, aipatu zerga %5eko erreklamairekin kobratuko da. Epe hori iragandakoan, Diru-bilketa Agentziara igorriko dira hark premiamendu bidez kobra ditzan, aldez aurretik jakinarazi gabe.

Aditzera ematen da, orok jakin dezan.

Noain Elortzibarren, 2010eko martxoaren 16an.—Alkate udalburua, Miguel Elizari Reta.

L1004878

### OTSAGABIA

**Aldaketa ordenantzetan**

Otsagabiko Udalak, 2009ko azaroaren 26an egin bilkuran, erabaki zuen aldaketa hasiera batean onestea 6. ordenantza fiskalean, Ur horniduraren tasa arautzen baitu, baita 7. ordenantza fiskalean ere, Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupearen okupazioa arautzen baitu.

Behar den iragarkia 2010eko 4. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 8an, eta jendaurreko epea inork erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe iraganik, behin betikoz onetsitaz jo dira delako aldaketak, eta argitara ematen da haien edukia; hori guztia, Nafarroako

Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen 262.2 artikuluan xedatuari jarraikiz.

### ALDAKETAK ORDENANTZETAN

**6. ordenantza fiskala: Ur hornidura arautzen duena**

5. artikulua. Zerbitzuaren tarifak honako kontzeptuengatik izanen dira:

a) Hornidura zerbitzua eskura izateagatik eta mantentze lanengatik: bederatzi euro (9,00 euro).

b) Etxeko erabilerarako horniduragatik, kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko: berrogeita zazpi zentimo (0,47 euro).

c) Industriako erabilerarako horniduragatik, kontsumitutako metro kubiko bakoitzeko: berrogeita zazpi zentimo (0,47 euro).

**7. ordenantza fiskala: Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupearen okupazioa arautzen duena**

Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupearen okupazioa arautzen duen ordenantzako zenbatekoen eranskina.

I. epigrafea. Zoruko aprobetxamendu bereziak.

I.1. Mahaiak, aulkiak, terrazak: 40,00 euro/denboraldia.

I.2. Merkatu eta azoka txikiak:

–Salgunea paratuta: 10,00 euro egunean.

–Salgunea paratu gabe: euro 1,00 egunean.

I.3. Bertzelako aprobetxamenduak:

–Feriako barrakak: 20,00 euro egunean.

II. epigrafea. Lurzoruaren eta hegalkinaren aprobetxamendu bereziak.

–Elektrikoak: Enpresek udal mugapean fakturatzen dituzten diru-sarreraren gordinen %1,5.

–Compañía Telefónica; fakturazioaren %1,9, Compañía Telefónica, S.A.ko Unipersonal motako araubidean xedatuari jarraikiz.

Aditzera ematen da, orok jakin dezan.

Otsagabian, 2010eko martxoaren 3an.—Alkate udalburua, Juan Manuel Tohane Contín.

L1004249

### ERRIBERRI

**Xehetasun azterlana, La Nava industrialdeko E-22, E-23, E-24 eta E-25 lurzatiei dagokiena. Hasierako onespina**

Honako honen bidez aditzera ematen da ezen Erriberriko Alkatetzaren martxoaren 2ko 78/2010 Ebazpenaren bidez onetsi dela La Nava industrialdeko E-22, E-23, E-24 eta E-25 lurzatiei dagokienez xehetasun azterlana. Xedea da lurzati horien eraikigarritasuna berrantolatzea, handitu gabe.

Argitara ematen da, orok jakin dezan eta interesdun orok espediente azter dezan eta bidezko iruditzen zaizkion alegazioak aurkez ditzan, horretarako hogeita hamar eguneko epea baita, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Erriberri, 2010eko martxoaren 2an.—Alkatea, María Carmen Ochoa.

L1004205

### OLLARAN

**Jarduera sailkatua**

Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legean xedatua betetzeko, aditzera ematen da Udala honetako bulegoetan jendaurrean egonen dela hamabortz egun baldiodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, ondotik zehazten den espediente, jarduerak ukituta gertatzen direnek epe horretan bidezko alegazioak egin ditzaten.

Eskatzailea: Beasoain-Egillorko Kontzejua. Jarduera: Kontzeju Etxea. Tokia: Kontzeju Etxea, San Miguel karrikako 42an dagoena (1. poligonoko 83. lurzatiea), Beasoain-Egillorren.

Ollon, 2010eko martxoaren 4an.—Alkatea, Francisco Javier Ecay Ilzarbe.

L1004122



**SARTZE****2010eko plantilla organikoa. Behin betiko onespenera**

Sartzeko Udalak, 2009ko abenduaren 17an egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Sartzeko Udalaren hurrengo ekitaldirako plantilla organikoa, 2010ekoa, alegia.

Iragarkia 2010eko 21. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, otsailaren 15ean, eta horren ondotik jendaurrean egon da, inork erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu gabe; hortaz, behin betikoz onetsitaz jotzen da, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 236 eta 271. artikuluekin bat. Hona hemen haren laburpena, argitaraturik:

**LANPOSTUEN ZERRENDA***Funtzionarioak*

Lanpostuaren izena: idazkaria, zerbitzuen batasunean, Espartza Zaraitzuko, Sartzeko, Gorzakoko eta Galozeko Udalekin batean. Buru den udala: Espartza Zaraitzuko Udala. Lanpostu kopurua: 1; maila: A. Lanpostuko osagarria: %29,22. Sarbidea: erregelamendua araberakoa.

**ENPLEGATUEN IZENEN ZERRENDA***Funtzionarioak*

Valentín Alzueta Fernández. Idazkaria. Jardunean. Maila: A. Gradua: 6. Bosturtekoak: 6. Lanpostuko osagarria: %29,22.

Aditza ematen da, orok jakin dezan.

Sartzen, 2010eko martxoaren 8an.–Alkate udalburua, Juana María Indurain Sarriés.

L1004509

**TIRAPU****1/2010 aldaketa aurrekontuan**

Tirapuko Udalak, 2010eko martxoaren 10eko osoko bilkuran erabakita, hasiera batean onetsi du aurrekontuko 1/2010 aldaketa, diru-sarreraren bidezko kredituei buruzkoa, hain zuzen ere inbertsio gastuen kontu-sailean eragiten duena, Tokiko Enplegu eta Iraunkortasunerako Estatu Funtsean sartzen baita.

Aditza ematen da, interesdunek, 15 eguneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, espediente aztertu eta bidezko alegazioak aurkez ditzaten. Inork alegaziorik aurkezten ez badu, hasierako onespenera behin betikoa bilakatuko da.

Tirapun, 2010eko martxoaren 11n.–Alkatea, Joaquín San Martín Ayerra.

L1004557

**TORRES DEL RÍO****Ordenantza, Ezkondu gabeko bikote egonkorren Torres del Rioko Udalaren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen. Behin betiko onespenera**

Udalak, 2009ko abenduaren 17an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Ezkondu gabeko bikote egonkorren Torres del Rioko Udalaren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantza, baita hura argitaratu ere 2010eko 8. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 18an, gisa hartara jendaurreko epea irekirik, hogeita hamar egun baliadunetan interesdunek espediente azter zezaten eta erreklamazioak, kexak edo oharrik aurkez zituzten.

Jendaurreko epe horretan ez da inolako erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu, eta hortaz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 325. 1 artikuluari jarraikiz, urriaren 29ko 11/2004 Foru Legeak emaniko idazketaren arabera, hasierako onespenera behin betikoa bilakatuko da.

**ORDENANTZA, EZKONDU GABEKO BIKOTE EGONKORREN TORRES DEL RÍOKO UDAL ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUENA**

1. artikulua. Ezkondu gabeko bikote egonkorren Torres del Rioko Udalaren erregistroak administrazio izaera du eta bertan ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzeak, heterosexual nahiz homosexualen artekoak, baita haien iraungitzea ere, inskribatzen ahal dira ordenantza honetan ezartzen den eran eta baldintzetan.

2. artikulua. Bikoteek, sexua kontuan izan gabe, erregistroan inskribatzeko eska dezakete, baldin eta haien adostasun libre eta osoarekin aurreko artikuluan azaldutako elkartzeren bat osatzen badute.

Gutxienez, elkartutako kide batek egon beharko du Torres del Rion erroldatua, bertan bizi ohi delako.

Halaber, bi kideek zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ez daukela ezkonduak ezta inskribatuak ere ezkondu gabeko bikoteen bertze erregistro batean.

3. artikulua. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioa egiteko, bi lagunek batera agertu beharko dute Udaleko idazkariaren aitzinerat, haien artean ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzen dutela deklaratzeko.

Ez da inskripziorik egiten bikoteko bat burujabe jarri gabeko adingabea bada, edo lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaide badira, nahiz alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunezko ahaide badira.

Bikoteko batek akats edo anomalia psikikorik badu, orduan ere ez da inskripziorik egiten. Halakoetan, medikuaren irizpena beharko du, ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzeko gaitasuna aitortzen diona.

Era berean, inskripzioa ukatuko da bikoteko bat ezkondua baldin bada edo ezkontzeko gaitasun gabea deklaratu bada.

Ezin izanen da aldi baterako bikote egonkor osatzeko itunik egin, ezta baldintzapetu ere.

4. artikulua. Lehenbiziko idazpena egitean, bikoteko kideek nahi dituzten argitasun guztiak agertarazten ahalko dituzte beren elkartzeari buruz. Orobat, hitzez hitz idazten ahalko dira elkartutako kideen giza eta ondare harremanak arautzen dituzten hitzarmenak.

Aurreko leerroaldean aipatutako edukiak geroago ere inskribatzen ahalko dira, bikoteko bi kideak agertuta.

Nolanahi ere, elkartzea bukatu edo iraungitzeko oharpenak egiteko aski izanen da kide bakar batek hala eskatzea.

5. artikulua. Erregistroaren lekua Udalaren idazkaritza izanen da.

6. artikulua. Aurreko artikuluetan aipatzen diren inskripzioak erregistroko Liburu Orokorra erabiliko da, eta liburu hori orri zenbatu eta zigilatuz osaturik egonen da. Irekitzeko eta itexteko eginbideak paratuko dira liburuaren hasieran eta bukaeran.

7. artikulua. Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioa izanen da bere oinarriko inskripzioa, eta haren bazterrean jarriko dira geroago Liburu Orokorrean elkartze horri buruz egiten diren gainerako idazpen guztiak.

8. artikulua. Erregistroan inskribatutako en intimitatea, norbanakoarena nahiz familiara, babesteko ez zaio publikizterik emanen idazpenen edukiri, salbu eta erregistroaren arduraren funtzionarioak ematen dituen egiaztagiriak, bikoteko edozein kidek, epaileek edo auzitegiek hala eskatu ondotik.

9. artikulua. Egiten diren inskripzioak guztiz doakoak izanen dira.

10. artikulua. Bikote egonkorren udal erregistroan inskribatzen diren ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartze guztiek ezkontza bidezko elkartzeen tratamendu bera izanen dute Torres del Rioko Udalean.

Xedapen gehigarri bakarra.

Ordenantza hau berrikusiko da, legeetan aldaketarik bada gai honen inguruan.

**I. ERANSKINA***Bikote egonkorra inskribatzeko eskabidea*

Torres del Rioko Herriko Etxean, halako egunean ....., honako hauek agertu gara:

Izena: ....., jaioterra: ....., jaioteguna: ....., egoera zibila: ....., helbidea (erroldakoa): ....., adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitugu); NAN zenbakia: .....

Izena: ....., jaioterra: ....., jaioteguna: ....., egoera zibila: ....., helbidea (erroldakoa): ....., adinez nagusia (edo adingabe burujabea, horren agiria aurkezten baitugu); NAN zenbakia: .....

Eta adierazten dugu:

“Ezkondu gabeko bikote egonkorren” Udala honetako erregistroan inskribatu gaitzela nahi dugula, Ezkontzaz Kanpoko Elkartze Zibilek Udala Erregistroaren Antolaketa eta Funtzionamendua Arauei jarraikiz, eta horretarako,

Zin egiten dugu:

Lehena: aipatu ordenantzan aurreikusitako bizikidetasuna dela eta, gure helbidea honako hau izanen dela: ..... (oroitarazi behar zaio ..... jaun/andreari, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen 15. artikuluari jarraikiz, erroldatu beharra duela ohiko bizilekuko udalerrian).

Bigarrena: ez gaudela gu biok ezkontzaren bidez lotuak, ez eta gutako inor bertze inorekin ere.

Hirugarrena: gure artean ez dagoela lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaidetasunik, ez eta alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunezko ahaidetasunik ere.

Laugarrena: gutako inork ez duela akats edo anomalia psikikorik eta ez dela ezkontzeko gaitasun gabea deklaratu izan.

Borzgarrena: nahi dugula/ez dugula nahi (kendu behar ez dena) gure arteko giza nahiz ondare harremanen gaineko hitzarmenak erregistroan inskribatzea.

Hala bada, honako honekin batera aurkezten dugu jasota gelditzea nahi dugun testu osoa, biek sinaturik.

Seigarrena: baimena ematen dugula Torres del Rioko Udal Erroldan datu hauek egiaztatzeko, honi dagokionez.

Eta zin egiten dugu gutako inor ez dagoela inskribatua ez Torres del Rioko erregistroan, ez maila eta xede bereko inongo herritako erregistroan ere.

Horiek horrela,

Torres del Rioko Udaleko Ezkondu gabeko bikote egonkorren erregistroan inskriba gaitzela eskatzen dugu.

Torres del Rion, .....(e)ko ..... aren .....(e)an.

Sinadura: ..... Sinadura: .....

## II. ERANSKINA

### *Bikote egonkorren inskripzioetik kentzeko eskabidea*

Torres del Rioko Herriko Etxean, halako egunean ..... agertu gara:

Izena: ....., adinez nagusia, NAN zk.: ....., jaioterria: ....., bizitokia: ....., eta,

Izena: ....., adinez nagusia, NAN zk.: ....., jaioterria: ....., bizitokia: .....

Eta Ezkondu gabeko bikote egonkorren Udalaren erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ordenantzan zehaztutakoarekin bat, adierazten dugu asmoa dugula gure arteko bikote egonkorra bukatutzat edo iraungitatzat jotzeko, izan ere horrelaxe inskribatua dago aipatu Udalaren erregistroan.

Horiek horrela,

Honako hauek ..... eskatzen dugu Ezkondu gabeko bikote egonkorren erregistroan gure arteko bikotea kentzeko inskripzioa egin dadila, elkartzearen inskripzioa bukatutzat edo iraungitatzat emanez.

Torres del Rion, .....(e)ko ..... aren .....(e)an.

Sinadura: ..... Sinadura: .....

Torres del Rion, 2010eko martxoaren 4an.–Alkatea, Juan Luis Pérez Leuza.

L1004138

## TRAIBUENAS

### **2010eko aurrekontua. Behin betiko onespena**

Traibuenasko Kontzejuko Batzarrak, 2010eko urtarrilaren 15ean egin bilkura arruntean, hasiera batean onetsi zituen 2010eko ekitaldiko aurrekontuen espediente eta hura betearazteko oinarriak. Hasierako onspena 2010eko 17. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenez gero, otsailaren 8an, inork alegaziorik aurkeztu gabe, aurrekontua behin betiko onetsirik gelditu da.

Hona hemen aurrekontuaren laburpena, kapituluz kapitulu:

GASTUAK:

1. kapitulua: 970,00 euro.

2. kapitulua: 22.160,00 euro.

4. kapitulua: 660,00 euro.

6. kapitulua: 37.980,00 euro.

Gastuak, guztira: 61.770,00 euro.

DIRU-SARRERAK:

3. kapitulua: 2.350,00 euro.

4. kapitulua: 24.450,00 euro.

5. kapitulua: 450,00 euro.

7. kapitulua: 18.588,00 euro.

9. kapitulua: 15.932,00 euro.

Diru-sarrerak, guztira: 61.770,00 euro.

Traibuenasen, 2010eko martxoaren 10ean.–Kontzejuburua, Jesús María Labiano Esparza.

L1004534

## TULEBRAS

### **2010eko aurrekontua. Hasierako onspena**

Tulebrasko Udalak, 2010eko martxoaren 11n egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Udalaren 2010eko aurrekontua.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatuari jarraikiz, onetsitako aurrekontua Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek espediente aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Tulebrasen, 2010eko martxoaren 12an.–Alkatea, Rafael Ayensa Pascual.

L1004597

## TULEBRAS

### **2010eko plantilla organikoa. Hasierako onspena**

Tulebrasko Udalak, 2010eko martxoaren 11n egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen 2010eko plantilla organikoa.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikulua 236.ari buruz xedatuari jarraikiz, onetsitako plantilla Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek espediente aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Tulebrasen, 2010eko martxoaren 12an.–Alkatea, Rafael Ayensa Pascual.

L1004599

## UHARTE ARAKIL

### **2010eko plantilla organikoa. Behin betiko onspena**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iragan denez, behin betiko onetsi da 2009ko plantilla organikoa, eranskinean zehazten dena. Hasierako onspenaren erabakia 2010eko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, urtarrilaren 22an.

Uharte Arakilen, 2010eko martxoaren 4an.–Batasuneko burua, Joaquín María Huarte Lacunza.

## ERANSKINA 2010EKO PLANTILLA ORGANIKOA

### *Funtzionarioak*

Karguaren izena: idazkaria. A maila. Sarbidea: O.L. Lanpostuko osagarria: %30. Bateriaezintasuneko: %35 Jardunean.

### *Lan-kontratudun finkoak*

Administrari-ofiziala. C maila. Sarbidea: O.L. Lanpostuko osagarria: %35. Udalen Batasuneko osagarria: %15. Lanaldiaren luzapeneko: %5. Jardunean.

### *Langileen izenen zerrenda*

Mariano Andueza Beramendi. Idazkaria.

Aintzane García Andueza. Administrari-ofiziala.

L1004126

**UHARTE ARAKIL****2010eko plantilla organikoa. Behin betiko onespenera**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onetsi da 2009ko plantilla organikoa, eranskinean heldu dena. Hasierako onespeneraren erabakia 2010eko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitaratu, urtarrilaren 22an.

Uharte Arakilen, 2010eko martxoaren 4an.–Alkatea udalburua, Joaquín María Huarte Lacunza.

**ERANSKINA***Lan-kontratadun finkoak*

Albente-zerbitzu anitzetako udal enplegatua. D maila. Sarbidea: O.L. Lanpostuko osagarria: %12. Lanaldiaren luzapeneko osagarria: %10. Bi lanpostu.

Garbiketako enplegatua: D maila. Sarbidea: O.L. Lanpostuko osagarria: %10.

*Langileen zerrenda*

Zerbitzu anitzetako udal enplegatua: Juan Pablo Santano Zabala eta Miguel María Astiz Marín.

Garbiketako langilea: Yolanda Víguera Ijurko.

L1004127

**VALTIERRA****Aldaketak aurrekontuan. Hasierako onespenera**

Valtierrako Udalak, 2010eko martxoaren 8an egindako osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zituen 2009ko ekitaldiko aurrekontuko aldaketak.

Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun balioudunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagunek edo interesdunek aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten; hori guztia, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraituz.

Valt ierran, 2010eko martxoaren 9an.–Alkatea, Alfonso Mateo Miranda.

L1004405

**VILLAMAYOR DE MONJARDÍN****2010eko karga-tasak**

Villamayor de Monjardingo Udalak, 2009ko urriaren 15ean egin osoko bilkuran eta legeak eskatutako gehiengoan izanik, tasa, indize eta karga hauek onetsi zituen 2010erako:

–Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,80.

–Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,3815.

–Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: %3,5, obra gauzatzeko aurrekontuaren gainean.

–Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga: 1,1 indizea.

–Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga: gutxienezko portzentajeak aplikatu; hain zuzen ere Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 175 eta 176. artikuluetan ezartzen direnak.

Villamayor de Monjardinen, 2010eko azaroaren 24an.–Alkatea, Eugenio Fernando Barbarin Luquin.

L1004453

**ESA****2010eko ordenantza fiskalak. Behin betiko onespenera**

2010eko 9. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 20an, ordenantza fiskalen 2010eko aldaketaren hasierako onespeneraren iragarria, eta jendaurrean egon bitartean inork ez du alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, argitara ematen da Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu berezien tasak arautzen dituen ordenantza fiskala, aldatu den zatian.

A eranskinean tarifa berria onetsi da bestetako barraka eta postuetarako: 200 euro.

Esan, 2010eko otsailaren 10ean.–Alkatea, José Antonio Aquerreta Martínez de Lagos.

L1003777

**ZIZUR NAGUSIA****Kultur Patronatuko fitxategien arauketa**

Zizur Nagusiko Udaleko alkate udalburuak, 2010eko martxoaren 3ko 132/2010 Dekretuaren bitartez,

**EBATZI DU:**

Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuko datu pertsonalen fitxategien arauketa.

Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuan badaude zenbait fitxategi, datu pertsonalak dituztenak, eta datutegi horiek arautu eta erregistratu behar dira, 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoarekin eta hura garatzen duten arauekin bat.

Espainiako Konstituzioaren 140. artikulua Toki Administrazioari aintzatesten dion autonomiaren eta bere burua antolatze gaitasunaren eremuan, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan Udai Gobernua eta Administrazioa zuzentzeko eman zaizkidan eskudantziak erabiliz.

**EBATZI DUT:**

1. Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuaren eskuetan izanik, datu pertsonalak bildu eta prozesatzen dituzten fitxategiak indarrean jartzea. Dekretu honekin, honako hauek jarri dira indarrean:

Fitxategiaren izena:

–Kudeaketa ekonomiko eta kontabilitatekoaren fitxategia.

–Kultur jardueren kudeaketa eta informazioaren fitxategia.

–Kanpalekuen fitxategia.

–Aretoak erabiltzeko fitxategia.

–Diru-laguntzen fitxategia.

<b>KUDEAKETA EKONOMIKO ETA KONTABILITATEKOAREN FITXATEGIA</b>			
Deskripzioa	Eskuzko fitxategi egituratu eta automatizatu, kudeaketa ekonomikorako, aurrekontuetarako eta hornitzaileekiko harremanetarako		
Tratamendu sistema	Eskuzko fitxategi egituratu eta automatizatu	Mailakoa	Oinarritzkoa
Xedeak eta erabilerak	Patronatuaren kontabilitatea eta haren aurrekontua prestatzea, hornitzaile eta zordunen kudeaketa		
Ukituak	Hornitzaileak, hermitarrak		
Datuak nola biltzen diren	Interesdunek, haien ordezkariak, beste administrazio publiko batzuek edo entitate pribatuek emanak		
Bilketan erabiltzen den euskarria	Paperezko inprimakia		
Datuen komunikazioa	Ogasun publikoari, Nafarroako Gobernua		
Nazioarteko transmisioak	Ez dago aurreikusia		
Unitate arduradunak	Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatua		
Fitxategian sartu, datuak zuzendu, ezabatu eta eta haien kontra jotzeko eskubideak non erabili: Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuaren bulegoetan			

<b>FITXATEGIAN BILDUTAKO DATUEN EZAUGARRIAK</b>	
<b>IDENTIFIKAZIO DATUAK</b>	
X	Izen-deiturak
X	NAN/IFZ
X	Helbidea
X	Telefonoa eta faxa
<b>DATU EKONOMIKO FINANTZARIOAK</b>	
X	Bankuko datuak

<b>KULTUR JARDUEREN KUDEAKETA ETA INFORMAZIOAREN FITXATEGIA</b>			
Deskripzioa	Fitxategi mistoa, kultur jarduerak kudeatzeko eta haien gaineko informazioa emateko		
Tratamendu sistema	Fitxategi mistoa	Mailakoa	Oinarritzkoa
Xedeak eta erabilerak	Kultur jardueren kudeaketa, haien gaineko informazioa eta egiten direla kontrolatzea		
Ukituak	Kultur jarduerak egiten dituzten guztiak, lehiaketetan parte hartzen dutenak eta aurreikusitako jardueren gaineko informazioa biltzen dutenak		



Datuak nola biltzen diren	Interesdunek eta haien ordezkariak emanda
Bilketan erabiltzen den euskarria	Paperezko inprimakiak, 012 zerbitzua erabiliz; egiaztapena egingen da biztanleen udal erroldan
Datuen komunikazioa	Ez daude aurrekusiak
Nazioarteko transmisioak	Ez daude aurrekusiak
Unitate arduradunak	Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatua
Fitxategian sartu, datuak zuzendu, ezabatu eta eta haien kontra jotzeko eskubideak non erabili: Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuaren bulegoetan	

FITXATEGIAN BILDUTAKO DATUEN EZAUGARRIAK	
IDENTIFIKAZIO DATUAK	
X	Izen-deiturak
X	NAN/IFZ
X	Posta helbidea eta helbide elektronikoa
X	Telefono finkoa eta sakelakoa
EZAUGARRI PERTSONALAK	
X	Jaioteguna
DATU EKONOMIKO FINANTZARIOAK	
X	Bankuko datuak

KANPALEKUEN FITXATEGIA	
Deskripzioa	Kultur Patronatuak eta euskara teknikariak antolatzen dituzten kanpalekuak kudeatzeko fitxategi mistoa
Tratamendu sistema	Fitxategi mistoa   Mailakoa   Handia
Xedeak eta erabilerak	Patronatuak antolatzen dituen kanpalekuetarako izen emateak eta haien erregistro eta kudeaketa
Ukituak	Kanpalekuetarako izena eman dutenak edo adin txikikoen guraso edo tutoreak
Datuak nola biltzen diren	Paperezko inprimakiaren bidez, 012 bitartez izena emanda
Bilketa egiteko euskarria	Papera
Datuen jakinarazpenak	Ez dago aurrekusia
Nazioarteko transmisioak	Ez dago aurrekusia
Unitate arduradunak	Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatua
Fitxategian sartu, datuak zuzendu, ezabatu eta eta haien kontra jotzeko eskubideak non erabili: Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuaren bulegoetan	

FITXATEGIAN BILDUTAKO DATUEN EZAUGARRIAK	
IDENTIFIKAZIO DATUAK	
X	Izen-deiturak
X	NAN/IFZ
X	Helbidea
X	Telefonoa eta faxa
X	Ahotsa/lrudia
EZAUGARRI PERTSONALAK	
X	Jaioteguna
X	Familiaren datuak
X	Jaioterria
BEREZIKI BABESTUAK	
X	Osasuna
DATU AKADEMIKO ETA PROFESIONALAK	
X	Bertzelakoak: ikastetxeak

ARETOAK ERABILTZeko FITXATEGIA	
Deskripzioa	Aretoak erabiltzeko fitxategi mistoa
Tratamendu sistema	Fitxategi mistoa   Mailakoa   Oinarrizkoa
Xedeak eta erabilerak	Aretoak erreserbatzea hainbat erabileratarako
Ukituak	Kultur Etxeko aretoak eskatzen dituzten guztiak
Datuak nola biltzen diren	Interesdunek eta haien ordezkariak emanda
Bilketan erabiltzeko euskarria	Paperezko eskabideak eta eskabide elektronikoa
Datuen komunikazioa	Ez daude aurrekusiak
Nazioarteko transmisioak	Ez daude aurrekusiak
Unitate arduradunak	Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatua
Fitxategian sartu, datuak zuzendu, ezabatu eta eta haien kontra jotzeko eskubideak non erabili: Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuaren bulegoetan	

FITXATEGIAN BILDUTAKO DATUEN EZAUGARRIAK	
IDENTIFIKAZIO DATUAK	
X	Izen-deiturak
X	Helbidea
X	Telefono finkoa eta sakelakoa

DIRU-LAGUNTZEN FITXATEGIA	
Deskripzioa	Fitxategi mistoa, euskara sustatzeko edo hura ikasteko diru-laguntzak emateko
Tratamendu sistema	Fitxategi mistoa   Mailakoa   Oinarrizkoa
Xedeak eta erabilerak	Euskara sustatzeko edo hura ikasteko diru-laguntzetarako izen emateak, horien erregistroa eta kudeaketa
Ukituak	Diru-laguntza eskatzen duten lagunak
Datuak nola biltzen diren	Paperezko inprimakia
Bilketa egiteko euskarria	Papera
Datuen jakinarazpenak	Ez dago aurrekusia
Nazioarteko transmisioak	Ez dago aurrekusia
Unitate arduradunak	Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatua
Fitxategian sartu, datuak zuzendu, ezabatu eta eta haien kontra jotzeko eskubideak non erabili: Zizur Nagusiko Udaleko Kultur Patronatuaren bulegoetan	

FITXATEGIAN BILDUTAKO DATUEN EZAUGARRIAK	
IDENTIFIKAZIO DATUAK	
X	Izen-deiturak
X	NAN/IFZ
X	Helbidea
X	Telefonoa eta faxa
DATU EKONOMIKO FINANTZARIOAK	
X	Bankuko datuak
X	Diru-sarrerak/errentak

2. Kultur Patronatu honen fitxategietako datu pertsonalak, lehenbiziko atalean aipatu direnak, berariaz ezarri zaizkien xedeetarako baizik ez dituzte erabiliko baimena duten langileek.

3. Ebazpen honen aurka errekurtsio hauetako bat aurkezten ahal da, aukeran:

a) Berraztertze errekurtsioa, deialdia egin duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina, edo bertenaz,

c) Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazten denetik aitzina.

Zizur Nagusian, 2010eko martxoaren 3an.—Zizur Nagusiko Udaleko alkate udalburua, Pedro Huarte Iribarren.

L1004191

## ZIZUR NAGUSIA

### Lizitazioa, Zizur Nagusian belar artifizialeko "El Pinar 2" futbol zelaia eraikitze lanak kontratatu beharrez

Entitate esleitzaila: Zizur Nagusiko Udala.

Kontratuaren xedea: Zizur Nagusian belar artifizialeko "El Pinar 2" futbol zelaia eraikitze lanak.

Lanak egiteko epea: 112 egun natural, zuinketa egiaztatze eta obra hasteko akta sinatzen denetik aitzina.

Lizitazioaren aurrekontua: 905.689,92 euro (BEZa barne). Aurreko kopuru horretatik, 124.922,75 euro BEZari dagozkie.

Tramitazioa: presakoa.

Esleitzeko prozedura: irekia.

Kontratistek bete beharreko baldintza berariazkoak: baldintza ekonomiko administratiboen agirian adierazten direnak (saiklapena eskatzen da: A1D eta G6D).

Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

Agiriak: baldintza ekonomiko administratiboen agiria eskura dago Kontratazio Atarian eta web gune honetan: [www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es).

Obra proiektua, berriz, Papelería Técnica Rubion dago (Bergamín, 10, 31001 Iruña). Telefonoa: 948 237704, baita web gune honetan ere: [www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es).

Aurkezteko azken eguna: 2010eko apirilaren 30a, 14:30ean.

Eskaintzak aurkezteko tokia: Zizur Nagusiko Udaleko Erregistro Orokorra (Erreniega parkea, zk.g. 31180 Zizur Nagusia, telefonoa: 948 18 18 96 eta faxa: 948 18 06 97).

Esleitzeko irizpideak: baldintza ekonomiko administratiboaren agirian adierazten direnak.

Eskaintzak noiz ireki: eskaintza ekonomikoak irekitzeko eguna Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da.

Zizur Nagusian, 2010eko martxoaren 24an.—Alkatea, Pedro Huarte Iribarren.

L1005353

## ZIZUR NAGUSIA

### Lizitazioa, Zizur Nagusiko zenbait karrikatan herriko argiak berritzeko eta gehiago paratzeko lanak kontratatu beharrez

Entitate esleitzaila: Zizur Nagusiko Udala.

Kontratuaren xedea: Zizur Nagusiko zenbait karrikatan herriko argiak berritzeko eta gehiago paratzeko lanak.

Lanak egiteko epea: 100 egun natural, zuinketa egiaztatze eta obra hasteko akta sinatzen denetik aitzina.

Lizitazioaren aurrekontua: 179.978,85 euro (BEZa barne). Aurreko kopuru horretatik, 24.824,67 euro BEZari dagozkie.

Tramitazioa: presakoa.

Esleitzeko prozedura: irekia.

Kontratistek bete beharreko baldintza berariazkoak: baldintza ekonomiko administratiboaren agirian adierazten direnak.

Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

Agiriak: baldintza ekonomiko administratiboaren agiria eskura dago Kontratazio Atarian eta web gune honetan: [www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es).

Obra proiektua, berriz, Papelería Técnica Rubion dago (Bergamín, 10). Telefonoa: 948 23 77 04, baita web gune honetan ere: [www.zizurmayer.es](http://www.zizurmayer.es).

Aurkezteko azken eguna: 2010eko apirilaren 23a, 14:30ean.

Eskaintzak aurkezteko tokia: Zizur Nagusiko Udaleko Erregistro Orokorra (Erreniega parkea, zk.g. 31180 Zizur Nagusia, telefonoa: 948 18 18 96 eta faxa: 948 18 06 97).

Esleitzeko irizpideak: baldintza ekonomiko administratiboaren agirian adierazten direnak.

Eskaintzak noiz ireki: eskaintza ekonomikoak irekitzeko eguna Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da.

Zizur Nagusian, 2010eko martxoaren 24an.—Alkatea, Pedro Huarte Iribarren.

L1005354

## MENDIALDEA MANKOMUNITATEA

### Ordenantza fiskala, Hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta aprobetxatu edo desegiteko tasak arautzen dituenak. Behin betiko onspena

Mendialdea Mankomunitatearen Batzar Nagusiak, 2009ko abenduaren 29an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Hiri hondakin solidoak bildu, tratatu eta aprobetxatu edo desegiteko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala. Erabakia 2010eko 13. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 29an.

Jendaurrean egoteko epea iraganik, eta inork erreklamaziorik batere aurkeztu ez duenez, delako ordenantza behin betikoz onetsi da eta haren testu osoa argitaratzeko xedatu da, behar diren ondorioak izan ditzan, hori guztia Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan agintzen denarekin bat.

ORDENANTZA FISKALA, HIRI HONDAKIN SOLIDOAK BILDU, TRATATU ETA APROBETXATU EDO DESEGITEKO ETA ZERBITZU HORRI LOTURIK DAUDEN GAINERAKO JARDUERAK EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

### I. KAPITULUA

#### Oinarria

1. artikulua. Ordenantza fiskal hau Nafarroako toki entitateei aplikagarri zaien araudi fiskalak ematen dizkien ahalmenen babesean eta beraiekin bat ezarri da.

### II. KAPITULUA

#### Ordainarazpenaren izaera

2. artikulua. Ordenantza honen xedea tasak ezartzea da, hiri hondakin solidoak bildu, tratatu, aprobetxatu edo desegiteko zerbitzua emateagatik eta horrekin zerikusia duten gainerako jarduerengatik.

Ezarri diren ordainarazpenen izaera fiskala, hortaz, martxoaren 10eko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legearen 10. artikulua aipatzen dituen zerbitzuak egiteko tasena da.

### III. KAPITULUA

#### Aplikazio eremua

3. artikulua. Ordenantza hau Mendialdea Mankomunitatea osatzen duten udalerrien lurralde esparruan aplikatuko da.

Aldiz, Mendialdea Mankomunitatekoak ez izan arren, halako entitate edo pertsona batzuek tasa hauen bidez finantzatzen diren zerbitzuak hartzen badituzte haiei ere aplikatuko zaie ordenantza hau.

### IV. KAPITULUA

#### Zergapeko egintza

4. artikulua. Ordenantza honen xedeko zerbitzu edo jarduerak eskura izateak edo/eta erabiltzeak dakar zergapeko egintza. Zerbitzu eta jarduera horiek ondotik aipatzen dira eta beren tasak sortzen dituzte:

1. Hiri hondakin solidoak bildu, eta garraiatzeko nahitaezko zerbitzua eskura izan edo/eta erabiltzea, Hondakinei buruzko Legeari jarraituz, kasu hauetan:

- Etxekoak.
- Zerbitzuetaoak.
- Merkataritzakoak eta industriakoak.
- Bulego publikoetaoak.
- Ikastetxeetaoak.
- Osasun etxeetaoak.
- Zahar Etxeetaoak.
- HHSak biltzeko edukuontzia izatea.

Tarifa bakoitzean sartutako jardueren zerrenda ez da zehatza, eta beraz, espresuki aipatu gabeko beste jarduera berdintsuak sartzen dira, antzekoak badira.

### V. KAPITULUA

#### Subjektu pasiboa

5. artikulua. 1. Ordenantza honetan ezartzen diren tasak ordaintzera beharturik dauden subjektu pasibotzat hartuko dira, zordunak diren aldetik, pertsona fisiko zein juridikoak, jaraunspen banatugabeak, ondasun komunitateak eta, lege nortasunik ez izanik ere, unitate ekonomikoa edo ondare berezia osatzen duten eta zerga ezar dakiekeen bestelako erakundeak, baldin eta edozein titulu dela bide, etxebizitzak, egoitzak, saltokiak eta dendak okupatzen, erabiltzen edo baliatzen edo ustiatzen badituzte edo bertan bizi badira, haien alde nahitaezko zerbitzu orokorra ezarri gero.

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 104.2 a) artikulua araberak, zorduna ordeztzen duten subjektu pasiboak dira Mendialdea Mankomunitatea osatzen duten udaletako Katastroko Erregistroan edo eraikin horien Hirilurreko Ondasunen gaineko Erregistro Fiskalean jabe gisa agertzen direnak Tasa ordeztzen dutenei igorriko zaie eta horiek, kasuan kasuko onuradunei erasaten ahalko diete.

2. Kontzeptu bateagatik edo besteagatik titulartasunean edo erabileran ondorengoak direnei eskatzen ahal zaie pertsona fisikoek zein juridikoek egindako ustiapenen edo ekonomia jardueren ondoriozko zorra.

Ustiapen edota ekonomi jarduera baten titulartasuna eskuratu nahi duenak, aldezturik titulartasunaren onspena izanik, eskubidea izanen du Mendialdea Mankomunitatea osatzen duten udalei jarduera edo ustiapenak sorrarazitako tributu-zorren ziurtagiri zehaztua eskatzeko.

### VI. KAPITULUA

#### Zerga-oinarria

6. artikulua. 1. 4. artikuluko 1. ataletan ezarritako zergapeko egintzetarako, honako hau da tarifa aplikatzeko zerga-oinarria:

–1-A zergapeko egintzarako: bizitegia den edo izan litekeen katastro unitatea.

Etxebizitza bat jarduera ekonomikoen gaineko zergari lotutako jardueraren baten kokalekua bada, tasarik handiena aplikatuko da:

-1-B, 1-C, 1-D, 1-E, 1-F eta 1-G zergapeko egintzetarako: Establezimendu-unitatea edo jarduera, jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ) inskribaturik badago, edo funtzionatzen ari bada, egon gabe ere zerga horren menean. Establezimendu unitatea dagoela ulertuko da katastroko unitatea dagoenean.

-1-H zergapeko egintzetarako, edukiontzien kopurua, haien edukiera eta bilketaren maiztasuna.

2. Establezimendu bera JEZaren bi epigrafe edo gehiagotan inskribaturik badago, zenbatekorik handiena duen tarifa aplikatuko da.

## VII. KAPITULUA

### Tarifak

7. artikulua. Tributu-kuota kalkulatzeko, ekitaldi bakoitzean organo eskudunak ezarriko ditu tasa bakoitzaren zerga-oinarriari aplika dakizkiokeen tasa eta tarifak, eta ordenantza honen eranskinean agertuko dira, haren parte direlarik.

## VIII. KAPITULUA

### Tributu-kuota

8. artikulua. Tasa bakoitzari dagokion tributu-kuota izanen da ordenantza honen 6. artikuluan finkatu diren zerga-oinarriari une bakoitzean indarra duten tarifak aplikatzearen ondorioa.

9. artikulua. 1. Ateratzen den tributu-kuotaren gainean aplikatuko dira legeek aldi bakoitzean finkatzen dituzten zeharkako zergak, legeek ezarritako moduan eta baldintzetan.

## IX. KAPITULUA

### Salbuespenak eta hobariak

10. artikulua. 1. Nafarroako Parlamentuak onetsitako foru legeetan espresuki aipatzen direnak izanen dira onartuko diren albuespen eta hobari bakarrak.

## X. KAPITULUA

### Sorrarazpena

11. artikulua. 4.1 artikuluan ezarritako tasak lauhileko natural bakoitzeko lehenbiziko egunean sortuko dira, eta kuotak ezin izanen dira ez murriztu ezta hainbanatu ere.

## XII. KAPITULUA

### Ordainarazpena

12. artikulua. Ordenantza honetan araututako tasak hurrengo arauak jarraituz ordainaraziko dira:

4.1) artikuluan aurreikusitakoak, lauhilekoan behin (apirilean, abuztuan eta abenduan).

## XIII. KAPITULUA

### Diru-bilketa

13. artikulua. 1. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 86. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, 4.1 artikuluan ezarritako tasak aplikatuzetik sortzen diren tributu-zorrak "jakinarazpen gabekotzat" hartuko dira.

2. 4.1 artikuluan aurreikusitako tasek sortzen dituzten tributu-zorrak, 13. artikuluan arabera ordainarazi eta gero, ordaindu behar diren lauhileko naturalaren lehenbiziko hilabetearen lehenbiziko egunean isilbidez jakinarazitza hartuko dira. Egun horretatik aitzina, 30 egun baliodun izanen dira borondatezko aldian ordaintzeko.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren egunetan ordainarazpenen zerrendak prest ez badaude, Mendialdea Mankomunitatearen iragarki oholean argitaratzen diren egunetik aurrera hasiko da kontatzen borondatezko aldia.

14. artikulua. 13. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz borondatezko epean ordaintzen ez diren tributu-zorrak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko

martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 84. artikuluan ezarritako moduan ordaindu beharko dira.

Mendialdea Mankomunitateak zorrak geroratu edo zatika ordaintzeko aukera eman dezake, martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 90. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituz.

15. artikulua. Tributu-zorren ordainketa honela egin ahal izanen da:

a) Ordainketak helbideratu dituzten subjektu pasiboentzat, horretarako adierazitako banku edo aurrezki kutxako kontuan kargatuz.

b) Ordainketak helbideratu ez dituzten subjektu pasiboentzat, Mendialdea Mankomunitateak kobrantzarako jartzen dituen banku bulego edo aurrezki kutxetan: ordainagiri horietako bakoitzean 2 euro igoko da tasaren zenbatekoa, kudeaketa gastuak berdintzeko.

## XIV. KAPITULUA

### Arau-hausteak eta zehapenak

16. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearen arau-hauste eta zehapenen gainean ezarritako xedapenak aplikatuko dira.

Xedapen gehigarri bakarra

Ordenantza honetako tasak zuzenean likidatu, kudeatu, ikuskatu eta bilduko ditu Mendialdea Mankomunitateak.

Azken xedapen bakarra.

Ordenantza honek 2010eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Leitzan, 2010eko martxoaren 4an.–Mankomunitateko burua, Javier Zabalo Betelu.

## I. ERANSKINA

### Lauhilekoetan kobratzeko tarifak

A) Etxekoa-etxebizitzetakoak.

A.1. Hiriguneko etxebizitzak: 28,00 euro.

A.2. Hirigunetik kanpoko etxebizitzak: 14,00 euro.

B) Profesionalen bulegoak eta banketxeak. Tarifa finkoa: 40,00 euro.

Gestoriak.

Agentziak.

Kabineteak.

Notariotzak.

Erregistroak.

Bitxi dendak-erloju dendak.

Banketxeak eta aurrezki kutxak.

Tabako dendak.

Ile apaindegiak.

Irabazi asmorik gabeko kultur elkarteak.

Lanbide liberaletarako lokalak.

Iturgintza eta elektrizitate arloko paratzaileak, pintoreak eta gainerako profesionalak.

C) Saltokiak.

C.1. Janariarik saltzen ez duten saltokiak. Tarifa finkoa: 53,33 euro.

C.2. 1 motako janari saltokiak. Tarifa finkoa: 66,66 euro.

Elikagai dendak eta janari dendak (barazkirik saltzen ez dutenak).

Kalez kaleko merkatuetako postu finkoak.

Harategiak.

Prestalekurik gabeko gozotegiak.

C.3. 2 motako janari saltokiak. Tarifa finkoa: 80,00 euro.

Gozo dendak eta okindegiak, prestalekua dutenak.

Arrandegiak.

Barazkiak saltzen dituzten elikagai dendak.

C.4. 3 motako janari saltokiak. Tarifa finkoa: 106,66 euro.

Supermerkatuak eta autozerbitzuak, 150 metro koadro baino handiagoak.

D) Ostatuak eta jatetxeak.

D.1. Tabernak, elkarteak, dantzatokiak eta diskotekak. Tarifa finkoa: 93,33 euro.

Tabernak.

Kafetegiak.

Elkarte gastronomikoak.

Kirol elkarteak, taberna dutenak.

Dantzatokiak.  
Diskotekak.  
Kasinoak.  
Erretiratuen elkarteak, jendeari zerbitzatzeko kanpoko langileak di-tuztenean.

- D.2. Jatetxeak. Tarifa finkoa: 120,00 euro.  
D.3. Landetxeak. Tarifa finkoa: 66,66 euro.  
D.4. Ostatuak eta aterpetxeak. Tarifa finkoa: 106,66 euro.  
D.5. Hotelak, hostalak eta kanpinak Tarifa finkoa: 133,33 euro.  
E) Zerbitzuetakoak.  
E.1. Bulego publikoak eta elizak. Tarifa finkoa: 40,00 euro.  
Udaletxea.  
Bulegoak eta erakunde publikoak.  
Liburutegiak.  
Museoak.  
Kultur etxea.  
Epaitegiak.  
Elizak.  
E.2. Haurtzaindegiak, akademiak eta jantokirik gabeko ikastetxeak. Tarifa finkoa: 66,66 euro.  
E.3. Jantokia duten ikastetxeak. Tarifa finkoa: 133,33 euro.  
E.4. Egoitzak eta zahar etxeak. Tarifa finkoa: 266,66 euro.  
E.5. Guardi zibilaren kuartelak eta gasolindegiak. Tarifa finkoa: 266,66 euro.  
E.6. Anbulatorioak, osasun etxeak eta beilatokiak. Tarifa finkoa: 53,33 euro.

- F) Industriak. Tarifa finkoa:  
F.1. Industriak eta lantegiak, <30 langile: 66,66 euro.  
F.2. Industriak eta lantegiak, 30-60 langile: 133,33 euro.  
F.3. Industriak eta lantegiak, 61-150 langile: 266,66 euro.  
F.4. Industriak eta lantegiak, 150-300 langile: 400,00 euro.  
F.5. Industriak eta lantegiak > 300 langile: 666,66 euro.  
Tarifei zuzenean aplikatzeko xedapenak.  
Hiri hondakin solidoak sortzen dituen establezimendu-unitate bati -eta halakotzat hartuko da sartzeko ate bat bakarra duena- tarifa multzo bat baino gehiago badagozkie, aplikatzen ahal zaizkion tarifetatik handiena baizik ez zaio aplikatuko.  
Ikuskapena eginik, ofizioz edo interesdunak eskaturik, tarifa aldatzen ahal da, errealitatea nabarmen bestelakoa denean, egiaztatu den erabilera benetakoaren arabera fakturatu dadin.

L1004118

## ERRIBERAKO HIRI HONDAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO MANKOMUNITATEA

### 2010eko aurrekontua. Behin betiko onespena

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 272. artikuluan ezarriari jarraikiz, jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iragan baita, behin betikoz onetsi da 2010eko aurrekontua. Hasierako onespeneraren erabakia 2010eko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urtarrilaren 22an.

#### DIRU-SARRERAK:

- III. kapitulua: 8.958.200,00 euro.  
IV. kapitulua: 474.008,00 euro.  
V. kapitulua: 10.000,00 euro.  
VII. kapitulua: 1.378.000,00 euro.  
IX. kapitulua: 1.012.000,00 euro.  
Diru-sarrerak, guztira: 11.832.208,00 euro.

#### GASTUAK:

- I. kapitulua: 106.271,00 euro.  
II. kapitulua: 104.102,00 euro.  
III. kapitulua: 117.730,00 euro.  
IV. kapitulua: 8.885.105,00 euro.  
VI. kapitulua: 2.390.000,00 euro.  
IX. kapitulua: 229.000,00 euro.  
Gastuak, guztira: 11.832.208,00 euro.

Tuteran, 2010eko otsailaren 23an.—Mankomunitateko burua, José María Navarro Fandos.

L1004130

## EZKAROZEKO, JAURRIETAKO ETA ORONTZEKO UDALEN BATASUNA

### 2010eko plantilla organikoa. Behin betiko onespena

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onetsi da 2010eko plantilla organikoa, eranskinean datorrena. Hasierako onespeneraren erabakia 2010eko 16. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitaratu, otsailaren 5ean.

Ezkarozen, 2010eko otsailaren 24an.—Mankomunitateko burua, Juan José Layana Barber.

#### ERANSKINA

### 2010EKO PLANTILLA ORGANIKOA

#### Funtzionarioak

Lanpostua: idazkaria. Lanpostu kopurua: 1. Sarbidea: erregelamenduaren arabera. Egoera: hutsik. Maila: A. Lanpostuko osagarria: %19,72.

#### Administrazio-kontratudunak

Lanpostua: bitarteko idazkaria. Lanpostu kopurua: 1. Sarbidea: erregelamenduaren arabera. Egoera: jardunean. Maila: A. Lanpostuko osagarria: %19,72.

### LANGILEEN IZENEN ZERRENDA

#### Administrazio-kontrataduna

Izena: Iribarren Pérez, Ana Gloria. Kargua: bitarteko idazkaria. Maila: A. Egoera: jardunean. Lanpostuko osagarria: %19,72.

L1004180

## SAN FRANCISCO JAVIER ZAHAR ETXEAREN MANKOMUNITATEA

### 2010eko plantilla organikoa. Behin betiko onespena

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraituz, jendaurreko epean inork alegaziorik aurkeztu ez duenez, behin betikoz onetsi da 2010eko plantilla organikoa, eranskinean zehazten baita. Hasierako onespeneraren erabakia 2010eko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitaratu, urtarrilaren 22an.

Fustiñanan, 2010eko martxoaren 8an.—Mankomunitateko burua, Ana María Rodríguez Enériz.

#### ERANSKINA

### 2010eko plantilla organikoa

Lanpostuaren izena: zuzendari kudeatzailea. Kopurua: 1.  
Lanpostuaren izena: gerokultoreak. Kopurua: 10.  
Lan publikoaren eskaintza: 10 gerokultore lanpostu, OLM. gerokultore lanpostu 1, OL.

L1004346

## ETXARRI ARANATZ ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

### 2009ko kontu orokorra

Mankomunitatearen Batzarrak, 2010eko martxoaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

2009ko ekitaldiko kontu orokorra onestea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 305. artikuluan ezarritakoarekin bat, espediente jendaurrean egonen da hamabost egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi-haramunetik hasita, interesdunek aztertu eta bidezko juzgatzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, hasierako onespena behin betikoa bihurtuko da.

Etxarri Aranatzen, 2010eko martxoaren 11n.—Lehendakaria, Alfredo Zelaia Goikoetxea.

L1004691

**ETXARRI ARANATZ ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN  
MANKOMUNITATEA****2010eko plantilla organikoaren hasierako onespena**

Etxarri Aranatz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, 2010eko martxoaren 9ko bilkuran, 2010 urteko plantilla organikoa onetsi zuen hasiera batez.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, onetsitako plantilla organikoa Mankomunitateko bulegoan egonen da ikusgai, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Etxarri Aranatz, 2010eko martxoaren 11n.—Lehendakaria, Alfredo Zelaia Goikoetxea.

L1004692

**ETXARRI ARANATZ ALDEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN  
MANKOMUNITATEA****2010eko aurrekontu orokorraren hasierako onespena**

Etxarri Aranatz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, 2010eko martxoaren 9ko bilkuran, 2010 urteko aurrekontuaren espedientea onetsi zuen hasiera batez.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 271. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, onetsitako aurrekontua Mankomunitateko bulegoan egonen da ikusgai, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

Etxarri Aranatz, 2010eko martxoaren 11n.—Lehendakaria, Alfredo Zelaia Goikoetxea.

L1004693

### 3. ESTATUKO ADMINISTRAZIOA

#### GOBERNUAREN ORDEZKARITZA

##### Eskaera jendaurrean jartzea, "Boyal I + G parke eolikoko energia ateratzeko azpiegitura elektrikoa" delakoari baimen administratiboa eman, proiektua onetsi eta onura publikoa deklaratzekoa

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legean, Energia elektrikoa garraiatu, banatu eta merkaturatzeko jarduerak, haren hornidura eta haren instalazioetarako baimenen prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuan eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Erregelamenduaren 10. artikuluan eta Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legean ezarritako ondorioetarako, jendaurrean jarri da "Boyal I + G parke eolikoko energia ateratzeko azpiegitura elektrikoa" delakoari baimen administratiboa eman, proiektua onetsi eta onura publikoa deklaratzeko eskaera. Hona hemen haren ezaugarriak:

Espedientearen zenbakia: AT-66616.

Eskatzailea: Gamesa Energía, S.A.U.

Jakinarazpenetarako helbidea: Albareda kalea, 1-b, 1.a A. 50004 Zaragoza.

Jatorria: "Boyal I + G parke eolikoaren ebakitze zentroa izanen dena (Borjako udal mugapea-Zaragoza).

Amalera: Bertan dagoen aireko goi tentsioko linea, 66 kV-ekoa, Magallón 4 - Tuteraz izenekoa.

Luzera: 5,71 km, haietatik 1,03 km Nafarroako Foru Komunitatean barna (15 m-ko tartea lurrazpian, 967 m-ko aireko linea, tentsio erdikoa, eta 48 m-ko aireko linea, goi tentsiokoa), eta 4,68 km Aragoiko Autonomia Erkidegoan barna (3,336 km lurrazpian eta 1,346 km-ko aireko trazadura).

Frekuentzia: 50 Hz.

Tentsio nominala: Erdi-tentsioa 30 kV-ekoa. Goi tentsioa 66 kV-ekoa.

Zirkuitu kopurua: Bat.

Eroaleak: Hiru.

Lurreko kableen kopurua: Bat.

Euskarriak: metalikoak, sareta itxurakoak.

Aurrekontua: 537.737,57 euro guztira; horietatik 393.795,05 euro Nafarroako Autonomia Erkidegoari dagozkio eta 143.942,52 euro Aragoiko Autonomia Erkidegoari.

Instalazioaren xedea: parke eolikoetako energia elektrikoa ateratzea.

Ukitutako udal mugapeak: Aragoiko Autonomia Erkidegoan: Borja eta Mallén. Nafarroako Autonomia Erkidegoan: Cortes.

Boyal B + G azpiestazio elektrikoa, 66/30 kV-ekoa, Cortesko udal mugapean (Nafarroa). Ezaugarri nagusiak:

–30 kV-eko sistema.

30 kV-eko sistemaren osaketa hauxe da: aurrefabrikatutako lau gelaxka trinko, metalikoak, barnekoak, isolamenduekin eta SF6 motako ebakidurarekin, zerbitzuetarako (1. zirkuitua, kondentsatzaileen bateriako 1. gelaxka, 66/30 kV-eko potentziako transformadoreko gelaxka eta zerbitzu osagarrietako gelaxka).

–66 kV-eko sistema.

Azpiestazio elektrikoak barra soileko izaera izanen du, bi linea-posizioarekin eta transformadore-posizio batekin, gehi beste bat zerbitzu osagarrietarako; parkean sortutako energia aterako du Iberdrolaren Magallón-Tutera izeneko 66 kV-eko goi tentsioko aireko linearen bidez (Iberdrola), burualdea Tuterako azpiestazioan izanik, eta linea horri jarraipena emateko sarrera-irteera bat egingen du.

–Transformazioa.

15 MVA-eko potentziako eta 66/30 kV erlazioko transformadorearen bigarren mailarako hartuneko gelaxka 30 kV-eko gelaxka bat da, behar diren neurriekin.

66/30 kV-eko B + G Boyal azpiestazio elektrikoaren aurrekontua, guztira: 1.737.774,20 euro.

Aipatu 54/1997 Legearen 54.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, zehazki onura publikokoa dela deklaratzek berarekin dakar betiere ondasunak okupatu edo eskubideak eskuratu beharra, eta presako okupazioa eraginen du, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 52. artikuluan ondorioetarako.

Aditzera ematen da orok jakin dezan, bereziki jabeek eta proiektuak ukitutako gainerako titularrek (iragarki honek amaieran atxikia du haien zerrenda), espedientea aztertzeko, Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzako Industria eta Energia Arloan, Iruñeko Merindadeen plaza, z/g, Nafarroako Autonomia Erkidegoan dauden finken kasuan, eta iragarki hau argitaratu eta biharamunetik hasita hoge eguneko epean, egokitzat jotzen diren alegazioak aurkezteko, hiruna alerekin, eta aipatutako zerrendan akatsak baldin badaude horiek zuzentzeko behar diren datuak idatziz aurkezteko.

Iruñean, 2010eko otsailaren 16an.—Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzako Industria eta Energia Arloko zuzendaria, Ángel Hernández González.

#### 30KV B+G BOYAL M-T G.T.L.

LURZATI ZK.A PROIEKTUA	JABEAREN DATUAK	FINKAREN DATUAK				EUSKARRIAK				HEGALKINA		BIDEAK/ALDI BATERAKO OKUPAZIOA
	IZEN-DEITURAK	POL.	LURZ.	IZAERA	UDAL MUGAPEA	ZK.A	KOP.	OKUPATUTAKO AZA. (m <sup>2</sup> )	ALDI BATERAKO AZA. (m <sup>2</sup> )	LUZ. BOL. (m)	AZA. (m <sup>2</sup> )	AZA. (m <sup>2</sup> )
31	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5011	Lugorria	CORTES	9	1	2,43	432,46	230,88	2340,41	149,79
32	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	6033	Alorra	CORTES							786,16
33	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5014	Alorra	CORTES							79,67
34	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	6030	Alorra	CORTES							725,77
35	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	6029	Alorra	CORTES					52,28	759,97	
36	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5014	Alorra	CORTES	10	1	2,75	505,17	137,06	1230,36	
37	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	6028	Alorra	CORTES	11	1	2,75	299,46	179,22	2517,53	23,40
38	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	92270	Erretena Bidea	CORTES				31,51		5,80	
39	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	91490	Bidea	CORTES				125,52	14,28	104,54	
41	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	6027	Alorra	CORTES				56,88		4,29	
42	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5345	Alorra	CORTES					50,78	496,91	202,39
43	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5346	Alorra	CORTES					58,49	655,29	233,87

LURZATI ZK.A PROIEKTUA	JABEAREN DATUAK	FINKAREN DATUAK				EUSKARRIAK				HEGALKINA		BIDEAK/ALDI BATERAKO OKUPAZIOA
	IZEN-DEITURAK	POL.	LURZ.	IZAERA	UDAL MUGAPEA	ZK.A	KOP.	OKUPATUTA- KO AZA. (m <sup>2</sup> )	ALDI BATERAKO AZA. (m <sup>2</sup> )	LUZ. BOL. (m)	AZA. (m <sup>2</sup> )	AZA. (m <sup>2</sup> )
44	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5347	Alorra	CORTES	12	1	2,75	347,12	63,80	533,93	255,09
45	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5348	Alorra	CORTES				166,24	73,64	755,16	294,39
46	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5349	Alorra	CORTES					60,59	824,90	242,27
47	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5350	Alorra	CORTES					41,40	513,21	167,19
48	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	91900	Bidea	CORTES	13*	1	15,78	64,45	13,94	122,48	55,84
49	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5363	Alorra	CORTES	13*	1	15,78	129,75	27,64	201,24	108,70
50	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5351	Alorra	CORTES	13*	1	15,78	142,31		2,37	1,06
51	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5364	Alorra	CORTES					11,487	112,0245	44,583

## B+G BOYAL AE

PROIEKTU ZK.A	KATASTROKO JABEA	FINKAREN DATUAK				OKUPAZIO IRAUNKORRA
		POLIGONOA	LURZATIA	IZAERA	UDAL MUGAPEA	AZALERA (m <sup>2</sup> )
50	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5351	UREZTALURRAK	CORTES	520,40
52	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5352	UREZTALURRAK	CORTES	1922,99
53	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5353	UREZTALURRAK	CORTES	27,84
54	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5362	UREZTALURRAK	CORTES	788,68
49	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5363	UREZTALURRAK	CORTES	319,27
48	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	91900	BIDEA	CORTES	38,77

## MAGALLÓN 4-TUTERA LINEAREKIKO LOTURA

LURZATI ZK.A PROIEKTUA	JABEAREN DATUAK	FINKAREN DATUAK				EUSKARRIAK				HEGALKINA		BIDEAK
	IZEN-DEITURAK	POL.	LURZ.	IZAERA	UDAL MUGAPEA	ZK.A	KOP.	OKUPATUTA- KO AZA. (m <sup>2</sup> )	ALDI BATERAKO AZA. (m <sup>2</sup> )	LUZ. BOL. (m)	AZA. (m <sup>2</sup> )	AZA. (m <sup>2</sup> )
52	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5352	Alorra	CORTES	A	1	1,3	140,00	9,94	51,06	
53	CORTESKO UDALAREN HERRI ONDASUNAK	10	5323	Alorra	CORTES	141	1	1,3	242,55	31,4	175,95	

## 4. PROZEDURA JUDIZIALAK

### IRUÑEKO LAN ARLOKO 1. EPAITEGIA

#### Enkante publikoa

Rosa M. Valencia Ederra andreak, Iruñeko Lan arloko 1. Epaitegiko idazkari judizialak,

Aditza ematen dut: Patricia Margarita Silva Portugalen eskatutik, diru kopuru bat erreklamatzeko, Sofa-Plus Muebles, SLUren aurka lan arloko epaitegi honetan bideratzen ari den 111/2008 prozesuan, gaur emandako ebazpenean erabaki dut enkante publikoan saltzea ondoko zerrendan, tasazio-prezioa finkatuta, ageri diren ondasunak, alderdiemandatuarenak baitira:

Enkantean jartzen diren ondasunak eta horien balorazioa:

Volta modeloko sofa, 3 plazakoa, chaise longue bat daukana ezkerrealdetik: Mila eta seihun euroan (1.600 euro) dago baloratuta.

Enkantearen baldintzak:

Epaitegi honen egoitzan egingen da, Iruñean, 2010eko apirilaren 15ean, goizeko 10:00etan.

Ezinbesteko arrazoiengatik bertan behera uzten bada, hurrengo egun baliiodunean egingen da (larunbata salbu), ordu berean eta toki berean.

Enkantea egiteko baldintza hauek bete behar dira:

Lehenbizikoa.—Errematea egin aurretik zordunak bere ondasunak askatzen ahaliko ditu, printzipala, interesak eta kostuak ordainduz.

Bigarrena.—Lizitatzailerek beren nortasuna behar bezala frogatu beharko dute, enkantearen baldintza orokorrek eta partikularrek ezagutzen dituztela adierazi, eta epaitegi honek Baneston duen Gordailu eta Kontsignazioen kontuan, Iruñeko Nafarroako Gorteen kaleko 5eko sukurtsalean, 0030-1846 42 0005001274 kontuan, hain zuzen, 3158.0000.64 0111 08 prozeduraren erreferentzia jarriz, enkanteko ondasunen tasazio-balioaren %20 sartu izanaren gordekina aurkeztuko dute edo, bestela, kopuru hori adinako banku-abala jarri izanarena.

Prozedura Zibilar buruzko Legearen 652. artikularen 1. idatz-zatian xedatutakoarekin bat, enkantean parte hartzeko jarritako diru kopuruak itzuli egingen dira errematea onetsi ondoren.

Hirugarrena.—Iragarki hau argitaratzen denetik enkantea egin arte, posturak idatziz aurkeztu ahaliko dira gutun-azal itxian. Horren barnean erantsi beharko dira posturagilearen behar adinako identifikazioa, enkantearen baldintzak ezagutzen dituelako adierazpena eta aurreko baldintzan aipatutako gordailua egin izanaren frogagiria.

Epaitegiko idazkaritzan aurkeztu ahaliko dira, enkantea hasteko ezarritako ordura arte.

Gutun-azal itxiak enkantearen hasieran irekiko dira. Gutun-azaletakoa posturak jendaurrean egingen dira, besteekin batera, eta ahoz egiten direnen ondorio berberak izanen dituzte.

Laugarrena.—Alderdi betearazleak enkantean parte har dezake, bakar-bakarrik, lizitazailerik badago. Egiten diren posturak hobetzen ahaliko ditu eta horretarako ez du diru kopururik jarri behar izan.

Bosgarrena.—Posturak egin eta errematea hirugarren bati lagatzeko ahalmena alderdi betearazleari dagokio, ez beste inori.

Seigarrena.—Enkantean nahi adina diru eskaini ahal izanen da, baina errematea zuzenean onets dadin, eskainitako diru kopururik handiena enkantean jarritako ondasunen balioaren %50 izan behar da gutxienez ere, ordainketa geroratzeko eskaini gabe. Ehuneko horretatik beharokoa bada, PZLaren 650. artikuluan adierazitakoari jarraikiko zaio.

Zazpigarrena.—Errematearen prezioa 10 eguneko epean ordaindu beharko da, errematea onesten denetik hasita.

Eta herritar orori eta bereziki prozesu honetako alderdiei jakinarazteko balio izan dezan, honako hau egiten dut.

Iruñean, 2010eko martxoaren 16an.—Idazkari judiziala, Rosa M. Valencia Ederra.

J1005028

### TUTERAKO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO

#### 4. EPAITEGIA

#### Enkante publikoa. 585/2009 betearazpena

Elena Galarza Arratibelak, idazkari judizialak,

Aditza ematen dut: organo judizial honetan bideratzen ari diren 585/2009 hipoteka-betearazpeneko autoetan erabaki da ediktu honen atal nagusian azaltzen diren ondasun higiezinaren enkante publiko egitea, eta halaxe adierazten da ekitaldia organo honetako entzunaldi-aretoan 2010eko maiatzaren 14ko goizeko hamarretan egin dadin, baldintza hauei jarraikiz:

1. Posturak egiteko baldintzak: enkantean parte hartzeko, lizitazailerik beren nortasuna frogatu beharko dute. Enkantearen baldintzak

ezagutzen dituztela aitortu beharko dute. Gordailu eta kontsignazioen kontuan, hots, Banestoren 0030 8047 200000000000 kontuan (kontzeptua edo prozeduraren zenbakia: 3412 0000 06 0585 09), enkantean jartzen diren ondasunen balioaren %30 sartu izanaren gordekina aurkeztu beharko dute edo, bestela, kopuru hori adinako banku-abala jarri izanarena. (Gordailu osoa edo zati bat hirugarren batengandik jasotako diruarekin egiten bada, gordekinean azaldu beharko da). Alderdi betearazleak enkantean parte har dezake, bakar-bakarrik, lizitazailerik badago. Kasu horretan, ez du enkantean parte hartzeko dirurik jarri beharko. Posturak egin eta errematea hirugarren bati lagatzeko ahalmena alderdi betearazleari dagokio, ez beste inori (Prozedura Zibilar buruzko Legearen 647., 669.1 eta 666. artikulua).

2. Idatzizko posturak. Idatzizko posturak enkantea iragartzen denetik hura hasi arte egin daitezke. Gutun-azal itxietan aurkeztuko dira, adierazitako baldintza berberetan. Gutun-azalak enkantearen ekitaldiaren hasieran irekiko dira. Gutun-azaletakoa posturak jendaurrean egingen dira, besteekin batera, eta ahoz egiten direnen ondorio berberak izanen dituzte (Prozedura Zibilar buruzko Legearen 648. artikulua).

3. Titulazioa eta zamak. Enkantean parte hartzeak berarekin dakar posturagileek autoetan agertzen den titulazioa askitatzeko hartzeko edo, hala bada, titulaziorik ez dagoela onartzea. Era berean, auzi-jartzailearen kredituaren aurreko zamek eta kargek bere horretan segitzeko dutela onartuko dute, halakorik bada, eta errematea beren alde esleitzeko gero, kredituen erantzukizun subrogatuko direla.

Erregistroko ziurtagiriak eta, hala badagokio, ondasunen titulazioa epaitegiko idazkaritzan daude ikusgai (PZLaren 668. eta 669.2 artikulua).

4. Errematea onesteko baldintzak. Onartzen diren posturak.

1.1. Posturarik onena enkantean jarri den ondasunaren balioaren %70ekoa edo handiagoa bada, errematea posturagile onenaren alde onetsiko da, eta horrek 20 eguneko epea izanen du jarritako diruaren eta errematearen azkeneko prezioaren arteko aldea ordaintzeko.

1.2. Postura guztiak enkantean jartzen den ondasunaren balioaren %70etik gorakoak badira, baina behar adinako banku- edo hipoteka-bermea aurkeztu eta epeka ordaintzea eskaintzen badute, postura horietatik onenaren aldeko errematea onesten ahaliko da, salbu eta alderdi betearazleak hurrengo 20 eguneko epean eskatzen badu higieztina berari esleitzeko enkantearen hasierako balioaren %70 ordainduta.

1.3. Enkanteko posturarik onena enkantean jartzen den ondasunaren balioaren %70etik beharokoa bada, honako baldintza hauek bete beharko dira posturarik onenaren aldeko errematea onesteko:

Posturarik onena tasazio-balioaren %50etik gorakoa izatea edo, baxuagoa bada, abiarazitako betearazpenaren zenbatekoa berdintzea gutxienez, interesetarako eta kostuetarako aurrekustutan den dirua barne.

Betearazpeneko alderdiak ez erabiltzea PZLaren 670. artikularen 4. lerroaldian aitortzen zaion ahalmena (postura hobetzen duen hirugarren bati aurkezteko).

Edo aurreko inguruabarra gertatu gabe, alderdi betearazleak ez eskatzea higieztina tasazio-balioaren %70 ordainduta esleitzeko edo kontzeptu guztien ordainean zor zaion diruaren truke, betiere diru kopuru horrek posturarik onena gainditzen badu (Prozedura Zibilar buruzko Legearen 670. artikulua).

5. Posturak egin ahal izateko jarritako gordailuen xedea. Errematea onetsita, posturagileei jarritako dirua itzuliko zaie, posturagile onenari izan ezik. Gainerako posturagileek eskatzen ahaliko dute bakoitzak jarritako dirua epaitegiaren esku gelditzea, erremategileak gainerako dirua ordaindu ezean, haren ondotik daudenen aldeko errematea onets dadin, egindako posturen arabera. (Prozedura Zibilar buruzko Legearen 652. artikulua).

6. Enkantearen porrota. Erremategileak falta den dirua ezarritako epean ordaintzen ez bada edo bere erruagatik salmenta ondorioz gabe gelditzen bada, egindako gordailua galduko du. (Prozedura Zibilar buruzko Legearen 653. artikulua).

—Hiri finka, familia bakarreko etxebizitza Buñuelgo Kale Nagusiko 17an. Tuterako Jabetza Erregistroan inskribatua: 3197. liburukia, 136. liburua, 29. orria. Balorazioa: 105.000 euro (ehun eta bost mila euro).

Tuteran, 2010eko martxoaren 3an.—Idazkari judiziala, Elena Galarza Arratibel.

J1004133

### CUENCAKO LAN ARLOKO 1. EPAITEGIA

#### Zitazio ediktua

Ángeles De las Heras López andreak, Cuencako Lan arloko 1. Epaitegiko idazkariak,



Aditzera ematen dut: gaurko egunean emandako probidentzia-proposamenaren bidez, Jorge Ricardo Paredes Díaz jaunak eskaturik, gai arruntaren gaineko erreklamazioa dela-eta, Construcciones Metálicas Talluntxe S.A.ren aurka bideratzen ari den 0000979/2009 prozesuaren barruan, erabaki da Construcciones Metálicas Talluntxe, S.A.ri zitazioa egitea, non den jakiterik ez baitago, 2010eko maiatzaren 5ean ager dadin, 10:00etan, adiskidetze-ekitaldia eta, beharrezkoa bada, judizioa egiteko. Halaber, alderdiaren galdeketa egiteko zitazioa egiten zaio alderdiemandatuaren legezko ordezkariari, eta ohartarazten zaio agertzen ez bada aitortutzat jotzen ahalko dutela, eta errekerimendua egiten zaio lan kontratua, altaren agiria eta lansarien ordainagiriak aurkezteko.

Ekitaldi horiek Lan arloko 1. Epaitegi honetako judizio-aretoan eginen dira (Colón kalea, 57). Demandatua bera agertu beharko da, edo legezko

ahalordea duen beste pertsona bat, eta erabili nahi dituen frogabide guztiak ekarri beharko ditu. Aditzera ematen zaio deialdi bakarra dela eta bidezko arrazoirik gabe agertzen ez bada, ekitaldi horiek ez direla bertan behera utziko.

Hartzaileari ohartarazten zaio aurrerantzean jakinarazpenak epaitegi honetako iragarki-lekuan eginen direla, autoenak, epaienak eta epatzeenak izan ezik.

Eta Construcciones Metálicas Talluntxe, S.A.ri zitazioa egiteko balio izan dezan, zedula hau egiten da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko eta iragarki-oholean jartzeko.

Cuencan, 2010eko otsailaren 25ean.–Idazkari judiziala, Ángeles De Las Heras López.

## 6. BESTELAKO IRAGARKIAK

### 6.1. JAKINARAZPEN EDIKTUAK

#### DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

##### Dirección General de Interior Edictos de notificación

Habiendo resultado imposible la notificación prevista en los artículos 59 y 135 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, de las Resoluciones del Director General de Interior que se citan en Anexo, se procede mediante el presente edicto a dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 59.5 de la citada Ley de Procedimiento Administrativo.

A partir del día siguiente a la publicación del presente anuncio, los interesados podrán interponer recurso de alzada ante el Gobierno de Navarra en el plazo de un mes, de conformidad con los artículos 57 de la Ley Foral 15/2004, de 3 de diciembre, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Pamplona, 9 de marzo de 2010.–El Director General de Interior, Juan Ramón Rábade Iraizoz.

#### ANEXO

Expediente: 9149/2009.

Resolución: 632/2010, de 15 de febrero, del Director General de Interior.

Acto que se comunica: Resolución sancionadora.

Inculpado: Gustavo Luzuriaga Burgui. Localidad: Altsasu/Alsasua.

Precepto infringido: Artículo 26 i) de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Sanción: 150 euros.

F1004460

#### DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

##### Dirección General de Interior Edictos de notificación

Habiendo resultado imposible la notificación prevista en los artículos 59 y 135 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, de las Resoluciones del Director General de Interior que se citan en Anexo, se procede mediante el presente Edicto a dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 59.5 de la citada Ley de Procedimiento Administrativo.

A partir del día siguiente a la publicación del presente anuncio, los interesados tendrán a su disposición el expediente en las oficinas de la Dirección General de Interior, situadas en la Avenida Carlos III, número 2, a fin de conocer el contenido íntegro del mismo y poder formular recurso de alzada ante el Consejero de Presidencia, Justicia e Interior, en el plazo de un mes.

Pamplona, 11 de marzo de 2010.–El Director General de Interior, Juan Ramón Rábade Iraizoz.

#### ANEXO

Expediente: 0031852/2009.

Acto que se comunica: Resolución sancionadora. Sanción: 300.

Resolución: 579/2010, de 9 de febrero, del Director General de Interior.

Inculpado: Ismael Gurpegui Alonso. Localidad: Entrena.

Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0034981/2009.

Acto que se comunica: Resolución sancionadora. Sanción: 300.

Resolución: 571/2010, de 9 de febrero, del Director General de Interior.

Inculpado: Angel Laplaza Cabanillas. Localidad: Tudela.

Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0025590/2009.

Acto que se comunica: Resolución sancionadora. Sanción: 400.

Resolución: 543/2010, de 8 de febrero, del Director General de Interior.

Inculpado: Fermín Soto Aznarez. Localidad: Pamplona.

Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0031806/2009.

Acto que se comunica: Resolución sancionadora. Sanción: 300.

Resolución: 514/2010, de 8 de febrero, del Director General de Interior.

Inculpado: Ioan López Fuentes. Localidad: Orcuyen.

Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0034720/2009.

Acto que se comunica: Resolución sancionadora. Sanción: 450.

Resolución: 517/2010, de 8 de febrero, del Director General de Interior.

Inculpado: Rufino Martínez León. Localidad: Calahorra.

Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0039770/2009.

Acto que se comunica: Resolución sancionadora. Sanción: 450.

Resolución: 578/2010, de 9 de febrero, del Director General de Interior.

Inculpado: Iñaki Tellechea Lizásoain. Localidad: Elgorriaga.

Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0039605/2009.

Acto que se comunica: Resolución sancionadora. Sanción: 300.

Resolución: 559/2010, de 8 de febrero, del Director General de Interior.

Inculpado: Miren Santesteban Tellechea. Localidad: Zubieta.

Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0028537/2009.

Acto que se comunica: Resolución sancionadora. Sanción: 300.

Resolución: 396/2010, de 2 de febrero, del Director General de Interior.

Inculpado: Erik Valverde. Localidad: Leiza.

Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

F1004564

#### DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

##### Dirección General de Interior Edictos de notificación

Habiendo resultado imposible la notificación prevista en los artículos 59 y 135 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, de las Resoluciones del Director General de Interior que se citan en Anexo, se procede mediante el presente Edicto a dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 59.5 de la citada Ley de Procedimiento Administrativo.

A partir del día siguiente a la publicación del presente anuncio, los interesados tendrán a su disposición el expediente en las oficinas de la Dirección General de Interior, situadas en la Avenida Carlos III, número 2, a fin de conocer el contenido íntegro del mismo y poder formular alegaciones y proponer pruebas en el plazo de 15 días hábiles.

Pamplona, 11 de marzo de 2010.–El Director General de Interior, Juan Ramón Rábade Iraizoz.

#### ANEXO

Expediente: 0028849/2010.

Resolución: 347/2010, de 1 de febrero, del Director General de Interior.

Acto que se comunica: Inicio de procedimiento sancionador.

Inculpado: Álvaro Duserm Garrido. Localidad: Alcanadre.

Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0039314/2010.

Resolución: 440/2010, de 3 de febrero, del Director General de Interior.

Acto que se comunica: Inicio de procedimiento sancionador.

Inculpado: Antonio De Los Santos Joaquín Barraña. Localidad: Burlada.

Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0042024/2010.

Resolución: 445/2010, de 2 de febrero, del Director General de Interior.

Acto que se comunica: Inicio de procedimiento sancionador.

Inculpado: Francisco Jiménez Antimasueres. Localidad: Tafalla.

Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0039019/2010.

Resolución: 466/2010, de 3 de febrero, del Director General de Interior.  
Acto que se comunica: Inicio de procedimiento sancionador.  
Inculpado: Francisco Jiménez Antimasueres. Localidad: Tafalla.  
Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0036770/2010.

Resolución: 468/2010, de 3 de febrero, del Director General de Interior.  
Acto que se comunica: Inicio de procedimiento sancionador.  
Inculpado: Jonatan Saez Rodríguez. Localidad: Subiza.  
Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

Expediente: 0039729/2010.

Resolución: 474/2010, de 3 de febrero, del Director General de Interior.  
Acto que se comunica: Inicio de procedimiento sancionador.  
Inculpado: Iker Gabilondo Garmendía. Localidad: Bergara.  
Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

F1004572

## DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

### Dirección General de Interior Edictos de notificación

Habiendo resultado imposible la notificación prevista en los artículos 59 y 135 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, de las Resoluciones del Director General de Interior que se citan en Anexo, se procede mediante el presente Edicto a dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 59.5 de la citada Ley de Procedimiento Administrativo.

A partir del día siguiente a la publicación del presente anuncio, los interesados tendrán a su disposición el expediente en las oficinas de la Dirección General de Interior, situadas en la Avenida Carlos III, número 2, a fin de conocer el contenido íntegro del mismo y poder formular alegaciones y presentar los documentos pertinentes en el plazo de 15 días hábiles.

Pamplona, 12 de marzo de 2010.—El Director General de Interior, Juan Ramón Rábade Iraizoz.

### ANEXO

Expediente: 0029886/2010.

Acto que se comunica: Propuesta de Resolución.  
Inculpado: Diego José Escribano García. Localidad: Barcelona.  
Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana.

F1004625

## DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS, TRANSPORTES Y COMUNICACIONES

### Notificación de resoluciones sancionadoras en materia de transportes

El Director del Servicio de Ordenación y Gestión de Transportes ha dictado resolución sancionadora en los expedientes cuyos datos se detallan en el anexo adjunto por infracción de la normativa reguladora de los transportes terrestres.

Habiendo resultado imposible practicar la notificación prevista en el artículo 59.1 y 2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se procede a su notificación de conformidad con lo dispuesto en los artículos 59.5 y 61 de dicha ley, comunicando a los interesados que pueden personarse y tener conocimiento del texto íntegro del acto notificado en el Servicio de Ordenación y Gestión de Transportes del Departamento de Obras Públicas, Transportes y Comunicaciones, sito en la calle Yanguas y Miranda, 5, 31002 Pamplona, en un plazo de diez días a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra.

Los interesados pueden interponer recurso de alzada ante el Gobierno de Navarra en el plazo de un mes computado desde el día que los interesados se personen para conocer la resolución sancionadora o, en su caso, a partir del transcurso del plazo de 10 días concedido para su comparecencia.

Pamplona, 9 de marzo de 2010.—El Director del Servicio de Ordenación y Gestión de Transportes, Jesús Posadas Martínez.

### ANEXO

Expediente: NA 0787/09.

N.º de Boletín de denuncia/Acta: 255050.  
Nombre: Noe García Pamies.  
Población: Murcia.  
Fecha de la denuncia: 15 de noviembre de 2008.  
Matrícula del vehículo: 1346-FCR.  
Precepto infringido: 141.5 Ley 16/1987 y 198.5 Reglamento 1211/1990.  
Cuantía de sanción: 1.501,00 euros.

Expediente: NA 1128/09.

N.º de Boletín de denuncia/Acta: 251861.  
Nombre: Casares Robles José Berto.  
Población: Salobreña.  
Fecha de la denuncia: 15 de enero de 2009.  
Matrícula del vehículo: 0186-DPM.  
Precepto infringido: 140.13 Ley 16/1987 y 197.13 Reglamento 1211/1990.  
Cuantía de sanción: 4.601,00 euros.

Expediente: NA 1223/09.

N.º de Boletín de denuncia/Acta: 141092.  
Nombre: Armando Delgado Botero.  
Población: Zaragoza.  
Fecha de la denuncia: 15 de octubre de 2008.  
Matrícula del vehículo: 7325-BGR.  
Precepto infringido: 141.4 Ley 16/1987 y 198.4 Reglamento 1211/1990.  
Cuantía de sanción: 1.951,00 euros.

Expediente: NA 1570/09.

N.º de Boletín de denuncia/Acta: 141837.  
Nombre: Trans Garlosar, S.L.L.  
Población: Caniles.  
Fecha de la denuncia: 26 de enero de 2009.  
Matrícula del vehículo: 6703-FPG.  
Precepto infringido: 140.24 Ley 16/1987 y 197.24 Reglamento 1211/1990.  
Cuantía de sanción: 2.001,00 euros.

Expediente: NA 1784/09.

N.º de Boletín de denuncia/Acta: 252506.  
Nombre: Martón Moncayola, Ricardo.  
Población: Arguedas.  
Fecha de la denuncia: 29 de noviembre de 2008.  
Matrícula del vehículo: 3278-FNS.  
Precepto infringido: 141.19 Ley 16/1987.  
Cuantía de sanción: 1.001,00 euros.

Expediente: NA 1829/09.

N.º de Boletín de denuncia/Acta: 255353.  
Nombre: Pablo Banzo Pintado.  
Población: Huesca.  
Fecha de la denuncia: 3 de diciembre de 2008.  
Matrícula del vehículo: -.  
Precepto infringido: 141.4 Ley 16/1987 y 198.4 Reglamento 1211/1990.  
Cuantía de sanción: -.

Expediente: NA 3105/09.

N.º de Boletín de denuncia/Acta: 257539.  
Nombre: Tipanluisa Velasco Jaime Enrique.  
Población: Zaragoza.  
Fecha de la denuncia: 10 de marzo de 2009.  
Matrícula del vehículo: 0898-FZB.  
Precepto infringido: 141.19 Ley 16/1987, 198.19 ROTT.  
Cuantía de sanción: 1.001,00 euros.

Expediente: NA 3122/09.

N.º de Boletín de denuncia/Acta: 255486.  
Nombre: Operador Logístico del Ebro, S.L.  
Población: Zaragoza.  
Fecha de la denuncia: 11 de marzo de 2009.  
Matrícula del vehículo: -.  
Precepto infringido: 141.31 en relación con 140.1.9 LOTT, 198.31 en relación con 197.1.9.  
Cuantía de sanción: 1.501,00 euros.

Expediente: NA 3125/09.

N.º de Boletín de denuncia/Acta: 255485.  
Nombre: Operador Logístico del Ebro, S.L.  
Población: Zaragoza.  
Fecha de la denuncia: 11 de marzo de 2009.  
Matrícula del vehículo: 2984-CSM.  
Precepto infringido: 140.19 Ley 16/1987 y 197.19 Reglamento 1211/1990.  
Cuantía de sanción: 4.600,00 euros.

Expediente: NA 3361/09.  
 N.º de Boletín de denuncia/Acta: 143878.  
 Nombre: Navarro González, Salvador.  
 Población: Garrapinillos.  
 Fecha de la denuncia: 26 de marzo de 2009.  
 Matrícula del vehículo: 9905-BNH.  
 Precepto infringido: 141.5 Ley 16/1987 y 198.5 Reglamento 1211/1990.  
 Cuantía de sanción: 1.501,00 euros.

F1004605

## ANSOÁIN

### Notificación de incoación de expedientes sancionadores

No habiendo podido ser notificada la incoación de los expedientes sancionadores que se detallan, de conformidad con lo establecido los artículos 59 y 61 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se publica el siguiente edicto en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento del último domicilio de los denunciados:

–Denunciado: Gorka Olaiz San Martín; Fecha denuncia: 22 de enero de 2010; Infracción: orinar en la vía pública; Multa propuesta: 150 euros, que se podrá sustituir por 10 horas de servicios en beneficio de la comunidad, si en el plazo de quince días hábiles a contar desde la publicación de la presente notificación, la persona denunciada manifiesta el reconocimiento de la infracción cometida, la conformidad con la sanción impuesta, y su consentimiento y voluntad de que le sea aplicable como sanción alternativa la realización de servicios en beneficio de la comunidad; Preceptos infringidos: Artículo 8.g) Ordenanza de la Vía Pública del Ayuntamiento de Ansoáin, Boletín Oficial de Navarra 120, de 3 de octubre de 2001, Número expediente: EXPSANC/2010/4.

–Denunciado: Asier Lasheras Ruiz; Fecha denuncia: 3 de diciembre de 2009; Infracción: consumo de sustancias estupefacientes en la vía pública; Multa propuesta: 150 euros, que se podrá sustituir por 10 horas de servicios en beneficio de la comunidad, si en el plazo de quince días hábiles a contar desde la publicación de la presente notificación, la persona denunciada manifiesta el reconocimiento de la infracción cometida, la conformidad con la sanción impuesta, y su consentimiento y voluntad de que le sea aplicable como sanción alternativa la realización de servicios en beneficio de la comunidad; Preceptos infringidos: Artículo 25.1) Ley Orgánica 1/1992, sobre Protección Ciudadana; Número expediente: EXPSANC/2010/7.

En el plazo de quince días a contar desde el siguiente al de la publicación del presente edicto, el expedientado podrá presentar cuantas alegaciones, documentos o informaciones estime conveniente y, en su caso, proponga pruebas, concretando los medios de que pretenda valerse; advirtiéndole que de no efectuar alegaciones sobre el contenido de la iniciación del procedimiento, este acto será considerado propuesta de resolución, significándole que la cuantía de la sanción que se propone es de 150 euros.

El denunciado podrá examinar el expediente en las Oficinas Municipales, Plaza Consistorial, 1-1.ª planta, de 08:30 a 14:00, de lunes a viernes.

Ansoáin, 10 de marzo de 2010.–El Alcalde, Antonio Gila Gila.

L1004459

## CASCANTE

### Notificación de denuncia Propuesta de resolución

No habiendo podido ser notificadas las denuncias formuladas por infracciones a la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, que figuran en la siguiente relación, de conformidad con lo

dispuesto en la ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás legislación aplicable, se publica el presente edicto en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Edictos del Ayuntamiento de residencia de los denunciados.

El pago de la sanción:

De conformidad con el artículo 67 del R.D.L. 339/1990, de 2 de marzo, el interesado podrá hacer efectiva la cuantía de la sanción con reducción del 30% sobre la cuantía, siempre que se haga efectiva antes de los treinta días naturales siguientes a aquel en que tenga lugar la citada notificación.

Forma de pago: La sanción se hará efectiva dentro de los quince días hábiles siguientes a la fecha de su firmeza (Art. 84.1 L.S.V.), en la Tesorería Municipal, sita en la primera planta de la casa consistorial, en horario de 12:00 a 14:30 horas, de lunes a viernes, a través de cualquier oficina de la Caixa, haciendo constar en estos dos últimos casos, número de expediente, número de boletín y fecha de infracción.

El pago de la sanción pone fin al procedimiento, salvo posible suspensión de la autorización para conducir (Art.8.2 R.D. 1398/1993).

Alegaciones:

El interesado/a dispone de quince días Hábiles, contados desde el siguiente a la recepción de la presente notificación para presentar alegaciones (art.10 R.D. 320/1994) y proponer las pruebas que considere convenientes para su defensa, debiendo hacerlo mediante presentación de escrito en el Registro General del Ayuntamiento, haciendo constar nombres y dos apellidos y número de expediente, o en alguno de los lugares señalados en el artículo 38 de la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, Boletín Oficial del Estado número 12, de 14 de enero de 1999.

Si el/la denunciado/a no presenta escrito de alegaciones ni propone prueba alguna, el presente documento se considerará Propuesta de Resolución, por contener un pronunciamiento preciso acerca de la responsabilidad imputada, según dispone el artículo 13.2 del R.D. 1398/93 de 4-8, Boletín Oficial del Estado 9 de agosto de 1993, en relación con el artículo 13.2 del Real Decreto 320/1994, en su redacción dada por el Real Decreto 137/2000 de 4 de febrero Boletín Oficial del Estado 18 de febrero de 2000. Se señala así mismo que el expediente se encuentra a su disposición en las oficinas de la Policía Municipal, sitas en la Plaza de los Fueros, número 1, de 09:00 a 13:30, de lunes a viernes.

Sólo en el caso de que no sea el conductor del vehículo el que aparece como titular y al amparo de lo dispuesto en el artículo 72.3 del Real Decreto Legislativo 339/90 de 2 de marzo, se requiere al titular del vehículo, para que, si él no fuera el responsable de la infracción, en el plazo de Quince Días

Hábiles contados desde el siguiente a la notificación de la denuncia, proceda a su identificación, presentado a tal efecto, en el Registro General del Ayuntamiento o en alguno de los lugares señalados en el artículo 38 de la Ley 4/1999, de modificación de la Ley 30/92 de 26 de noviembre,

Boletín Oficial del Estado 12 de 14 de enero de 1999, un escrito en el que consten el nombre y dos apellidos, D.N.I. y domicilio del infractor.

En caso de negativa a realizar dicha identificación se formulará al titular del vehículo, denuncia por infracción muy grave que podrá ser sancionada con multa de hasta 1500 euros. En los mismos términos responderá el titular del vehículo cuando no sea posible notificar la denuncia al conductor que aquel identifique, por causa imputable a dicho titular. Cuando sea declarada la responsabilidad de los hechos cometidos por un menor de 18 años, se estará a lo dispuesto en el segundo y tercer párrafo del apartado 1 del artículo 72 del R.D.L 339/1990, de 2 de marzo.

Cascante, 4 de febrero de 2010.–El Alcalde, Antonio Irujo Redrado.

EXPEDIENTE	APELLIDOS Y NOMBRE	MATRICULA	DNI/CIF	DIA	IMPORTE	INFRACCION	PUNTOS
000000001492	AURUC CONSULTORIA, S.L.	3885-CXZ	B31792443-A	05/06/2009	21,00	OMT: (39.2.a) (94.2.a)	
000000001499	GREGORIO FUENTES	9360-CKT	15789177-E	25/06/2009	21,00	OMT: (38.3) (91.1)	
000000001502	ABDELGHANI LAKEHAL	BI-7712-AX	X-2475080-G	06/07/2009	42,00	LSV: 71-1-1A	
000000001505	SERGIO VISANZAY SENA	8279-CKC	78753092-B	12/06/2009	49,00	OMT: (39.2.D)-	
000000001507	MARIA REQUENA MARTIN	7949-DLM	25174018-N	23/06/2009	21,00	OMT: (38.3) (91.2.M)-	
000000001511	DÑA MARIA PILAR SANCHEZ MORALES	3115-CPN	78741728-D	18/05/2009	21,00	OMT: (38.3) (91.1)	
000000001517	FRANCISCO JAVIER GARCIA GUERRA	2874-CFF	16015352-S	09/07/2009	21,00	OMT: (38.3) (91.2.M)-	
000000001519	BEGOÑA REMON CIRIA	NA-1499-AV	52448923-E	20/07/2009	21,00	OMT: (39.2.B) (94.2.B)	
000000001522	JUAN ANTONIO MIRAMON DIAZ	NA-8837-Z	16006966-R	23/07/2009	21,00	OMT: (39.2.B) (94.2.B)	
000000001528	MARIA VERONICA CARDENAS CARDENAS	9921-DZC	X4360739-P	24/05/2009	21,00	OMT: (39.2.a) (94.2.a)	
000000001529	JUAN CARLOS ELENA ORCAJO	5027-BRT	13112183-K	01/06/2009	49,00	OMT: (38.3) (91.2)	
000000001532	JUAN DA ESTRELLA	6212-BFN	34106964-B	21/07/2009	21,00	OMT: (39.2.B) (94.2.B)	
000000001533	FELIX ANGEL SANZ BLANCO	NA-2228-BD	16005933-A	23/07/2009	21,00	OMT: (39.2.B) (94.2.B)	
000000001534	JESUS RUIZ DIAZ	7114-BLW	25464695-S	23/07/2009	21,00	OMT: (39.2.B) (94.2.B)	
000000001536	AICHA BIHI	8844-FXG	X4116799-Y	22/06/2009	21,00	OMT: (38.3) (92.2)	
000000001541	JOSE RAMON ALONSO	2514-CVJ	29106648-X	12/08/2009	21,00	OMT: (38.3) (91.1)	

EXPEDIENTE	APELLIDOS Y NOMBRE	MATRICULA	DNI/CIF	DIA	IMPORTE	INFRACCION	PUNTOS
000000001543	ELISA DE LOS SANTOS	B-8818-VV	316077302-D	10/08/2009	21,00	OMT: (39.2.B) (94.2.B	3
000000001545	JUAN JOSE GARCIA CIORDIA	3693-BWL	73074230-X	12/08/2009	49,00	OMT: (39.2.C) (94.2.C	
000000001551	FRANCISCO JAVIER ECHAVE ABOY	C-8932-BNX	16019047-F	20/08/2009	21,00	OMT: (38.3) (91.1)	
000000001552	GUZMAN MIRAMON DIAZ	NA-4061-AX	72649664-R	20/08/2009	21,00	OMT: (38.3) (92.2)	
000000001553	ARITZ MARIN CLEMENTE	2382-FRV	52448309-Y	21/08/2009	105,00	RGC: 18-2-2D	
000000001555	JUAN SAN JUAN OCHOA	5682-CXM	52446249-Q	25/08/2009	35,00	OMT: (152) (53.1)	
000000001560	MARTIN LUDUEÑA PABLO	M-6319-PU	X7230033-Y	18/08/2009	21,00	OMT: (38.3) (91.1)	
000000001561	TOMAS MORENO SERRANO	NA-7312-AZ	78065013-T	25/08/2009	21,00	OMT: (38.3) (91.1)	
000000001563	JOSE ANTONIO AGUADO RUIZ	4051-FDL	72629868-P	30/08/2009	21,00	OMT: (38.3) (91.2.M)-	
000000001564	KAMEL CHAID	0028-GLM	X4319448-W	30/08/2009	21,00	OMT: (38.3) (91.1)	

L1005387

**NOÁIN (VALLE DE ELORZ)****Notificación de incoación de expedientes sancionadores**

De conformidad con lo establecido en los artículos 59 y 60 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, se hace pública la notificación de la incoación de los expedientes sancionadores que se indican, a los denunciados que se relacionan:

Denunciado: Óscar Luque Domínguez. Infracción: Tenencia ilícita de sustancias, supuestamente marihuana (D/2009/4). Precepto infringido: Artículo 25.1 de la Ley Orgánica de Protección de la Seguridad Ciudadana. Sanción propuesta: 150 euros.

En el plazo de quince días hábiles, los denunciados podrán formular alegaciones y proponer las pruebas que estimen convenientes en su defensa. Dichas alegaciones se presentarán por escrito en el Registro municipal, o en cualquiera de los lugares previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

Se comunica al expedientado que puede reconocer su responsabilidad, imponiéndosele la sanción correspondiente y realizar el pago de la sanción pecuniaria en su caso.

En el caso de que no sean formuladas alegaciones en el plazo indicado, el presente acto administrativo podrá ser considerado propuesta de resolución con los efectos previstos en los artículos 18 y 19 del Reglamento del procedimiento para el ejercicio de la potestad sancionadora, significando que la cuantía de sanción que se propone es de 150 euros.

Noáin (Valle de Elorz), 9 de marzo de 2010.–El Alcalde, Miguel Elizari Reta.

L1004465

**PAMPLONA****Notificación de denuncias por infracciones de tráfico**

No habiendo podido ser notificadas las denuncias formuladas por Policía Municipal o vigilantes de tráfico por infracciones a la normativa vigente sobre tráfico que figuran en la siguiente relación, de conformidad con lo dispuesto en la Ley del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás legislación aplicable, se publica el presente edicto en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de edictos del Ayuntamiento o Concejo de residencia de los denunciados.

Aquellas denuncias correspondientes a infracciones recogidas en el anexo II de la Ley 17/2005, de 19 de julio, por la que se regula el permiso y la licencia de conducción por puntos, una vez sancionadas y firmes en vía administrativa, conllevan la pérdida de puntos correspondiente que se especifica en la columna denominada "puntos".

LSV: Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

RGC: Reglamento General de Circulación.

OMT: Ordenanza Municipal de Tráfico.

ORZEL: Ordenanza Reguladora de las Zonas de Estacionamiento Limitado y restringido.

1. La multa podrá ser pagada con un 50% de descuento en el plazo de treinta días naturales contados a partir del día siguiente al de la publicación de este edicto en el Boletín Oficial de Navarra. El pago podrá realizarse

en el depósito municipal de vehículos (calle San Roque) las 24 horas del día, en las oficinas del Área de Seguridad Ciudadana (calle Monasterio de Irache, 2) de 8:30 a 14:30 horas, en Recaudación y Tesorería (sita en el segundo piso de Casa Marceliano, calle Mercado, 7-9) de 8:30 a 14:30 horas, por transferencia o ingreso directo en la cuenta de Caja Navarra número 2054 0152 38 1100040274 o por giro postal. Al realizar el pago deberá hacerse constar siempre nombre y dos apellidos del denunciado, matrícula del vehículo y número de expediente.

2. El pago de la multa con el 50% de descuento implicará la renuncia a formular alegaciones y la terminación del procedimiento sin necesidad de dictar resolución expresa, sin perjuicio de la posibilidad de interponer los recursos correspondientes. Al amparo de lo dispuesto en el artículo 72.3 del Real Decreto Legislativo 339/90, de 2 de marzo, se requiere al titular del vehículo para que, si él no fuera el responsable de la infracción, en el plazo de quince días hábiles contados desde el siguiente a la publicación del presente edicto en el Boletín Oficial de Navarra, proceda a su identificación, presentando a tal efecto en el Registro General del Ayuntamiento o en alguno de los lugares señalados en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, un escrito en el que consten el nombre y dos apellidos, número del documento nacional de identidad y domicilio del infractor. En caso de incumplimiento de la obligación de realizar tal identificación se sancionará al titular del vehículo como autor de falta muy grave con multa de 302 a 1.500 euros.

3. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 79 de Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo y en los artículos 11 y 12 del Real Decreto 320/1994, de 25 de febrero, por el presente edicto, se notifica la denuncia al titular del vehículo como presunto infractor. En el caso de que la propietaria del vehículo sea una persona jurídica (sociedades), deberá identificarse en todo caso al conductor responsable de la infracción, puesto que en caso contrario se incoará expediente a la sociedad por falta grave con multa de 302 a 1.500 euros.

4. Si el denunciado no presenta escrito de alegaciones ni propone prueba alguna, la presente notificación se considerará propuesta de resolución y se elevará a la señora Concejala Delegada de Movilidad y Seguridad Ciudadana, que es el órgano competente para sancionar por decreto de Alcaldía de delegación de competencias de 25 de junio de 2007. Los hechos que se consideran probados, la infracción que constituyen, su calificación, la persona responsable de los mismos y la sanción que se propone, son los que figuran en las casillas correspondientes con las leyendas de "hecho denunciado", "precepto infringido", "calificación", "denunciado" e "importe".

5. El expediente se encuentra a disposición del denunciado en las oficinas del Área de Seguridad Ciudadana (calle Monasterio de Irache, 2), de 8:30 a 14:30 horas los días laborables.

6. En el plazo de quince días hábiles contados desde el siguiente a la publicación del presente edicto en el Boletín Oficial de Navarra, podrán presentarse alegaciones y proponer las pruebas que consideren convenientes para su defensa, debiendo hacerlo mediante presentación de escrito en el Registro General del Ayuntamiento o en alguno de los lugares previstos en el artículo 38 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

7. Si no hubiere recaído resolución sancionadora transcurrido un año desde la iniciación del procedimiento se producirá la caducidad de éste.

Pamplona, 10 de marzo de 2010.–El Secretario Técnico del Área de Seguridad Ciudadana Instructor del expediente, firma ilegible.–La Concejala Delegada, Ana Elizalde Urmeneta.

INFRACTOR	MATRICULA	LUGAR	DIA	EXPTE.	IMPORTE	INFRACION	PUNTOS
ABADIA SANZ MARIA	LO-000681-V	AMAYA, 1	14/01/2010	222864	30,00	39.2.B LSV	6
ALDAZ DE LA QUADRA-SALCEDO M. DEL MAR	-006188-DBG	MAYOR	15/01/2010	13458	95,00	94.2.E RGC 39.2.E LSV	
ARAMBURU VILLABONA IGNACIA	-007951-CPD	JUAN MARIA GUEL BENZU, 25	01/01/2010	12953	95,00	91.2.M RGC 38.3 LSV	
ARBIZU ARREGUI ENEKO	NA-002990-AK	PEDRO I, 1	19/01/2010	643673	30,00	39.2.B LSV	
AROSA SALSAMENDI NESTOR	-002990-BYZ	DE ITURRAMA, 66	13/01/2010	715419	60,00	39.2.B LSV	
ARZA BERGERANDI CARLOS E.	-009027-FVL	GARCIA CASTAÑON, 2	15/01/2010	512733	30,00	39.2.B LSV	
ASIN RODRIGUEZ UNAI	-003482-BGY	AVDA SANCHO EL FUERTE, 67	19/01/2010	562351	60,00	39.2.B LSV	
AVILA LOPEZ TRINIDAD JOSE	-000296-CFZ	PASEO SARASATE	23/01/2010	5081	60,00	94.2 RGC 39.2.A LSV	
AVILA TEJADA DAVID	-004183-GBZ	AVDA EJERCITO	11/01/2010	90348	600,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
AZCONA SAINZ M. PILAR	-003140-FYT	ESTACIONAMIENTO HOSPITAL V	15/01/2010	13806	95,00	94.2.E RGC 39.2.E LSV	
AZPILICUETA MARTINEZ JAIRO	SS-009480-BB	UNIVERSIDAD	05/01/2010	170231	120,00	50.1 RGC 19.3 LSV	

INFRACTOR	MATRICULA	LUGAR	DIA	EXPTE.	IMPORTE	INFRACION	PUNTOS
BEGOÑA ZUBIAUR IZASKUN	-000015-BHL	DE ITURRAMA, 64	18/01/2010	721285	60,00	39.2.B LSV	6
BEORLEGUI RETA JULIAN MARIA	NA-006735-AS	AVDA PIO XII	04/01/2010	170219	325,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
BERMEJO MARTIARTU BERTA	-007190-FDN	ARCADIO MARIA LARRAONA, 30	21/01/2010	90575	120,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
BERMUEZ SERNA NOHRA LIBIA	NA-004986-BC	MONASTERIO DE URDAX, 5	13/01/2010	576000	95,00	91.2.G RGC 39.2.C LSV	
BERRIO JIMENEZ MILLAN JAVIER	Z-008624-X	ESQUIROZ, 20	11/01/2010	225508	30,00	39.2.B LSV	
BERRIO VAZQUEZ JUAN BAUTISTA	NA-004825-BB	PAULINO CABALLERO, 36	02/01/2010	9152	95,00	91.2.H RGC 38.3 LSV	
BINT AHMED HAYATT	-002278-FMF	EMILIO ARRIETA, 1 D	15/01/2010	521664	30,00	39.2.B LSV	
BONIFACIO BAUTISTA SANTOS	BA-007823-AB	JULIAN GAYARRE, 5	09/01/2010	698130	90,00	94.2.D RGC 39.2.D LSV	
BUCUR CONSTANTIN	NA-003500-AP	RECOLETAS, 8	08/01/2010	6706	60,00	39.2.B LSV	
BURUSCO JUANDEABAURRE JOAQUIN	NA-003659-V	JOAQUIN GAZTAMBIDE, 16	03/01/2010	767	95,00	91.2.M RGC 38.3 LSV	
CARBONELL CARBONELL JOSE ANGEL	LO-007828-U	DOCTOR HUARTE, 6	05/01/2010	408447	60,00	39.2.B LSV	
CARVAJAL PERALTA JUAN CARLOS	-007897-CVD	JUAN DE LABRIT, 27	17/01/2010	7158	60,00	39.2.B LSV	
CEPEDA POTOSI JOSE SEGUNDO	SS-002979-AD	PASEO SARASATE	07/01/2010	8109	95,00	94.2 RGC 39.2.A LSV	
CESAR SOLA FCO.JAVIER	-009615-GFD	MONTE MONJARDIN, 9	09/01/2010	562268	60,00	39.2.B LSV	
CHAUCA PACALLA HUGO IVAN	LO-007625-T	NUEVA, 111 FR	06/01/2010	5153	60,00	94.2.E RGC 39.2.E LSV	
CIRPACI CRISTINA	-007267-BCB	PZA EZKABA	11/02/2010	170293	180,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
CORBACHO HERNANDEZ FRANCISCO JAVIER	-006136-FDB	PEDRO I, 6	05/01/2010	635913	60,00	39.2.B LSV	
CRUZ MARTOS MARIA DOLORES	-002406-DTC	LARRABIDE, 7	20/01/2010	341525	30,00	39.2.B LSV	
DE DIOS MARTIN JUAN JOSE ANTONIO	NA-005604-Y	DOCTOR LABAYEN, 4	06/01/2010	8502	60,00	91.1 RGC 38.3 LSV	
DIEZ GONZALEZ ROSA M.	-008513-BZB	TRVA MONASTERIO DE BELATE	29/01/2010	9706	60,00	91.2.M RGC 38.3 LSV	
DOMINGUEZ MARCOS DAVID	SS-008873-BJ	MUGAZURI, 8	08/01/2010	90297	120,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
ECHEVERRIA BERNAL AARON FELIPE	NA-008958-AL	PZA VIRGEN DE LA O	22/01/2010	8409	60,00	94.2.E RGC 39.2.E LSV	
ECHEVERRIA GARCIA ANGEL	-007033-GKF	DE ITURRAMA, 66	13/01/2010	567777	95,00	91.2.G RGC 39.2.C LSV	
EGUILLOR MUTILOA DAVID	-003745-BDL	SEÑORIO DE ERANSUS	07/01/2010	11152	90,00	94.2.D RGC 39.2.D LSV	
ERANSUS SAGARZAZU PEDRO	-005359-CWL	AVDA BARAÑAIN	11/01/2010	90351	180,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
ERASO ANDUEZA FCO JAVIER	-009973-GNS	TAFALLA, 23	20/01/2010	538004	95,00	91.2.G RGC 39.2.C LSV	
ESPARZA SAEZ TOMAS IGNACIO	-001292-CBG	SANDOVAL, 6	15/01/2010	415	95,00	94.2.E RGC 39.2.E LSV	
ESPARZA SAEZ TOMAS IGNACIO	-001292-CBG	SANDOVAL, 6	05/02/2010	2039	95,00	94.2.E RGC 39.2.E LSV	
ESPINAL ARANAZ FERNANDO	-003810-BPS	ARTICA	31/01/2010	8714	95,00	91.2.E RGC 39.2.A LSV	
GALARRAGA BRACO MAIDER	-004793-FHK	SAN JUAN BOSCO, 15	11/01/2010	256934	60,00	39.2.B LSV	
GALVAN PINTO JAVIER	-007172-DNV	SAN DOVAL, 2	18/01/2010	443601	60,00	39.2.B LSV	
GARAYOA ARIVE MERCEDES	NA-000184-AX	SANTA MARTA, 23	08/01/2010	698124	60,00	39.2.B LSV	
GARCIA GURPEGUI BENITO	-003890-DNY	MENDIGORRIA	08/01/2010	170254	180,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
GARCIA JAIMES SILVIA JULIANA	-003717-FTT	MUGAZURI	18/01/2010	90551	120,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
GASCON MORRAS IGNACIO	-006552-CTS	TRVA MONTE MONJARDIN, 2	15/01/2010	591636	30,00	39.2.B LSV	
GOMEZ SANCHEZ MARIE LAURE	-000196-BXF	ARALAR, 10	05/01/2010	382802	95,00	94.2 RGC 39.2.A LSV	
GOMEZ SANCHEZ MARIE LAURE	-000196-BXF	ARALAR, 17	04/01/2010	451826	30,00	39.2.B LSV	
GONZALEZ DUFFAURE JORGE	-002313-DYF	CONCEJO DE OLAZ, 11	13/01/2010	12651	95,00	91.2.H RGC 38.3 LSV	
GONZALEZ PATINO COVADONGA	NA-000466-AV	JUAN DE LABRIT	02/01/2010	6004	60,00	39.2.B LSV	
HERNAEZ ARRAZOLA BARBARA	SS-000839-BF	AVDA NAVARRA	21/01/2010	12567	95,00	132.1 RGC 53.1 LSV	
HERRERA ISASI GONZALO	NA-000060-AM	BLAS DE LASERNA, 8	07/01/2010	235195	60,00	39.2.B LSV	
HUALDE PESCAECAN DANIEL	-008741-DMC	ALFONSO EL BATALLADOR, 7	20/01/2010	363287	30,00	39.2.B LSV	
HUESO RIVAS VICTOR	-003559-FFB	JUAN MARIA GUEL BENZU, 18	09/01/2010	698127	60,00	39.2.B LSV	
IRAIZOZ DIEZ DE ULZURRUN EDUARDO	-003780-BVH	TRVA TAFALLA, 5	30/01/2010	15410	60,00	91.2.L RGC 38.3 LSV	
IRALA ESTEVEZ JOKIN DE	-002953-DHY	AVDA SANCHO EL FUERTE, 69	05/01/2010	341472	95,00	39.2.B LSV	
IRALA ESTEVEZ JON DE	BI-004464-BV	RIO EGA, 34	13/01/2010	5919	60,00	91.2.G RGC 39.2.C LSV	
IRIARTE TRABUDUA IGNACIO	NA-006588-AY	SAN JUAN BOSCO, 5	08/01/2010	650037	30,00	39.2.B LSV	
IRIGOYEN ARMENDARIZ ANGEL	NA-007774-AB	ESTACIONAMIENTO HOSPITAL D	10/02/2010	224	95,00	94.2 RGC 39.2.A LSV	
ITURRALDE GALECH RAUL	-005827-GDV	MUGAZURI, 8	08/01/2010	90300	120,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
JASO VILLALBA ARITZ	NA-004932-BC	PAULINO CABALLERO, 15 17	09/01/2010	7304	95,00	91.2.1 RGC 39.2.A LSV	
JDI BABA HALIMA	-007305-DLM	JUAN MARIA GUEL BENZU, 30	11/01/2010	686138	60,00	39.2.B LSV	
JIMENEZ BERMEJO EVA	-003810-BFV	ESQUIROZ, 29	05/01/2010	753745	30,00	39.2.B LSV	
JIMENEZ GAMEZ PEDRO	-005703-CHX	PAULINO CABALLERO, 24	04/01/2010	11104	95,00	91.2.G RGC 39.2.C LSV	
LAMELIN HUACA WALTER	SS-005350-AW	JOAQUIN BEUNZA, 13 FR	14/01/2010	11756	60,00	94.2.G RGC 39.2.G LSV	
LOPEZ SALAS JOSE	NA-002624-AF	PASEO SARASATE, 20	08/01/2010	11155	95,00	91.2.G RGC 39.2.C LSV	
LUQUE MOSCOSO BERNABE	NA-008321-AT	SEÑORIO DE EGULBATI, 19	28/01/2010	5661	60,00	94.2.G RGC 39.2.G LSV	
MANTEROLA OTAEGUI M. LUISA	NA-009057-AV	SEÑORIO DE AMOCAIN	30/01/2010	8711	60,00	91.1 RGC 38.3 LSV	
MARIN CHOCARRO NARCISO CRUZ	NA-005081-AM	PEDRO DE URSUA, 6	05/01/2010	170229	180,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
MARTINEZ-IRUJO GARCIA JESUS	-009625-DCM	NAVAS DE TOLOSA, 27	14/01/2010	429533	30,00	39.2.B LSV	
MINA MEDIAVILL ARITZ	-001567-FRB	AOIZ, 17 C	04/01/2010	356018	60,00	39.2.B LSV	
MUÑOZ BERRIO JUAN LUIS	-002514-FVC	MONASTERIO DE URDAX, 6	19/01/2010	550797	60,00	39.2.B LSV	
NOSTI IZQUIERDO JAVIER	-004335-FML	DUQUE DE AHUMADA	10/01/2010	4788	95,00	91.2.M RGC 38.3 LSV	
OLLETA RODRIGO DAVID	-005775-BXZ	DUQUE DE AHUMADA, 3	22/01/2010	9114	60,00	91.2.M RGC 38.3 LSV	
ONCO SANTESTEBAN IRANTZU	-009732-CYW	AVDA MARCELO CELAYETA, 88	08/02/2010	7371	95,00	91.2.G RGC 39.2.C LSV	
ORDUÑA GURREA ALFREDO	-005643-BZZ	AVDA SANCHO EL FUERTE, 14	04/01/2010	710685	60,00	39.2.B LSV	
OZCOIDI ARETA DANIEL	-008441-GJT	MEDIA LUNA, 2	15/01/2010	419355	30,00	39.2.B LSV	
PEREZ SANCHEZ JESUS	-008182-DBL	DE ITURRAMA, 14	08/01/2010	341473	60,00	39.2.B LSV	
PLANILLO ZUBIRIA DAVID	SS-002975-BD	DE ITURRAMA, 14	18/01/2010	235221	60,00	39.2.B LSV	
PLANILLO ZUBIRIA DAVID	SS-002975-BD	ABEJERAS, 17	20/01/2010	212258	60,00	39.2.B LSV	
QUIRANTE MORENO BEATRIZ	-000467-GBC	MUGAZURI	28/01/2010	10304	60,00	91.1 RGC 38.3 LSV	
RADULESCU SAMUEL	NA-003137-AD	VINDANGOZ	23/01/2010	11755	60,00	94.2.E RGC 39.2.E LSV	
RASCANU LIVIU VASILE	BI-002588-CS	PINTOR CRISPIN, 1	16/01/2010	721270	60,00	39.2.B LSV	
RECLUSA SORBET EDUARDO MANUEL	-000186-FRT	ARALAR, 24	18/01/2010	467717	30,00	39.2.B LSV	
REY BROTTO EUSEBIO JOSE	-004827-FYC	AOIZ, 8	13/01/2010	483631	30,00	39.2.B LSV	
RIVAS POYO ANGEL	NA-006508-AB	SAN JUAN BOSCO, 1	20/01/2010	553118	30,00	39.2.B LSV	
RUIZ DE QUIÑONES EDITH FANNY	-006655-BZD	DE ITURRAMA, 43	11/01/2010	384888	60,00	39.2.B LSV	
SALDISE MEDINA ROBERTO	-007389-BWF	SAN JUAN BOSCO, 1	01/01/2010	11752	60,00	94.2.E RGC 39.2.E LSV	
SANCHEZ GARCIA JESUS	NA-009180-AG	PAULINO CABALLERO, 15	07/01/2010	12005	60,00	91.2.G RGC 39.2.C LSV	
SANCHEZ GONZALEZ ANTONIO	NA-006273-AW	AVDA ZARAGOZA	04/01/2010	170216	180,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
SANCHEZ MARTINEZ ESTEBAN	-001635-FJY	MUGAZURI, 8	08/01/2010	90299	180,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
SANCHEZ PUEYO SERGIO	-001085-BFK	JUAN MARIA GUEL BENZU, 16	15/01/2010	603629	30,00	39.2.B LSV	
SANCHEZ REMON JORGE	-005585-BFS	PZA SANTA MARIA LA REAL	02/01/2010	12455	60,00	39.2.B LSV	
SANCHEZ TINOCO FRANCISCO	NA-001443-AK	AVDA PIO XII, 13	07/01/2010	763741	30,00	39.2.B LSV	
SANTIAGO VELASCO SERGIO	-009455-BGH	NAVAS DE TOLOSA, 9	17/01/2010	7255	60,00	91.2.M RGC 38.3 LSV	
SERRANO JIMENEZ JUAN	-009970-GKY	TAFALLA, 5	14/01/2010	374739	30,00	39.2.B LSV	
SOLOZANO GARCIA FRANCISCO	-004177-GBM	MONASTERIO DE URDAX, 26	25/01/2010	13505	95,00	91.2.H RGC 38.3 LSV	
STAN JURCA	M-001422-OY	FRANCISCO BERGAMIN, 47	05/01/2010	443580	30,00	39.2.B LSV	
STEFAN GHEORGHE	SS-003595-BC	AVDA JUAN PABLO II	21/01/2010	170265	180,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
TORRADO GONZALEZ OSCAR	-003874-FPF	ABEJERAS, 15	07/01/2010	597831	60,00	39.2.B LSV	

INFRACTOR	MATRICULA	LUGAR	DIA	EXPTE.	IMPORTE	INFRACION	PUNTOS
TUNDREA IOAN GHEORGHE	-001939-BDF	ARTICA	02/02/2010	7712	95,00	91.2.L RGC 38.3 LSV	
URRUTIA JIMENEZ CARLOS	-009217-GPD	TUDELA, 17	31/01/2010	16918	95,00	94.2.E RGC 39.2.E LSV	
URRUTIA RODRIGUEZ IGNACIO	-003193-CPB	EMILIO ARRIETA, 5 D	13/01/2010	271703	30,00	39.2.B LSV	
VALES HUARTE MIKEL	-007777-FPW	DESCALZOS, 81	07/01/2010	7102	95,00	91.2.M RGC 38.3 LSV	
VALLE DIEZ SANTIAGO	NA-007927-AS	BLAS DE LASERNA	19/01/2010	90552	180,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
VAZQUEZ VAZQUEZ SOLEDAD	NA-005889-AX	SANGUESA, 23	18/01/2010	620140	30,00	39.2.B LSV	
VILLALBA DE DIEGO SUSANA	-008103-DLY	BLAS DE LASERNA	28/01/2010	90662	180,00	50.1 RGC 19.3 LSV	
XU KAIHUI	-001693-GFP	ESQUIROZ, 22	03/02/2010	28811	60,00	39.2.B LSV	
YOLDI VALERO JOSE IGNACIO	-002002-DRP	MONTE MONJARDIN, 12	16/01/2010	775810	30,00	39.2.B LSV	
ZUASTI URBANO JOKIN JOSEBA	-002605-DNK	SEBASTIAN DE ALBERO	28/01/2010	5660	60,00	94.2.E RGC 39.2.E LSV	
ZUBIAUR CARREÑO JUAN IGNACIO	-002277-FTF	AVDA PLO XII, 43	02/01/2010	689822	60,00	91.2.M RGC 38.3 LSV	
ZUBIAUR CARREÑO JUAN IGNACIO	-002277-FTF	LEYRE, 21	05/01/2010	408442	95,00	94.2 RGC 39.2.A LSV	

L1004458

**PAMPLONA****Edicto**

No habiendo podido practicarse la notificación de la resolución sancionadora en el expediente incoado que se detalla; de conformidad con lo dispuesto en la Ley del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y demás legislación aplicable, se publica el presente edicto en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de edictos del Ayuntamiento de residencia del denunciado.

Nombre y apellidos del sancionado: Francisco Javier Astrain Pascual D.N.I. 15772647. Fecha sanción: RUD 19-ENE-10 (13/DS). Motivo de la infracción: Expediente 40/872/2009 llevar animales de compañía sueltos en Paseo del Arga (San Jorge), el día 23/06/2009. Importe multa: 90,00 euros. Preceptos infringidos: Artículo 24.2.h de L.F. 7/1994.

Contra la citada resolución podrá interponerse optativamente uno de los siguientes recursos:

a) Recurso de reposición ante el mismo órgano autor del acto en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la notificación de este edicto.

b) Recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de la notificación de este edicto.

c) Recurso de alzada ante el Tribunal Administrativo de Navarra, dentro del mes siguiente a la fecha de la notificación de este edicto.

Así mismo, se manifiesta que el expediente se encuentra a disposición del interesado en las oficinas del Área de Desarrollo Sostenible sitas en calle San Saturnino, 2 donde podrá examinarlo de 8:00 a 14:00 horas en días laborables.

Pamplona, 9 de marzo de 2010.—El Concejal Delegado de Urbanismo, Vivienda y Desarrollo Sostenible, Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia.

L1004461

**DELEGACIÓN DEL GOBIERNO****Edicto de notificación**

Para su publicación en el Boletín Oficial de Navarra, de acuerdo con lo establecido en el Artículo 59,5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre (Boletín Oficial del Estado del 27 de dicho mes), de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y para que sirva de notificación al interesado cuyos datos aparecen en Anexo, se hace público que esta Delegación del Gobierno en Navarra ha dictado la resolución que se indica, advirtiéndole de su derecho a interponer Recurso Contencioso Administrativo en el plazo de dos meses, computados desde el día siguiente al de la publicación del presente Edicto, conforme a lo establecido en los Artículos 8.3 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa (Boletín Oficial del Estado del 14 de dicho mes), si bien con carácter potestativo podrá interponerse Recurso de Reposición previo ante el mismo órgano que dictó el acto recurrido, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente Edicto, conforme a lo previsto en los Artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común (Boletín Oficial del Estado del 27 del mismo mes), modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero (Boletín Oficial del Estado del 14).

Durante dicho plazo, se encuentra a su disposición el expediente referido, a fin de que pueda conocer su contenido íntegro, en la sede de este Centro, sito en Avenida de Guipúzcoa, número 40 de esta Capital (Artículo 61 de la citada Ley 30/1992).

Pamplona, 26 de febrero de 2010.—La Delegada del Gobierno en Navarra, (P.D.F. Artículo 16 LRJPAC), El Director del Área de Trabajo y Asuntos Sociales de Navarra, Carlos Vivanco Peña.

**ANEXO**

Trabajador extranjero: Hernan Patricio Fiallo Roden. Domicilio: Calle Vidángoz, 16, 4.º D, 31014 - Pamplona. Fecha: 16/02/2010. Acto comunicado: Denegación Autorización Residencia Permanente.

E1004488

**DELEGACIÓN DEL GOBIERNO****Edicto de notificación**

Para su publicación en el Boletín Oficial de Navarra, de acuerdo con lo establecido en el Artículo 59,5 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre (Boletín Oficial del Estado del 27 de dicho mes), de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y para que sirva de notificación al ciudadano extranjero cuyos datos aparecen en anexo, se hace público que el Director General de Inmigración, por delegación del Ministro de Trabajo e Inmigración ha dictado la resolución que se indica sobre el recurso de Alzada interpuesto por el interesado, advirtiéndole de su derecho a interponer Recurso Contencioso Administrativo en el plazo de dos meses, computados desde el día siguiente al de la publicación del presente Edicto, conforme a lo establecido en los Artículos 8.3 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa (Boletín Oficial del Estado del 14 de dicho mes).

Durante dicho plazo, se encuentra a su disposición el expediente referido, a fin de que pueda conocer su contenido íntegro, en la sede de este Centro, sito en Avenida de Guipúzcoa, número 40 de esta Capital (Artículo 61 de la citada Ley 30/1992).

Pamplona, 11 de marzo de 2010.—La Delegada del Gobierno en Navarra (P.D.F. Artículo 16 LRJPAC), El Director del Área de Trabajo y Asuntos Sociales, Carlos Vivanco Peña.

**ANEXO**

Trabajador extranjero: Ronald Bladimir Loor Zamora. Domicilio: Calle del Vallejo, 44, Bajo 31592 - Cintruénigo. Fecha: 25/02/2010. Acto comunicado: Inadmisión a trámite recurso alzada.

E1004499

**INSPECCIÓN DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL****Cédula de notificación.****Actas de infracción y liquidación**

De conformidad con lo previsto por el artículo 59.5 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y por no haberse podido practicar las notificaciones intentadas en domicilio conocido, se notifica por este medio a los sujetos responsables, que por esta Inspección les han sido practicadas las siguientes Actas de Infracción y Liquidación en materia de Seguridad Social, advirtiéndoles que de conformidad con el artículo 31.2 del Texto Refundido de la Ley General de la Seguridad Social, aprobado por el R.D.L. 1/1994, de 20 de junio, modificado por la Disposición Final Tercera de la Ley 26/2009, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2010 (Boletín Oficial del Estado de 24 de diciembre de 2009), en el plazo de quince días hábiles contados desde el siguiente a esta notificación, pueden presentar en las oficinas de esta Dirección Territorial-Inspección Provincial de Trabajo y Seguridad Social (Calle Monasterio de Cilveti número 4, 31071 - Pamplona), escrito de alegaciones acompañado de la prueba que estime pertinente, dirigido al órgano competente para resolver el expediente: Dirección Provincial de la Tesorería General de la Seguridad Social.

Por lo que se refiere al Acta de Liquidación, se comunica que podrá ser retirado en las oficinas de la Inspección Provincial de Trabajo y S.S. (Sección Sanciones) calle Monasterio de Cilveti, número 4 de Pamplona, o en cualquiera de las Administraciones de la Tesorería General de la Seguridad Social el impreso modelo TC1/30, a efectos del ingreso de la deuda reflejada en la misma.

Respecto al pago de la sanción contenida en el Acta de Infracción, con la reducción del 50% serán de aplicación las condiciones establecidas en los artículos 31.4 LGSS (R.D.L) 1/1994 y 34.2 R.D. 928/1998 utilizando el modelo de impreso TC/1, debidamente cumplimentado por el sujeto responsable.

En el supuesto de no formalizarse escrito de alegaciones, la tramitación del procedimiento continuará hasta su resolución definitiva.

Acta Infracción número: I31201000007041. Empresa: Construcciones y Reformas Napartxo, S.L. Localidad: Burlada. Importe: seiscientos veintiséis euros (626,00 euros).

Acta Liquidación número: 312010008001558. Empresa: Construcciones y Reformas Napartxo, S.L. Localidad: Burlada. Importe: treinta y tres euros con sesenta y ocho céntimos (33,68 euros).

Y para su publicación en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que lleguen dichas actas a conocimiento de los interesados, se emite el presente Edicto.

Pamplona, 5 de marzo de 2010.—El Director Territorial-Jefe de la Inspección Provincial de Trabajo y Seguridad Social, Guillermo Dachary Pagola.

E1004489

## INSPECCIÓN DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### Cédula de notificación. Actas de Infracción

De conformidad con lo previsto por el artículo 59.5 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y por no haberse podido practicar las notificaciones intentadas en domicilio conocido, se notifica por este medio a los sujetos responsables, que por esta Inspección les han sido practicadas las siguientes Actas de Infracción en materia de Seguridad Social, advirtiéndoles que de conformidad con el artículo 17.1 del Reglamento General sobre procedimientos para la imposición de sanciones por infracciones y para los expedientes liquidatorios de cuotas de la Seguridad Social, aprobado por R.D. 928/98 de 14 de mayo (Boletín Oficial del Estado de 3 de junio), en el plazo de 15 días hábiles contados desde el siguiente a esta notificación, pueden presentar escrito de alegaciones acompañado de las pruebas que estimen pertinentes, dirigido al órgano competente para resolver el expediente: El Director Territorial-Jefe de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social de Navarra, en calle Monasterio de Cilveti, 4 (31071 Pamplona - Iruña).

En el supuesto de no formalizarse escrito de alegaciones, la tramitación del procedimiento continuará hasta su resolución definitiva.

Acta número: I31201000004314. Empresa: Ruta, Petre. Localidad: Esquíroz. Importe: quinientos cuarenta y nueve euros con cuarenta y seis céntimos (549,46 euros).

Acta número: I31201000006940. Empresa: Construcciones y Reformas Napartxo, S.L. Localidad: Burlada. Importe: seiscientos veintiséis euros (626,00 euros).

Y para su publicación en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que lleguen dichas actas a conocimiento de los interesados, se emite el presente Edicto.

Pamplona, 5 de marzo de 2010.—El Director Territorial-Jefe de la Inspección Provincial de Trabajo y Seguridad Social, Guillermo Dachary Pagola.

E1004490

## INSPECCIÓN DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

### Cédula de notificación. Actas de Infracción

De conformidad con lo previsto por el artículo 59.5 de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y por no haberse podido practicar las notificaciones intentadas en domicilio conocido, se notifica por este medio a los sujetos responsables, que por esta Inspección les han sido practicadas las siguientes Actas de Infracción en materia de Obstrucción Seguridad Social, advirtiéndoles que de conformidad con el artículo 17.1 del Reg. Gral. sobre procedimientos para la imposición de sanciones por infracciones y para los expedientes liquidatorios de cuotas de la Seguridad Social, aprobado por R.D. 928/98 de 14 de mayo (Boletín Oficial del Estado de 3 de junio), en el plazo de quince días hábiles contados desde el siguiente a esta notificación, pueden presentar escrito de alegaciones acompañado de la prueba que estimen pertinente, dirigido al órgano competente para resolver el expediente: El Director Territorial-Jefe de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social de Navarra, en calle Monasterio de Cilveti, 4 (31071 Pamplona - Iruña).

En el supuesto de no formalizarse escrito de alegaciones, la tramitación del procedimiento continuará hasta su resolución definitiva.

Acta número: I31201000002593. Empresa: Urdaniz Ostiz, María Ángeles. Localidad: Berriozar. Importe: seiscientos veintiséis euros (626,00 euros).

Acta número: I31201000006839. Empresa: Construcciones y Reformas Napartxo, S.L. Localidad: Burlada. Importe: seiscientos veintiséis euros (626,00 euros).

Y para su publicación en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que lleguen dichas actas a conocimiento de los interesados, se emite el presente Edicto.

Pamplona, 5 de marzo de 2010.—El Director Territorial-Jefe de la Inspección Provincial de Trabajo y Seguridad Social, Guillermo Dachary Pagola.

E1004491

## 6.2. PARTIKULARREN IRAGARKIAK

### NOTARIA DE DON ANTONIO LUIS VITORIA BLANCO

#### Anuncio

Hago constar que he sido requerido por doña María Gloria Sánchez Comes, vecina de Ablitas (Navarra), con domicilio en la finca objeto de la presente, para la tramitación de un acta de notoriedad por exceso de cabida referente a una vivienda en Ablitas (Navarra), en calle Cuevas de San Miguel, número 55.

Durante los veinte días siguientes a esta publicación los interesados podrán comparecer en mi despacho sito en Plaza Constitución, 3 de Tudela, para exponer y justificar sus derechos.

Tudela, 12 de marzo de 2010.—Antonio Luis Vitoria Blanco.

P1004633